

# IX. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

## Antolatzaileak:



GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA  
Kultur Elkarte



MAIZPIDE EUSKALTEGIA



LAZKAOKO UDALEKO  
KULTUR BATZORDEA

## Laguntzaileak:

Kultura eta Euskara Departamentua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskadiko Kutxa



Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusia



Lazkao, 2001

© Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte

Antolatzaileak:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte Elosegi 16, 1.a esk. 20210-LAZKAO Telef. 943-16 02 82 gee@euskalnet.net</li> <li>• Maizpide Euskaltegia Elosegi 40-bis Telef. 943-88 92 31 20210-LAZKAO</li> <li>• Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza z/g 20210-LAZKAO Telef. 943-88 64 08</li></ul>
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza.
Zuzendari Zientifikoa:	Joxemartin Apalategi Begiristain. Antropologo Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (EHU)
Euskara zuzentzailea:	Dionisio Amundarain.
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
Laguntzaileak:	Gipuzkoa Donostia Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Gipuzkoako Foru Diputazioa.
Egilea:	Irene Hurtado Mendieta.
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga.
Inprimategia:	Lizarra inprimategia.
1. argitalpena:	2001eko apirilean. 700 ale.
I.S.B.N.:	84-922191-7-3
L.G.:	NA. 584-2001

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituroic*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitarateko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



*Segura de la Valle de Segura, Guipuzcoa, vista por el alto de San Sebastian.*

XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizal etxe koadro bati ateratako argazkia.



## SARRERA

Hamaseigarrenarekin gatoz, lehenengoarekin etorri ginenean bezain pozik etorri ere. Haurra nola pozten da oinetako berriak janzen dizkiotenean, ba halaxe gatoz gu ere besapean liburua hartuta!

Izan ikasle, izan irakasle edota irakaskuntzatik aparteko langile, edonork, lane-rako gogoa duen edonork du lekua Gerriko Ikerlan Sariketan.

Gai aldetik ere mugaketa bakarra dago: Goierri bailara eta goierritarrak aztertu behar dira.

Ikertzailea nonahikoa izan litekeela diote oinarriek eta IX. ediziora ikerlana aurkeztu eta saritu genuena Goierritik “urrutikoa” da, Sodupekoa, Bizkaiko mendebaleko muturrekoa hain zuzen.

Lehenengo harritu egin gintuen hain urrunetik Goierriko hizkerari buruzko hain lan zehatza, osoa eta ona egin zuela jakiteak. Eta segidan poza sentitu genuen, benetan poztu gintuen Sodupen jaio, Gasteizen Euskal Filologian Lizentziatu eta itzulpen-lanak egiten ari zen gaztea horrelako lana egitera ausartu, Gerriko Ikerlan Sariketara aurkeztu eta saria irabazteak.

Irene Hurtado Mendieta ikertzaile eta langile fin agertu zaigu. Epaimahaikoek emandako aholkuei kasu egin, ikerlana osatu eta bere lehen liburua argitaratu du. Goierriko hizkera kokatzen laguntzeko beste urrats bat. Ez da lehena eta ez da azkena ere izango, noski, oraindik zer aztertua bai baitago arlo horretan.

Zorionak Irene eta zure lehen liburua bihur bedi beste ikertzaileentzat aztergai eta zuretzat ez bedi azken argitalpena izan. Segi ikertzen, segi lanean eta argitaratu beste liburu asko!

Talde-lana da Ikerlan Sariketa hau arrakastaz aurrera ateratzen duena, talde eta pertsona askori esker ari gara Goierri eta goierritarrei buruzko liburu bilduma ederra osatzen. Sarrera honetan aipatu behar ditugu IX. edizioan lanean aritutakoak:

- Epaimahaikideak:  
Luix Mari Mujika Urdangarin, filologoa, idazlea, EHUko irakaslea eta Euskaltzaindiko Literatura Batzordeko kidea.  
Xabier Kaltzakorta, filologoa, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Euskaltzaindiko urgazlea eta Herri Literatura Batzordeko kidea.
- Zuzendari Zientifikoa:  
Joxemartin Apalategi Begiristain, antropologoa eta EHUko irakaslea.
- Koordinatzailea:  
Mari Joxe Madariaga Irastortza, GEEko dinamizatzailea.
- Euskara zuzentzailea:  
Dionisio Amundarain Sarasola.
- Antolatzaileak:  
Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea  
Maizpide Euskaltegia  
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea
- Laguntzaile ekonomikoak:  
Gipuzkoa Donostia Kutxa  
Euskadiko Kutxa  
Gipuzkoako Foru Diputazioa

Guztiori zorionak eta eskerrik asko. Orain goza ezazue irakurketan eta zabal ezazue liburua zuen inguruan. Zuek zeuok eta zuen ingurukoak ikerketan jarraitzera bideratzen badituzue, erabateko arrakasta lortuko dugu. Animo ba!

**ANDONI SARRIEGI**

GGE Kultur Elkarteko Lehendakaria.

**MARIAN BIDEKAIN**

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria.

**GORKA LAMY**

Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua.

**GOIERRIKO ETA  
TOLOSALDE HEGOALDEKO  
HIZKERAK**

*Liburu hau eskaini nahi diet  
euskara maitatzen irakatsi zidatenei:  
aitari, amari  
eta aitite-amamak zirenei.*





# GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKERAK

«Ez dakit zergatik dan, bañan beti ere egia da gure goierriarrak patxaratsuagoak dirana beterritarrak baño. Berdin gertatzen da Gipuzkoa'n nola Bizkaia'n. Bermeo ez da Zeanuri Bizkaia'n. Ezta Ondarribi ere ez da Segura edo Zegama Gipuzkoa'n. Beterrian beti ere azkarrago itz egiten da. Goierrian astiroago. Bizi ere, bear bada, alaxe egiten da. Itxas-erriak batez ere, azkarrago bizi bearra izaten dute. Baserrietan patxara ohea izan oi da. Neguan batikbat. Lantegi-erriak ere itxas-erriak bezela, bizikera lasterragoa dute. Gaur dan egunean batez ere. Ibilli, eta jan... eta bizi: dana, azkar eta lasterka —zinean bezela—. Baserrietan bestelako asti bat artu oi da guztitarako... Goierri degu, berriz, Gipuzkoa'n itxasotik urrutien dagon, eta lantegi gutxiago duan erri-alde, baserri-bizitzak garbiago irauten duan errialde jator: Goierri.

Orregatik da Goierri, astiro itz egiten dan erri.

Orregatik uste det nik baita Goierri dala Tolosa'ko patxaraz itz egitearen iturri: iturri bat. Goierrian ez dagolarik ere, Goierriren muga-mugan bait-dago Tolosa.»

(Lekuona, Manuel, 1956, "Tolosa'ko euskera", 172 or.)



## AURKIBIDEA

<b>I. SARRERA</b> .....	17
1.1. ATARIKOA.....	17
1.2. ESKERRAK EMANEZ .....	18
1.3. LABURTZAPENAK ETA ARGIBIDEAK.....	19
1.4. LANABES ETA ITURRI BIBLIOGRAFIKO ERABILIAK .....	20
<b>II. GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKERAK</b>	
<b>2.1. GOIERRI ETA TOLOSALDEA</b> .....	22
<b>2.2. GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKEREN KOKAPENA</b> .....	29
2.2.1. Larramendi.....	29
2.2.2. Bonaparte.....	31
2.2.3. Bonaparteren ondorengo egile batzuk.....	32
2.2.4. Irizar.....	33
2.2.5. Zuazo .....	34
2.2.6. Azurmendi .....	34
2.2.7. Hitzunen iritzia .....	35
<b>2.3. MENDEBALAREKIKO HIZKUNTZA MUGA NABARMENA ETA HIZKUNTZA AURREIRITZIEN ERAGINA</b> .....	43
<b>2.4. HIZKUNTZA EZAUGARRIAK</b> .....	50
1. <i>FONOLOGIA</i> .....	50
1.1. BOKALAK.....	50
1.1.1. -a berezkoaren egonkortasun eza.....	50
1.1.2. Bokal luzeak.....	52
1.1.3. Hiatoetako bilakabideak.....	53
a) `a > e / i, u (C)___` asimilazioa .....	54
b) e + V > i eta o + V > u disimilazioak.....	57
c) /i__V/ arteko [j] epentesia eta /u__V/ arteko [b] epentesia.....	58
d) Hitz-oina -a + a > -a / -ea / -aa / -á.....	61
e) -e > -a nahasmendua.....	62
f) Mugatzailearen asimilazioa .....	63

g) *a + e elkarketa > a / e.....	65
1.1.4. U > o eta i > e bilakabideak.....	65
1.1.5. Bokal atonoen galerak eragindako bilakabideak: aferesiak eta sinkopak .....	66
1.1.6. *Edun aditzaren -e- erroa.....	66
1.1.7. Izan aditzaren -e- erroa .....	67
1.2. KONTSONANTEAK .....	67
1.2.1. VdV > VrV (eta VrV > VdV) bilakabidea .....	67
1.2.2. [x] ebakera.....	68
1.2.3. Erdal -onem > -oi / -on eta erdal -ción > -zio .....	69
1.2.4. F (b) > p bilakabidea.....	69
1.2.5. Txistukarien bi sailen arteko neutralizazioa .....	71
1.2.6. Ozenen osteko txistukariak .....	74
1.2.7. Hitz hasierako txetxekari afrikariak .....	74
1.2.8. Asimilazio bustidura .....	75
1.2.9. 'Vj + z, tz > V + x, tx' asimilazio bustidura.....	77
1.2.10. Bustidura adierazgarria .....	77
1.3. AZENTUA .....	78
2. IZENAREN MORFOLOGIA .....	79
2.1. Partitiboa, partizipioa, perpaus konpletiboak eta modu- perpausak inesiboan.....	79
2.2.  Soziatiboko morfema.....	81
2.3.  Destinatiboko -endako morfema .....	81
2.4.  Ablatibo singularreko eta motibatiboko morfemak .....	82
2.5.  Ablatibo pluralean eta mugagabeen -(e)tatik .....	85
2.6.  Hurbiltze adlatiboan -ru(n)tz morfema .....	85
2.7.  Erakusleak .....	86
2.8.  Izenordain indartuak: neronek / neuk eta berak / erak.....	87
2.9.  Galdetzaileetan nor / zein > zein aukera bakarra .....	88
2.10. Nortzuk, zeintzuk, zertzuk pluraleko izenordain analogikoak	89
2.11. 'Edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordain zehaztugabeak	90
2.12. 'Zer edo zer' egiturako izenordainak .....	91
2.13. 'Baten bat' egiturako izenordain zehaztugabeak.....	91
2.14. Adberbioetan -ki eta -to.....	92
2.15. Adberbioetan -n.....	92
2.16. -xe txikigarria .....	92
3. ADITZAREN MORFOLOGIA .....	93
3.1. Nor-Nori-Nork sailean *-i- erroa.....	93
3.2.  Nor-Nori saileko adizkiak.....	93

3.3.	Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetako <i>z-</i> / <i>d-</i> .....	94
3.4.	* <i>Edun</i> -en hitano alokutiboetako <i>d-</i> .....	95
3.5.	Ahaleran, aginteran eta subjuntiboan <i>egin</i> / * <i>ezan</i> erroak	95
3.6.	Aditz trinkoen iraganaldian <i>-e-</i> / <i>-a-</i> erroa.....	97
3.7.	Aditzen pluralgileak.....	98
3.8.	<i>-te</i> / <i>-e</i> morfemak .....	99
3.9.	Plurala markatzen duen <i>-a</i> morfema.....	101
3.10.	Hirugarren pertsonako morfema iraganaldiko adizkietan .	102
3.11.	Geroaldia egiteko <i>-ko-</i> , <i>-go</i> / <i>-en</i> morfemak.....	102
3.12.	Aditzak objektu pluralarekin komunztadura duen.....	103
3.13.	Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailen arteko nahasketak.....	104
3.14.	Partizipio analogikoak.....	105
3.15.	Partizipioetako <i>-gi</i> morfema.....	106
3.16.	Partizipioetan <i>-ado</i> > <i>-a(d)u</i> , <i>-ido</i> > <i>-i(d)u</i> eta <i>-atu</i> > <i>- au</i> bilakabideak .....	106
3.17.	'Partizipioa + <i>-ta</i> ' egitura .....	108
3.18.	Aditzoina / partizipioa bereizketa .....	108
3.19.	Aditz-izenetako <i>-ten</i> / <i>-tzen</i> aldaerak .....	110
3.20.	<i>Joan</i> aditzaren <i>dijoa</i> tankerakoak.....	111
3.21.	<i>Eraman</i> aditza .....	112
3.22.	<i>Egin</i> aditzaren indargarri.....	113
3.23.	Zenbait aditzen erabilera: <i>irten</i> , <i>igo</i> eta <i>jardun</i> .....	114
3.24.	<i>Ari izan</i> aditzaren indarra.....	115
3.25.	<i>-ki</i> aditz atzizkia .....	115
3.26.	* <i>Edun</i> laguntzaile zereginetara baztertzeko joera.....	116
3.27.	Mugimenduzko aditzekin adlatiboa .....	116
3.28.	<i>-t(z)eke</i> & <i>-t(z)eka</i> aditz atzizkia .....	117
4.	<i>SINTAXIA</i> .....	117
4.1.	<i>Bait-</i> partikula .....	117
4.2.	Kausazko perpausetako 'aditza + <i>eta</i> ' eta 'aditza + <i>-(e)la eta</i> '	119
4.3.	Kausa-espikaziozko perpausetako <i>nola</i> .....	119
4.4.	Perpau konpletiboetako <i>-(e)na</i> .....	119
4.5.	Perpau konparatiboetako <i>-agoko</i> .....	121
4.6.	Perpau konparatiboetako <i>lain</i> .....	121
4.7.	Denborazko eta moduzko perpausetako <i>-(e)la</i> / <i>-(e)larik</i> ...	122
4.8.	Modu-perpausetan eta perpau konparatiboetan <i>bezala</i> / <i>lako</i> , <i>lakoxe</i> , <i>le(ge)z</i> .....	123
4.9.	Perpau kontzesiboetan <i>arren</i> eta motibatibo- eta helburu-perpausetan <i>-t(z)earren</i> .....	123

4.10.	Baldintzazko perpausetako <i>baldin</i> .....	124
4.11.	<i>Al</i> galdera-partikula.....	124
4.12.	<i>Bi</i> zenbatzailearen kokapena.....	125
4.13.	<i>Ala / edo</i> juntagailu hautakariak .....	126
4.14.	Orobatasuneko <i>zein</i> juntagailua .....	127
5.	<b>LEXIKOA</b> .....	128
5.1.	Aldaera lexikoak .....	128
5.2.	Lexikoa.....	135
2.5.	<b>ONDORIOAK</b> .....	142
2.6.	<b>GOIERRIKO ETA TOLOSALDEKO HIZKERAK</b> .....	156
2.6.1.	Zegamako hizkera.....	156
2.6.2.	Segurako hizkera.....	159
2.6.3.	Idiazabalgo hizkera .....	162
2.6.4.	Ezkio-Itsasoko hizkera.....	165
2.6.5.	Legazpiko hizkera .....	166
2.6.6.	Beasaingo hizkera .....	166
2.6.7.	Ataungo hizkera .....	170
2.6.8.	Lazkaoko hizkera .....	173
2.6.9.	Zaldibiako hizkera .....	174
2.6.10.	Ikaztegiako hizkera .....	182
2.6.11.	Amezketako hizkera .....	184
2.6.12.	Albizturko hizkera .....	186
2.6.13.	Belauntzako hizkera .....	187
2.6.14.	Tolosako hizkera .....	188
2.7.	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	191

# I. SARRERA

## 1.1. ATARIKOA

Ondoko lerroetan Goierriko eta Tolosaldeko hegoaldeko hizkeren azterketa dialektologikoa egin nahi dugu, azken mendeotan batu diren datuetan eta guk geuk bildu ditugunetan oinarrituta. Gure helburua ez da deskribapen zabal bat egitea, bitxikeria eta xehetasun guztiak bilduta alderdi horretako hizkerak nolakoak diren erakusteko. Helburu kontrastiboa dugu, hizkera horiek inguruko hizkeren artean duten kokagunea aztertu nahi dugulako. Gauzak horrela, balio dialektologikoa duten bilakabideak dira bereziki interesatu zaizkigunak, Goierriko eta Tolosaldeko hizkerak aldameneko hizkeretatik bereizteko edo eurekin batzeko balio dutenak, alegia. Hala, bada, Goierriko eta Tolosaldeko hizkeren artean dauden kidetasunei eta ezberdintasunei erreparatu diegu. Orain arte erabili izan den sailkapena berrikusteko asmoz (cf. Bonaparte 1863), gipuzkeraren iparraldeko eta hegoaldeko azpieuskalkien arteko mugari arreta berezia egin diogu. Eta bi alderdi horien bereizgarritzat jotzen diren bilakabideak aztergai dugun eremu dialektalean nola banatzen diren aztertu dugu.

Horretaz gain, aztergai ditugun hizkeretatik alboko herrien hizkeretara dagoen aldea aintzat hartu dugu. Izan ere, alderdi asko jartzen dira harremanetan, eta, beraz, beste alderdietako hizkuntza-ezaugarriek eragina izan dezakete gure eremuan: hain zuen, Beterrin, Nafarroako Leitza eta Araitz haranean, Urolaldean edo Deba ibarrean nagusi diren bilakabideak. Oro har, bilakabide batzuen hedadura eta egoera zehaztu nahi izan dugu. Beraz, orain arte ikerlariak erakutsitako datuak kontrastatu ditugu, isoglosek atzera edo aurrera egin ote duten jakiteko. Ildo beretik, aztergai dugun alderdian erdialdeko eta mendebaleko euskalkietan ageri diren berrikuntzak nola eta noraino hedatu diren aztertu nahi izan dugu.

Bestalde, gogoan izan behar da gaur egun Urolaldearekin batzen den Legazpi herria eta Tolosaldeko hegoaldea –Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Altzo, Amezketeta, Bedaio, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain– Goierri atxikirik azaldu direla antzinako nahiz arestiko sailkapenetan (cf. Larramendi 1969: 94). Gainera, hizkun-

tza-egoerari dagokionez, Larramendik eta bere ondokoek Goierriarekin batera sailkatu zuten eremu horretako hizkera. Bonapartek gipuzkeraren hegoaldeko azpieuskalkian sartu zuen Alegiatik mendebalera dagoen eremua. Era berean, Zuazok Goierriko euskarak gorde duen nortasuna eta homogeneousotasuna azpimarratu ditu, eta Tolosaldeko hegoaldeko hizkerak Goierriarekin jarri ditu harremanetan:

«Gipuzkoa barruan, azkenik, Goierriko hizkera nortasun handikoa dela ikusi dugu behin eta berriro. Hasteko, homogeneouso samarra da Goierri osokoa. Arestian esanenez, mendebaleko ezaugarri zenbait iristen dira bertara (batez ere sartaldeko ertzean dauden Zegama, Segura eta, bereziki, Legazpira) eta, ostera, Gipuzkoako gainontzeko hizkeretan zabaldu diren ezaugarrietako asko ez dira Goierriin hedatu. Azken gertakari bi hauek Urolaldeko hizkeretan ere nabari dira, baina Goierriin, gainera, Araban behiala mintzo zen euskararekiko lotura ere sumatzen da. Lotura hori Oñatin eta Leintz ibarrean ere ageri-agerian dago.» (1998d: 227).

Larramendik bezalaxe, eta hizkuntza-gertakizunez arduratu diren ikerlari guztiek legez, guk ere Tolosaraino bertaraino hedatuko dugu aztertze eremua. Hala, bada, administrazioz lantzean behin Goierriin eta gaur egun Tolosaldean sartzen diren hainbat herri aintzakotzat hartu ditugu.

## 1.2. ESKERRAK EMANEZ

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau egiten lagundu didaten goierritar eta tolosar guztiei, bereziki honako berriemaile eta laguntzaile hauei:

Joantxo Agirre beasaindarra, Agerri baserria, 1919.

Mari Karmen eta Rosario Amundarain ikaztegiak, Bentzuntzibar baserria, 1941 eta 1937.

Alaitz Amundarain ikaztegiak, 1977, kalekoa.

Dionisio Amundarain ibartarra, Bizkardo baserria, 1919.

Maria Arruabarrena belauntzarra, Aranguren baserria, 1927.

Pedro Arrue albizurtarra, Muñazpi baserria, 1927.

Joxemiel Azurmendi beasaindarra, 1954.

Natalia Begiristain ataurdarra (San Gregorio), Itzate baserria, 1919.

Mila Begiristain alegiarra, 1957, kalekoa.

Marian Bidegain mutiloarra<sup>1</sup>, Landarregei baserria, 1959.

---

<sup>1</sup> Mutiloan jaio zen, Gabiriarekin muga-mugan dagoen Landarregei baserrian; baina txikitatik, bi urtez geroztik, bizi izan da Gabirian. Horri dela-eta, bere datuak Gabiriako hizkeraren ezaugarritzat jo ditugu.



Joxe Eizmendi ikaztegiatarra, Muñu baserria, 1923.  
 Iñaxio Elozegi zaldibiarra, 1961, kalekoa.  
 Jabier Erauskin zaldibiarra, Urtsukorta, Abaltzisketako Larraitetik hurbil, 1932.  
 Sabino eta Jose Luis Etxabeguren anoetarrak, Katategi baserria, 1926 eta 1938.  
 Iosune eta Nerea Etxabeguren anoetarrak, Katategi baserria, 1973 eta 1975.  
 Aloña Galarraga idiazabaldarra  
 Eusebia Galarza amezketarra, Txikillo baserria, 1933.  
 Mari Paz Garmendia legorretarra, 1965, kalekoa.  
 Juan Garmendia tolosarra, Kale Nagusia.  
 Anttoni Irastortza zaldibiarra, Nazabalgoikoa, Lazkaomendi ondoan, 1921.  
 Fermina Irastorza izaskundarra, Gorotzu, 1921.  
 Larraitz Iztueta abaltzisketarra, Iriondo, 1971.  
 Izaskun Kamio ibartarra, 1933, kalekoa.  
 Antton Lakuntza tolosarra, Santa Klara kalea (gaur, Igaralde), 1924.  
 Mari Joxe Madariaga lazkaotarra, 1963, kalekoa.  
 Luis Mari Mujika lizartzarra, 1939, kalekoa.  
 Iñaki Murua gabiriarra, Agerre-etxemendi, 1956.  
 Koldo Oria elduaindarra, 1957, kalekoa.  
 Jexux Peñagarikano albizurtarra, Ostatua, 1959.  
 Nerea eta Igor Pikabea ikaztegiarrak, Bentzuntzibar, 1973 eta 1975.  
 Joxe Telleria albizurtarra, Artxutxa, Urkizu auzotik gertu, 1909-1999.  
 Laureano Telleria segurarra, Kale Nagusia, 1935.  
 Gregorio Ugartemendia tolosarra, San Blas, 1935.  
 Bautista Urkola anoetarra, Barrundi baserria, 1933.  
 Maixux eta Satur Zabala amezketarrak, Bedaio, Etxeberri baserria, 1961 eta 1963 (Baina txiki-txikiak zirela Amezketara joandakoak).

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet epaimahaiko Xabier Kaltzakorta eta Luis Mari Mujika irakasleei, lagunei eta etxekoei. Eta, bereziki, lan hau txukuntzen ondoan izan dudan eta etengabe lagundu didan Joxepa Madariagari, Tolosaldean beti laguntzeko prest egon diren Koldo Oriari eta Jexux Peñagarikanori, eta beti harrera ona egin didan Bentzuntzibarko Pikabea Amundarain sendiari.

### 1.3. LABURTZAPENAK ETA ARGIBIDEAK

#### Laburtzapenak eta siglak

Ablat.: ablatiboa

B: Bizkaiera

EAEL: *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*

EHHA: *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*

*EI: Erizkizundi Irukoitza*

Eki.: Ekialdea

Erd.: Erdialdea

Etn.: etnotestua

G: Gipuzkera

Gald.: galdera

GN: Goi-nafarrera

Mend.: Mendebala

Motib.: motibatiboa

Pl.: plurala

S: Zuberera

Sg.: singularra

### Argibideak

- *Mendebaleko euskalkia*: Bizkaian, Gipuzkoako Deba ibarrean eta Arabako eremu euskaldunean egiten den hizkera, Arabako ekialdekoa kenduta (Zuazo 1998). Orain arte, euskalki honi *bizkaiera* esan zaio.
- *Erdialdeko euskalkia*: Gipuzkoa gehienez (Deba ibarra kenduta) eta Nafarroako mendebalean egiten den hizkera, hau da, Basaburu Txiki gehienez, Araitzen, Larraunen, Basaburu Handian eta Imotzen (Zuazo 1998). Orain arte, *gipuzkera* esan zaio.
- *Basaburu Txikia* zortzi herrik osatzen dute: Arano, Goizueta, Areso, Leitza, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien.
- *Burunda* Sakanako ekialdean dago eta sei herrik osatzen dute: Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku.
- Deba ibarrean hiru eremu hauek ditugu (Zuazo 1999c):

*Debagoiena*: Oñati, Leintz ibarra (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate) eta Arabako Aramaio.

*Debaerdikoa*: Antzuola eta Bergara, eta Eibar aldea, hau da, Soraluze, Eibar, Elgeta, eta Bizkaiko Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzoa.

*Debabarrena*: Elgoibar, Mendaro eta Mutriku.

### 1.4. LANABES ETA ITURRI BIBLIOGRAFIKO ERABILIAK

Erabili dugun materialik zaharrena Larramendik egindakoa dugu (XVIII. mendekoa). Horren ondoren, Bonapartek XIX. mendean bildutako datuak daude

(Pagola 1995). Bonapartek berak eta Odriozolak (Legorretako apaizak) 1856an Legorretan jasotako hiztegi bat bada, “Diccionario inédito vasco-castellano de Jose M<sup>a</sup> Odriozola y L. L. Bonaparte” (Etxebarria J. M. & Etxebarria, C. 1990). Otaegi erretorearen (1767-1840) eskuizkribuak ere XIX. mendekoak dira, garai hartan Beizaman hitz egiten zen euskara ikusteko baliagarriak direnak (Otaegi, B 1993)<sup>2</sup>. XX. mendeari dagokionez, *Erizkizundi Irukoitzak (EI)* XX. mendearen hasieran jasotako informazio zabala erabili dugu. Bestalde, J. M. Azurmendik egindako bi ikerlanak aztertu ditugu: *Zegamako euskara* (1998) eta Barandiaranek Ataunen bildutako ipuinetan oinarrituta dagoen *Ataungo euskara* (1996), XX. mendearen hasierako hizkuntza-egoeraren isla dena. Barandiaranen Ataungo ipuin horiek erabili zituen Oñederrak ere Ataungo palatalizazioa aztertzeko (1990). Goierriko mendebalaren berri gehiago jakite aldera, Legazpiko Martin Ugarte Azurmendiren lana erabili dugu, *Legazpi barrutiko hitzen bilduma* (1993) izenekoa<sup>3</sup>. Datu berriagoak izateko, Hualdek Beasaingo azentuaz egindako azterketan dakarrena jaso dugu (1997: 130-140). Bestalde, Tolosaldeko hegoaldeari dagokionez, 1913an egindako Vienako grabazioetan, Lizartzan egindako transkripzio bat dago (Etxebarria 1992: 607-618); eta Holmer-ek *El idioma vasco hablado*-n (1964) ikertutako eremuen artean Tolosaldeko Gaztelu herria aukeratu zuen. Bi lan aurkitu ditugu Tolosako euskararen gainekoak: Lekuonak 1956an idatzitako “Tolosa’ko euskera” artikulua, eta Kandido Izagirrek Tolosa eta bere ingurumarietan 1967an bildu zuen hiztegia, “Tolosako Euskeraren Iztegirako gaiak”. Azken urte hauetan Etxebarriak aztergai dugun eremuan jaso dituen testuak aztertu ditugu, *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak* lanean (1983) bildutakoak. Horiekin batera, *Euskalherriko Atlas Etno-Linguistikoaren* bi liburukiak (*EAEL I*, 1983; *EAEL II*, 1990) eta *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)*, (1999) ere erabili ditugu. Aditzen gaineko informazio handia Irizarren liburuetatik (*Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 liburuki, 1981; eta *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)*, 2 liburuki, 1991) eta Bähr-en artikuluetatik (“Estudio sobre el verbo guipuzcoano”) jaso dugu. Azkenik, guk geuk eremu horretan jasotako datuekin osatu dugu azterketa. Datu horiek apurka-apurka joan gara biltzen, Goierri eta Tolosaldean, baina, bereziki, 1998ko udan eta 2000.ean egindako alor-lanetan jaso ditugu.

<sup>2</sup> Izan ere, Bonapartek gipuzkeraren iparraldeko azpieuskalkiaren Tolosako hizkeran sartu zuen Beizamako hizkera (Errezilgoa, aldiz, Azpeitiko hizkeran). Irizarrek ere azpieuskalki bereko Tolosako hizkeran kokatzeaz gain, hizkera horren mendebaleko aldakian sartu zuen Beizama, Bidania-Goiatzekin, Albizturrekin eta Alkizarekin batera.

<sup>3</sup> Bonapartek gipuzkeraren hegoaldeko azpieuskalkian sartu zuen Legazpiko hizkera, Goierrikoarekin batera (Urretxu eta Zumarragoak, berriz, gipuzkeraren iparraldeko azpieuskalkiaren Azpeitiko hizkeran sartu zituen).



## II. GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKERAK

### 2.1. GOIERRI ETA TOLOSALDEA

Lan honetan Gipuzkoako hego-sartaldeko eskualdeak aztertu nahi ditugu: Goierri eta Tolosaldea. Eustat-en arabera (1996), ondoko herriek osatzen dituzte bi eskualde horiek:

- *Goierri*: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.  
Nolanahi ere, Legorreta Goierriarekin batera sailkatu ohi da, eta, maiz, Urretxu, Zumarraga eta Legazpi herriak Urolaldearekin elkartzen dira.
- *Tolosaldea*<sup>4</sup>: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

Indartsu dago euskara aztergai dugun eremu osoan. Alabaina, garai batean etorritako inmigrazioaren eragina nabaria izan da herri gehienetan, batez ere behealdean eta errepide-sarearen ondoan dauden herri handietan. Izan ere, Goierri eta Tolosaldean bi eremu ezberdin behar ditugu. Batetik, industria gehiena dagoen

---

<sup>4</sup> Guk *Tolosaldeko iparraldea* esaten diegu Tolosatik iparraldera dauden herriei eta *Tolosaldeko hegoaldea* Tolosatik hegoaldera daudenei, hau da, Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain herriek osatzen duten alderdiari. Baina, batzuetan, Tolosatik hegoaldera dauden herri guztiek bat egiten dute multzo horrekin: Nafarroa aldera dauden Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Leaburu, Lizartza eta Orexa; eta Urolalderantz dauden Albiztur, Beizama eta Bidania-Goiatz.

alderdia dago, ibarraren behealdean, Oria ibaiaren ertzetan, Ordizia-Beasain eta Tolosa-Andoain gunetan zabaldu dena: Olaberria, Lazkao, Ormaiztegi, Itsasondo, Legorreta, Alegia, Ibarra, Anoeta... Beste aldetik, herri txikiagoak daude, mendialdean kokatuta, industria-eremutik kanpo eta komunikabideetatik aparte: Zerain, Mutiloa, Gabiria, Arama, Alzaga, Gaintza, Abaltzisketa, Orendain, Altzo... Industria dagoen alderdian biztanleriak nabarmen egin zuen gora 1950 eta 1980 bitartean emigrazioa zela-eta; bigarren eremuan, berriz, biztanleriak bere horretan iraun du. Horrek guztiak eragina izan du hizkuntza-gertakizunetan. Baina, herri handiak eta industria-sare garrantzitsua egon arren, Goierri eta Tolosaldean euskara osasuntsu dago eta indarra eta prestigioa ditu.

Hona hemen euskaldunen kopuruak bi eskualdeetan (Eustat 1996):

• Goierri eta Tolosaldea:

	<b>Guztira</b>	<b>Euskaldunak</b>	<b>Ia euskaldunak</b>	<b>Erdaldunak</b>
Gipuzkoa	663.914	330.230	119.217	214.467
Goierri	63.370	37.589	8.845	16.936
Tolosaldea	43.465	31.418	5.752	6.295

• Goierri:

<b>Herria</b>	<b>Guztira</b>	<b>Euskaldunak</b>	<b>Ia euskaldunak</b>	<b>Erdaldunak</b>
Alzaga	92	89	2	1
Arama	155	138	14	3
Ataun	1.569	1.508	35	26
Beasain	12.088	6.799	1.635	3.654
Ezkio-Itsaso	531	485	35	11
Gabiria	417	394	14	9
Gaintza	133	129	4	-
Idiazabal	1.995	1.705	171	119
Itsasondo	611	504	55	52
Lazkao	4.783	2.943	611	1.229
Legazpi	9.118	4.994	1.337	2.787
Mutiloa	166	154	9	3
Olaberria	1.001	520	121	360
Ordizia	8.949	5.071	1.666	2.212
Ormaiztegi	1.161	942	124	95
Segura	1.241	1.085	84	72
Urretxu	6.132	3.051	1.070	2.011
Zaldibia	1.534	1.356	75	103
Zegama	1.325	1.219	63	43
Zerain	231	222	6	3
Zumarraga	10.138	4.281	1.714	4.143

• Tolosaldea:

Herria	Guztira	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
Abaltzisketa	256	247	9	-
Aduna	306	279	16	11
Albiztur	288	285	3	-
Alegia	1.631	1.387	139	105
Alkiza	257	245	8	4
Altzo	311	305	6	-
Amezqueta	982	921	47	14
Anoeta	1.732	1.246	226	260
Asteasu	1.166	1.011	84	71
Baliarrain	92	91	1	-
Belauntza	282	247	25	10
Berastegi	910	878	21	11
Berrobi	550	448	52	50
Bidania-Goiatz	413	389	17	7
Elduain	226	219	7	-
Gaztelu	141	138	3	-
Hernalde	296	259	24	13
Ibarra	4.232	2.874	580	778
Ikaztegieta	374	332	8	34
Irura	701	551	83	67
Larraul	131	131	-	-
Leaburu	375	340	27	8
Legorreta	1.404	1.029	133	242
Lizartza	635	617	13	5
Orendain	154	152	2	-
Orexa	78	76	1	1
Tolosa	17.660	11.537	3.060	3.063
Villabona	5.251	3.496	885	870
Zizurkil	2.631	1.688	272	671

Goierrik eta Tolosaldeak Urolaldea dute iparraldetik, Beterri ipar-ekialdetik, Deba ibarra mendebaletik, Arabako ipar-ekialdea eta Nafarroako Sakana hegoalde-  
tik, eta Nafarroako Araitz eta Basaburu Txikia hego-ekialdetik. Eta, jakina, inguruko  
eskualde horiekin dituzte harreman gehienak, bai orain baita aspaldiko garaietan ere.

Gertakari historikoeak, orografiaren zer-nolakoak, komunikabideen garapenak,  
komunitate batek auzokoeekin izandako harreman urriek edo ugariek, hiriburua eta  
merkataritza-gunea izateak eta beste arlo batzuek eragina izaten dute hizkuntza-ger-  
takizunetan. Hala, bada, ondoko lerroetan, labur bada ere, eragile batzuk aipatu nahi  
ditugu.

Aztergai dugun eremuan, antzina-antzinatik, hiru gune nabarmendu dira: Tolosa, Ordizia eta Segura hiribilduak. Hiri horiek urte berean sortu ziren, 1256.ean, Nafarroako muga zaintzeko –1200.ean, Gipuzkoa Nafarroatik bereizi eta Gaztelaren eskuetara igaro zenean, Nafarroako erresuma arerio bilakatu baitzen Gipuzkoarentzat–. Garai batean, hiru hiri horiek egundoko garrantzia izan zuten eta herri txiki asko bildu ziren beren baitara, jauntxoen eta nafarren erasoetatik babesteko. Ordiziak, Goierriko sortaldeko herriak batu zituen: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Legorreta eta Zaldibia. Segurak Goierriko sartaldea eta, gaur egun, Urolaldera sartzen diren zenbait herri bildu zituen: Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa, Ormaiztegi, Urretxu, Zegama, Zerain eta Zumarraga herriak, eta Gudugarreta eta Astigarreta (Beasain) auzoak. Eta Tolosak, bere sasoirik indartsuenean, gaur egun Tolosaldea osatzen duten herri guztiak batu zituen: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa eta Zizurkil. 1512an Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zuenean, muga desagertu zen. Hala, Tolosak, Segurak eta Ordiziak zuten garrantzia gainbehera hasi zen, nafarren erasoak amaitzeaz gain, jauntxoen arriskua ere desagertu zelako eta, ondorioz, herri txikiak hiru hiribildu nagusietatik bananduz joan zirelako.

Baina, nolana ere, hiri horiek izan duten garrantzia azpimarratu nahi dugu, gaur egun ere, –gehienbat, Tolosak eta Ordiziak, Beasainekin batera– biztanle kopururik handiena dutelako eta administrazio-, zerbitzu- eta merkataritza-gune izaten jarraitzen dutelako: Goierriko Ordizia-Beasaingo gunean daude zerbitzu gehienak eta, hala, Goierriko herrietako lagunak bertara joaten dira merkataritza-, administrazio-, salerosketa-, irakaskuntza- eta osasun-kontuetarako. Tolosaldean, Tolosa da hiriburua eta inguruko herrietakoek hara jotzen dute eginkizun horiek betetze aldera. Tolosaldeko hegoaldeko herrietako biztanleek (Alegia, Altzo, Amezketa, Abaltzisketa, Ikaztegieta, Orendain eta Baliarraingoek) maizago jotzen dute Tolosara Ordiziara baino; Legorretakoek, aldiz, Ordiziarako joera dute. Garrantzi handikoa da hiribildu horiek inguruetako herriengan izan duten eta duten eragina, dialekto edo hizkera batek egiten dituen berrikuntzak erdigune batetik abiatzen baitira, sarritan administrazio- eta merkataritza-gunea izaten dena. Ikaztegietar batek paratutako ondorengo hitzak Tolosaldeko hegoaldeko herrien egoeraren isla dira<sup>5</sup>:

«Nolabait, bi eskualderen artean dago Ikaztegieta, Tolosaldea eta Goierriren artean hain zuzen ere, eta hizkera eta beste alor batzuetan bien eragina jasaten du (...). Esan, herritar gehienak bai aintzinean baita orain ere Goierri aldera joaten direla azokara.

---

<sup>5</sup> Ikaztegieta Alaitz Amundarain, 2000ko udan.



Asteazkenero 'Ordiziko perira' joateko ohitura handiagoa dago, larunbatetan Tolosara baino askoz ere gehiago. Garai batean gehienak Ikaztegieta ikasten zutenarekin konformatzen ziren baina orain haur gehienak Ikaztegieta ikasketak amaitu ostean Tolosaldera joaten dira beraiekin jarraitzera. Herriko festak ere oso garrantzi handikoak izan dira Euskal Herrian. Beste herrietako jendea ezagutu eta haiekin alkartzeko aukera ezin hobea izan zen garai batean eta orain (...) aintzinako asmo berdintsuarekin joaten gara herriko festetara. Ikaztegietatik bai Tolosaldera baita Goierri aldera joateko ohitura izan da betidanik, beraz bi eskualdeetako lagunekin izan dugu harremana...»

Komunikabide-sareek duten norabideak eta garapenak hiztunen arteko hartu-emanaldintzatzen du, komunikabidea nolakoa den, harremana bakantzen edo estutzen delako. Aztergai dugun eremutik komunikabide-sarerik garrantzitsuenak igaro dira: Tolosa leku estrategiko batean sortu zen, Nafarroatik Gipuzkoako portuetara zihoazen bideak gurutzatzen ziren geografia-eremuan. Zegamako Oztzaurtetik, San Adrianera doan bidea abiatzen da, erromatarren garaietatik Gipuzkoaren eta Gaztelako mesetaren arteko igarobidea izan dena, erromesek eta era guztietako bidaiariek zeharkatua. XVIII. mendea arte, Gipuzkoako probintzia eta Araba, Nafarroa eta Gaztela lotzen zituzten biderik garrantzitsuenak Seguratik, Ordiziatik eta Tolosatik igaro ziren.

Bestalde, ferien eta azoken eragina nabarmendu behar dugu, bilgune garrantzitsuak izaten direlako. Tolosako merkatuak, esaterako, izugarritzko garrantzia izan du aspalditik, eta garai batean Gipuzkoako barrualdeko azokarik indartsuena izan zen. Lehenagoko mendeetan, kostaldetik ere bertaratzen zen jendea eta gaur egun Nafarroako ipar-mendebaleko ibarretako biztanleek –Araitz, Larraun, Basaburu Handi eta Imozko jendeak– joera nabaria dute Tolosako larunbateko azokara joateko (Olano 1998: 40). Antzina-antzinatik, azoka dela-eta, beste ibarretako lagunekin izan den harreman horrek arrastoa utzi du hizkuntza-gertakizunetan: Izagirre ohar-tu zenez, nabarra zen Tolosako hizkera, *naastuxea* eta batasunik gabekoa (1967: 157). Baina, Ordiziako *periar*en eragina ez da txikiagoa izan. Gaur egun, gainera, Ordiziakoa da inguruko azokarik garrantzitsuenak. Azoken eraginak administratziomugak gainditzen ditu maiz. Ordiziako feriaren inguruan argi ikusten da hori, goierritarrek hainbat tokitatik hurbildu diren erosleekin eta saltzaileekin izan dituztelako harremanak antzinatik: Sakana aldeko nafarrekin, Agurain aldeko arabarrekin, Legazpiko eta Zumarragako lagunekin, eta Tolosaldeko hegoaldeko biztanleekin.

Artzaintzaren bidez ere harreman-sareak sortu dira, hizkuntzan arrastoa utzi duten loturak. 1430ean sortutako Arabako eta Gipuzkoako Partzuergo Orokorra<sup>6</sup> Gipuzkoako lau herrik eta Arabako hiruk osatzen zuten: batetik, Segura, Zegama,

---

<sup>6</sup> Partzuergo horrek Urbia eta Oltzako larreak, Aizkorri, San Adrian, Altzania eta Goiburuko lurak batzen zituen.

Idiazabal eta Zerain herriek eta, bestetik, Donemiliaga, Agurain eta Asparrena ibarrek. Mugaz bi aldetako herri horien artean sortu zen harreman ekonomikoaren ondorioz, jende-mugimendu nabarmena izan zen batetik bestera: Arabako ipar-ekialdeak lotura estuak izan zituen Gipuzkoako Goierriarekin; bertako paperetan goierritar ugari agertzen da, batez ere, Idiazabal eta Zegama herrietatik bertaratutakoak (Altuna 1995: 89). Elkarrekin horrek gaur egun arte iraun du aldaketa sakonik izan gabe. Mugaz bi aldeetako artzainek larre horiek erabiltzen dituzte eta, itxura denez, ez dira bakanak jatorriz Segurakoak, Zegamakoak edo Idiazabalgoak diren eta Arabako ondoko herrietara (Gordoa, Galarreta...) ezkondu edo bizitzera joandako artzainak. Gainera, mugaz bi aldeetako artzain horiek, arkumeak edo gazta saltzeko-eta, Ordiziako azokara joan izan dira –eta joaten dira– gehienbat, baina baita Aguraingora ere (Aizpuru 1991).

Artzaintzak bezala, bestelako langintzek ere lokarriak josi dituzte hango eta hemengo lagunaren artean. Xabier Azurmendi zegamarrak dioenez, garai batean, Zegamatik Araba aldera joaten ziren, San Adriango pasabidea igarota, garia ebakitzera eta Aguraingo feriara (Azurmendi 1998: 162-163). Segura ingurutik ere Araba aldera joaten ziren garia ebakitzera:

«Bai, bai, emen, esate'izut, nik aittonai aitzen nion trozota juden'tzela gari ebaitzea, trozota<sup>7</sup> jute'tzela, bai, gari ebaitzea juden'tzen. Bai, emen gañea etzan ezer, familie aundik eta diru gutxi. Ta, ordun, ba, diru pixka baten billa juden'tzien Araba aldera, bai, nik aittonai aitze nion, trozota juden'tzela. Geo, pasatze zittuen gari'ebaitzen... lau illabete o pasa... Oiñez, gañea, juden'tzien, pardela artuta oiñez. Ta an txabolan batzutan, gari ebai ta diru pixka'ten billa... Eta, ordun, leikena da, ba, Arabatik... autza jun, andraaie ein o, au ura o...»<sup>8</sup>

Goierriko hego-mendebaleko lagunak Nafarroara joaten ziren segara (Iparragirre 1975: 24). Itxura denez, atandarrek, Arabara baino gehiago, Nafarroako ondoko ibarretara jo izan dute sarri<sup>9</sup>:

«-Na.: Eta, ba, gure garaien, ez, ori zan, zuk esaten dezuna, nere amaan-da garaien, esaten'tzuen, izugarria, oso ixtori politte esaten'tzittun nere amak. Juden'tzien udaran, neska-sallek, Barranka garie'bakitzea, ittaiekin e!, zuk jakingo'zu, ittaiekin gari'bakitzea. Gero, trankak-eta, arie ittea re bai. Baño, sekulako ixtorik gure amak kontatze...»

-Jx: Auzolan bezela airi laguntzea o?

-Na.: Ez, ez, dirue irabaztea, mantenu eta diru pixket ematen'tzien... nik eztakit sei erreale o ze izaten'tzan, ta ordun dirue izango zan, dana dirue zan ordun... (...)

<sup>7</sup> Trozoak: Arabako lursailak.

<sup>8</sup> Horrela kontatu zigun Laureano Telleria segurarrak 2000ko abuztuan.

<sup>9</sup> Guri horixe kontatu zigun Natalia Begiristain atandarrak, 2000ko abuztuan (Joxepa Madariaga lazkaotarrarekin hizketan).

Ezerrez baño geiago... Or dago, Irurzuna baño leenxeago, erritxo bat, beti an pasatzen, beti amakin... eske, politte da-ta, aber nola don izena?... Ekai. Ekai, ni beti erri txiki orrekiñ.»

Bestalde, geografia-baldintzak garrantzizkoak izaten dira. Batzuetan orografia menditsuko eremuetan haran bakoitzak bere dialektoa izaten du eta orografia lauko tokietan dialektalizazioa leunagoa izaten da, baina beti ez da horrela gertatzen. Izan ere, sarritan, mendiak inguru askotako biztanleen bilgune izaten dira. Aralar eta Aizkorri inguruko mendiak, antzina-antzinatik, artzainen, bidaiariaren, erromesen, bide-lapurren, kontrabandisten eta merkatarien igarobidea izan dira, eta bi aldeetako biztanleak, banatu beharrean, elkartu egin dituzte (Peña Santiago 1985: 229-230). Aitzitik, beti nabarmendu da Goierrik harreman urri izan duela Deba ibarreko herriekin. Orografia menditsua izateak eta mendien beste aldean azoka edo merkataritza-gune garrantzitsurik ez izateak etena ekarri du bi aldeetako biztanleen artean, eta zatiketa horrek hizkuntza-etena eragin du. Bähr-ek honela zioen Legazpi eta Oñati artean zegoen muga horretaz:

«A esta su situación de puesto más avanzado del guipuzcoano meridional contra el vizcaíno obedece su carácter particular, pues además de que se aparta en el verbo, fonetismo y vocabulario notablemente de las inmediatas variedades guipuzcoanas, presenta analogías con el vizcaíno, no muy numerosas en general, pues el contacto entre Legazpia y Oñate no debe haber sido muy estrecho antiguamente. Separan estos pueblos el monte Gorostimendi y el alto de Inunciaga, ambos muy elevados y de difícil tránsito en otros tiempos, siendo estas circunstancias geográficas la causa de que no haya quizás en todo el territorio vasco ejemplo tan manifiesto de divisoria de dialectos. En la costa hay notables transiciones del dialecto guipuzcoano al vizcaíno, sin perjuicio de poder establecerse un límite bien determinado; pero tierra adentro las concurrencias van siendo cada vez más escasas, llegando al extremo de que los habitantes de Legazpia (Guip.) no entienden a sus vecinos de Oñate, que ni viven sino a muy pocos kilómetros de ellos a línea directa.» (Irizar 1991: 167).

Hala, bada, goierritarrek eta tolosarrek arabarrekin eta nafarrekin nola halako harremana izan dute, baina lotura gutxi egon da Deba ibarreko lagunekin eta, itxurara denez, horrek eragina izan du hizkuntzan.

## **2.2. GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKEREN KOKAPENA**

### **2.2.1. Larramendi**

Gipuzkoa barruko hizkuntza-eremuei buruzko lehenbiziko aipamenen artean Larramendik egindakoak ditugu. Larramendik *Corografía de Guipúzcoa* lanean, euskalkien sailkapen txiki bat egiteaz gain, hizkerak ere aipatu zituen eta hizkuntza-ezaugarrien zerrenda bat egin zuen. Gipuzkoari dagokionez, *Goyerri* eta *Beterri* ize-

nak erabili zituen. Ordutik aurrera izen horiek funtsezkoak izan dira gipuzkeraren berri ematerakoan. Azal dezagun, bada, Larramendik Gipuzkoa administrazio-ikus-pegitik banatzeko eduki zuen irizpidea:

«Todos estos pueblos de Guipúzcoa tienen otro modo de división en tres distritos: *goyerri*, *beterri*, *costaldea* o *ichasalde*. El distrito desde Tolosa hasta Irún se tiene por *beerri* o *beterri*; y quiere decir país bajo o tierra inferior de Guipúzcoa. De Tolosa en derecha hasta Zegama, Salinas, Vergara, etc, se tiene por *goyerri*, país alto o superior de la provincia. Y toda la marina desde Orio hasta Motrico, con los lugares cercanos de tierra adentro se llama *costaldea*.» (Larramendi 1969: 94).

Larramendik Gipuzkoako hizkeren gainean hainbat datu aipatu zituen eta eremu batzuk bereizi zituen. Beterriri dagokionez, alde batetik, Irundik Erreteriarara bitarteko eremua nabarmendu zuen –lapurteraren eragin biziagoa zuena–, eta, bestaldekik, Donostiatik Tolosarainoko lurrak. Tolosatik harantz, Goierriko euskararen berezitasuna azpimarratu zuen eta, ipar-mendebalean, Azpeitiko euskararena. Azkenik, bizkaieraren eremuaren barrura sartu zituen Deba ibarreko herriak: Elgoibar, Eibar, Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Oñati lerrotik sartaldera daudenak. Ikus ditzagun zeintzuk diren Larramendik Gipuzkoa barruan ikusitako hizkuntza-ezberdintasunak (1969: 321). Ondokoak Beterriko hizkeraren bereizgarritzat jo zituen (alegia, Irundik Tolosara bitarteko eremukoak):

1. Fonologian, \**edun* aditzaren *-e-* erroa zegoen Donostia eta Tolosa bitartean (*det*, *dezu*, *degu*, *dezue*); Irun-Erreterria aldean, aldiz, *-u-* erroa zegoen.
2. Izenaren morfologian, ablatiboko *-tikan* Tolosakotzat jo zuen (cf. *oraindican*), eta adberbio horren aldaeren ugaritasuna azpimarratu zuen (*oraindic*, *oraindo*, *oraindio*, *oraño*).
3. Aditz morfologian, aditz iragankorren 3. pertsona pluraleko *-te* morfema (*dute*), baina 2. pertsona pluraleko *-e* morfema (*dezue*) aipatu zituen.
4. Lexikoan, zenbait aldaera eta hitz: *noasqui*, *noasqui* (*menturaz* eta *bearbada* hitzen orde) eta *barrena*, *barrenen* (Goierri eta Azpeitian erabiltzen ziren *barrua*, *barrura* eta *barruan*-en orde).

Goierriko bereizgarritzat ondokoak jarri zituen, fonologiakoak guztiak:

1. Mugatzailearen asimilazioa (behinik behin, absolutibo pluralean, eta *i* nahiz *u* bokalez bukatutako hitz-oinekin): *aundiic*, *chiquiic*, *escuuc*... (cf. Beterriko *andiac*, *chiquiac*, *escuac*).
2. Asimilazio horren ondorioz sortutako bokal luzeak: *guciic*, *buruuc*.
3. *-i* eta *-u* bokal itxien inguramenduz sortutako asimilazioa: *jaune* (cf. Beterriko *jauna*).

Urolaldekotzat, besteak beste, ondokoak azpimarratu zituen:

1. Fonologian, hitz-oina *-a + a* mugatzailea > *-ea* bilakabidea: *aitea*, *amea*, *damea*, *señorea*.

2. Aditzaren morfologian, \**egin* erroa aginterako Nor-Nori-Nork saileko adizkietan Gipuzkoan orokorra zela esan zuen, baina ondoko aldaerak hartu zituen Azpeitia aldekotzat: *eman eguidazu, esan eguidazu*.
3. Ondoko argibidea ere eman zuen: «aunque en Azpeitia y Tolosa se entienden bien los diversos modos de hablar.»

Hurrengoak bizkaieraren ezaugarritzat jo zituen, eta Eibarren eta Elgoibarren hasita mendebalerantz abiatzen zirela argitu zuen:

1. Izenaren morfologian, sozietibo singularreko (behinik behin) *-agaz* morfema: *buruagaz*.
2. Aditzaren morfologian, Nor-Nori-Nork saileko \**eutsi* erroa: *eman eutsan*.
3. Aditzaren morfologian ere, iraganaldian 3. pertsonako adizkiek *z-* morfema ez hartzea: *egin euen* (cf. *zuen*).

### 2.2.2. Bonaparte

Bonapartek (1863) erdialdeko euskalki-multzoan sailkatu zuen gipuzkera, goinafarrerarekin eta lapurterarekin batera. Gipuzkeraren baitan iparraldeko, hegoaldeko eta Nafarroako azpieuskalkiak bereizi zituen. Nafarroako azpieuskalkian, Burunda eta Etxarri-Aranazko hizkerak sartu zituen. Iparraldeko azpieuskalkian hiru hizkera atzeman zituen: Hernanikoa, Tolosakoa eta Azpeitikoa.

Tolosaldea, berriz, bitan banatu zuen, eta, horrenbestez, herri batzuk –Tolosaldeko iparraldea, Tolosa barne– iparraldeko azpieuskalkiko Tolosako hizkeran sartu zituen: Aduna, Albiztur, Alkiza, Andoain, Anoeta, Asteasu, Beizama, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orexa, Tolosa, Urnieta, Villabona eta Zizurkil. Tolosaldeko hegoaldeko herri gehienak, ostera, hegoaldeko gipuzkeran sartu zituen, Goierrikoekin batera. Izan ere, Aita Uriartek ondokoa adierazi zion Bonaparteri 1858an bidalitako gutun batean:

«En Beasaín, Villafranca, Itsasondo, Legorreta y Alegría se habla como en Goyerri. En Alegría es donde comienza el bascuence de Goyerri, aunque como pueblo limítrofe algunas palabras se dicen como en Tolosa, por consiguiente se dice: *animea, semea, mendie, otsoa, burue*. En los acabados en *a*, algunas veces dicen *anima*, pero más *animea* (...)» (Ruiz de Larrinaga 1954: 69).

Honako hauek guztiak sartu zituen gipuzkeraren hegoaldeko azpieuskalkian: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain (& Arriaran, Astigarreta eta Garin auzoak), Ezkioga eta Itsaso (gaur egun Ezkio-Itsaso), Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain, baita Abaltzisketa, Aldaba (Tolosa), Alegia, Altzo, Amezketak, Baliarrain, Bedaio (Tolosa), Ikaztegieta eta Orendain ere. Izan ere, Bonapartek gipuzkeraren hegoaldeko azpieuskalkian sartu zuen Alegiatik hegomendebalerako eremu guztia.

Azkenik, iparraldeko euskalkiko Azpeitiko hizkeran sartu zituen, batetik, Urretxu eta Zumarraga, eta, bestetik, Errezil.

Bestalde, Bonapartek ondoko hizkera bereziak nabarmendu zituen azpieuskalki horien barrenean: hegoaldeko azpieuskalkian, Zaldibiako, Legazpiko eta Ataungo hizkera; eta iparraldeko azpieuskalkiko Tolosako hizkeran, Andoaingoa, Berastegikoa (nafarrerarekin muga) eta Beizamakoa (Azpeitiko hizkerarekin muga).

### 2.2.3. Bonaparteren ondorengo egile batzuk

Bonaparteren ondorengo egileek Bonapartek ezarritako euskalki-banaketari eutsi zioten. Esaterako, XX. mendearen hasieran, Mujikak Tolosan kokatu zuen *gipuzkeraren* iparraldeko eta hegoaldeko azpieuskalkien arteko muga eta horretarako bost bilakabide (hiatoetako bilakabideak) hartu zituen aintzat: bere ustez, hiatoetako [j] eta [b] epentesiak, *ea* > *ia* eta *oa* > *ua* disimilazioak, eta *a* > *e* / *i*, *u* (C)\_\_\_ asimilazio eza iparraldeko azpieuskalkiaren ezaugarriak ziren; eta asimilazio hori betetzea, eta epentesien eta disimilazioen gabezia, ordea, hegoaldeko azpieuskalkiaren bereizgarria zen. Bestalde, bilakabide horien inguruan aurreiritzi ugari izan da: halakoak –Beterrikoak– hizkera onaren eredutzat hartu dira; eta bestelakoak –Goierrikoak–, sarritan, gaitzetsi dira. Mujikaren hurrengo hitzek badute horren kutsurik:

«Para nosotros el sub-dialecto meridional es el que se habla en la comarca comprendida entre Alegría de Tolosa y Legazpia y Astigarreta y los confines de Navarra: los demás pueblos comprendidos en el dialecto guipuzcoano, son los adscritos al sub-dialecto septentrional. Entre las diferencias que existen entre ambos sub-dialectos está la de que en el sub-dialecto septentrional, la vocal final es *á*, mientras que en el meridional es a veces *a* y otras *e*. (...) En el sub-dialecto septentrional después de la *i* y *u*, cuando son originarias se intercalan las consonantes *y* y *b* y las vocales *e* y *o* se convierten en *i* y *u* con el fin de evitar el choque áspero de aquellas vocales con la *a* (...) En el sub-dialecto meridional, no siempre alternan las vocales duras con las dulces, sino que muchas veces van juntas dos voces duras, proviniendo de aquí el que el habla del Goi-erri sea más áspera y vigorosa que la del Be-erri o septentrional, que resulta más dulce y agradable al oído.» (Mujika 1907: 56-58).

Lekuonaren ustez, bi azpieuskalki nagusi zeuden Gipuzkoan, Goierrikoa eta Beterrikoa. Bera ere hiatoetako bilakabideetan oinarritu zen hizkera bien arteko alderaketa egitean. Tolosako hizkera, berriz, tartekotzat jo zuen, baina Beterri alde-ra joera nabaria zuela nabarmendu zuen:

«Gipuzkoa'n bi euskalgitxo dira oso nabarmen, Gipuzkoa'ko *Dialectoan* bi *sub-dialecto*: Goierrikoa eta Beterrikoa. Bakoitzak ba'ditu bere bereizkuntzak, guztiok ondo ezagutzen ditugun bereizkuntzak (...) Goierrian, *etxea* esaten dan arren, *begia* ez baño *begie* esan oi da; eta *besoa* esaten dan arren, *burua* ez baño *burue* esan oi da.

Ots, *i-* ta *u-* baten ondoren, *-a* artikulua *-e* bihurtzen da Goierrian: *begie*, *burue*. Berdin baita *i-* ta *u-*ren ordez *in-* ta *un-* danean ere: *sorgiña* ta *laguna* ez bañu *sorgiñe*, *lagune*. Eta asko diranean, *etxeek etxeak*'en ordez, eta *begiik*, *besook*, *buruuk*... olaxe bi *e*, bi *i*, bi *o* ta bi *u*'rekin. Berdin baita *etxeen*, *begiin*, *besoon*, *buruun*... Beterrian, berriz, *etxea*'ren ordez *etxia* esaten da; eta *begia*'ren ordez *begiya*; eta *besoa*'ren ordez *besua*; eta zenbait lekutan *burua*'ren ordez *buruba*... (...) Eta Tolosa'n zer?

Tolosa –len ere esan degu ta– Tolosa ez da Goierri; ezta Beterri ere (...) Ez goierriar, ez beterriko; “bai bien arteko” (...) Euskera ederra: ez goiko ez beko; erdi-aldeko... Orixe da Tolosa'ko euskeraren “erdiko” izatea”... Villafranca'koak ez duana. Villafranca Goierri-goierrian bait-dago; eta ango euskera goierriar jatorra bait-da.» (1956: 174).

#### 2.2.4. Irizar

Irizarrek (1991), oro har, Bonaparteren sailkapena aintzat hartzen du, aldaketa txiki batzuekin. Esan bezala, aztergai dugun eremuari dagokionez, Bonapartek Azpeitiko hizkeran (eta, horrenbestez, iparraldeko azpieuskalkian) sailkatu zituen Zumarragako, Urretxuko eta Aginaga auzoko (Azkoitia) hizkerak. Irizarrek, aldiz, Zegamako hizkeran sartzen ditu, eta horretarako oinarritzat hartzen du hizkera horiek aditz morfologian Zegamako hizkerarekin duten berdintasuna eta Azpeitiko hizkerarekin duten aldea. Bestalde, Irizarrek zazpi aldaki bereizi zituen Zegamako hizkeraren baitan (aditz morfologian oinarrituta):

- Zegamako bertako aldakia: Zegama
- Mendebalekoa: Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura eta Zerain <sup>10</sup>
- Ekialdekoa: Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Amezketeta, Arama, Bedaio (Tolosa), Gaintza, Iruerrieta (Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain), Itsasondo, Legorreta
- Urretxu-Zumarragako aldakia: Urretxu, Zumarraga, Aginaga (Azkoitia)
- Zaldibiakoa
- Legazpikoa: Legazpi, Brinkola
- Ataungoa

Tolosako hizkerari dagokionez, lau aldaki bereizi zituen:

- Iparraldekoan, Anoeta-Hernialdetik Beterrirantz dauden herriak: Andoain, Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Larraul, Urnieta, Villabona, Zizurkil
- Hegoaldekoan, Ibarra-Belauntzatik Nafarroarantz dauden herriak: Berastegi, Belauntza, Berrobi, Elduain, Ibarra, Leaburu, Gaztelu, Lizartza, Oresa

<sup>10</sup> Hizkera eredutzat Gabiriakoa hartu zuen.

- Mendebalekoan, Albizturtik Urolalderantz dauden herriak: Albiztur, Alkiza, Beizama, Bidania-Goiatz
- Tolosakoa bertakoa, Tolosak berak bakarrik osatua

### 2.2.5. Zuazo

Zuazok egindako euskalkien mapa berriak (1998) arras aldatu du Bonapartek zeukan ikuspegia. Terminologia aldaketaz gain (*gipuzkeraren ordez erdialdeko euskara*), Zuazok egindako aldaketarik nabarmenenak hauexek dira: Zuazoren iritiz, Burundako hizkera –Bonapartek gipuzkeraren Nafarroako azpieuskalkian sartu zuena– ez da Gipuzkoakoekin bildu behar; izan ere, Zuazok Burundako euskararen berezitasuna agerian utzi baitu eta tarteko hizkeratzat jo du. Nafarroako mendebaleko beste hizkerak, aldiz, erdialdeko euskalkian sartzen ditu: Basaburuko, Araizko, Imozko eta Larraungo hizkerak. Era berean, tartekotzat jotzen ditu herri batzuetako hizkerak, hala nola, Debabarreneko Mutrikukoa (oraintsu arte *gipuzkeran* sartua), Mendarokoa eta Elgoibarkoa. Azkenik, Zuazok, euskara giputzaren barruan, ohiko banaketaren ordez, banaketa bikoitza egitea proposatzen du: iparra / hegoa eta sartaldea / sortaldea ardatzen araberakoa. Eta iparraldea / hegoaldea banaketan, aztergai dugun eremua batzen du: Goierri eta Tolosaldeko hegoaldea:

«Euskara giputzaren barruan, beraz, banaketa bikoitza egin daiteke: iparraldea/hegoaldea banaketa alde batetik, alegia, Goierri eta Toloserriko hegoaldeko hizkera batzuk Gipuzkoako gainontzekoetatik bereizten dituen; eta sartaldea/sortaldea banaketa bestetik, gutxi gorabehera Zumaia-Aizarnazabal-Zestoa-Errezil-Azpeitia eta Goierri barrera datorren lerroaren arabera egin litekeena.» (Zuazo 1998d: 227).

### 2.2.6. Azurmendi

Azurmendik Zegamako eta Ataungo euskaraz egin dituen lanetan nabarmendu du Goierriko euskarak erdialdeko eta mendebaleko hizkeren arteko ‘zubi’ lana egiten duela. Dioenez, Goierri Arabatik eta Deba ibarretik gertu dago, hau da, mendebaleko euskalkiaren eremutik hurbil, eta hori dela-eta, mendebaldeko euskararen zenbait ezaugarri bertara barneratu dira:

«Gipuzkerak sortutako zenbait berrikuntza eta erdialdeko beste ezaugarri batzuk aurkitu ditut Zegaman, baina, era berean, mendebaldeko hainbat ezaugarri ere indarrean agertzen dira. Esan daiteke, beraz, Ataungo euskarak bezala, Zegamakoak ere ‘zubi’ lana egiten duen hizkeraren egoera islatzen duela.

Ataungoak ez dituen erdialdeko hizkeren ezaugarri bat edo beste baldin badu ere, Zegamako euskarak, oro har, eta behean zehazten dudanaren arabera, mendebaldeko ezaugarri gehiago gordetzen ditu.» (Azurmendi 1998: 99).



### 2.2.7. Hitzunen iritzia

Amaitzeko, esan dezagun hiztunentzat oso nabarmena dela Tolosaldeetik Goierrira bitartean dagoen hizkuntza-aldea. Tolosarrek Beterriko hizkeratik gertuago sumatzen dute euren hizkera. Diotenez, Tolosan bertan hasita, euskara Hernani aldera lerratzen da; Alegiatik beherakoa, berriz, Goierritik hurbilago dagoela uste dute. Guk, 1998an, ondokoa jaso genion Tolosako San Blas auzoko lekuko bati <sup>11</sup>:

«Emen, eztaikit... bestela, Tolosako euskera, ya... Hernani aldeaiño jotze'u Tolosako euskera', e!...»

Izaskundar batek ere <sup>12</sup> horixe bera esan zigun, Tolosako euskara Hernaniko hizkeratik hurbilago dagoela:

«Emendik Hernania arte, inguru au berdintsua da, euskera... Geo, Goierria... (...) Por ejemplo, emendikan, zea, Alegriya, an *ogiy*e esango'izue, emen *ogiy*a. Olako gauz, itz asko dia, emendikan aldatze dienak...»

Goierritarrek alde handia sumatzen dute Tolosarekiko, baina baita Tolosaldeko hegoaldearekiko ere. Zaldibiako berriemaile honek, esate baterako, Gaintzako eta Lazkaoko hizkerak hurbil sumatzen ditu; baina Abaltzisketakoa, urruti <sup>13</sup>:

«Tolosati diferentzi ikeagarrie dau... Eta oain baño leen andigo askoz e... Leen beste, leenoko... bazien... ezta'i'pa nik... emen guk esaten giñun galtzai *pantaloia* eta aik izango zien beste tipo batea ta... Oain, polittena zein izango'an, e'noa, e'noa ateatzea... Oso, oso diferente itz eitten da emendi Abaltzisketaa...»

Tolosaldeko hegoaldeko biztanleek bi aldeetatik zerbait dutela uste dute, baina Goierrirekin alde handia dagoela uste dute. Amezketan Abaltzisketakoa hizkera gertu sumatzen dute; baina Zaldibiakoa, urruti <sup>14</sup>:

«-S.: Nik neonek Abaltzisketakokiñ itzeitten 'etenen (...) neonek berta-bertakokiñ ez'tet neonek ainbesteifñoko diferentziik zeatzen, e, botatzen (...) Ba, ni lanen aittu nintzenen da, Goierri aldea izugarrizko saltoa dao, oi bai.

-Goierrira... *nora, Ordizia o?*

-S.: Baita're, denen. Da nik lagune konkretuki nun Zeamakoa, baño, bueno, oso ezperdiñe e!

-E.: Eta Segura re bai.

-S.: Bai, *patatea* eta gauz oik denak... Ure da ya oso desberdiñe...

-E.: Ya Zaldibiaa asko kanbiatuko'a emen...»

<sup>11</sup> Gregorio Ugartemendia, Tolosako San Blasakoa, 1998ko uztailean.

<sup>12</sup> Izaskungo Bittor Amundarain, 1998ko irailean.

<sup>13</sup> Zaldibiako Jabier Erauskin, 2000ko abuztuari.

<sup>14</sup> Amezketako Satur Zabala eta Eusebia Galarza, 2000ko abenduan.

Izan ere, Tolosaldeko hegoaldean, hitzunik gertuago sumatzen dute euren hizkera Tolosatik Goierriitik baino. Amezketan, esate baterako, honela esan ziguten <sup>15</sup>:

- «-S.: Guk Tolosatiken bertago, bai, Tolosatik bertago, askozaz e! neetzat...  
-M.: Bakarrrik bukaera diferenteotxok izatea, ez?  
-S.: Bai, baño berdiñagoa. Amezketak don berezitasunai... *e*-kin bukatze'ue, baño gañeantzean itzek esan berdintsu, *ogie* esaten da *ogia* igoal Tolosan, baño *ogiya* da oik oso deberdiñe (...) *Patatea* ta olako aldaketa... askoz gutxiago dao Tolosakin (...). Amezketan, berdintsuagoa da Tolosakin Goierrikokin baño.»

Hala ere, Goierrikoarekin bezala, Tolosaldeko iparraldekoarekin ere alde nabarmena sumatzen dute <sup>16</sup>:

- «-M.: Bai, bai, Anoetakok dii ya... leen esan deana, Alkiza ta, *ia*, *ya*... ze oi asko...  
-*Bai*, txerriya *ta*...  
-M.: Eta Anoeta ta Alkiza ta inguru oi da, Larraul bestea, ola, oso zea itte'uena, oso *ya*...  
-E.: Ya Astiasu, Zizurkil... buelta oi.»

Goierri barruan, hizkera nahikoa homogeneoa dela esan digute hitzun gehienek, baina hizkera berezi bi nabarmendu dituzte: Zegamakoa eta Ataungoa. Zaldibian honela esan ziguten <sup>17</sup>:

- «-J.: Bai, Ataunen berriz, diferentzi ikearrie...  
-Jx.: Naparraizea.  
-J.: Ataunen, oso... ataundarrai izketan, Ataungo Aia o, San Gregorio re, tira!..., baño or baa zea, zona bat... Kalifornin e ezautuko non Ataungo izketea! bai, bai, bai... Oso diferentea da.  
-Jx.: Ta Zeama ta, aik e...»

Beasaingo berriemaile honek dioenez <sup>18</sup>, lehenago hizkerak elkarrengandik urrutiago zeuden, baina aldea gero eta txikiagoa da, herrien arteko harremanak estutu direlako:

- «-J.: ...Izaala itzen batzutan eongo'a baño... Zeama ta oita bai. Emen geiena naarmen zena dana da Ataun da Zeama da, gañeantzen...  
-Jx.: Segurarrak eta...  
-J.: Ba, alare!... orik, e, ya nola naastu gean geio, ta egunero alkar ikusten dan... Ta oain geio... lenoo Zeamatio Atauna jun etzienak mundu ontati asko jungo zien! Bakoitzek perea, an mantentzen zixkizun... Baiño gaur Zeamakoa onea etortze'a, emengoa Zeama jute'a ta...»

<sup>15</sup> Satur eta Maixux Zabala eta Eusebia Galarza, 2000ko abenduan.

<sup>16</sup> Satur eta Maixux Zabala eta Eusebia Galarza, 2000ko abenduan.

<sup>17</sup> Zaldibiako Jabier Erasquin (J) eta Lazkaoko Joxepa Madariaga (Jx), 2000ko abuztuan.

<sup>18</sup> Joantxo Agirre (J) eta Joxepa Madariaga (Jx) lazkaotarra, 2000ko abuztuan.

Ikaztegiatar honek Zegamako hizkeraren berezitasuna nabarmendu zigun <sup>19</sup>:

«Oaiñ, die... nabarmenak die Zeamakok, lengo antiualeko jende oi... ene! aik emete'ien tajue!»

Lazkaotar honen ustez ere Ataungo hizkera berezia da <sup>20</sup>:

«Bai, baña igoala al da Ataun aldekoa ta emengoa [Beasaingoa] ta Seura aldekoa ta? (...) Ez, ez, ez! Ataungok naparrokin mugan dare, e!... Aldatzen da! Ataunen bertan San Martin, San Gregorion da Aien ezta igoal itzeitten!... Leen esan deuna, gaur berdintsu, baño oain dala urte 'atzuk... alde aundie!... Oi ba, kilometro gutxiin, e, euskerak...»

Bestalde, Goierrikoa ez bezala, nabarra da Tolosako euskara. Izagirrek 1967an honela zioen “Tolosako euskeraren iztegirako gaiak” izeneko lanean:

«Erantzunak emateko, emen izentatzen diran toki bakoitzean jaio ta aziak artu ditut eta gurasoak, beintzat, bertakoak zituztenak. Aukera au egiten ez da oso erreza Tolosan eta inguruko erri auetan. Baserrietan ere asko xamar dira, ezkontzaz edo bestela, erbestetik etorriak. FERIA dala, azoka dala ta abar, joera aundia dago Tolosara bai Naparroitik eta bai Gipuzkoako errietatik.

Ta au ez da nonbait gaurkoa bakarrik izan. Bertako izkuntzak ere ezagun duela olako zerbait esango nuke. Esate baterako, etxetik etxera aldatzen dira: *argiya*, *argiye*, *argie* «la luz»; *buruba*, *burube*, *burue* «la cabeza» ta abar. Era bakoitzaren tokia edo mugak izentatzerik eztagoen moduan. Esan nai nuke alde ontako izkuntzak naastuxea ematen duela, ez duela beste erri batzuetan ikusten dan bezelako batasunik.

Emendik izan diteke inguruko izketak ulertzeko Tolosarrak obeto etortzea ta, bestaldez, ingurukoak berai errezago ulertzea.»

Eta gaur egun ere nabarra da Tolosako euskara. Ondoko lekukotasuna Tolosako San Blas auzoan jaso genuen <sup>21</sup>:

«Guk, egiya esango'izut, etxetik etxea diferentzie billatze genun, gure auzoana. Igual emen apostue zan, da guk esate genun “*apostua arrek iraziko'u*”, ta besteak esate zun “*apostua arek irabaziko'u*”... Ta “*oaiñ eztakit noa jungo naiz*” ta, “*goaiñ*” igual, or “g” bat sartzen, ta “*goaiñ ara jungo gea*”, ta olako gauzak, baserritik baserrira diferentzik bazian, bai, bai... (...) Ta seittun kontuatzan zea, ba, diferentexo 'sate 'uela, ez? Ta oi baserritik baserrira, ta ola zeatzen asizkeo... Geo Tolosako euskera, ba, eztakit, geo baserritik kalea esan det dexente aldea daola...»

<sup>19</sup> Ikaztegiatar Joxe Eizmendi, 1993ko urtarrilean.

<sup>20</sup> Lazkaoko Joxepa Madariaga, 2000ko abuztuan.


<sup>21</sup> San Blas auzokoa den Gregorio Ugartemendia, 1998ko uztailean.

1. mapa: Gipuzkera, bere azpieuskalkiak eta hizkerak, Bonaparteren arabera (1863). Irizarrek moldatutako mapa (Irizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* I, 192 or., 14. mapa)<sup>22</sup>.



<sup>22</sup> Mapa guztietan agertzen da azpieuskalki eta hizkera bakoitzak zenbat euskaldun zuen 1970ean.

2. mapa: Gipuzkera, bere azpieuskalkiak eta hizkerak, Irizarren arabera (Irizar, P., 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)* I).



3. mapa: Gipuzkeraren Zegamako hizkera eta bere azpi-hizkerak, Irizarren arabera (Irizar, P., 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)* II).



4. mapa: Gipuzkeraren Tolosako hizkera eta bere azpi-hizkerak, Irizarren arabera (Irizar, P., 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)* I).



5. mapa: Euskalkiak, Koldo Zuazoren arabera (1999) (Zuazo, K., 2000, *Euskararen sendabelarrak*, 61 or.).





### 2.3. MENDEBALAREKIKO HIZKUNTZA MUGA NABARMENA ETA HIZKUNTZA AURREIRITZIEN ERAGINA

Normalean oso zail suertatzen da dialektoen edo hizkeren arteko mugak zehaztea, dialektoak ez baitira ondo mugatutako multzoak eta, ondorioz, euren artean ez baita banaketa gardenik izaten. Dialektoen eta hizkeren artean interferentziak egoten dira, eta, beraz, hizkera batetik besterako iragatea leuna eta graduala izaten da. Hala, bada, sarritan, zubi-hizkerak edo trantsizio-eremuak aurkituko ditugu, hau da, bi aldeetako hizkeren ezaugarriak bildu arren, ez alde batean ez bestean garbi ezin koka ditzakegun eremuak. Bestetan, aldiz, gertakari historikoen eraginez edo orografia-baldintzen ondorioz, eten garbiak sortzen dira hizkeren artean, eta nabarmen sumatzen dira bakoitzaren kokapena eta mugak. Gurean, isoglosa-multzo handi batek bereizten du Euskal Herriko mendebala erdialdetik. Hizkuntza-muga hori nabarmena izan da oso, hitzun arruntentzat ere bai; eta nabarmena izan da, halaber, erdialdeko hitzun askok –‘giputzek’– mendebaleko hizkera ulertzeko izan duten zailtasuna. Goierriren eta Deba ibarraren arteko hizkuntza-etena sarritan aipatu da. Villasantek, esaterako, era honetan azaldu zuen:

«Y, efectivamente, si alguna excepción hay que hacer a la ley arriba apuntada del tránsito insensible de un dialecto a otro, dicha excepción se da aquí, pues el paso del vizcaíno al guipuzcoano es neto, repentino y brusco. Tanto es así, que G. Lacombe ha llegado a decir que en el fondo no existen más que dos dialectos: el vizcaíno por un lado, y el conjunto de todos los demás, por el otro. Dos localidades tan cercanas como Oñate y Legazpia (u Oñate y Cegama), tienen hablas vascas marcadamente diferentes. La de Oñate es considerada como lingüísticamente vizcaína; las de Legazpia y Cegama, como guipuzconas. El pueblo de la zona de Oñate acostumbra aun hoy a llamar *kiputzes* (es decir, guipuzcoanos) a los que hablan el vasco guipuzcoano, lo cual revela que es bien sensible para captar la honda diferencia lingüística que existe entre la zona de habla guipuzcona y la suya.» (Izagirre 1994: 11).

Izagirri honela adierazi zioten Arantzazu eta Oñati aldeko biztanleek *kiputxak* zer diren:

«Ixxixio<sup>23</sup> aldekuak: Segura, Gabiri, Mutiloa, Zerain, Idiazábal, Zegama (?) ta bazter ortakoak.» (Izagirre 1994: 149).

«Legazpia, Zegama ta alde oietakoari «kiputza» deitzen diote oñatiarrak. Kiputza, au da, gipuzkoar dialektua.» (Izagirre 1967).

Jone Larrañagak ere orain dela gutxi antzuolar batengandik jaso du bi eremu horietako hizkeren arteko etenaren berri:

---

<sup>23</sup> Hau da, Ezkio-Itsaso aldekoak.

«–Aldeik badao emen da beste toki batzutan sela itten dan?

–Es, ainbestekoik es. Esaera batzuk ganbixatzen dia. Oin, Deskargatik arutz bai. Deskargan arutz pasautakuan *asteartia* ta *asteazkena* da. Ondamendin, Ursalton... an diferente itten dabe...» (Larrañaga 1998: 324).

Eta goierritarrek ere horixe bera uste dute. Guk honela jaso genuen Beasainen<sup>24</sup>:

«Emen, bein Zumarraatik gora abittuzkeo alde aundia dau. Leintz, Oñati, Bergara, or ya aldatzen do asko, ya bizkaitarra asko sartzen da re, nola gertu dare...»

Hizkuntza-etena egoteaz gain, hizkuntza-aurreiritziak ere izan dira tartean. Jakina denez, dialekto eta hizkera batzuk, hainbat arrazoi direla eta, hizkuntza-eredu bilakatu dira denboraren poderioz; eta, horrenbestez, gainerako euskaldunek hobetzat, goxoagotzat eta egokiagotzat jo izan dituzte. Hizkera horiek goiko maila bete dute hizkuntza-hierarkizazioari dagokionez (erdarak albo batera utzita), hiztunek horien baitan alderdi on guztiak zeudela uste izan dutelako eta, beraz, eredu horietara hurbiltzera eta erabiltzera jo dutelako azkenean. Beste hizkerak, berriz, eredu nagusi horien menpean geratu dira, beheko mailan baztertuta eta, maiz, mespretxuen eta irainen jomuga bihurtuta.

1968an Aita Villasantek “Oñatiko euskera” izeneko lanean eta 1967an Izagirrek Tolosan jasotako hiztegian, bietan azaltzen da oñatiarrek eta, oro har, Deba ibarreko biztanleek euren hizkerarekiko zuten konplexua eta *kiputzen* euskararekiko zuten mira:

«Oñatiarrai ta Mondragoetarrai entzunda nengoen beren euskera ez, baiña or Tolosa-aldekoa dala euskera ona.»( Izagirre 1967).

«Beste arrazoi bat ere ba da, nere ustez, txar konpleju ori esplikatzeko. “Euskera ona, Tolosa aldekoa. Kiputz-aldekoa”. Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta ori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute (...) beti nabaitu det ori: kiputz-aldeko euskerara dutela joera.» (Villasante 1968: 82).

Baina Beterriko eta Tolosako euskararako joera ez da Deba ibarrean bakarrik egon. Gipuzkoako beste alderditan ere jaso da isuri hori. Mitxelenak zioenez, Gipuzkoako ipar-ekialdeko biztanleak eta goierritarrak Beterri aldeko euskarara lerratu dira hizkera jasoan (Mitxelena 1988: 986). Sarritan aipatu da elizaren eta bertsolarien jarrerak izan duen eragina Bizkaian eta, gehienbat, Deba ibarrean aurreiritzi hori zabaltzeko. Nafarroako ipar-mendebaleko bertsolariek ere Beterriko euskara giputzerako joera erakutsi izan dute. Mikel Olanok dioenez, joera orokorra izan da hori, hala Leitzan nola Goizuetan (Olano 1998: 53-54). Lekuonak honela jaso zuen:

---

<sup>24</sup> Beasaingo Joantxo Agirre, 2000ko abuztuan.

«(...) Bizkaia'n zear bazabiltzate, eta giputzak zeratela jakiten badute, bereala entzungo dezute onako beste esakun au ere: "Geuk Biskaixa'n satar berba eitxen dou. Seuek bai, seuek giputzok ederto eitxen dosue". Eta ola, Bizkaia'n pozik entzuten diote sermoilari gipuzkoar bati. Berdin, baita bertsolari gipuzkoar bati ere. Eta uste ere Bizkai-aldean ala uste da, bertsolari izateko, gipuzkoeraz kantatu bear dirala bertsuak.» (1956: 169).

XVIII. menderako aski hedatuta zeuden hizkuntza-aurreiritziak. Larramendik auzi horrek sortzen zion kezka azaldu zuen. Honela salatu zuen 1747ko martxoaren 15ean Mendibururi egindako gutunean:

«(...) Are gogai-cagarriena da, charlari óyec icústea nolá daudén isecáz, ta musinca Eusquéraz ederqui daquiénen jolasari, beñ Nafarroaco *mintzoa* dela, gueró Bizcaico *verbá dongueá*, bátean *ausaz ere* Goyerricó hizqueta dezulá, béstean *noasquiro* Beterricoa; achurlárien, ta necazarien hitzera dála hura, basérritarra dirudizúla, ta milla onelacó astaqueria.» (Zuazo 1988c: 159).

Larramendik ez zuen hizkeren arteko hierarkizaziorik jaso. Oro har, badirudi euskalkiak nabarmen bereizita zeudela, eta euskaldunek nork bereari eutsi eta albo-koarena mesprexatu egiten zutela, hala *bizkaiera* nola *gipuzkera*, Beterrikoa nola Goierrikoa. Hala ere, mende bereko lan batean –1764ko *El borracho burlado* operan–, Goierriren eta Beterriren arteko hizkuntza-bereizketa nabarmentzearekin batera, hizkera horien arteko hierarkizazioa azaltzen da: XVIII. mendearen erdialderako, Tolosatik Hernanira eta Donostiara bitartean hitz egiten zen hizkerak estatus gorena zuen, eta probintziako gainerako alderdietan hitz egiten zena –esaterako, Azkoitian– *Goierrikotzat* jo eta baztertu egiten zen:

«(...) Digo , pues, que mi primera idea fue de que toda esta Opera fuesse en vascuence; pero luego me saltó la dificultad del Dialecto, de que me havia de servir en ella. Si me valía del de Azcoytia huviera sido poco grato à todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupacion que tienen contra el Vascuence, ó Dialecto de *Goi-erri*, y si queria usar del Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian, & c. exponia à los Actores à hacerse ridiculos; pues seña difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razon, pues, me huve de contentar con reservar el Vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuesse en Castellano.» (Munibe, F.X.M., 1907, "El borracho burlado, ópera cómica en castellano y bascuence. Escrita y puesta en música por un caballero guipuzcoano, RIEV I, 389-390).

Larramendi eta Muniberen ondoren, Gorosabel tolosarraren lekukotasuna ekarri nahi dugu. Esan bezala, Beterriko euskarak zuen prestigioaren lekukotasunak lehenagotik zeuden; baina, itxura guztien arabera, Gorosabel izan zen Beterrri osoko ezaugarritzat jotzen zen nolakotasun hori Tolosan kokatu zuena. Hona hemen Tolosako euskarari egindako aurreneko goraipamenak eta laudorio horiek egiteko darabiltzan argudioak:

«(...) los pueblos de Guipúzcoa comarcanos con Vizcaya y Labort participan en mucho del modo de hablar de estos respectivos territorios. Consiguientemente, puede

decirse que el dialecto guipuzcoano verdadero del vascuence reside en la villa de Tolosa y en sus pueblos circunvecinos, como el territorio más céntrico; que en Irún, Fuenterrabía y sus inmediatos se mezcla bastante el labortano, así como el vizcaino en los situados desde Vergara para arriba. A mi modo de ver, la *eusquera* más legítima o pura es el dialecto guipuzcoano, como de territorio más central, y que menos ha debido participar de la influencia de las lenguas extrañas. No hay duda, en efecto, que el dialecto de Vizcaya ha debido sufrir no poca modificación con la mezcla de diferentes voces castellanas, a consecuencia de su contacto con los pueblos de esta habla, así como el labortano respecto del idioma nacional francés.» (Gorosabel 1972: 319).

Gorosabelen iritzia oinarrizkoa da Tolosako euskarak eduki duen eta duen prestigioa ulertzeko. Izan ere, Tolosa, probintziaren erdian kokatutako hiria, garai horretan, XIX. mendearen erdian, aski herri garrantzitsua zen: Gipuzkoako barrualdeko herri indartsuenetako bat, probintzia kanpoaldearekin lotzen zuten bideen elkargunea, Gipuzkoa, Nafarroa eta Frantzia arteko bidegurutzeara. Tolosa merkatu-herria izan da aspalditik; Gorosabelek zioenez, XIX. mendearen erdialdean, probintziako azokarik garrantzitsuena zen. Horretaz gain, zenbait urtez (1844tik 1854ra) probintziako hiriburua izan zen, eta ordurako industrializazioa hasia zen alderdi horretan. Bestalde, XVIII. ean jaiotako gipuzkera literarioa gaitu eta landu zuten idazleetako asko Tolosa edo Beterri ingurukoak izan ziren; besteak beste, Larramendi andoaindarra, Ubillos amasarra, Cardaberaz hernaniarra, Agirre asteasuarra, eta Lardizabal eta Iztueta zaldibiarrek <sup>25</sup>. Azkenik, XIX. mendearen erdialdera iritsita, Bonaparte Printzeak Beterriko hizkerari eman zion lehentasuna.

Tolosako –eta Beterriko– euskararekiko uste ona urrutira zabaldu da: Bizkaira, Deba ibarrera, Urolaldera (Lekuona 1956), Donostiara, Oiartzunera (Fraile & Fraile 1996), Basaburu Txikira (Olano 1998), Larraunera (Irizar 1981 II), Ultzamara (Ibarra 1995), Aezkoara (Camino 1998)... Tolosa inguruko alderdi guztietan bildu da Tolosako euskararekiko uste ona. Irizarrek Larraungo Azpirotz herriko lagun batengandik hauxe jaso zuen:

«No encuentra uniformidad total en las flexiones verbales y piensa que posiblemente existan dos capas, una la que ha venido empleando la generación anterior, y la otra con bastante influencia de Tolosa, que actualmente debido a las facilidades de los medios de comunicación, se ha podido ejercer sobre estas gentes, para las cuales el mejor euskera es el de Tolosa.» (Irizar 1981 II: 212).

Mikel Olanok Larraungo Errazkin herrian jaso du lekukotasun hau:

«Nei beti gustatu izandu zat Tolosako euskaa, e! Beti inbidiz, e! Gañea aik bezala zeñek itzein? Angoa bear baitu... An bezala itzeitteko angoa bear du, jatorriskoa due, e!» (Zuazo 2000: 58).

---

<sup>25</sup> Mitxelenak zioenez, Lardizabalek, zaldibiarra izanagatik, Beterriko hizkera erabili zuen eta hizkera horren erdutzat hartu izan da. Iztueta ere, bere herriko euskararen ordeztu, molde batua erabiltzen ahalegindu zen.

Ondorengoa, Orreaga Ibarrek jaso du Ultzaman:

«Ultzamakoek, bada, behin eta berriz errepikatzen dute hango euskara ez dela polita, dorpea baizik, benetan polita Tolosakoa dela, mintzaera garbia eta ulerterreza dela eransten dutelarik. (...) Zehazki, honako hau esaten zidan Oskozko informatzaile batek: «*Zuk in barko ziñuke yoa Tolosaa ta artu Tolosakoa, du azentuat oso politte ta entenditzen du mundu guziek.*» (1995: 602).

Mikel Olanok Basaburu Txikian hainbat lekukotasun bildu ditu. Honakoa Areso aldean jaso du:

«Leitzarra traskalaoa zen, lenao, gure usten, e! (...) Gipuzkoako izketa edokio emen da, ala esate due; emengoa lijerogo o itzeitten deu ta, Leitzekoa beño de, Beasteiko ta Gipuzkoakoa ohea o zea duela esate ue, eztakit nik zer den.» (1998: 51).

Manuel Lekuona oiartzuarrak ere Tolosako euskara garbiaren berri bazuen:

«Tolosarra ez naizelarik, neroni ere entzunik nago olako baten izena: Bello'neko Andre Justa. Ain emakume patxaratsua eta ondo ta gozo itz egiña, askok, baserritar askok esaten bait-dute oraindik ere, emakume aren erretaulika gozoa, itz-jario gozoa entzuteagatik beragatik, asko ta asko joaten zirala Bello'neko dendan beren eroskitzunik egitera. Neronek Berrobi'ko baserritar bati entzuna.» (1956: 173).

Lekuonaren arabera, Goierri eta Urolaldean ere hobeagotzat eta ederragotzat zuten Tolosako hizkera <sup>26</sup>:

«Ez bait-dago Tolosa'ren fama on au Bizkaia'n eta, bakarrik. Gipuzkoa'n –Tolosa'z besteko Gipuzkoa guztian ere– olaxe uste izan bait-da: “Euskera ederra, Tolosa'n”. Goierrian batez ere, ala uste oi da. Berdin baita Azpeiti-aldean ere...» (Lekuona 1956: 170).

Guk Tolosaldeko hegoaldean eta Goierri antzeko iritziak jaso ditugu; ez Tolosako bertako euskararekiko (kalekoa txar-txarra dela uste baitute), baina bai

---

<sup>26</sup> Gaur egun, ordea, badirudi bestelako jarrerak ere badaudela. Ondoko lerroek, konparaziora, herri txikietako euskarak, batik bat Goierrikoak, erdietsi duen prestigioaren berri ematen digute (Agirre J.: 1990, *Egin*, “Goyerrikue izan nai'et nik'e”: «Eta kasik mende bat geroago, Bilboko euskaltegietan euskalki berria esperimintatzen ari ziren bitartean, instantzia ofizialetatik Goierriko euskararen mito berria aldarrikatzen hasi ziren. Euskadi Irratian esaterako, kazetari tituluarekin batean arkadia berri horretako jaiotagiria eskatzen dizutela ere entzuna dut eta ez zait gaizki iruditzen. Beti pentsatu izan dut seme-alabak ingeles *college* batera bidaltzea bezain probetxuzkoa dela Lazkaoko baserriren batera uda pasa eramatea. Nik neuk (sic) ere aspaldi lotsatu nintzen Patxi Altunak hain sutsuki defendatu zituen *nentxetorreatan*, *natxabilek*, *nitxitxian* eta gisako aditz forma azpeitiarrez eta hitanoan esaterako *zetiagu*, *zetiat* eta gisako dotorezia goierritarrak erabiltzen hasia nago. Horregatik orain ETBko “*Ederra eta piztia*”aren doblajea Goierriko forma hiperjatorretara jo dutenean, ez naiz eskandalizatu eta neuk ere *goyerrikue izan nai'etela pentsau'et. Bai Orratio!*».

Berastegi-Berrobi edota Anoeta-Irura aldeko euskararekiko. Legorretan, Ikaztegietan... Amezketan honela esan ziguten<sup>27</sup>:

«-S.: ...Oi da Tolosaldekoa... Leaburu ta oetan denatan nola itz eitte'a? Naiko euskera garbie itzeitte'a...

-M.: Tolosa ingurun e! Tolosan bertan asko galdu'a. Erri txikik, ondoko erri txikik, leen esan deuna, Hernialde, Anoeta, Leaburu... Hernialden baita re garbi garbi itte'a euskera. Ala itte'a...

-E.: Guk... gureandiken Tolosakona... guk itzek jate'ittugun bezela, geo, i idazten asiko baitzake, *dénbora* jarriko uke... Aik estilo ortaa itzeiñ eitten diñe!

-S.: Tolosakok?

-E.: Bai, itzik jan gabe, garbiga (...) Oain euskera batu onekiñ ainbeste ezta izango, baño leno euskeraik polittena Tolosa, Tolosa o Tolosalde, orti bera. Ta ortiken Donosti aldea, berriz trakeste'a!... Tolosakoa polittagoa o fiñagoa, bai (...). Oaiñ euskera batua idazte'an bezela, leen idaz... ola eskribitzeko ta idazteko ta euskeraik fiñena ta polittena Tolosa arte zuen, oain batua ta, oain kanbiatuta dao, ezta?»

Lekuonak hainbat alderdi aipatu zituen Tolosako hizkeraren sona azaltzeko (1956): batetik, Tolosa lurrez Gipuzkoaren erdian dagoenez, hizkera ere erdi-erakoa duela, «euskera “zubia”; guztiontzako euskera»; bestetik, Tolosako hizkera dela sermolariek pulpitan darabiltena, gramatikak dakarrena eta klasikoek zerabiltena, eta, horrenbestez, Tolosako hizkerak «ebaite ohea, oguzte ohea» duela:

«Gipuzkoa'ko beste erri guztiai, ontan daramaio aurre ta bentaja aundia Tolosa'k: tolosarrak itza ondo ebaiten dute. *Pronuncian con mucha corrección y limpieza* esango luke erdaldun batek. Ondo ta garbi ta patxaran itza ebaitea. Sermoilariak kulpituan-ta bezela. Orra or tolosarren aurrea itz-egite-kontuan. Tolosarrak itza ondo ebaki... (...) Gramatikak dakarren bezela, klasikoak –Agirre batek, Lardizabal batek, Mendiburu batek– idazten zuten bezela, kulpitoetan itz egiten dan bezela-bezela-xe...» (1956).

Tolosar askok ere hala uste dute, euren hizkera dela garbiena. Izagirrek hauxe idatzi zuen 1967an:

«Ta oraiñ ikusi dut Tolosarrak berak ere garbiagotzat jotzen dutela beren izkera; baina garbia esaten dutenean, orixe esan nai dute: argia edo ulertzen erreza. Bestela, lanak izango lirake garbiena zein dan erabakitzeko. Erderakadak erruz entzuten bai-dira emen ere.»

<sup>27</sup> Amezketako Satur eta Maixux Zabala eta Eusebia Galarza, 2000ko abenduan.

<sup>28</sup> Beasainen bizi den emakume errezildar batek hauxe esan zigun Bizkaiko eta Oñati aldeko euskaraz (Joxepa Madariaga lazkaotarrarekin hizketan, 2000ko abuztuan): «...Bueno! Bizkaiko izketea, parregarrie! –Jx.: Parregarrie al da? Oi eztao esateik! –Ooo! parregarrie eta Oñatikoa ta oi... –Jx.: Gureatik e aik oixe 'sango due, diferentek diela esan bear da baño parregarrie danik nola ba?»

Guk maiz entzun ditugu Tolosaldean euren hizkeraren aldeko iritziak eta Goierriko hizkeraren eta, batez ere, *bizkaieraren* aurkakoak <sup>28</sup>. Belauntzar honek eibartar baten berbete ulertzeko izan zituen komeriak azaldu zizkigun <sup>29</sup>:

«-M: ...Bai, diferentexego billatz'et, bai. An, zuek errexago entendittuko'zue, baño nik ez, ezin nun. Gauz asko ola geatze nitzen, ixil ixili, eta, esate zian, "eztezu entendittu, e?" , ta "ez" esate nion, "ez".

-A: Ta beak zuri?

-M: Beak eerki, oso ondo... Oso ondo, ue oso ondo, gure euskera garbigoa zala esate zun, ala esate zun (...). Garbia zala, bai, nei oi esate zian, "zuena polittago da, zuena garbigoa", ta ola, ixili geatze nitzen. Beti oi esate zien, "eztezu ulertu zuk", ta "ez" 'sate nion, "eztakit ze esaten dezun". Ùrdun erderaz esplikatzte zien.»

Albirturtar honi antzera gertatzen zitzaion Tolosaldetik kanpora irteten zuenean <sup>30</sup>:

«Zukiñ asten die igoal, da, "zuek ze garbi eitte'zue, guk ez" ta beti arrazoi oi ibiltze'ik...»

Izaskundar batek ondokoa esan zigun Goierriko hizkeraz <sup>31</sup>:

«Nik eztakit, Goierriko euskera, ba, e'zait geiegi gustatzen, nei, partikularra da oi... Oiartzungoa geio gustatze zat, Oiartzu aldekoa ta Zaautz aldekoa re. Oain ya, Bergara ta Eibar, txo-txo-txo-txo!... oi zaillagu da... bizkaiera... Euskera politte emen da, e!, ala esate'ue beintzat.

(...) [Goierriko hizkerarekin alderatuta] ...zeozer garbixegoa emengua, emengua... Bueno, nola oitze'an izaten da, da beak bere izkuntzakin oituta eongo'ia, gu ez...»

Lekuonak salatu zuenez, XX. mendearen erdialdean, Tolosan aurreiritzia zegoen Goierriko hizkeraren bilakabide batzuekin. Bere esanetan, garai hartan (1956an) tolosarrei ez zitzaien atsegin goierritarren hizkera eta miraz begiratzen zieten Beterritik zetozen hizkuntza-bilakabideei. Lekuonaren iritiz, azken aldion, Tolosan Beterrirako joera nabaria egon da eta, hala, Tolosaldean Beterrirako bilakabideek gora egin dute eta Goierrikoek behera:

«Tolosarrei etzaie atsegin goierriaren atzeko -e ori. Bañan len iñoiz etzitzien atsegin beterritarren *etxia* ta *begiya* ta *besua* ta *buruba* ere. Nunbait orduan tolosarrak, gau-

---

-Parregarrie, nik suiai esaten diot: zuen izketea, parregarrie! -Jx: Ene, ene, olakoik ez esan!». Alkizar batek ere honela esan zigun, Azpeitia ingurukoaz (Maria Iruretagoiena alkizarra Andoni Garikano tolosararekin hizketan, 1998ko uztailen): «-Emengo euskerak, gaiñea... Tolosako euskerak, gaiñea, beti olako fama eduki du, ez dakit zer dala ta... eztait, baño, beti, Tolosako euskera garbia zala ta... -M: Eske, batzukiñ izketan aste zea euskeraz, da, batzuk, ze euskera itsusiya duen, aizu! -A: Oi izkuntza guztikin pasatzen da. -M: Baño, oi nun Andoni? konpazio batea, Azpeitiñ e bai...»

<sup>29</sup> Maria Arruabarrenaren eta Axun bere alabaren arteko elkarrizketa, 1998ko uztailen.

<sup>30</sup> Pedro Arruek horixe esan zigun Jexux Peñagarikano eta bioi, 1998ko uztailen.

<sup>31</sup> Bittor Amundarain, 1998ko irailean.

zak Gramatikak eskatzen duan bezela esaten zituzten: *etxea, begia, besoa, burua; sorgiña, laguna; etxeak, begiak, besoak, buruak*, eta *etxean, begian, besoan, buruan*... Gramatikak eskatzen duan bezela. Eta ontatik etorri zan nunbait berriz ere, arako esakun ura: “Tolosarrak euskara ederra” (...) Eta gaur? (...) Euskera klasiko au, len noizpait erabiliko zan Tolosa’n. Gaur, ordea, ez dabilta gauzak bide ortatik. Gaur Tolosa’ko euskera beterrri-aldera aldatua arkitzen degu. Donosti-aldera. Nunbait tolosarrai ere kategori geiagokoa irudi zitzaien, noizpait ezkerotzik, beterrriko euskera; *etxea*’ren ordezt *etxia* esatea alegia, eta *begia*’ren ordezt *begiya*, eta *besoa*’ren ordezt *besua*... Kategori geiagokoa iritzi, eta berak ere gauzak ola, donostiarrak bezela esaten asi ziran.» (1956: 175).

Bestalde, Lekuonaren ustezt, Beterrriko euskararen itzala ez zen Tolosaldera bakarrik iristen; Goierriera ere heltzen zen eta, gainera, Tolosaldean gertatutako neurrian:

«Beterrriari jarraitu-bearrezt –ots, Donostia’ri jarraitu-bearrezt– Tolosa’k arturik daukan abiadura, ez da Tolosa’n kokatzen, ez da Tolosa’raño bakarrik eltzen; goierriarraño ere eldu da zenbait gauzetan. Eta, arritzeko gauza: abiadura ori Beterrrian bertan baño aurrerago eramen izan dute Tolosa’n eta Goierrian.» (Lekuona 1956: 176).

## 2.4. HIZKUNTZA EZAUGARRIAK

### 1. FONOLOGIA

#### 1.1. BOKALAK

##### 1.1.1. -A berezkoaren egonkortasun eza

Erdialdeko euskalkiaren eremuan -a berezkoa maiz galtzen da. Bilakabide hau oso indartsu dago Gipuzkoako sortaldean eta Nafarroa Garaiko hurbileko hizkeretan. Gipuzkoako hego-sartaldean, ordea, -a bokalari eutsi zaio, bertan -a berezkoa <i> ondoren eta aldaera jakin batzuetan baino ez baita galtzen. Goierriko sortaldean dagoen Legorretan, ordea, indartsuagoa da galera, Tolosaldean bezala:

*gauza bat, amona bat, eliza bat, pilla bat, dozena bat, sardiña bat, aitona bat, maki-lla bat, izkiña bat, letxuga bat, baratza bat, pertsona bat, pilla bat*...; partitiboarekin *alabaik ‘alabarik’, neskaik, plazaik, festaik*... (Gabiria)<sup>32</sup>

*gauza bat, amona bat, aittona bat, pertsona bat, eliza bat, sardiña bat*... (Lazkao)  
*mailla / maillea, gaztaiña / gaztaiñea, letxubaosto, eliza / elizea, gauza politte* (Legazpi) (Ugarte 1993)

<sup>32</sup> Adibide hau eta bibliografia-argibiderik ez duten gainerako guztiak guk geuk bildu ditugu (ikus i lan hasierako berriemaileen zerrenda).



*gauz bat, anai bat, makil bat, aitton bat, amon bat; baina, pertsona bat, letxua bat* (Legorreta)

Oro har, *-a* berezkoa *-i* bokalaren ondoren galtzen da:

*animali bat, famili bat, anai bat, pasteleri bat...*, *-keria > -keri* (*txorakeri bat*) (Gabiria)

*anai bat, animali bat, famili bat, parroki bat, txorakeri bat, inportantzik* (Lazkao)

*anai, aapi* 'habia', *pizti, kontzientzi, mani* 'mania', *malizi, osti* 'hostia', *parroki, premi, probintzi, loteri*, *-keri* atzizkia (*umekeri, astakeri, gaiztakeri...*) (Legazpi) (Ugarte 1993)

Tolosaldeko hegoaldean, *-a* berezkoaren galera indartsuago dago:

*anai bat, pasteleri bat, famili bat, pizti bat, txorakeri bat...*; *gauz bat, amon bat, aitton bat, sardin bat, baatz bat, letxu bat, eliz politte, makil politte, izkin bat...*; eta *lotsik* 'lotsarik'; baina, *dozena bat, persona bat* (Ikaztegieta)

*anai bat, karnizeri bat...* *gauz bat, makil bat, aitton bat, amon bat, létxu bat, eliz bat, sardin bat, pertson bat* (Amezketeta)

Izagirreraren lanaren arabera, Tolosan, 1967. urte inguruan, *-a* organikoa sarritan gordetzen zen, lehiak ere bazeuden, erdialdean arruntak diren *-a* gabeko zenbait aldaera ez zeuden erabat nagusituta, eta noiz edo noiz mugagabea behar zenean ere *-a* agertzen zen (Izagirre 1967):

- *-a* organikoa gorderik:

*amar eliza, arrantza batzuk, bi tipola, bi txonkatilla* 'orkatila', *galtza pare bat, aittona bat, amar giltza, bi amona...*

- Lehia:

*gauz bat / bi gauza, gauza bat, bi baratz / bi baatza eta baatza guztiya* 'baratze'

- Mugagabea erabili beharrean, mugatzailea erabiltzea:

*arbera gutxi* 'arbel', *bi lanbata* 'larunbat', *bi txapela* 'txapel', *platera bat* 'plater', *iru-zoiya* 'zohi', *basura gutxi* 'basur'...

Garai hartan, Tolosan, honelakoetan galtzen zen *-a* organikoa:

- a) *-ia* bukaera duten hitzetan:

*anai bat, egi bat, burni* 'burdina', *-keria* atzizkia (*xorkerin, txakurkerik...*)

- b) Aldaera jakin batzuetan:

*bi kate, amar arrautz, arnas bat, gari-bal bat* 'bala', *lixu gutxi* 'lisiba', *paox gutzi* 'pagotxa'...

Dirudienez, Tolosan *-a* organikoaren galera indartsuago dago gaur egun Izagirreraren garaian baino:

*létxuk* 'letxugak', *dénbo* 'denbora', *sardin zarrak, person bat, manzanill ori* 'manzanilla hori'...

Tolosaldean arruntagoa da *-a* berezkoaren galera Goierrin baino, baina Tolosan bertan ez du Gipuzkoako ipar-ekialdean adina indar: *alabik, amik, neskik, plazik, dendik, festik* (Orio) (Iturain & Loidi 1995: 53).

### 1.1.2. Bokal luzeak

Goierrri inguruko hizkera batzuetan, hain zuzen, Deba ibarrean eta Nafarroako Basaburuan, Imotzen eta Burundan, bokal luzeak egin izan dira. Antza, Oñati inguruan gorde dira indar handienez, Oñatin eta Aretxabaletako Goronaetan (Zuazo 1995b). Inguruan dituen hizkeretan bezalaxe, XX. mendearen hasieran sistematikotasun handiz agertzen ziren bokal luzeak Goierrri osoan, hala sartaldean nola sortaldean. Hala ere, gaur egun ez du ematen ohikoak direnik; J. M. Azurmendik dioenez (1998), Zegamako euskaran ere bokal luzeak laburtu egiten dira gehienetan:

- Bokal + kontsonante + bokal > bokal + bokal:  
*zaaldu, iraazten, atseena, saar* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996)  
gehienetan, *irazi, akauta...*; baina, *iraazi, zaaldu, akaau* (Zegama) (Azurmendi 1998: 25)
- Bokal + *h* + bokal:  
*oostu, beera, leen, zaar, aari* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996)  
gehienetan, *al, len, aztu...*; baina, *aal, aarie, beera, leenbailen* (Zegama) (Azurmendi 1998: 25)
- Hitz elkartuak eta eratorriak:  
*ollaarra, mugaarri, saltaarri; bazkaari, gosaari, urteero* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996)  
gehienetan, *esaldi, artazi...*; baina, *esaaldi, artaazi* (Zegama) (Azurmendi 1998)
- Hitz-oinaren eta mugatzailearen artean:  
*umee, mallook, erriik, eskuuk, ankaak; larreen, kolkoon, erdiñ, olaan* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 57-65)  
*buruun, erriñ, ankaan, soroon; astook, ankaak, arriik, buruuk* (Legazpiko Brinkola) (Izagirre 1994: 85-86)  
*étxek, méndik, búrník, bások, éskuk, lúrreta* 'lurretara' (Beasain) (Hualde 1997)
- Bokal + *-ena*, *-ago*:  
*geyéena, guchúina, urrutúina, gertúuna* (Segura, XX. mendearen hasieran) (Garmendia 1911-12)  
*gáztena, górríña, zúríña...* (Beasain) (Hualde 1997)
- Aditz-izenetan, Goierrriko Zegaman, Seguran eta Ataunen bildu dira:  
*sartzéen, eltzéen, artzéeko, galtzéeko* (Segura, XX. mendearen hasieran) (Garmendia 1911-12)  
*saltzéen, galtzéen, artzéeko, biltzéeko / gustátzen, saltzéko, artzéa* (Zegama) (Izagirre 1994: 246)  
*étortzen, íbiltzen, ártzen...* (Beasain) (Hualde 1997)

Dena dela, Lekuonak 1956an eta Larramendik XVIII. mendean Goierriko bereizgarritzat jo zituzten <i> eta <u> bokal itxien asimilazioaren ondorioz sortutako bokal luzeak. Goierritik ekialdera, Tolosaldeko hegoaldean ere agertzen da bilakabide hau. Badirudi, Bonaparteren garaian, Tolosan bokal luzeak egiten zirela (Pagola 1993-5: 2737). XX. mendearen hasieran, *EI*-ren arabera, antzeko egoera zegoen Goierri eta Tolosaldeko hegoaldean; eta, XX. mendearen erdialdean, Gaztelun agertzen ziren, baina dagoeneko oso ahul (Holmer 1964: 15). Izagirrek 1967an Tolosan egin zuen lanean bokal luzeak agertzen dira, baina ahul; eta, gainera, bokal luzeak gordetzeak edo laburtzeak hautazkoa dirudi. Izan ere, batzuetan hitz bera bitara ager dakiguke: *zaartz* ‘zahartz’ (Ibarra) / *zartz* (Tolosa), *neskazar* (Ibarra). Honako hauek dira inguruneak (Izagirrek 1967):

- Bokal + *h* + bokal:  
*aariye* ‘aharia’, *aaztu*, *maátsa*, *naastu*, *saatsa*; baina, *astelena*, *lengusu*, *ostu* (Ibarra), *mixto* ‘mihizto’, *mia* ‘mehea’ (Tolosa)
- \*Bokal + kontsonante + bokal > bokal + bokal:  
*baatzaa*, *goostie*, *maatilla*, *pixkaat*, *suurre* ‘sudur’ (Ibarra), *baatzuriye*, *eskaatza* ‘ezkaratz’, *iisko* ‘idisko’ (Tolosa); baina, *itaiya* ‘igitai’ (Tolosa)
- Hitz elkartuetan:  
*meta(a)ga* (Leaburu), *mugaarriya*, *segaaztala* (Tolosa).
- Hitz-oinaren eta mugatzailearen artean, bokal luzea laburtu egiten da:  
*bi kunde(e)n*; baina, *kunde baten*, *azikontxok* (Ibarra), *galtzerdik* (Belauntza), *guazik* ‘guraizeak’ (Tolosa)...

### 1.1.3. Hiatoetako bilakabideak

Aztergai dugun eremuan, hiatoetako bilakabideei, betidanik, berealdiko garrantzia aitortu zaie eta Gipuzkoa barruko hizkeren arteko banaketa egitean irizpide nagusienetako bat izan dira<sup>33</sup>. Bonapartek azaltzen digu hitz-oinak mugatzailea hartzean zein aldaketa izaten duten. Hona hemen aztergai dugun eremuari dagozkionak (Irizar 1981):

- Gipuzkeraren hegoaldeko azpieuskalkian, Zegamako hizkeran (hain zuzen, Seguran, Ormaiztegin, Legazpin eta Telleriarte auzoan):  $-a + a > e\acute{a} - \acute{a}$ ;  $-e + a > e\acute{a}$ ;  $-i + a > i\acute{e}$ ;  $-o + a > o\acute{a}$ ;  $-u + a > u\acute{e}$ .
- Zegamako hizkerako Ordizian, aldiz, ondoko eredia aipatzen du:  $-a + a > \acute{a}$ ;  $-e + a > e\acute{a}$ ;  $-i + a > i\acute{e}$ ;  $-o + a > o\acute{a}$ ;  $-u + a > u\acute{e}$ .
- Gipuzkeraren iparraldeko azpieuskalkian, Tolosako hizkeran (hain zuzen, Villabonan, Andoainan, Urnietan, Albizturren, Bidanian eta Goiatzen):  $-a + a > \acute{a}$ ;  $-e + a > i\acute{a}$ ;  $-i + a > idd\acute{a}$ ;  $-o + a > u\acute{a}$ ;  $-u + a > ub\acute{a}$ .

<sup>33</sup> Hitzunek ere egundoko garrantzia aitortzen diete bilakabide hauei beste hiztunen jatorria jakite aldera. Hona Albizturko Pedro Arruek 1998an zioskuna: «... emen *erbie abitu omen*’tzan, *erbie*, da Bidanin *erbiya*, *erbiya*... da Errezillen *erbü*. Guk *e* eraste’iegun bezela, aik...»

Badirudi Bonapartek, sailkatzeko garaian, oso kontuan izan zituela fonologia-bilakabide hauek eta *gipuzkeraren* iparraldeko eta hegoaldeko azpieuskalkiak bereiztean egundoko garrantzia eman zuela. Bonaparte ez da bakarra izan, bide bere-tik abiatu baitira Beterriko eta Goierriko hizkeren arteko bereizgarriak azaltzen jar-dun duten gehienak. Irizpide horien gainean eztabaida ugari egon da. Sarri esan izan da desegokia dela hain bereizgarri gutxitan oinarritzea, are gehiago bilakabide horiek nahikoa berriak direla aintzat hartuta.

#### a) `a > e / i, u (C)\_\_\_` asimilazioa

Hego Euskal Herrian barrena dagoen asimilazio hau<sup>34</sup>, erdialdeko euskalkiari dagokionez, Goierri eta Tolosaldeko hegoaldean agertzen da. Larramendik, XVIII. menderako, Goierriko eta bere inguruetakoa bilakabidetzat hartu zuen (1969: 321). Uriartek 1858an Bonaparteri egindako gutunean zioenez, asimilazio hau Tolosaldeko hegoaldera barneratzen zen, Alegiaraino bertaraino iristen baitzen; ez, ordea, Tolosara (Ruiz de Larrinaga 1954: 69). Baina XX. mendearen hasieran, *EI*-ko datuen arabera, Goierri eta Tolosaldeko hegoaldean betetzeaz gain, Tolosaldeko ekialdean –Orexa; Elduain, Leaburu...– eta Tolosako baserrietan ere bazegoen; ez, ordea, Anoetan, ezta Beterri aldean ere.

Gaur egun, eremu honetatik ezar daiteke bilakabide honen isoglosa<sup>35</sup>: Goierri osoa, Tolosaldeko hegoaldea –Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain, Abaltzisketa, Amezketeta, Altzo–, Nafarroarantz dagoen eremua –Lizartza, Orexa, Gaztelu, Berrobi, Elduain, Berastegi–, Leaburu, Belauntza eta Albiztur. Tarteko eremua osatzen dute Ibarrak, Izaskunek eta Tolosako zenbait auzok (Olarrain, San Blas...), horietan hainbat bilakabideren arteko lehia dagoelako.

Asimilazio bilakabide hau oso hedaturik dago Hego Euskal Herrian barrena. Euskal Herriko mendebalean indar handia du, baita Ultzaman ere, eta aztergai dugun eremuan ere badu indarrik. Hala ere, inguruneak ez dira berak. Ikus ditzagun asimilazio honek Goierri dituen inguruneak<sup>36</sup>:

<sup>34</sup> Gipuzkoako hegoaldean eta ia Bizkaia osoan, Arabako eremu euskaldunean eta Nafarroa Garaiko eremu zabalean. Bertan, Ipar Euskal Herriko muga ondoko hizkerak dira salbuespena: Basaburu Txikiko hizkera batzuk (Arano, Goizueta, Saldias eta Beintza-Labaien), Bortziriak, Sunbilla, Malerreka, Bertizarana, Aurizberri eta Auritz, Artzibar eta Aezkoa-Erronkari bitarteko eremua. Beraz, Goierri eta Tolosalde azpiko eremuan asimilazioa dugu: Araitz, Larraun, Basaburu Handia, Ultzama, Gorriti, Uitz, Ezkurra, Esteribar, Erroibar, Imotz eta Sakana (Zuazo 1998d).

<sup>35</sup> Indartsu dago asimilazioa Legazpin (Ugarte 1993) eta Legazpi aldamenen dagoen Debagoienean (Oñatin, ez) (Zuazo 1999c). Urretxun, ordea, asimilazio hau ez da betetzen eta Gipuzkoako iparraldetik zabaldu diren epentesiak eta  $e > i$ ,  $o > u$  disimilazioak agertzen dira (Izagirre 1967). Horixe bera gertatzen da Beizaman, eta Errezilen: asimilazio honen tokian disimilazioak ager-tzen dira (EHHA 1999).

<sup>36</sup> Goierritik sartaldera dagoen Debagoienean, adibidez, asimilazioa indartsuago dago, Arrasaten

- Hitz-oina *-i, -u* + mugatzailea:  
*errie, gorrie, mixerie; apellidue, infernue, kanposantue, maisue* (Segura)
- *-i, -u* C + mugatzailea:  
*mingaiñe; lagune, gezurre, elurre, ogiapurre* (Lazkao)
- Morfema barruan, *eduki* eta *izan*-en adizkietan:  
*die, giñen, zien, litzeke; baauket* (Segura)
- *-tza* pluralgilea: *zeitzen, itzek...* (Ataun) (Azurmendi, J. M., 1996)

Ondorengo inguruneetan, aldiz, ez da asimilazioa egiten:

- *-a* organikoa duten aldaeretan, zenbait aldaeratan izan ezik (*beintzet, aiñe...*), asimilazioa ez da betetzen; *-a* organikoa galdu ohi duten hitzak (*-i* bokalez bukatzen direnak) asimilatu egiten dira, hiztunen gogoan *-a* hori mugatzailea delako edo: *ermitta, botilla, tripa, gauza, tipola* (Lazkao), *letxua, kipula* (Gabiria) / baina, *ginasie, pazientzie, inportantzie, aapie* (Gabiria).
- *-oi* diptongoaren atzean: *baloia, frontoia, arrazoia...* (Segura).
- Mugatzailea ez den beste morfema muga gaindituta:  
'partizipioa + *-ta*': *lotuta, ikusita, jarrita* (Gabiria); *-garren* atzizkiarekin, *ama-seigarren, emeetzigarren...* (Segura); aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean, *etorri da* (Lazkao); *bat* zenbatzailearekin, *famili bat, parroki bat, anai bat* (Gabiria)...

Izagirreraren 1967ko "Tolosako euskeraren iztegirako gaiak" lanean, oso indartsu zegoen bilakabidea Ibarra eta Belauntzatik hegoalderantz: Ibarra, Belauntza, Leaburun, Berrobin, Lizartza, Oresan... gaur bezala. Baina Tolosan ahul zegoen eta, gainera, Gipuzkoako iparraldetik zabalduko epentesiekin lehian. Hona hemen txandaketa esanguratsu batzuk:

*orie, gorrie* (Leaburu) / *oriya, gorriya* (Tolosa); *itzulariye, maskuiye, zaiñe* (Ibarra) / *itzulariya, mazkuriya, zaiña* (Tolosa); *loxuxte bat* (Lizartza) / *loxusta* (Tolosa)...

---

ingurune hauetan guztietan betetzen da-eta (Elortza & Ormaetxea 1995): hitz-oina *-i, -u* + mugatzailea (*begixe, ardixe; burue, eskue*); baita jatorriz *-i, -u* horiek *-e, -o* direnean (*etxie, kafie; usue* 'usoa', *otzue* 'otsoa'), *-a + a > -ie* (*patatie, ankie*); *-oi* diptongoarekin (*algodoie*); *i, u + C* + mugatzailea (*aitte, agiñek*); *izan*-en adizkiak (*die, sien* 'ziren'); morfema barruan (*bixer* 'bihar', *bielduko* 'bialduko', *isen-go* 'izango'); mugatzailea ez den beste morfema-mugak gaindituta ('partizipioa + *-ta*' *ildde* 'hilda', *gisaute*)... Era berean, indartsuago dago Goieritik iparraldera dagoen Azkoitia eta Azpeitia aldean (EHHA 1999 eta EAEL I 1983): hitz-oina *-i, -u* + mugatzailea (*aundixe, txikixe, dirue*); jatorriz *-i, -u* horiek *-e, -o* direnean (*gurasuek; entierue, umiek, jeneralien*); *-a + a > -ie* (*aixkorie, makillie*); *i, u + C* + mugatzailea (*atzetiken*); *-a* berezkoa denean (*mille, amarmille, amaike*); *izan*-en adizkiak (*ie* 'dire' *zien*)... Goierri azpian, Nafarroako mendebaleko Leitzaan ere indartsuago dago asimilazioa, eta inguruneak ez dira berak: *edun* eta *izan*-en adizkietan (*litzeke, dauket*); *-a* berezkoarekin (*flaute, juergiste*); aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean (*eldu* (*d*)); *bat* zenbatzailearekin (*arri te zur; zubi bet*); 'partizipioa + *-ta*' (*arritute, sartuteko* 'sartutako'); adlatiboarekin (*Berastegi(r)e*); zenbait atzizkirekin (*arrike*)... (Olano 1998: 12, 60-63).

Tolosan lehia zegoen (Izagirre 1967):

Asimilazioa: *uztarriye, zinzarriye; burube, katillube, maillube; giltzurdiñe, belaune*

Asimilaziorik ez: *agiña, aitta, mutilla...*

Txandaketak: *ekaitza / ekaitze, borobilla / borobille, basura / basure...*

Guk Tolosaldeko hegoaldean eta ekialdean, bilakabide hau indartsu aurkitu dugu, Goierrin betetzen den ingurune beretan. Tolosan, ordea, ez dugu ia jaso. Hona hemen Tolosaldeko adibide batzuk:

- ‘Hitz-oina *-i, -u* + mugatzailea’:  
*aundie, diferentzie, beie; dirue, delikatue, apetittue* (Ikaztegieta); *anaie, maie* ‘mahai’, *jaie, aragie; porrue, doñue, kontue, autobusek* (Amezketeta); *baserrie, mixerie, izardie; maixue, otordue* (Belauntza)
- ‘*-i, -u* + C + mugatzailea’:  
*politte, gasoille, iriñe; autse, lapurre, bildurre, -tikan > -tiken* (zeatiken, atzetik-ken)... (Ikaztegieta); *desberdiñe, Tolosatiken, politte, itzek; elurre, gurutze, lagune, ude* ‘ur’ (Amezketeta); *atte, jakiñe; erdaldune, laune* (Belauntza)
- Morfema barnean, *izan* eta *eduki*-ren adizkiekin batez ere:  
*die* ‘dira’, *zien* ‘ziren’, *nitzeke, lieke* ‘lirateke’; *dauket* (Ikaztegieta); *dauket, zeuken, die* ‘dira’, *litzeke* ‘litzateke’ (Abaltzisketa)
- *-a* organikoarekin, ahul:  
*miserie, diferentzie, égie, anaie, bakoitzek; baina, aizpa, tripa...* (Ikaztegieta); *natilla, gauzak, sekula, berdura* (Belauntza); *elize, sille, ermitte, tripe; létxue, típule* (Amezketeta)<sup>37</sup>
- *-oi* diptongoaren atzean ez da egiten: *takoiak, balkoia, frontoia* (Ikaztegieta); *morroya* (Belauntza)
- Mugatzailea ez den beste morfema muga gaindituta, ez da egiten:  
‘Partizipioa + *-ta*’: *ezkonduta, lañotuta, erotuta* (Ikaztegieta), *nekatuta, oittuta, makurtuta* (Belauntza). Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean, *etorri’a* (Ikaztegieta). *Bat* zenbatzailearekin, *anai bat* (Amezketeta); baina *EAEL*-n adlatiboan agertzen da, Tolosako San Blas auzoan: *tokie* ‘tokira’, *mendi(r)e*
- *<i>* eta *<u>* bokalak jatorriz *<e>* nahiz *<o>* direnean ez da arrunta, baina Ibarren batean edo bestean jaso dugu<sup>38</sup>:  
*potajia / potajie, nekie, etxien* ‘etxean’, *mekanikue ...* (Izaskun)

<sup>37</sup> Amezketan oso indartsua da bilakabide hau, *-a* organikoa dela ere, maiz, asimilazioa egiten baita, inguruko herrietan ez bezala.

<sup>38</sup> Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean ez dira *ea > ia* eta *oa > ua* disimilazioak egiten, eta, horrenbestez, hitzak ez dira aldatzen: *elizea, déndea, etxea, tontoa* (Lazkao).

Hala, bada, asimilazio bilakabide hau ingurune beretan betetzen da Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean; eta berdintsua da Aresoko egoera, ez, ordea, Leitzakoa, ezta Azkoitia-Azpeitia aldekoa, Ultzamakoa, Burundakoa edo Debagoienekoa ere.

**b)  $e + V > i$  eta  $o + V > u$  disimilazioak**

Bilakabide hauek ez dute eremu trinkorik osatzen, baina Euskal Herri osoan aurki ditzakegu. Itxura denez,  $o + V > u$  disimilazioa  $e + V > i$  baino eremu murritzagora zabaldu da. Gipuzkoari dagokionez, iparralde osoan eta Deba ibarrean daude (Zuazo 1998d: 224). Tolosaldeko iparraldean bilakabide hauek betetzen dira, baina Goierrin ez dira arruntak, eta Tolosaldeko hegoaldean eta Nafarroa aldera dauden Tolosaldeko herrietan ere ez:

*elizea, déndea, etxea, kafea, jendea; tontoa, ardoa* (Lazkao)

*esnea, semea, diferentea; ardoa, saltoa, polittagoa, Zeamakoa* (Amezketak)

XIX. mendearen erdialdean, Bonapartek Tolosako hizkerako (eta Hernani eta Azpeitiko) fonologia-bilakabidetzat jo zituen, baina XX. mendearen hasierako *El*-ko datuen arabera, Tolosatik Beterrirantz dauden herrietan baino ez zeuden: *luzia* eta *emengua* modukoak Tolosan, Tolosaldeko iparraldean (Alkizan, Larraul, Asteasu eta Zizurkil), eta Urolaldera dauden Beizaman eta Bidanian jaso zituzten. Izagirrek 1967an adibide ugari bildu zituen Tolosan, baina oso gutxi Ibarra, Belauntzan eta Leaburun. Tolosan gehienbat absolutibo singularrean betetzen da, gainerakoetan, mugatzailea maiz asimilatzen delako. Hona hemen inguruneak<sup>39</sup>:

- Mugatzailearekiko loturan:  
*deportia, differentia, jendia, korrientia, kafia, zinia, suertia, biajia, tomatia bakallua, butanua, fallua, litrua, periodikua, zapaterua, ogitartekua; basarrikua, Bergarakua, oraingua; baina, saardoa, bokadilloa, duroa, kintakoa...*
- Inesiboan:  
*autobusian, jeneralian, lanian, lanrroberrian, noizian bein, trenian, zuzenian, barrenian, giñanian; baina, kotxean, bizkarrean, kuartelen... auzuan, juliuyan, leenguan, refugiyuan; baina, bokadillon, ondo-ondon...*
- Absolutibo pluralean:  
*gaztiak, kotxiak, urtiak, senarremaztiak; baina, semek... arduak, goguak, jayuak, onttuak; Amarozkuak, ingurukuak...; baina, lagostinokak, emengoak eta alakok, kañonazok, amar xentimokok...*

<sup>39</sup> Itxura denez, disimilazio hauek indartsuago daude Beterri aldean: *trixtia, moria; kaliak, semiak; kotxiakin, trenian, bapatian, etorri zanian; bixitatzia, eatia, emakumi oi, semioik* ‘seme oik’, *semioidi* ‘seme oidi < seme horiei’, *Astiasu* (Lasarte-Oria) (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996).

- Beste deklinabide kasuekin:  
*emastiakin, jendiai*  
*perretxikuta, astuakin*
- Morfema barnean oso bakanka agertzen da:  
*bear / biar, beatza / biatza txandaketak, mia* ‘mehea’ (Tolosa)...  
*juan / jun*
- Aditz-izena + *-a*: *izatia, jatia*; baina, *itz eitea, juatea, ibiltzea, ikustea...*
- Sandhietan, bakanka betetzen da:  
*orku ama* (Anoeta); *EHHA*-k hau dakar: *kari oi* ‘kare hori’ (Tolosa)
- Beste morfema mugak gaindituta ez da betetzen <sup>40</sup>

Geuk jasotakoaren arabera, Tolosan, Ibarra eta Izaskunen para daiteke bilakabide honen muga; izan ere, honako eremu honetan ez dugu bilakabide honen arras-torik aurkitu: Goierri (Legazpi barne), Tolosaldeko hegoaldean –Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain, Abaltzisketa, Amezketeta, Altzo–, Nafarroa aldera dauden Tolosaldeko herrietan –Lizartza, Orexa, Gaztelu, Berrobi, Elduain, Berastegi–, Albizturren eta Belauntzan. Bestalde, Urretxun jaso da, baita Beizaman eta Errezilen ere (*EHHA* 1999).

### c) /i\_\_V/ arteko [j] epentesia eta /u\_\_V/ arteko [b] epentesia

Euskal Herriko erdigunetik hiatoetako epentesiak tartekatze joera zabaldu da. [j] tankerako epentesiak alderdi hauetan agertzen dira: Gipuzkoako iparraldean (Urolaldea barne), Bizkaiko ekialde erdian, Deba ibarrean, Lapurdiko kostaldean eta Nafarroa Garaiko iparraldean (Bortzirietan, Sunbillan, Aranon eta Sakanan). Bestalde, /u\_\_V/ arteko [b] epentesia eremu murriztagora zabaldu da eta, antza, atzeraka doa. Gaur egun, Gipuzkoako iparraldean (atzeraka), Sakanan eta Lapurdiko itsasaldeko hizkera batzuetan (aztarnak) aurkituko dugu (Zuazo 1998d).

Tolosan epentesiak tartekatzen dira. Bonapartek itzularazitako Tolosako dotri-nan (1866) honelakoak agertzen zaizkigu (Pagola, R. M. 1993-6: 3045):

*advertenciya, azpiyan, gloriya, guciyen...*; morfema barruan, *fiyelac, misteriyoya, ocasiyo, pasiyo, suspiriyoz, viyotza...*

*aingueruba, buruba, cristaubaba, infernuba, merementuba, santuba...*

<sup>40</sup> Lekuonaren iritzi, *e + V > i* eta *o + V > u* disimilazioak duela gutxi zabaldu dira Beterritik Tolosara eta berritasun hori suma daiteke, Tolosan Beterrin baino aurrerago eraman dituztelako: Beterrin ablatiboa morfema muga zen; Tolosaldean, aldiz, morfema muga hori gainditzen zuten. Honela zioen Lekuonak (1956: 176): «*Etxea* Donostia’ko modara *etxia* esaten asita, zenbait lekutan, Tolosa inguruan, txakur bati “*Pasa etxera*” esateko ere “*Pasa etxia*” esan ohi zaio (...) Bear baño aurrerago joatea bait-da ori artutako abiaduran. Erderaz “*pasarse de rosca*” esango lizatekena. Beterritar batek iñoiz ere egingo ez duana.». Alabaina Izagirrek ez zituen ingurune horretan jaso (1967) eta gaur egun ez dira ohikoak ez Tolosan, ez Tolosaldean.



Baina Goierri ez dago bilakabide honen arrastorik. Hona hemen Beasaingo adibide batzuk (Hualde 1997: 130-140):

mugatzailearekiko loturan, *burnie, égie, txistularie, béltzegie*; diptongo ostean, *bal-kóia, melókotoia, gáraie, ibaie, léioa*; morfema barnean, *aiázi, ió, jaió, kaléndarioa bixígue, eskúe, kátillue, léengusue, liburue, órdué, ostátue, petxúe*

Goierri bezala, Tolosaldeko hegoaldean ere ez dago bilakabide hau. XX. mendean hasieran, *EI*-k Tolosatik Beterrirantz dagoen eremuan baizik ez zuen jaso:

*egidde, ebidde, egiya* modukoak Tolosako iparraldean –Anoeta, Alkiza, Aia, Larraul, Asteasu, Zizurkil– Elduainen, Leaburun, Tolosako baserrietan, Beizaman eta Bidanian

Alabaina, Izagirrek (1967) [j] epentesia tartekatze joera indartsu aurkitu zuen, Tolosan batez ere, baina Ibarra eta Belauntzan ere jaso zuen. Nolanahi ere, hainbat bilakabideen arteko lehia zegoen alderdi horretan: txandaketak ugariak ziren (*aardiya / aárdie*) eta  $a > e / i, u$  (C)\_\_\_ asimilazioarekin batera agertzen zen. Izan ere, Izagirrek esan zuenez, etxetik etxera aldatzen ziren *argiya, argiye, argie; buruba, burube, burue*. Guk, [j] epentesia Elduain, Ibarra, Tolosa eta Anoetatik Beterrirantz jaso dugu. Baina Belauntzan, Albizturren eta Leaburun ez dugu aurkitu, ezta Tolosaldeko hegoaldean eta Goierri ere. Bilakabide hau ingurune hauetan betetzen da<sup>41</sup>:

a) <i> bokal silabikoa dela:

*batxuiya, kafeteriya, zapateriya, eliz parrokiya, inbidiya*; baina, *aundia, mendia...*

b) <i> diptongoa osatzen dagoela:

*balkoiya, garayian, zelayian* (Tolosa); *anaiya* (Anoeta)

c) Morfema barruan:

- $VhV > VyV$ : *biyar*; Izagirrek hauek bildu zituen, *biyotza, biyurtu, iyo* ‘eho’ (Tolosa), *giyarria, leiyua* (Ibarra)
- $VV > VyV$ : *Erniyo, eskursiyo, juliyon, konzentraziyok, oliyo, prozesiyua, radiyua, premiyo, refugiyuan, estaziyoiko, telebisiyokin, bronkiyotati* ‘bronkioetatik’
- Nor-Nori-Nork saileko adizkietan ez dugu aurkitu: *dio, diozu, nioke, nion*. Irizarren iritziz ere, Beterrin ez bezala, Tolosaldean aditz laguntzaileetan ez dute epentesirik tartekatzen (Irizar 1991: 185)

<sup>41</sup> Ondorengo adibideen arabera, bilakabide hau indartsuago dago Beterrin: *periya, erromeriya, pulmoniya, ardiyak, begiyak, mendiyon, oyian* ‘ohean’; *tokiyoixe* ‘toki horixe’, *zubiortan* ‘zubi horretan’; *ziyen, niyon; diyozu* (esan aditza); *intentziyoik, komoniyo, erriyo* ‘río’, *ariyo* ‘adio’, *radiyua; Oriya* (Lasarte-Oria) (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996).

d) Sandhietan, bakanka jaso dugu:

*alderdi yonta, alderdi yori, toki yortan* (Tolosa); *baserri yura* (Izaskun); *bazkai yartan, artzai yoyek* (Anoeta)...

*EAEL*-k hauek dakartza: *eztakiy-onek* (Tolosa, 101 etn.); *garay-artan* (Asteasu, 97 etn.) (*EAEL II*). Eta *EHHA*-k honakoa: *ixtoriyoi* (Asteasu) (1999: 70, 3.24 testua)

Bestalde, [b] epentesiari dagokionez, *EI*-k eremu murrizagoan jaso zuen: Tolosako iparraldean –Anoeta, Alkiza, Larraul, Asteasu, Zizurkil, Aia...–, Beizaman eta Bidanian. Lekuonaren iritiz (1956), [b] epentesia tartekatzea ez zen bilakabide orokorra Beterrin eta Tolosan ez zen gehiegi zabaldu. Alabaina, Izagirrek bildu zuen (1967), Tolosan gehienbat eta mugatzailearekiko loturan bereziki. Gaur egun, Beterritik Anoetaraino heltzen da [b] epentesiaren eremua: Tolosan eta Ibarra ez da apenas azaltzen; Anoetan bai, baina ahul.

a) Bokal silabikoa dela:

Izagirreraren lanean (1967): *betizuba, ikulluba, itxuba, lengusuba, musuba, agoz-tuba* (Tolosa); *eskuba, ixipuba, milluba, mutuba* (Ibarra). Diptongoaren ostean, *gauba* (Tolosa). Tolosan asimilazioaz agertzen zen maiz; ez, ordea, hortik kanpo: *burube, katillube, maillube*.

Guk oso bakanka jaso dugu, indartsuena Anoetan: *diruba / dirua, maillubakin, garbantzuba, otorduba, deseinduba* ‘deseginda’ (Anoeta); *kontuba / kontua* (Tolosa); *bizimoduba* (Izaskun); *porruba, marruba* (Ibarra).

Bestela ere jaso da bakanen bat: *artaburube* (Tolosako San Blas auzoa), *auga, arkuba* (Asteasu), *buruba, eskuba* (Asteasu eta Bidania), *suba* (Larraul)... (*EAEL II*); *suba* ‘sua’ (Tolosa), *diruba* (Beizama), *erlejuba* (Urretxu) (*EHHA*: 1999); *eskuba* eta *katilluba / katillua* (Leaburu) (Etxebarria 1983: 170, 173).

b) Sandhietan:

Guk ez dugu jaso, baina *EHHA*-k haxe dakar: *kontuboi* ‘kontu ‘hori’ (Asteasu) (1999: 70, 3.24 testua). Pello Errota asteasuarrak ere sandhietan sartu zituen inoizka bere bertsoetan: *sentimendub’au* (Zavala 1993: 217).

Lekuonak dioenez, epentesiak tartekatzea duela gutxi Beterritik Tolosara zabal-dutako berrikuntza da eta, alderdi batean eta bestean garai ezberdinetan gertatu denez, inguruneak ez dira berdinak:

«Bañan “asi” diot. Asi bakarrik. Eta alaxe da. Oraindik ez bait-dute tolosarrak bear bezela bukatu ta burutu beren joera ori. Oraindik ez dira oitu *buruba* esaten. Eta *begiya* esaten duten arren, ez dizute esango “eman *diyot*-ik”. *Diyot*’en ordeez, *diot* esan oi da gaur oraindik Tolosa’n. Abiadura artuta dago *diyot* ori –eta berdin baita *niyon* eta *nizkiyon* etab.– bañan eldu ez da eldu *-ya* bai, eldu da; bañan *-yo* ez. Bidea da, orra-tik; eta urte batzuek barru elduko da *-ya* bezela *-yo* ere, *begiya* bezela *diyot* ere.» (1956: 175-176).

Bestalde, bilakabide honek atzeraka egin duela ematen du. Bertatik bertara jakin dugu Anoetan adin batetik gorakoek *diruba, garbantzuba, otorduba, munduba...* tankerakoak darabiltzatela, baina gazteek ez dituztela gehiegi erabiltzen<sup>42</sup>. Hain nabarmena ez bada ere, antzera gertatzen da *basarriya, erriya, ogiya, inbidiya* bilakabidearekin eta *ea > ia* disimilazioa duten *goizian, lanian, etxian, eunian* tankerako inesiboekin. Aitzitik, itxura denez, azken bilakabide horiek Asteasu aldean arruntak dira gazteen artean.

#### d) Hitz-oina *-a + a > -a / -ea / -aa / -á*

*-a* bokalez amaitzen den hitz-oinari mugatzailea jartzeak emaitza asko izan du Euskal Herrian barrena. Erdialdean *-a + a > -a* nagusitu da, baina esparru zabal batean *-a + a > -ea (>-ia, -ie...)* bilakabidea bete da. Azken bilakabide horrek mendealeko euskalkiaren eremua aise gainditzen du: Bizkaian, Arabako eremu euskaldunean, Gipuzkoako Deba ibarrean, Azpeitia-Errezil aldean, Goierri osoan eta Nafarroa Garaiko Burundan ere aurkituko dugu. Eremu horretatik ekialdera, gainera, bilakabide horren aztarna hauek daude: *-á* Abaltzisketan, zenbait hitzetan, cf. *aská, azá, babá, neská, saldá* (Zuazo 1998d:197); eta *-aa* Zumaian (adinekoengan) (Gaminde 1995:319).

Hala, bada, Goierriin *-a + a > -ea* bilakabidea dugu nagusi. Goierri guztia harra-patzen du, ekialdeko muga Zaldibia-Gaintza-Legorreta lerrotik baitoa. Bilakabide hau oso indartsu dago eta mailegu berrietan ere sistematikotasunez betetzen da<sup>43</sup>:

*zopea, déndea, éuskerea, izketea, bizíkletea, pelótea, kaníkca, sókea, síllea, gerrea, bístea, eskobea, gaztañea, dozenea, eskolea, etiketea, bentajea, artístea, konfiantzea* (baina, alaba eta aizpa) (Zaldibia)

*ermittea, tripea, elizea, birikea, mantekillea, kalenturea, lúmea; gauzea, botíllea, matráillea, bizíkletea, dénborea, déndea, gónea, mézea, néskea, pélotea...* (Gabiria)

*indiabea, linpiezea, pelotea, mezea, bizíkletea, subastea, kantea, bukaerea, aldake-tea* (Segura)

Bilakabide hau Legorretaraino iristen da, baina, itxura denez, galbidean dago, gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dutelako. Zaharrek *bizíkletea, patátea, dénbo-*

<sup>42</sup> Iosune eta Nerea Etxabeguren-ek esanda, 1998an. Atzerakada sumatzen da Orioko lekukotasunetan ere. Gaur *-u + -a > ua* dago Orion: *katua*. Txanka bertsolariak inesiboan *inguruban, munduban, orduban* gisakoak erabiltzen zituen, baina gaur egun *ingurun, mundun, ordun* dira arruntenak. Hala ere, adibideak bil daitezke, gehienetan absolutiboan eta gizonezkoen jardunean: *aluba, asfaltatuba, konbentuba, xextuba* (Iturain & Loidi 1995: 29).

<sup>43</sup> *-a + a > -ea* agertzen da Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741) (Lakarra 1985: 250).

*rea* egiten dute; baina gazteek, bitara: *-ea / -a*. Tolosaldeko hegoaldean, Abaltzisketa, Amezketa eta Ikaztegietatik hasita, gaur egun ez da ohikoa<sup>44</sup>. Itxura denez, bilakabide honek atzeraka egin du eta azken mendean eta erdi honetan Tolosaldeko hegoaldeetik ezkutatu da. Izan ere, Aita Uriartek Bonaparteri bidalitako gutun bati esker, badakigu 1858an bilakabide hori Alegiaraino heltzen zena (Ruiz de Larrinaga 1954: 69). Garai bertsuan –1856an Odriozolak egindako hiztegiaren–, Legorretan bilakabide hau agertzen zen, baina, Alegian bezala, *-a* bukaerarekin lehian:

*anquea* ‘hanka’, *arnasea / arnasa*, *cantea* ‘kanta’, *cotea* ‘cota’, *cotillea* ‘cotilla’, *egabera* ‘hegabera’, *escortea* ‘eskorta’, *gorrea* ‘gorra’, *lastaideia* ‘lastaira’, *limea* ‘lima’, *locatzea* ‘lokatza’, *mayrredondea* ‘mesa redonda’, *mongea* ‘monja’, *olea* ‘ola’

Bestalde, *EI*-k XX. mendean hasieran, Goierri bezala, Tolosaldeko hegoaldean ere *-aa* bukaera jaso zuen:

*arreea* (Orendain eta Itsasondo), *neskaa* (Leaburu, Bidania, Beizama, Albiztur, Amezketa eta Zaldibia), *amaa* (Zaldibia)

*arreeak* (Amezketa, Itsasondo, Ataungo Aian, Lazkao, Idiazabal, Mutiloa, Brinkola eta Legazpi), *neskaak* (Beizama, Albiztur eta Segura)

Tolosan, ordea, *-a* jaso dugu, Izagirrek bezala:

*txuleta*, *denda*, *karrera*, *aldapa*, *prueba*, *pizina*, *dozena*

*alkandora / alkandora bat* (Belauntza), *erreka* (Leaburu), *errota* (Tolosa) (Izagirre 1967)

Dena dela, aspaldion, Tolosaldeko hegoaldean eta Urolalderantz dagoen eremuan bakan hauek bildu dituzte (*EAEI I*): *patatia*, *denboria*, *titi-puntia* (Bidania); *aingirea* ‘aingira’ (Alegia). Bestalde, *-gura* > *-gurea* egiten da:

*pixagurea*, *logurea*, *neargurea* (Ikaztegieta)

*azkuria*, *goraguria*, *indarguria* (Ibarra), *parragurea*... (Izagirre 1967)

### e) *-e* > *-a* nahasmendua

*-e* > *-a* nahasmendua mendebaleko euskararen bereizgarrietako bat da eta, oro

<sup>44</sup> Hitzunek garrantzi handia aitortzen diote hizkuntza-bilakabide honi. Amezketan honela esan ziguten goierritarren hizkeraz: «–S.: itzeitako posturen, doñue re bai... baño izkeran geiena nabarmentze’ie. –E.: *denborea*, *patatea*, *aizpea*... –S.: Baño doñun baño geio izkeran, leendabiziko zea beintzat... –E.: Guk *dénbora* aik *denborea*» (Satur Zabala eta Eusebia Galarza, 2000ko abenduan). Ikaztegiatan, gisa honetan laburbildu ziguten *-a + a* > *-ea / -a* bilakabideen arteko mugaz zuten ustea (Mari Karmen Amundarain eta Joxe Eizmendi, 1993an): «–M.: [Guk] Oi ñoiz *ez*, oi oaindik gorao da... –J.: Gu ez... ta Leorretan bai, oi Leorretan aste’a!... –M.: Baño Leorretan ezta orren fuerte ’saten, ezta re... –J.: Batzuk!... basarritarrak nunbait bai ta kalekok ez...».

har, *-a + a > -ea* bihurtzen den eremuetan betetzen da. Goierrin ere badago. *-a* duten aldaerak Goierri osoan daude zabaldua, baina, beharbada, indartsuago dago bila-kabidea sartaldean sortaldean baino:

*agura, kale-kutza* ‘kale-gurutze’, *albista latza* ‘albiste’, *andra, eskuara, golda* ‘golde’, *guraiza, sarda, tolara, landara, lora, ota, zuma* ‘zume’, *bara* ‘bare’, *bela* ‘bele’, *buetra* ‘butre’, *irensuga, irrintza* ‘irrintze’, *suga...*; eta ondoko atzizkiak: *-guna, -una* (*biurguna, aldapaguna...*), *-kuma* (*emakuma, katakuma, xoxokuma...*) (Legazpi) (Ugarte 1993: 184)

*andra bat, emakuma bat, bela bat, suga bat, landara bat, golda bat, kurutza...*; baina, *basurde bat, labe bat...* (Gabiria)

*lora bat, suga bat, -kuma* (*arkuma bat, katakuma bat, txerrikuma bat...*), *landara bat, besta bat / beste bat, udarak* ‘udareak’, *keizak* ‘gereziak’; baina, *andre bat, basurde bat, emákume bat, labe bat, beltzune bat* (Lazkao)

*lore bat / lora bat, lórak* ‘loreak’, *maindirak*; baina, *andre bat, emákume bat, arkume bat, gurutze bat...* (Legorreta)

XIX. mendean, honelakoak paratu zituen Legorretako Odriozolak bere hiztegian:

*ata / atea* ‘ahate’; *lora* ‘lore’ (eta *lorachoa, loraguillea*; baina, *loretua*), *tolara* ‘dolare’, *zorna* ‘zorne’

Tolosaldeko hegoaldeari dagokionez, 1913an Lizartzan *txerri kuma* jaso zen (Etxebarria 1992: 615), eta, urte batzuk geroago, 1981ean, Altzo-Txarama aldeko berriemaile batengandik *andrak* jaso zuten (Etxebarria 1983: 170). Dena dela, Tolosaldean bilakabide hori ez da ohikoa:

*emakume bat, lore bat, andre bat, ote bat* (Ikaztegieta)<sup>45</sup>

*emákume bat, lore bat, arkume bat, andre bat* (Amezketeta)

## f) Mugatzailearen asimilazioa

Bilakabide hau Euskal Herri osoan agertzen da, baina ez du eremu trinkorik osatzen<sup>46</sup>. Indar handiagoa du toki batzutan bestetan baino, baita ingurune desberdinak ere<sup>47</sup>. Gipuzkoan, Azpeitia aldean, Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean egiten da. Azken bi eremu horietan ingurune hauetan ager dakiguke:

<sup>45</sup> Antza denez, Ikaztegieta aldean, zenbait aldaera aldatzen dira baserri batetik bestera: Legorretatik gertu dauden (edo dagoeneko Legorretakoak diren) baserrietan *zozokumak, lorak* entzun daitezke eta, gainerakoetan, *zozokumek, lorek* agertzen dira (Ikaztegieta bizi den Jabier Diez-ek esandakoa). Guk *maindirak* ‘maindire’, *zuma* ‘zume’ jaso ditugu Legorretatik hurbil dagoen Bentzuntzibar baserrian.

<sup>46</sup> Aztertzen dihardugun eremuaren inguruan, Sakanan, Basaburu Txikian eta Bortziritako hizkeretan. (Ibarra 1996:74).

<sup>47</sup> Burundan eta Basaburuan, absolutibo singularrean ere mugatzailea asimilatu egiten da (Zuazo 1995b: 304-305). Errezilen, hitz-oina *-i, -u* bokalez amaitzen denean bakarrik betetzen da asimilazioa, baita absolutibo singularrean ere: *mendi* ‘mendia’, *buru* ‘burua’ (Zuazo 1998).

- Absolutibo pluralean: *jolasak, umek, komerik, txintxok, maisuk* (Segura) *néskak, úmek, méndik, lépok, kátilluk* (Beasain) (Hualde 1997: 130-140)
- Inesiboan: *kalen, baserrin, baltseon* ‘baltseoan’, *eskun, normalen, zanen* ‘zenean’ (Segura) *goizen, soron, burun, giñenen* (Zegama) (Azurmendi, X., 1996)
- -ago eta -ena atzizkiekin: *berandugo, gutxigo, ezkutugokok* (Ataun) *gáztena, bérdena, górrriña...* (Beasain) (Hualde 1997: 130-140)
- Bestelakoetan: *euzkikin* ‘eguzkiarekin’, *odolkikin* ‘odolkiekin’, *jendei* ‘jendeari’, *bidei* ‘bideari’, *mandoi* ‘mandoari’, *gerokok*; baina, *itaiekiñ* ‘igitaiarekin’, *neka-zariaren* ‘neka-zariaren’, *mandazaiei* ‘mandazaiari’ (Zegama) (Azurmendi, X., 1996)

Alabaina, absolutibo singularrean ez da betetzen:

*eskolea, jendea, txerrie, baserrikoa, pekatue* (Segura)

Historian atzera eginez, Larramendiren iritziz, mugatzailearen asimilazioa Goierriko bereizgarrietako bat zen eta, behinik behin, absolutibo pluralean agertzen zen *-i* eta *-u* bokalez amaitutako hitz-oinekin (1969: 321): *andiic, chiquiic, guciic, escuuc, buruuc*. XX. mendearen hasieran, *EI*-ren arabera, mugatzailearen asimilazioa, Goierri ez ezik, Tolosaldeko hegoaldean ere betetzen zen; Tolosa eta Leabururaino iristen zen, baina Anoetan lehia zegoen: *eskuun, eskuan* eta *eskuban...* Holmer-ek jasotakoaren arabera, Gaztelun, 1964an, asimilazioa agertu arren, kontserbazio-egoera zen nagusi: *lúrrezkoak, eúmbateàn, zuloan*; baina, *gúz-tiñ* ‘guztien’, *bín* ‘bien’. Izagirrek, berriz, sarri jaso zuen Tolosaldean, absolutibo singularrean izan ezik (1967):

- Absolutibo pluralean: *guaizik, txikik, mitxiguk, nagik atera, kakok* (Tolosa); *leize-zulok, orixtok, saunka aundik* (Ibarra). Baina, *gurasuak* (Tolosa), *senarremaztiak* (Ibarra)
- Absolutibo singularrean: *kakua, zuloa* (Ibarra)...

Mugatzailearen asimilazioa, Tolosaldeko hegoalde guztian ohikoa da. Tolosatik eta Ibaratik iparralderantz, aldiz, *e + V > i*, *o + V > u* disimilazioekin eta epentesiekin lehian dago. Guk sarri bildu dugu mugatzailea asimilatu gabe (adinekoengandik), hala Tolosan nola Ibarra; ez, ordea, Belauntzatik hegoaldera:

- Absolutibo pluralean: *aundik, katuk, gustik* ‘guztiak’, *barkuk, alakok*; baina, *Amaroskuak, xentimokoak, ingurukuak, orainguak, sosiedadekuak...* (Tolosa)
- Inesiboan: *tokin, pizinan ondon, kuartelen, plaza berrin, tertulin, ingurun*; baina, *nintzarian, trenian, astian, bitartian, etxian, goizian, jeneralian, noizian bein* (Tolosa)

g) \**a + e* elkarketa > *a / e*

Hiato honen emaitzak badu esangurarik dialektologia aldetik. Mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan <*a*> nagusitu da: Bizkaian, Arabako eremu euskaldunean, Gipuzkoan eta Burundan. Eremu horretatik ekialdera, aldiz, <*e*> aurkituko dugu. Bilakabide honetan, bi gertaera daude, maiz emaitza ezberdinekoak: adizkiak eta zenbatzaile orokorra<sup>48</sup>. Goierrin -*a*- aurkitu dugu ingurune bietan, hala sartaldean nola sartaldean:

- Adizkietan: *dala*, *zan*, *zala* Gabirian, Lazkaon, Zaldibian, Legazpin (Ugarte 1993), Zegaman (Azurmendi 1998)
- Zenbatzaile orokorrean: *dana* Gabirian, Lazkaon, Zaldibian, Legorretan, Legazpin (Ugarte 1993), Zegaman (Azurmendi 1998)

Olanok dioenez, *izan*-en 3. pertsona singularrean, Leitzan <*e*> dago, Gipuzkoatik gertuago dagoen Areson <*a*> agertzen da lehian, baina Berastegin erabatekoa omen da <*a*>-ren nagusitasuna –baita hortik iparralderantz ere– (1998: 23). Tolosaldeko hegoaldean, adizkietan <*a*> dago, baina zenbatzaile orokorrean <*e*> darabilte zenbait herritan, eta, maiz, nahaska:

- Adizkietan: *dan*, *dala* (Amezketan, Ikaztegieta, Belauntza, Ibarra, Tolosa...)
- Zenbatzaile orokorrean: *danak* & *denak* (Ikaztegieta, Alegia, Amezketan, Belauntza, Izaskun, Ibarra, Anoeta...)

#### 1.1.4. *U > o* eta *i > e* bilakabideak

Bi bilakabide hauek Nafarroako mendebaleko hizkeren bereizgarria dira, eta, horrenbestez, eremu honetan daude indartsu: Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Basaburua, Imotz, Larraun eta Araitz (Zuazo 1998: 19). Aztergai dugun eremuan ez dute holako indarririk, baina zantzu batzuk aurkitu ditugu. Goierrin *u > o* bilakabidea dago \**edun*-en adizkietan eta aldaera jakin batzuetan:

*egoarrie* ‘Eguberria’, *potzue* ‘putzu’, *tipolea*, *arkakoxoa*, *lagoa* ‘laku’ (Arin 1989: 29) (Ataun)

*motil*, *egoaldi*, *igoal*, *kotxilloa*, *do*, *due* / *doe*, *noon* / *non* / *nuen*, *on* / *oan* ‘huen’, *zon*, *noke*, *oke* ‘huke’, *loke*; baina, *zuen* ‘zuten’ (Zegama) (Azurmendi 1998)

*goraizea* ‘guraize’, *do* ‘du’, *non* ‘nuen’, *zon* ‘zuen’; baina, *zuen* ‘zuten’, *uan* ‘huen’, *uke* ‘huke’ (Gabiria)

<sup>48</sup> Esate baterako, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Oiartzun eta Erreterian, 3. pertsona singularrean <*e*> da ohikoena, baina <*a*> ere bada; are nabariagoa da joera hori Lezo eta Irun aldean. Zenbatzaile orokorrean, aldiz, <*e*> dago eremu osoan. Bestalde, Nafarroako Arano, Goizueta eta Bortzirietan, <*e*> dago ingurune bietan (Zuazo 1997b: 399-400).

*do / dô, noón / nõn, zoon / zôn*; baina, *due, zuen* ‘zuten’ (Zaldibia) (Irizar 1991 II)  
*do / du, esan'tzon / esan'tzun* (Legorreta)

Leitza inguruan indarrez agertzen bada ere (Olano 1998), Tolosaldean ez dago horrelakorik<sup>49</sup>: *ai du* ‘ari du’ *etzun* ‘ez zuen’ (Ikaztegieta); *ikusí'u, in du* (Alegia).

### 1.1.5. Bokal atonoen galerak eragindako bilakabideak: aferesiak eta sinkopak

Aferesiak eta sinkopak Nafarroako hizkeretan daude indartsu, eta, horrenbestez, hizkera nafarren bereizgarritzat jo dira<sup>50</sup>. Aitzitik, aztergai ditugun alderdi bietan, bilakabide horiek ez dute holako indarrik, eta, agertzekotan, hizketa arduragabeaz azaltzen dira: *kúsi* ‘ikusí’, *tórri* ‘etorri’, *kárri* ‘ekarri’ (Gabiria). Goierri dagokionez, ondoko adibide bakanetan bete da aferesia:

*men* ‘omen’, eta, oro har, aginterazko adizkietan: *zak / zan, zazu, zazue* (Zegama) (Azurmendi 1998)

Bestalde, Goierriko sartaldean sinkopa sarri egiten da; hain zuzen, partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa:

*ikus zon, ikusko'ezu, etor mentzikon* ‘etorri omen zitzaion’, *ipin tzion* ‘ipini zion’, *ikus nai ta* ‘ikusí nahi eta’, *etor nai* ‘etorri nahi’, *ekarko* (Zegama) (Azurmendi, X., 1996)

*ekarko'izu, ikusko'zu, etorko dala* (Idiazabal)

*euko'u* ‘edukiko du’ (Beasain)

*ikusko deu, etorko ziela* ‘etorriko zirela’, *etorko zaiola* (Lazkao)

### 1.1.6. \*Edun aditzaren -e- erroa

\**Edun* aditzaren *-e-* erroa euskara giputzaren bereizgarrietako bat da, baina eremu horretatik kanpora ere zabaldu da: Mutrikun eta Nafarroa Garaiko Areson eta Etxarri-Aranatzen bada; Burundan eta Ergoienen *-u-* erroarekin lehian dago; eta hala Debabarrenean nola Lezo-Irun aldean, hizkera jasoan erabiltzen dute (Zuazo 1998d). Aztergai dugun eremu guztian *-e* erroa dago, baina *-u* azaltzen da behin Leitza eta Araitz ibarrera helduz gero (Olano 1998: 15).

*det, dek/n, deu, dezu, dezue* (Lazkao)

*det, dek/n, deu, dezu, dezue* (Ikaztegieta)

<sup>49</sup> Leitza eta Areson, bilakabide indartsua da : *dot, dok/n, do, dozo, ditto* ‘ditu’... (Olano 1998).

<sup>50</sup> Aferesiaren eremua Gipuzkoako Errenteria-Irunen hasten da, barnean harrapatzen ditu Nafarroako Basaburu (baita Leitza eta Arano ere), Imotz eta Luzaide, eta Urdazubi eta Zugarramurdiraino zabaltzen da. Sinkopak eremu honetan egiten dira: Gipuzkoako Oiartzunen eta Irunen (ahul), Nafarroako Imotzen, Basaburu Handiko eta Txikiko hizkera batzuetan, Sakanako sartaldean eta Zaraitzun (indartsu), eta Lapurdin eta Nafarroa Beherean (Zuazo 1998d).



### 1.1.7. *Izan* aditzaren *-e-* erroa

*Izan* aditzaren *-e-* erroa euskara giputzaren beste bereizgarrietako bat da, baina ondoko herrietara zabaldu da: Nafarroa Garaiko Arano eta Aresora (Olano 1998:14), Errenteria-Irunera (*-a-*rekin lehian) eta Debabarrenera (hizkera jasoan) (Zuazo 1998d). Alderdi horietan bezala, Goierriko sartaldeko Zegaman eta Legazpin ere *-a-* erroa dago<sup>51</sup>:

*gaa, zaa, zate* (Zegaman) (Azurmendi 1998: 68)

*gâ, zâ, zate* (Legazpi) (Ugarte 1993: 193)

Goierriko sartaldean, Ataunen (Aian), honako hauek bildu dira (Irizar 1991 II)<sup>52</sup>:

*zeratea* (Azkue & Irizar) / *zate* (EAEL) / *zaratea* (Azkue)

Goierriko gainerako herrietan, ordea, *-e- erroa* dago, Tolosaldean bezalaxe:

*gea, zea, zeate* (Gabiria, Segura...)

*gea, zea, zeate* (Amezketza)

## 1.2. KONTSONANTEAK

### 1.2.1. *VdV > VrV* (eta *VrV > VdV*) bilakabidea

Bilakabide hau indartsu dago Gipuzkoa osoan eta euskara giputzaren inguruko hizkeretan: Deba ibarrean, Bizkaiko ipar-ekialdeko hizkeretan eta Nafarroako Burundan (Zuazo 1998d). Aztergai dugun eremuan, ohikoa da, baina, batez ere, adinekoengan, hiztun gazteek gero eta gutxiago eusten diotelako bilakabide honi:

Lazkao: adinekoek, *inbirie, -ri* atzizkia (*piñuri, pagari, gaztañari...*)... / gazteek, *-di* atzizkia (*pagadie, piñudi, inbidie...*)

Ikaztegieta: adinekoek, *irik, biren, piñurik, lorie...* / gazteek, *idik, biden, piñudik...*

Goierri bilakabide hau *-di* eta *-kada* atzizkietan, *egon*-en adizkietan eta zenbait aldaeratan agertzen da:

*kupira, ero* 'edo', *erozin, erale, eran, erarie, estrarabidea, sasi-letraru, pasara* 'pasada', *bultzara, bolara, patxara, illaran, -kada > -kara* (*arrikara, eskukara...*), *-tada > -tara* (*irristara, sastara, purrustara...*), eta *r > d* duten *aideen, aidea, aidatu...* (Legazpi) (Ugarte 1993)

<sup>51</sup> Azkuek *gaa, zaa* eta *zaate* jaso zituen Legazpin eta Zegaman, eta ondoko oharra erantsi zuen: «(...) sin duda por influencia del dialecto B.» (1969: 10).

<sup>52</sup> Luis M<sup>a</sup> Mujikak esan digunez, bere gurasoek, Ataungo Aiakoak zirenek, honakoak erabiltzen zituzten: *zeratea / zaatia*.

*irik, afixkire / aixkide, komerie, patxarea, bolarea, aguro, -kada > -kara (katillukarea, eskukarea, kajakara), -di > ri (gaztiñarik...), zare 'zaude', gare 'gaude'...; eta r > d izan duten ude, beida... Baina, lodi, bide, o / edo, soldadue... (Lazkao & Zaldibia)*  
*irie, lori, aguro, patxara, bolara, piñuri, pagari, gaztañari, gare 'gaude', zare 'zaude', dare 'daude', zeren 'zeuden' (Gabiria)*

Tolosaldeko hegoaldean eta Tolosan antzeko egoera dago:

- Zenbait aldaeratan:  
*irik, lorie, auro* (Amezqueta); *aixkiria*, (Tolosa); *bire, irik* (Belauntza)
- *-di* atzizkia > *-ri*: *piñurik*; baina, *gaztañadik, pagadik* (Amezqueta)
- *-ada* > *-ara*: *bolara, patxara* (Ikaztegieta)
- *Egon* aditzaren adizkietan:  
*zare, gare, dare... daude, zaude, gaude* aldaerekin lehian (Amezqueta & Ikaztegieta); *dae* (Ibarra) (Izagirre 1967)
- Adizkietako 1. pertsonako morfeman *-da-* > *-ra-*:  
*di(r)azu* Tolosan (Irizar 1991 I: 190); *didea / direa* 'didate', *ziden / ziren* 'zidaten'... (Amezqueta) (Irizar 1991 II: 86-93)
- *r > d*: *ude* 'ura', *beida* 'begira', *aiden* 'airean' aldaerak erabiltzen dira Tolosaldean
- Aditz nagusia eta aditz laguntzailearen artean ez da ohikoa, ez Goierriin ez Tolosaldean: *eitten die* (Gabiria)

Aztergai dugun eremuan, bilakabide honek ez du Deba ibarrean adina indar, cf. Mutrikuko *asi ra, eindda ros, ibilli ria, ekarri rau*, partizipioetako *-idu* > *-iru*, adizkietako 1. pertsonako morfema *-da-* > *-ra-*... (Zuazo 1999c: 56).

### 1.2.2. [x] ebakera

Euskal Herriko erdialde zabalean bezala, [x] ebakera dago aztergai dugun eremuan. Ebakera horixe dago inguruko herri nafar gehienetan: Aranon, Areson, Araitzen, Larraunen, Sakanan, Imotzen eta Basaburu Handiko zenbait hizkeretan. Aitzitik, eremu horretatik ekialdera dauden herri nafarretan [j] ebakerari eutsi diote: Goizuetan, Leitzan, Bortzirietan eta Ultzamatik sortaldera daudenetan (Zuazo 1998: 414 eta Olano 1998:13).

- Gaztelaniatik hartutako maileguetan: *bentajea, katalejua, erlojua, jornada, bajue, jenealen, jubilarzio, keja...*
- Euskal hitzetan edo aspaldi euskaratutakoan, hitz barruan: *gizajoa, ijito*
- Euskal hitzetan edo aspaldi euskaratutakoan, hitz hasieran: *jun* 'joan', *jarri, jan, jai, janarie, jo*

### 1.2.3. Erdal *-onem* > *-oi* / *-on* eta erdal *-ción* > *-zio*

Bizkaian eta Gipuzkoan erdal *-on* > *-oi* bilakatu da, hala mailegu zaharretan nola berrietan. Nafarroa gehienez, ordea *-on* bukaera dago. Aztergai dugun eremuan *-oi* bukaera da nagusi. Hain zuzen, Tolosaldean, *jamona*, *balona* tankerakoak *leitarkeriatzat*, *Naparroaldekotzat* jotzen dituzte. (K. Oriak esandakoa).

*frontoia*, *botoia*, *koltxoia*, *balkoia*, *kajoia*; *kamioia*, *abioia* (Gabiria)

*abioia*, *balkoia*, *botoia*, *frontoia*, *limoi*, *makarroia*, *melokotoia* (Ikaztegieta)

*kamioia*, *abioia*, *frontoia*, *botoia*... (Amezketeta)

Bestalde, *-ion* amaierak eremu zabalagoa hartzen du, Nafarroako Aranon, Goizuetan, Areson, Leitzan eta Gipuzkoako Hondarribian eta Irunen *abiona*, *kamiona*, (*a*)*kordiona* tankerakoak jaso baitira (Zuazo 1997b: 402). Aztergai dugun eremuan ere *kamiona* eta *abiona* jaso ditugu, batez ere adinekoengan<sup>53</sup>:

*kamiona*, *abiona* (Zaldibia)

*kamiona*, *abiona* (& *abioia*, baina gutxiago) (Legorreta)

*kamiona* (adinekoak) / *kamioia* (gazteak) (Ikaztegieta)

*kamiona* / *kamioia*, *abiona* / *abioia* (Alegia)

*kamionak* (Ibarra)

Bestalde, erdal *-ción* > *-zio* bihurtu da aztergai dugun eremu gutzian; mendebaleko euskalkian, ordea, amaiera hori *-(z)iño* bilakatu da: *okasiño*, *abitasiño*, *bedein-kasiño* (Antzuola) (Larrañaga 1999: 36).

*esplikazioa*, *tradizioa* (Segura), *inaurazioa* (Zaldibia), *intentzioa* (Beasain), *separazio* (Ataun)

*situázioa*, *tentázioa*, *publikazioa*, *manifestazioa* (Beasain) (Hualde 1997: 137)

### 1.2.4. *F* (*b*) > *p* bilakabidea

*F* > *p* bilakabidea oso indartsua izan da Gipuzkoan eta Gipuzkoa ondoko hizkeretan: Debabarrenean eta Antzuola-Bergara aldean, Bizkaiko ekialdean eta Nafarroa Garaiko iparraldean (Areso, Leitza, Arano eta Goizuetan) (Zuazo 1998d: 218).

XX. mendearen hasieran, euskara giputzaren berrikuntza hau indartsu zegoen Goierrin (Azurmendi, J. M., 1996: 78-79): *pigura*, *konprome*, *inparnu*, *pestea*, *aparie*, *palta*, *konpesoreek*... (Ataun). Indartsu agertzen da Tolosaldeko iparraldeko lekukotasun honetan ere: Mikaela Elizegi asteasuarraren kontakizunetan. Bertan, *apari* tankerako aldaerekin batera, honelako maileguetan ere ageri da (Zavala 1993):

<sup>53</sup> Orion bertan *kamiona* eta *kamionzaliak* aldaerak (baina *kamioien*) jaso dira (Iturain & Loidi 1995).

*ama dipunta, tipusarekin 'tifus', prime 'firme', konpesatu, desapioa, pantasi, pilarmonika, pesta / festa, paltatu, palta / falta, peria, praille; eta izenetan, Rupino, Joxepa...* (Asteasu)

Orixek azaldu zuenez, XX. mendearen hasierarako, <f> erabiltzen hasia zen mailegutan (EI): *garrafodda, kaferik* eta *foruak*... Eta *kape* erakoak zaharrek baino ez zituzten erabiltzen<sup>54</sup>. Izagirrek Tolosan 1967an jasotako hiztegian *f > p* bilakabidea ez zen hain indartsua:

- VbV > VfV: *afariya, afaldu, ifarra, ifarraizia* (Tolosa); baina, *afarra / aparra* txandaketa (Tolosa & Ibarra)
- Hitz hasieran: *fiakaitz* (Leaburu), *fardotu* (Tolosa) / *pardotu* (Ibarra)
- *f > p*: *naparregua* (Tolosa), *errospira txarra, errospiratu in da* 'resfriado' (Ibarra)

Geuk <f> duten aldaerak bildu ditugu sarrien Goierrin eta Tolosaldean; <p> bakanka aurkitu dugu, aldaera jakin batzuetan, antza, ingurune adierazgarrietan erabiltzen dituztenak: *ez daukazu pulamentuik / fundamentue* (Lazkao). Gainera, adineko hiztunengandik jaso ditugu gehienbat, gizonezkoengandik sarriago<sup>55</sup>: *aparie, perie, pesta* (zaharrek) / *afarie, afaldu, ferie, festa* (gazteek) (Legorreta). Hala, bada, badirudi aztergai dugun alderdian *f > p* bilakabidea oso ahul dagoela, cf. 90 urteko aitona zen Joxe Telleria albizturtarrarengandik jaso genituen *afarilegea, afaltzeko, fabrika, famatue, fameli, diferentzi*<sup>56</sup>:

- Goierrin:

*panparroi, pardel...*; baina, *perie, perieun / ferie, galaparie / afari, afaldu, afa-loste*; eta *freskoa, freskura, infernuko etsaie, frankotan, furi-furiin, ifarra, ifarraize, frailea, derrefente, aizefurriñe* 'aize burrunda'... (Legazpi) (Ugarte 1993) *inpernue, perie, aparie, Naparra, alperra, pabrikea...*; baina, *festa, fuertea, frutea, konfiantzea* (Ataun) (Arin 1989: 44)

*périe, préxko, prexkaú do* 'freskatu', *inpernue, prejittu, parre, Naparroa, napar*; baina, *féstak, festazale, afarie* (Lazkao)

*parre, perie / ferie, prexko, pattal, prejittu, paxa* 'faja', *inpernu*; baina, *afari, afaldu, festa, familie, franko, falta, faltso, fallo* (Gabiria)

<sup>54</sup> Azpimarragarria iruditu zaigu beti Tolosako EI-rako datuak Bähr-ek *Ifarragirre* izeneko base-rrian bildu izana.

<sup>55</sup> Adineko gizonezkoek tabernetan elkartzen direnean erregistro berezi bat erabiltzen dute, *tabernako hizkera*-edo dei diezaiokeguna. Dirudienez, erregistro horretan gorde da indartsuen *f > p* bilakabidea. Hiztun gazteagoek, ingurune horretan daudenean edota hiztun zaharrek hizketan ari direnean, *f > p* bihurtzeko joera nabarmenagoa dute, ondoko aldaeretan batez ere: *apari, apaldu, piure* 'figura', *pesta, perie* 'feria', "erri txikie, inpernu andie" esaera... (Elduaingo K. Oriak esandakoa).

<sup>56</sup> Duela gutxi Oartzunen *apaitako, preskura, pallo, pulamentu, prontala, putiñ ittea* 'footing' eta *apiziyua* aldaerak bildu dituzte. Itxura denez, aztergai dugun eremuan baino indartsuago dago bilakabidea han (Fraile & Fraile 1996).

- Tolosaldean:

*alperkerie, inpernue, parra, perie, piura, preskura, prijittu*; baina, *konforme, afari, festa, fiatu, konfesatu, konfiantza, sufritu* (Ikaztegieta)

*afarie, afaldu, férie, festa, fresko...* (Amezketeta)

### 1.2.5. Txistukarien bi sailen arteko neutralizazioa

Euskal Herriko mendebalean *s / z* eta *ts / tz* sailak ondoko eran nahastu dira: *z > s* eta *ts > tz* bilakatu dira. Gaur egun Bizkaitik eta Gipuzkoako Deba ibarretik kanpo aurkitu dezakegu txistukarien bi sailen neutralizazioa; izan ere, mendebaleko berrikuntza hori Gipuzkoako iparralde guztira zabaldu da<sup>57</sup>, baita barrualdeko herri nagusi batzuetara ere. XX. mendearen hasieran, honela zioen Orixek, *EI*-ren emaitzak aztertzean:

«Nik ez dut ezagutu donostiarrik *z* ta *tz* garbi mingatzen ditunik. Itsas-egian ez da aurki erririk ebakiera ori galdu ez dunik».

XX. mendearen hasieran, *EI*-k *z* eta *s* arteko nahasmena Gipuzkoako ondoko herri hauetan aurkitu zuen (Deba ibarrarekin batera): Itsasondo, Beasain, Leaburu eta Orendain. Afrikariei dagokienez, *EI*-k ondoko herrietan jaso zuen *ts* eta *tz* kontsonanteen arteko nahasmena (aztergai dugun eremuan)<sup>58</sup>: Zegama, Beasain, Ordizia, Itsasondo, Alegia, Leaburu eta Tolosa. Gipuzkoako iparralde guztira zabaldu den mendebaleko berrikuntza hau ez da arrunta aztergai dugun eremuan. Goierrin eta Tolosaldean, oro har, ondo bereizten dira txistukarien sail biak. Lazkaotar batek esan zigunez, bereizketa egiten ez dutenei «parre itten'tzaie»<sup>59</sup>:

*bizí, izárria, aszénsorea*; herskari aurreko *aztórau* 'aztoratu', *aiázten* 'adierazten', *bázkarie, éuzkie, gáztena, zazpígarrena*; eta afrikariarekin *abératsa, jértsea* (Beasain) (Hualde 1997: 130-140)

1985ean Mitxelena zioenez, *z / s* arteko neutralizazioak aurrera egiten zuen Gipuzkoan, hiriguneetatik herri txikietako baserrietara zabalduz:

«(...) la fusión de *z* y *s* (...) sigue propagándose hoy en día por Guipúzcoa, extendiéndose desde las poblaciones importantes a las pequeñas y desde el casco urbano a la población dispersa en los caseríos (...)» (1985: 283-284).

<sup>57</sup> Orion, esaterako, <*z*> eta <*ts*> txistukarien galera arras hedatuta dago, baina Aian eta Orío inguruko baserrietan bereizketak indar handiagoz dirau: *arratzaldeon, zaltza, pentzua, pentzatu, bertzok, dibertziyua* (Orioko kalean) (Iturain & Loidi 1995: 43). Hondarribian ere nahasten dira bi sailak (Letamendia & Sagarzazu 1992: 512-513).

<sup>58</sup> Hona hemen *ts / tz* nahastekatzen zituzten Gipuzkoako herrien zerrenda osoa: Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Alzola, Mendaro, Tolosa, Amasa, Lasarte, Astigarribia, Mutriku, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orío, Pasaia, Errearteria, Irun, Hondarribia, Leaburu, Ordizia, Beasain, Zegama, Itsasondo, Donostia eta Alegia (*EI*).

<sup>59</sup> Joxepa Madariagak esandakoa.

Eta aztergai dugun eremuan hiriak dira salbuespena: Goierriko Segura hirian, Tolosan eta Alegian, *z* / *s* neutralizazioa egon da. Seguran honela kontatu ziguten<sup>60</sup>:

«Bai, emen, guri garai baten, burla eitten'tziun garaien, *ese* ta *zeta*, *zeta*-i *ese* eta *ese*-i *zeta*... 'Men gui kanpotarrek esaten die, *zegurarrak*, eta *zeta* ein bear denen e... *serue* igual esaten deu ... *serue*, osea, *ese* ta *zeta* oso... Eta oaiñ ikastolatik ya etorri dien... ya gazte jendek eta ume jendek, ya ondo eiten due, baño edade pixkat daukunok... pentsau ein bear. Eta zu asiko baziñe oain Seurako... eztait... iruitamabost laogei bat urtekok, buenoo! *ese*-i *zeta* ta *zeta*-i *ese*, e! buenoo, baño nabarmen e! Orreati esaten die, burla ein bear den garaien, *zegurarrak*, esaten die *zeurarrak*... Oso... ni akordatze naiz, oain pixkat galdu ein deu oi, baño gue aitte zanak-eta, buenoo! Gui normal iruitze zitzaion, oi aittu duenak... Baño kanpoti etortzen dan batek, buenoo!... Gu *zegurarrak* zopajalek gea, ta *Zegurako sopajalek*... esaten'tziuen...»

Tolosaldeko hegoaldean, XX. mendearen hasieran, txistukarien bi sailak neutralizatuta zeuden. *El*-ren Leaburuko koadernotxoan ondoko iruzkina irakur daiteke: «Muchos jóvenes confunden *z* y *s*». Eta Orixek ondoko azalpena egin zuen Alegiaren gainean: «Alegrian *otza* ta *utze* ta *aberatza*, *otsa* ta *utse* ta *aberatsa* ordez. Iñiolaz ere nasten dituten an ere». Frikariek ere egoera bera jaso zuten Alegian: *esgea* 'ez gara', *udes* 'uraz', *ozteun* 'ostegun', *oztiral*. Izan ere, gaur egun gazteek bereizketa egiten ikasi dute; baina, oraintsu arte, *z* > *s* bilakabidea alegiarrek izan duten ezau-garririk nabarmenetako bat izan da inguruko herrietako hiztunentzat<sup>61</sup>. *EAEL*-ek hauexek jaso ditu, aspaldi ez dela: *euskie*, *autze* (Alegia) (*EAEL I*, 125 gald.).

Tolosako hirian ere antzeko egoera zegoen<sup>62</sup>. A. Labayen tolosarrak honela zioen *s* / *z* eta *ts* / *tz* sailen arteko nahasmenaz (Irizar 1991: 185):

<sup>60</sup> Laureano Telleria *segurarrak*, 2000ko abuztuan.

<sup>61</sup> Mila Begiristain alegiarrak azaldu digunez, gaur eguneko gazteek ikasi dute, baina berrogei urte-tik goragokoek ez dakite noiz erabili behar den *z* eta noiz *s*. Alegia inguruko herrietako biztanleentzat oso nabarmena da bilakabide hori. Ikaztegiatiko M. K. Amundarainek honela kontatu zigun (1993an): «(...) kontuatuko zifien *s* ta *z* naasten dittula baita ere, oi da Alegin eitten dana asko, Alegin *s* asko ibiltzen due... , Tolosan gutxigo igual, oi Alegiko zea bat da (...) Alegrin *s* asko ibiltze'ue.». Horixe bera esan ziguten Abaltzisketan, Legorretan eta Amezketan: «-E.: Ta beste emen aldaketa aundie metro gutxin Alegria. -S.: Bai *ese* ta *zetak*... -M.: Alegrian *ese* (...) -S.: Bai, da *zuk* esan bearren *suk* eta ola, atzeago, xuabego... oso politte bezela da gañea! "en plan carifoso" itz eitte'uela emate'ue.» (Amezketako Eusebia Galarza eta Satur eta Maixux Zabala, 2000ko abenduan). Legorretako Mari Paz Garmendiak zioskunez, berrogei urtetik beherako alegiarrek ere ez zuten garai batean *s* / *z* bereizten, ezta idazterakoan ere, eta, hori dela-eta, eskolan, Alegiakoei "ispisialak" esaten omen zieten.

<sup>62</sup> Guk adinekoengan aurkitu dugu neutralizazioa, Tolosan (kalean) eta Ibarra. Honela kontatzen ziguten 1998an Tolosako senar-emazte batzuek (San Blaseko G. Ugartemendia eta I. Garikano, kalekoa): «-I.: Ta gero *s* eta *z-k* ... -G.: Bai, oi kalen, kaletikan asko ibiltze'ana, "*es nasu esan, suk es nasu esan au*", eta... Zue ama zanak e sekula... -I.: Bai, eta *s-k* eta *z-k* e, es giñusen esaten... Ta nere anaiak-eta re, oaindikan ala esaten dute, *s, s, s* danak eta... (...). -I.: Erri berdinekoak izan arren... -G.: Bueno, gue amona zanak eta gurasoak esaten'tzuen, "*oik kale umek dittuk, e! oik... euskea itte'ik baño kale umek dittuk*", esate zuen (...) -I.: Ni' *s* ta *z-k* batez ere ikasi nitun antzerkin ibilitakoan, Inaxi Begiristainek ori asko komendatzen zigun, *s* ta *z* bereizi ondo... "*naiesu*" ta "*joan saites*" da ola lenao,

«(...) si bien en la calle apenas diferencian *s / z* y *ts / tz*, no ocurre lo mismo en los caseríos, donde los diferencian bien.»

Antzekoa da Izagirrek agertzen duen iritzia 1967an Tolosako euskaraz egin zuen lanean (1967: 158):

«Lan ontan ikusiko danez, ez dira danak oso bat etortzen *s* ta *z* bereizten ere: *zimorra* ta *simaurre*, *liztorra* ta *listorra*, *mauzarra* ta *mausarra* ta ola itz gehiagotan. Kanean, berriz, *z*-ren ordeztu egiten dute gaurko ume ta gazte askok».

Tolosako kanean ez ezik, Ibarra berritan ere, behinik behin, txistukarien neutralizazioa zegoen (Izagirre 1967):

• Frikariak:

1) Herskari aurrean:

Bereizketa gorderik: *aaztu*, *aizpa*, *azkonarra*, *azkuria*, *euzkiaizia* (Ibarra)

Neutralizazioa: *askasala* ‘azazkal’, *eskaatza* ‘ezkaratz’, *ustaa* ‘uztaila’ (Tolosa); *astieskena* ‘asteazkena’, *mostu* (Ibarra)

Lehia: *baskariya* (Tolosa) / *bazkariya* (Ibarra), *erlekisten* (Ibarra) / *erlekizten* (Tolosa) ‘erlakaizten’, *maskuiye* / *mazkuriya* (Ibarra) ‘maskuri’, *muskarra* / *muzkarra* (Ibarra) ‘musker’, *ustao* (Tolosa) / *uztaua* (Ibarra) ‘uztao’, *listorra* / *liztorra* (Ibarra) ‘liztor’

2) ez partikularen inguramendua:

*ezta etetzen*, *eztet artzen*, *eztana*, *ez naiz jazten* (Izagirre); baina guk honako lehia jaso dugu (adinekoengan): *ez + t-*: *esta* / *eztepa* ‘ez dek ba’, *estek*, *esdakit* / *estakit* / *etzakit*, *estiotte*, *estao*, *estue*; *ez + g-*: *es giñan*; *ez + n-*: *esnais*, *enitzan*; *ez + z-*: *etzan*, *etzait*, *etzekiat*, *etzun*, *etzuen*

3) Atzean herskaririk ez dagoela:

Neutralizazioa: *saldaria* (Tolosa) ‘zaldale’, *saunka* ‘zaunka’, *sokor* ‘zokor’ (Ibarra)

Lehia: *masusta* (Ibarra) / *mazusta* / *matzusta* (Tolosa) ‘masusta’, *suurre* / *zuur* (Ibarra) ‘sudur’... *mausarra* (Ibarra) / *mauzarra* ‘mausar’, *simaurre* (Ibarra) / *zimorra* (Tolosa) ‘simaurre’

4) Instrumentalarekin, <z>: *aldeantziz*, *buruz* (Ibarra), *loalez* (Tolosa)

• Afrikariak:

Bereizketa gorderik: *atsaldekua*, *aketsa*, *itsatsi*, *saietsa* (Tolosa), *otsolarra*, *isets* (Tolosa, Ibarra), *ametsa* (Ibarra), *maítsa* (Ibarra)

---

bai, bai...». Itxura denez, bilakabide honek gutxiespena jaso du alderdi horretan. Dena dela, belaunaldi gazteek bereizketa berreskuratu eta indartu dute (cf. Fraile & Fraile 1996). Izan ere, ikasle gazteen artean *s / z* nahasmena ortografian ez da apenas egiten eta are gutxiago ahoskeran. Gaur egun, horrelakoak ume hizkeran erabiltzen dira balio adierazkorraz (Elduaingo K. Oriak esandakoa).

Neutralizazioa: *antzika* (Tolosa) ‘antsika’, *kokotz* (Tolosa) ‘kokots’

Lehiak: *erauntsi* (Ibarra) / *erauntzi* (Tolosa) ‘erauntsi’, *otsailla* / *otzaila* (Tolosa & Ibarra), *saatsa* / *zaatza* ‘sahats’ (Ibarra)

### 1.2.6. Ozenen osteko txistukariak

Euskal Herri gehienez *<r>*, *<l>* eta *<n>* kontsonante ozenen ostean txistukariak afrikatu egiten dira. Mendebaleko euskaran ez dago horrelakorik, baina Debabarrenean betetzen da eta Antzuolan bertan lehia hasten da: *al tzan mouan* ‘ahal zen moduan, *il tzan* ‘hil zen’ (Larrañaga 1998: 39). Aztergai dugun eremuan indar handia du afrikarien aldeko neutralizazioak. Gaztelaniaz ere honelakoak entzuten dira<sup>63</sup>: *ahora pentzamos*, *tertzero*, *Mantzanares* toponimoa... Hona hemen Goierri eta Tolosaldean bildu ditugun adibide batzuk<sup>64</sup>:

- Goierri:

*poltza*, *funtzio* (baina, *mutilzar*, *eskursio*); *jun'tzan*, *il'tzien*, *izan'tzittun*, *eaman'tzon*, *alde in'tzon*, *nun'tzeon* ‘non zegoen’, *esan'tzion* (Gabiria)

*jan'tzon*, *jun'tzien*, *ean'tzon* (Lazkao)

*kontzejal*, *konfiantzea*, *sustantzie*, *dixtantzia*, *anuntziok*, *konsiderazio*, *kontseju*; *mentzon* ‘omen zuen’, *jan tzon* ‘jan zuen’... (Zegama) (Azurmendi 1998: 37)

- Tolosaldean:

*il'tzan* ‘hil zen’, *gaixotu in'tzan* ‘gaixotu egin zen’, *etxoin'tzazu* ‘itxoin ezazu’, *makal'txamar* ‘makal samar’, *ero al'tzare?* ‘ero al zaude?’, *ibiltzen'tzea* ‘ibiltzen zara’, *asi al'tzea?* ‘hasi al zara?’, *pakea* ‘man'tzazu’ ‘pakea eman ezazu’ (Ikaztegieta)

### 1.2.7. Hitz hasierako txetxekari afrikariak

Hego Euskal Herrian ohikoa denez, aztergai dugun eremuan kontsonante afrikaria agertzen da hitz hasieran<sup>65</sup>. Gainera, joera handia dago hitz hasierako txistukaria afrikatzekoa. Hona hemen Goierriko adibide batzuk:

*ille txutie* ‘zutik’, *txakil* ‘zakil’, *txintxoa* ‘zintzoa’, *txintxilik* ‘zintzilik’ (Legazpi) (Ugarte 1993)

*tximel* ‘zimel’, *txintxo-txintxo*, *txoko*, *txuri*, *txotx*, *txekorgorri*, *txakur* (*txakur txiki* vs. *zakur aundik*) / *ximelduta*, *xâr* (Ataun) (Oñederra 1990)

*txintxo*, *txorutzen*, *txixarea*, *txuri-txuri*, *txerri*, *txakurre* (Zegama) (Azurmendi 1998: 40)

<sup>63</sup> Juan Manuel Agirre ibartarrak esandakoak, 1999ko martxoan.

<sup>64</sup> Beasaingo Joxemiel Azurmendik azaldu digunez, gero eta maizago entzuten dira afrikatu gabeko aldaerak, *polsa*, *eskursio*, *jun zitzaion* tankerakoak.

<sup>65</sup> Ipar Euskal Herriko Lapurdin eta Nafarroa Beherean frikariak agertzen dira (Zuberoan eta Baztanen ere bai) (Mitxelena 1985 eta Izeta 1991).



Hitz hasierako afrikatua Tolosaldean oso ugaria da, baina frikaria ere ager daiteke:

*txalburu* ‘zapaburu’, *txikiatu* ‘zikiratu’ (Ibarra), *txurie*, *txikorda* ‘zirikorda’, *txilborra* ‘zilborra’, *txintxilikaiyo* ‘zintzilikario’, *txixaria* ‘zizarea’, *txekorra* ‘zekorra’, *txurtena* ‘zurtoin’ (Tolosa) (Izagirre 1967)

*txintxoa*, *txintxilika*, *txamar* ‘samar’, *txoatu*, *txoroa*, *txirrisko* ‘zirrikitu’, *txuri* / *xuri* / *zurittu*, *txutik* / *zutik*, *txerrie* / *zerri*, *txekor* / *zekor*, *txixare* / *xixare*, *tximel* / *ximel* / *zimel*, *txabal* / *zabal*, *txulo* / *xulo* / *zulo*, *txuxen* / *zuzen* (Ikaztegieta)

### 1.2.8. Asimilazio bustidura

Aztergai dugun eremuan asimilazio bustidura nahikoa indartsua da, Euskal Herriko erdialdean eta mendebalean gertatu ohi den bezala. Orokorrak diren  $s > x$  eta  $ts > tx$  bustidura bilakabideekin batera,  $n > \tilde{n}$ ,  $l > ll$ ,  $t > tt$  (azken hori ez herri guztietan) aurkituko dugu, gehienbat /j\_\_V/ eta /i\_\_V/ inguruneetan. Hona hemen Zegaman jasotako adibide batzuk (Azurmendi 1998):

a) /j\_\_V/ ingurunea:

*sallen* ‘sailean’, *pralle*, *ollok* ‘oiloak’ *otsaille*  
*gañen* ‘gainean’, *laño*, *zeñek*, *oñez*  
*gaixok*, *maixue*, *garraxi* (maiz)

b) /j\_\_#, C/ ingurunean hautazkoa da:

*eiñ*, *beñ*, *laiñ*, *eozeiñ*  
*aixkirea*, *jaixten*, *laixter*

c) /i\_\_V/ ingurunea:

*Motillo* ‘Mutiloa’, *bazekilla* ‘bazekiela’, *ibilli*, *eskillara*, *debille*, *milla*, *apopillo*  
*kamiño*, *propiña*, *koziñero*, *giñen*, *latiñez*, *aundiña*, *gutxiña*  
*ixurie*, *pixu*, *pixe*, *ixilik*, *txixarea*, *abixatzen*, *Ixidro* (maiz)  
*itxututa* (maiz)

d) /i\_\_#, C/ ingurunean, <n> eta <s> sabaikatzea hautazkoa da; baina <l> ez da bustitzen:

*Agustiñ*, *agiñ*, *irakiñ*, *eztarrikiñ* ‘eztarriarekin’, *idiñ* ‘idiaren’, *iturriñ* ‘iturrian’,  
*eziñ*  
*krixtauek*, *trixte*, *bixtan*, *artixta*, *dixtantzia*, *tximixtek*, *txixtue*, *xinixteik*  
*zail*, *suil* eta *motil*, *opil*, *jentil*

Zegaman ez, baina herri askotan  $t > tt$  sabaikatzen da <i> bokalaren atzean:

a) /j\_\_V/ ingurunea: *aitte*, *oittu*, *maitte*, *ereitten*, *aittonakin*, *aittuta* ‘adituta’ (Segura)

b) /i\_\_V/ ingurunea: *ikuttu*, *itten*, *dittut*, *zittun*, *ermitta*, (Segura); *ermitta*, *deposittue*, *geldittutakon*, *deittu* (Lazkao)

- c) /j\_\_#, C/ eta /i\_\_#, C/ ingurunea: *eztakit*; baina, *nunbaitt*, *noizbaitt* (Ikaztegieta)
- d) Mailegu berriekin, ahul: *erituk* ‘erituak’, *ospitalen*, *merituik* (Segura), *deposittue* (Lazkao)
- e) *-tarra* atzizkiarekin, ez: *baserritarra* (Segura)

Ataunen XX. mendearen hasieran, asimilazio-bilakabide honek hainbat morfema muga gainditzen zituen, baina gaur egun ez da orduan bezain emankor, lehena-go betetzen ziren ingurune batzuk, gaur egun ez direlako ohikoak gazteen jardunean. Hona hemen Ataungo XX. mendearen hasierako adibideak <sup>66</sup> (Oñederra 1990: 155-158):

- /j\_\_#, C/ eta /i\_\_#, C/ inguruneetan, albokoarekin eta hortzetakoarekin: *jentill batek*, *amillka*, *makill*, *motill*; *gogaittgarrin* (Ataun, XX. mendearen hasieran)
- Ablatiboko *-ti*:  
*iturritti*, *gerrittii* → *menditik* (Ataun, gaur)
- Pluralean eta mugagabeen:  
*begittati*, *errittâ*, *itturrittan* → *balkoitatik*, *inbiditan*, *erritan* ‘herritan’ (Segura, gaur)
- Partizipioetako *-ta*:  
*ebâlitta*, *jantzitta*, *eseitta* → *josita* (Ataun, gaur); *ikusita*, *etorritakoa* (Segura, gaur)
- *eta* lokailua:  
*puntati-tta* ‘puntati(k)-eta’ → *iruitamabost* (Segura, gaur)
- Zenbait aldaeratan:  
*bittarteên*, *baitta* → *bitarten* (Ataun, gaur)

Mendebaleko hizkera batzuetan ohikoa da *d > dd* bilakabidea eta, gainera, bustidura bilakabide bi hauek ere betetzen dira (Larrañaga 1998: 45-46):

- *d > dd* / i [l, n] \_\_V ingurunea: *ill dda* ‘hil da’, *astinddu*, *indda* ‘eginda’, *o(i)nddio* ‘oraindio’, *in ddot* ‘egin dot’ (Antzuola)
- *t > tt* / i [l, n] \_\_V ingurunea: *erremintta* ‘herramienta’, *siñtta* ‘zinta’ (Antzuola)

Aztergai dugun eremuan ez dago horrelakorik, baina Ataunen XX. mendearen hasieran hauek batu zituzten: *d > dd* duen *billurre* / *bildur* ‘beldur’ eta *t > tt* duen *ermintta* (Oñederra 1990: 155).

<sup>66</sup> Mendebaleko hizkeretan indartsuago dago asimilazio bustidura, Goierrin baino. Antzuolan, esate baterako, ingurune hauetan guztietan betetzen da: mailegu berrietan (*turbiña*, *miñerala*, *apetitto*); hitz amaieran (*estaitt* ‘ez dakit’, *dabill*, *mutill*); partizipio + *-ta*, *-tako*’ egituran (*asitta* ‘hasita’, *ebaitta* ‘ebakita’, *ikisittako* ‘ikasitako’, *etorritakua* ‘etorritakoa’); ablatiboan (*begitti(k)* ‘begitik’), plural eta mugagabeen (*begittan*, *begittako*, *begitta(a)* ‘begitara’, *begittati(k)*, *bégittan* ‘begietan’, *bégittako* ‘begietako’, *bégittati(k)* ‘begietatik’); *eta* partikularekin (*ordubi tterdiak*, *amabi tta laenak* ‘hamabi eta laurdenak’, *be bai*, *tta* ‘ere bai, eta’); *-tarra* atzizkiarekin (*biskaitarra*, *basarritarrak*); zenbait aldaeratan *baitta*... (Larrañaga 1998).

Bestalde, aztergai dugun eremuan <i> ostean eta kontsonante herskariaren aurrean txistukariak bustitzeko joera dago. Antza, bilakabide hau Euskal Herriko erdialdetik hedatu da batik bat, mendebaleko hizkeretan ez baita ohikoa<sup>67</sup>. Dena dela, erdialdean ere ez da sistematikoki betetzen; badirudi hautazkoa dela, eta zenbait aldaeratan agertzen da, baina bestetan ez. Gainera, itxura denez, gaur egun ez da garai batean bezain emankorra (Oñederra 1990):

*abixtu, irrixtau, ixkimilla, pixkaka, aixkie, laixter* (Ataun, XX. mendearen hasieran)  
*ixkimilla*, ‘iskanbila’, *ixtingan* ‘iztinka’, *maixtarra* maizter’, *mixkiña* ‘mizkin’ (Ibarra); baina, *gaitzua* (Ibarra), *gorrizka* (Leaburu), *irrista* (Tolosa) (Izagirre 1967)  
*ixkoa* ‘idisko’, *ixtan baten* istant’, *ixtripue*, *ixkanbile* (Elduain)

### 1.2.9. ‘Vj + z, tz > V + x, tx’ asimilazio bustidura

Euskal Herriko mendebaletik zabaldu den bustidura-mota hau ez dugu aurkitu aztergai dugun eremuan. Izan ere, gaur egun, mendebaleko berrikuntza hori ez da Gipuzkoako Debabarrenean eta Debaerdiko hainbat tokitan egiten<sup>68</sup>. Salbuespena *atxurra* aldaera da: *atxurra* (Goierra & Tolosaldea). Baina aldaera hori Gipuzkoa osora zabaldu da: *atxur*, *atxurrian*, *atxurtu* (Asteasu, 97 etn.), (Hernani, 122 etn.) (EAEL II)<sup>69</sup>. Hona adibide batzuk:

*keiza* (Gabiria)  
*aizea, keize, naiz, aizkorea, aritz, gaitz*; baina, *atxur* (Zegama) (Azurmendi 1998)  
*aizkoratxikie, aitze, gaitz* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Oñederra 1990)  
*aizea, aizkora, geizie, goiz, noiz, bakoitzek, aitze* ‘haritza’ (Ikaztegieta)  
*aize, gereziya, aritz, gaitza, fiakaitz* (Tolosa) (Izagirre 1967)

### 1.2.10. Bustidura adierazgarria

Aztergai dugun eremuan, bustidura adierazgarriak badu bere lekutxo. Oso

<sup>67</sup> Oñederrak honela zioen bilakabide honetaz (1990: 164): «Esan daiteke joera behintzat bada-goela kontsonante aurreko txistukari frikariak asimilatzea. Hain zuzen ere ingurune honetako palatalizazioan bereizten da gipuzkerazko bustidura asimilazioa bizkaierazkotik (...)».

<sup>68</sup> Arrasaten *atx* ‘aitz’, *Udalatx*, *aretx* ‘aritz’, *axe* ‘aize’, *gox* ‘goiz’, *atxurre*, *bakotxa* ‘bakoitza’, *gatxa* ‘gaitza’, *urretxa* ‘urritz’, *nas* ‘naiz’ baina batzuek *gois*, *Aisgorri*... (Elortza 1999: 166-167). Eta Antzuolan *goisian*, *aitza*, *ais* ‘haiz’, *aisia* (Larrañaga 1998:47).

<sup>69</sup> Aztergai dugun eremuan ez, baina Gipuzkoako ipar-sartaldean dagoen Urolaldean *atxurra* aldaeraz gain honako hau ere bildu da: *aixkorie* (Azpeitia) (EAEL-1 1983), *aixkoakin* ‘aizkorarekin’ (Zestoa) (EHHA 1999). Gipuzkoa aldean bilakabide hau Nor eta Nor-Nork sailetako hitanoko adizkietan betetzen da; ez, ordea, Leitza aldean: *gatxik/n* (Berastegi) / *gaitzik/n* (Areso) ‘gaituk/n’ (Olano 1998).

zabaldua dago haur hizkeran eta egoera adierazkorretan (gutxiesteko): *Emetterio, oi bai gixon exkaxa!* (Elduaingo K. Oriak esandakoa)<sup>70</sup>:

*ximel / tximel, xâr, axâtu* ‘azuzar’, *baxajaunek, goxoa, motilkoxxorrek* (Ataun) (Oñederra 1990)

*koxxor / kozkor, puxka/ puska, xuri / txuri / zuri, motx / motz, tximel / ximel / zimel, zabal / txabal, txulo / xulo / zulo, zar / xar* ‘zahar’, *xurre, ttiki-ttikitan, bixi-bixi, xelebrea, goxo goxo...* (Ikaztegieta)<sup>71</sup>

*txuriye* ‘kolorea’ / *zurie* ‘tolosarrak halakoak omen dira’; *zuztarra* ‘jandakoa hortz artean geratzen diren hondarrak’ / *saar xuxtarra* ‘sagar zuztarra’ (& *txuxtar*); *gaiztoa* ‘edozeini esateko’ / *gaixtue* ‘ume txikiari’ (Elduain)

Izagirrek adibide ugari bildu zuen Tolosaldean (1967):

*aritz xapatxa* ‘aritz txikia eta gaizki osatua’ (Tolosa), *belarrixpiya* (Tolosa), *egoski pittin bat* (Belauntza), *pottok* ‘potro txikiak’ (Tolosa), *poxxoliña* (Ibarra), *ttiki xamarra* (Tolosa), *erreka xixtorra* ‘txikia’ (Tolosa), *sagar xixtorrak* ‘lehenengo sagarrak, gaizki osatutakoak’ (Ibarra), [behi] *xordua* ‘adarrak beherantz eta barrualderantz dituen’ (Tolosa), *xorkerin pasa* ‘kasurik egin gabe’ (Tolosa), *xurre / zurre* ‘zekena’ (Tolosa)

Horietaz gain, ondoko bikoteak jaso zituen:

*muxu eman / musuba* ‘aurpegia’ (Tolosa), *pottorra* ‘alua’ / *potorra* ‘biribila dena’ (Ibarra), *txakur / zakurreztula* ‘eztut txarra’ (Belauntza); *txerraska / zerramá* (Ibarra); *iñurri beltza* ‘gaztaina-mota’, eta Izagirreraren iruzkina: «au omen da onena» / *dixipula beltza* ‘dixipularik okerreña’ (Ibarra)

### 1.3. AZENTUA

Hualdek aztertu duenez, Beasainen, oro har, [+2] azentuera dago, hau da, azentua ezkerraldeetik ezartzen da eta bigarren silaban txertatu. Kasu berezi batzuetan [+1] azentuera egiten da.

<sup>70</sup> Itxura denez, bilakabide hau ez da oso arrunta mendebaleko hizkeretan. Lourdes Oñederrak ondoko lekukotasuna bildu zuen, Joseba Lakarraren ezpainetatik: «(...) Bere Gernika inguruko euskaran (Arratzuakoa), asimilaziorik gabeko hots bustia entzun orduko (xoxo, xamur, adib.), ba omen dakite hiztuna “gipuzkoarra” dela edo umekeritan ari dela. Honekin batera esan zidan, nola bizkaierazko testu zaharretan ere ez den (ia) bustidura adierazgarririk aurkitzen...» (Oñederra 1990: 20).

<sup>71</sup> Bikote hauetan, normalean, esanahia aldatzen da aldaera batetik bestera: *Zuzen al dau arbol oi?* baina *Xuxen ibili nitzen lengo jaien*; *Txakurre* baina *Zakur zaar oi!*; *Txerrie* baina *Zerri zikiñe!*; *Zarra* baina *Atton xarra*; *Kozkortuta dao* baina *Mutil koxxor bat*; *Patatak zurittu* baina *Katu xuri bat*; *Sague* baina *Xagu ttiki bat*; *Baxoerdi bat eanda* baina *Basoerdi bana patuta*; *Puxka ttiki bat ariuko’et* baina *Puska baten ezta etorriko*; *Goxo goxo ibilli...* (Alaitz Amundarainek esandakoa).

Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan galdu da singularra eta plurala bereizten dituen azentua; horrenbestez, Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkera batzuetan galduta dago. Baina, eremu horretan, gorde den tokietan, pluralean singularrean baino ezkererago ezartzen da azentua (Zuazo 1998d: 197). Antza, aztergai dugun eremuari dagokionez, honako herri hauetan ez da singularra / plurala bereizten azentuaren aldetik: Legazpin, Zaldibian, Alegian, Lizartzan, Gipuzkoako sartaldeko Oñatin eta ipar-ekialdeko Usurbilen. Gainera, Oñatin, Legazpin, Zaldibian eta Alegian, bereizketarik eza zaharra da. Aitzitik, honako herri hauetan bereizketa gorde da: Legorretan, Beasainen, Errezilen, Larraulen, Urnietan, Aian eta, oro har, Gipuzkoako ipar-ekialdean (Gaminde & Hualde 1995: 175-197).

Hualdek Beasainen jaso duenez, pluralean singularrean baino ezkererago ezartzen da azentua (Hualde 1997):

- Bi silabako oinarri markatu gabeak:  
*zakúrre* (sg.) / *zákurrek* (pl.); *zakúrrei* (sg.) / *zákurrei* (pl.); *gizóna* (sg.) / *gízónak* (pl.); *mendíe* (sg.) / *méndik* (pl.); *mendítik* (sg.) / *ménditatik* (pl.)
- Hiru silabako oinarri markatu gabeak: *alába* (sg.) / *álabak* (pl.); *alkátea* (sg.) / *álkatek* (pl.); *katillue* (sg.) / *kátilluk* (pl.)
- Oinarri luzeagoa bada azentua bigarren silaban ezartzen da beti: *emákumea* (sg.) / *emákumak* (pl.); *txistúlarie* (sg.) / *txistúlarik* (pl.)
- Erro markatu batzuekin azentua lehenengo silaban doa, singularrean eta pluralean: *básoa* (sg.) / *bások* (pl.) ‘edalontzia’; *úmea* (sg.) / *úmek* (pl.); *sémea* (sg.) / *sémek* (pl.)
- Oinarria silaba bakarreako bada azentua lehenengo silaban ezartzen da: *lúrre*, *lúrrena*, *lúrrei*; *órtza*, *órtzuna*

Itxura denez, Tolosaldeko Ikaztegietan ere singularra eta plurala bereizten duen azentua dago: *etxéa* (sg.) / *étxek* (pl.); *etxéi* (sg.) / *étxei* (pl.); *etxén* (sg.) / *étxetan* (pl.)

## 2. IZENAREN MORFOLOGIA

### 2.1. Partitiboa, partizipioa, perpaus konpletiboak eta modu-perpauak inesiboan

Euskal Herriko erdigune zabalean, inesibo marka ezartzen zaie partitiboari (-*(r)ikan*), partizipioari (-*(r)ikan*), perpaus konpletiboei (-*(e)nikan*) eta modu-perpau-sei (-*(e)larikan*) –eta ablatiboari zein motibatiboari (-*tikan*, -*gatican*)–. Aldaera horiek ezagunak dira Lapurdin eta Nafarroa Beherean eta, aztergai dugun eremuari dagokionez, Gipuzkoako iparralde guztian eta Nafarroa Garaiko hainbat tokitan erabiltzen dira (Zuazo 1998d). Beterrri aldean, inesibo marka ingurune hauetan guztietan ager dakiguke (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996):

- Partitiboarekin: *emakumeikan & emakumeik, euzkikan & euzkik, gizonikan & gizonik*
- Perpaus konpletiboetan: *eztakit beste alkateik izan ote (d)an ainbeste lan in dunikan (& -ik)*
- Ablatiboarekin eta motibatiboarekin: *errekatikan / errekatik*

Alabaina, erdialdeko berrikuntza hori ez dago Goierriin ezta Tolosaldeko hegoalde zabalean ere <sup>72</sup>. Bertan *-(r)ik* eta *-(e)nik* morfemak daude, alegia, inesiboaren marka erantsi gabeko aldaerak:

- Partitiboan:  
*erdeaik, lujuik* ‘lujorik’, *goserik, diruik* (Segura)  
*Oi eztao esateik!* (Lazkao)  
*barkamenik, inportik, mesedeik*; *aditz-izenekin, estaukazu pasatzeik* (Tolosa)  
*etzeon Tolosatik ekartzeik; etzeon iriñik eitteik* (Izaskun)
- Perpaus konpletiboetan:  
*iñok eztu uste sasoi onean daonen autza ju bear danik baño...* (Beasain)  
*etzitzaien iruitzen bizi bear nunik* (Belauntza)
- Modu-perpauetan *-(e)la* baizik ez dugu aurkitu aztergai dugun eremuan (cf. Lezo-Oiartzundik ekialderantz aukeran dagoen *-elarik & -elarikan*).

Tolosako iparraldean dator aldaketa: Anoetan, bakanka bada ere, inesiboa erantsita duten aldaerak entzuten dira partitiboarekin eta, dirudienez, Asteasun ere ohi-koak dira. Mikaela Elizegi asteasuarraren kontakizunetan inesibo marka erantsi gabe dago gehienetan, baina, noizean behin, *-(r)ikan* agertzen da :

*Bakarrikan; Beak ez daukea jateikan; Arbolan gañetik etzeukozun frutak artzikan* (Anoeta)

*aleiya arrokerikan etzala in biar* (Asteasu) (EHHA 1999: 70, 3.24. testua)

*Gazte-gazterikan* (25); *Etzala batere gezur bearrikan* (110) (Asteasu) (Zavala 1993:)

<sup>72</sup> Aitzitik, aldaera horiei inesiboa eransteko joera indartsu dago Euskal Herriko ipar-ekialderagoko eremuetan: Ipar Euskal Herriari perpaus kontzesiboetako *-(r)ikan* oso hedatuta dago. Nafarroa Garaian *-(r)ikan* eremu zabalean erabiltzen da, batez ere ipar-mendebalean (Bortzirriak, Bertizarana, Malerreka, Basaburua, Imotz eta Leitza-Goizueta-Arano bitarteko eremua), baina Aezkoan (Camino 1997:390) eta Burundan ere bada (Zuazo 1998d: 198). Hain zuzen, Goizuetan partitiboari zein partizipioari erantsen zaie (Zubiri 1999). Burundan, partitiboan *-(r)ik* morfema erabili obi da, baina, lantzean behin, *-rikan* (>*-riken*) ere agertzen da; gauza bera gertatzen da partizipioarekin (Zuazo 1995b). Bestalde, Gipuzkoako iparraldean (Orion), *-ikan* motakoak ablatiboarekin eta motibatiboarekin batera, partitiboan, partizipioetan eta konpletiboetan ere ager daitezke: *bezelakoikan, inportikan, olakoi-kan; eztola esplikatzeikan; ...aik ez paizuen ni juteikan nai...* (partitiboak) / *Oriyotarrak ausiko ditunikan etzeok* (perpaus konpletiboa) (Iturain & Loidi 1995). Aitzitik, Goierriarekin muga egiten duen Deba ibarreko zenbait tokitan (cf. Antzuola) ablatiboari eta motibatiboari baino ez zaie erantsen inesibo marka, Tolosaldeko hegoaldean legez (Larrañaga 1998:57).

## 2.2. Soziatiboko morfema

Aztergai dugun eremu guztian *-kin* morfema erabiltzen da soziatiboan. Mendebaleko euskaran, berriz, *-gaz* morfema agertzen da: Bizkaiko mendebalean, *-gaz* (sg.) eta *-kaz* (pl.) morfemak; eta, Bizkaiko ekialdean eta Deba ibarreko toki gehienetan, *-kin* morfema pluralean, baina *-as* / *-kin* lehia singularrean. Dena dela, Debabarrenean eta Debaerdikoan ere *-kin* morfema nagusitu da singularrean eta pluralean (Zuazo 1999c).

*bost bat urtekiñ* 'bost bat urterekin', *maisú batekin*, *makillakin* 'makilarekin', *arekiñ* 'harekin', *aitonakin* 'aitonarekin' (Segura)

## 2.3. Destinatiboko *-endako* morfema

Goierriko sartaldean, Zegaman eta Legazpin, *-endako* eta *-entzat* morfemak erabiltzen dira destinatiboan.

*biziandako*, *abadendako*, *zeñendako*, *zeondako*, *iraazten donandako*... (Zegama) (Azurmendi 1998: 65)

*amandako*, *aittendako*, *Joxendako*, *zeiñendako?* (Legazpi) (Ugarte 1993: 184)

Goierriekin muga egiten duten eremu askotan *-endako* morfema dago. Nafarroan morfema hori da nagusi. Antza denez, *-entzat* aldaera Gipuzkoa ondoko eremuetan baizik ez da agertzen (Bortzirietan, Larraunen eta Basaburuan), eta Ultzaman bertan *-(en)dako* morfema dago (Ibarra 1995: 685). Arabako sartaldeko euskaran ere *-endako* eta *-tzat* erabiltzen ziren (Altuna 1995: 100). Eta mendebaleko euskalkiaren sartaldeko hizkera batzuetan ere *-(en)dako* morfema dago: Deba ibarrean (Debabarrena kenduta) eta Durango inguruko hizkera batzuetan (Abadiño bitartean) (Zuazo 1999c).

Goierriko gainerako herrietan, aldiz, ez dugu *-(en)dako* morfema aurkitu, *-tzat* eta *-tzako* dira bertan jaso ditugun aldaera bakarrak:

*neetzat*, *anaientzat* (Segura)

*norentzako*, *aitentzako*, *abadentzako* (Gabiria)

*netzat*, *neronentzako*, *gutzako*, *amantzako* (Lazkao)

*amantzako*, *amantzat* (Beasain)

Tolosaldeko hegoaldean ere ez dago horrelakorik. Gainera, bertako hiztunen iriziz, morfema hori markatzailea da: goierritarren, bereziki sartaldeko goierritarren markatzat jotzen dute<sup>73</sup>.

<sup>73</sup> Honela jaso genuen Goierriekin muga-mugan dagoen Ikaztegitian (M. K. Amundarain eta J. Eizmendi, 1993): «M: Ataundarrak zelebte eitte'ue, ak eta eak... Aik-eta, guk esaten deun bezela..., ak eta eak..., ta Zeama'lden da... J:... au neetako ta... M: ...au neetako ta au gutako... Guk esate'u... neetzako esate deu ta, ta aik au neetako ta au gutako (...) or eta nik uste't Lazkaon-da bastante ondo

*beantzako, neetzako* (Ikaztegieta)

*gutzako, danantzako, amabost launentzako, gustientzako, eostea jute sanantzako*  
(Tolosa)

## 2.4. Ablatibo singularreko eta motibatiboko morfemak

Ablatibo singularreko eta motibatiboko *-tik* eta *-gatik* morfemak erdialdetik Euskal Herri osora hedatu dira, baina bazterretako hizkeretan *-ti* eta *-gati* aldaera zaharrekin lehian daude: Bizkaiko sartaldean, Debagoiengan, Gipuzkoako hegoalde osoan, Nafarroa Garaiko Sakanan, Areson eta Larraunen (Zuazo 1998d). Goierriin eta Sakanan iraun dute *-ti* eta *-gati* aldaerek indartsuen eta Goierriin *-tio* eta *-gatio* aldaerak izan dituzte lehian. Itxura denez, oraintsu arte, aldaera horiek izan dira Goierriin izan diren aukera bakarrak (Zuazo 1998c: 150). Bestalde, *-tikan* eta *-gatican* aldaera berriak ditugu, Euskal Herriko erdialdetik zabaldu direnak Lapurdira, Nafarroa Beherera, Nafarroako ipar-mendebalera eta Gipuzkoako iparralde guztira (Zuazo 1998d)<sup>74</sup>. Aldaera horiek ez dira Goierriira iritsi, baina Tolosaldeko hegoalderaino barneratu dira<sup>75</sup>.

Ataunen, XX. mendearen hasieran, ablatiboan, *-ti* morfema zen nagusi, *-tio* erabiltzen zen adizlagunekin, eta ahul zegoen *-tik* morfema; motibatiboan *-gatio* / *-gati* lehia zegoen (*-gatik* morfema ez zen erabiltzen) (Azurmendi, J. M., 1996: 101-102):

*ateti, Lazkauti, nigandi, geozti... / oaindio, emendio, andio*

*orreati / orreatio, zeati / zeatio, jigante'ateati / Jainkooatiao, ikusteaati / kristauek ez izen aatio*

Gaur egun, Goierriin hiru aldaera daude lehian: *-ti* & *-gati*, *-tio* & *-gatio* eta *-tik* & *-gatik*. Itxura denez, *-ti* & *-gati* gero eta gutxiago entzuten da, eta *-tik* & *-gatik* gero eta gehiago<sup>76</sup>:

Ablat: *sarrera aldeti o irtera aldeti datorrenai; bateti etortzen / alboatxeotik; beetik; berotik* (EHHA 1999: 57, 3.12 testua) / *oaindio* (Ugarte 1993: 174). Motib.: *orratik / orratio* (Ugarte 1993: 174) (Legazpi)

Ablat: *etxetik, nundik / etxetio, nundio, eitteatik*. Motib.: *zeatik / eitteatio, zeatio* (Gabiria)

---

itz eitte'ala baita re, ondo esa'nai nuke... J: Ba, Ataundi auntza diferentzi ikeraarrie... M: ...asko aldazte'a, ta dire bi erri alkarren ondon daudenak, ta Zeaman oaindik ere zelebregoa itz eitte' due...».

<sup>74</sup> Batez ere ipar-mendebalera, Bortzirriak, Bertizarana, Malerreka, Basaburua, Imotz, Leitza-Goizueta-Arano bitartean.

<sup>75</sup> Larramendiren ustez, ablatiboko *-ikan* aldaera Tolosako hizkeraren bereizgarria zen (1969: 321).

<sup>76</sup> Hitzunek behin eta berriz esaten digute eurek ez dutela *-ti* eta *-gati* erabiltzen, bukaerako <k> ahoskatzen dutela alegia, baina egin egiten dute, hala Goierriin nola Tolosaldeko hegoaldean, baita gazteek ere. Duela gutxi, Ataunen *-ti* eta *-tio* morfemak jaso dira, honako oharrarekin: «Nondik kasuan -k beti desagertzen da»: *Tolosati(o)* (Arin 1989: 38).



Ablat: *ortio, andio, oaindio, ondotio, menditio, Zeamatio / orti onea, atariti onea, mundu ontati asko, oaindi beintzat / lareun urtetik, Zumarraatik gora, atzetik, ortik*. Motib.: *izkuntzatio, zeatio* (Beasain)

Ablat: *oaindio, goitio, biitxur ortatio, aurretio, elizan barrutio, instituto aldetio / oaindi ez, kanpoti ekarri, Holandati ekarri, Senpereti gora / Murumenditik Anbotoa, ortik, aurretik, emendik*. Motib.: *auzokok esanakatio / gureatik 'gugatik', orratik* (Lazkao)

Ablat: *geoztio, oaindio, emendio, Aleitio 'Alegiatik', politika aldetio, bestetio / andi etorri, andi aurrera, emendi Abaltzisketaa, Tolosati buelta, beti goa 'behetik gora', bateti bestea / Donostitik*. Motib.: *otzakatio 'hotzagatik'* (Zaldibia)

Ablat: *nundio, emendio, ortio, Tolosatio, etxetio, telefonotio / nundi / nundik, Ordizitik*. Motib.: *zeatik / zeati / zeatio, orratio...* (Legoreta)

Bestalde, *-gatio* eta *-tio* morfemak, Goierriko hizkeren ezaugarririk nabarienetako hauek, ez dira Goierri bakarrik egon, Goierri inguruko hizkeretan ere badaude, baina ahul. Tolosaldeko hegoaldean ere zantzuak aurkitu ditugu, batez ere ablatiboan<sup>77</sup>:

*nundio, emendio, oaindio, ez aurreti ta ez atzetio, beste alderditio, etxetio, kanpotio, Arantzazutio*; eta, motibatiboan, *orratio ba!* (Ikaztegieta)

*ume-umetatio; Abaltzisketatio* (Amezketeta)

*emendio; zeatio* (Albiztur)

*Alegi maite du, Alegi'koa izan orratio* (Alegia) (Alzo 1961: 218)

Horretaz gain, Tolosan eta Alegian, ablatiboan eta motibatiboan, *-tiokan* eta *-gatiokan* morfemak bildu dira. Lekuonaren iritziz, horiexek ziren Tolosako euskararen bereizgarririk nagusienak, Tolosako euskarak Beterriren eta Goierriren artean egiten duen zubi-lanaren adierazgarriak (1956: 176-177)<sup>78</sup>:

<sup>77</sup> Areson *-tio* eta *-gatio* daude, baina Leitza ez (Olano 1998); Urretxun motibatiboko *-gatio* dago eta *oindio*, behinik behin badira; eta Debaerdiko Antzuolan *-tio* morfema (*-gatio* ez da agertzen) fosilizatutako kasu bi hauetan baino ez da erabiltzen: *orraitio* eta *oiñddio* (Larrañaga 1998: 57). XX. mendearen hasieran, *El-k* adizlagunetan *-tio* bildu zuen Tolosaldeko hegoaldean: *emendio* (Orendain), *oaindio* (Alegia). Alabaina, gaur egun, Tolosaldeko hegoaldean oso gutxitan erabiltzen dituzte *-tio* & *-gatio* aldaerak. Gainera, hiztunek morfema horiek *goierritarkeriatzat* jotzen dituzte eta ukatu egiten dute erabiltzen dutenik.

<sup>78</sup> Honela zioen Lekuonak: «Beterrian “oraindik” esan oi dana, zenbait aldiz Beterrian bertan esan oi bait-da “oraindikan” ere (“oraindik”, “oraindikan”). Goyerrian, berriz, danok dakizute “oraindio” (“oaindio”) esan oi dana, Bizkaya’n “oaindiño” (“ondiño”) bezela... Bada, Tolosa’n, bi erak bat eginda, bion arteko izan bearrez, “bi eskutako” izan bearrez nunbait, “oraindiokan” esaten dezute; ez “oraindio” bakarrik, ezta “oraindikan” bakarrik ere “oraindiokan” baizik. Auxe da nik Tolosa’ko euskerari arkitzen diodan bereizkuntzarik bereziarena. Eta onen antzera, berdin baita “orration” eta beste olako zenbait. Goierrian “orration” ta Bizkaia’n “orrotiño” bezela, eta Beterrian “orration” eta “orration” bezela, Tolosa’n “orration”...» (1956: 176-177). Baina Tolosatik kanpo badira horrelakoak; adibidez, Mendaron, *oiñokan* erabiltzen da (I. Caminok esandakoa).

XX. mendearen hasieran, *EI*-k ondokoa batu zuen Alegian: *mendirontz*<sup>83</sup> (eta *mendiruntz* Gipuzkoako kostaldean, Astigarribia, Mutriku, Deba, Zumaia eta Getarian). Aztergai dugun eremuko gainerako herrietan, aldiz, *mendialdera* aurkitu zuen, eta *-ru(n)tz* morfema adizlagunetan baino ez zuen bildu.

Erdialdeko euskalkian bezala, Deba ibarreko zenbait tokitan nekez erabiltzen da *-rutz* morfema izenei loturik, horren ordez *-rusko* darabilte: *etxerusko bialdu ittut eta gorusko jun dia* (Antzuola) (Larrañaga 1998: 58). Legazpin ere *-ruzko* morfema bildu da (Ugarte 1993: 187):

*onutza, arutz, arutzaiño, aruzkoa, aruzkaldetik eta etxeruzko, lanaruzko, mendiruzko, dantzaruzko*

Gaur egun Goierrin *-rutz* adizlagunetan baino ez da erabiltzen, eta gainerakoe-tan *aldera* postposizioa dago:

*onutza, orrutza, autza, auzkaldea / mendi aldea; górika, beéraka* (Gabiria)

*onutza, autza, onuzkaldea / goraka, beraka eta mendi aldea* (Beasain)

*tórri onutza, segi auntza, onuzkalden, auzkalden / goráldea, etxé aldea, mendí aldea* (Lazkao)

*auntza, onuzkaldeaka, onuntza (zaharrek) / onea (gazteak), oneaka, oneakon 'hona-koan', mendi aldea, górika, beéraka* (Legorreta)

Tolosaldean, gainera, *onéa, orréa, aréa* adizlagunak *onutza, orrutza, autza* baino ohikoagoak dira:

*auntza, onuntza / onea* (gero eta gehiago), *onuzkaldea / onealdea*; baina, *mendi aldea, Abaltzisketa aldea* (Amezketza)

*auntza, auzkaldea, onuzkaldea / onea* (*onuntza* ez), *goraldea, beeraldea, mendi aldea* (Alegia)

## 2.7. Erakusleak

Euskal Herri gehienez bezala, Goierrin eta Tolosaldean erakusleak erro desberdinak dituzte singularrean eta pluralean, eta izenaren eskuinetara paratzen dira. Hala, bada, aztergai dugun eremua bereizi egiten da mendebaleko euskaltitik. Izan ere, mendebalean, batetik, erakusleak izenaren ezkerretara zein eskuinetara erabiltzeko joera dago: *ori gisonoi nundi sartu da* 'gizon hori nondik sartu da?' (Debaerdiko Antzuola). Eta, bestetik, erakusleak erro bera dute singularrean zein pluralean: *onek bentanok konpondu bierrian dae* 'leihu hauek konpondu beharrean

<sup>83</sup> Otaegi zegamarrak bere idazlanetan *-rontz* atzizkia erabili zuen hurbiltze adlatiboan: *echeronz, aritz galantaronz* (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1994: 128). Diego de Alzok, adizlagunetan jasotzeaz gain, *aurrerantz ibilli* bildu zuen gipuzkeraren eta *goi-nafarreraren* eremuan, eta *osterontz, osterontzian, gañerontzian gipuzkeran* (1961: 17).

daude' (Antzuola) (Larrañaga 1998: 21). Nolanahi ere, 1713an, Otxoa de Arin ordi-ziarrak singularreko erroa baina pluraleko esanahia duen erakuslea erabili zuen: *modu orreenen batez* 'modu horietakoren batez' (Altuna 1995: 102, oin-oharra)

Bestalde, mendebalean *a* da hirugarren graduko erakuslea, baina Debabarrenean, Antzuolan, Bergaran eta Sorluzen *aura* 'hura' dago (Zuazo 1999c: 41). Aztergai dugun eremuan *ura* orokorra agertzen zaigu:

- Erakusleek ez dute erro bera singularrean eta pluralean:  
*tradizio orrek* 'horrek' / *gauza oik* 'gauza horiek', *onek* 'honek' / *ok* 'hauek' (Segura)  
*gizon oi* 'gizon hori' / *morkots orik* 'morkots horiek', *zopa ura* 'zopa hura' / *aik* 'haiek' (Zaldibia)  
*orrek, arrek* (sg.) / *ok, oik, aik* (pl.) (Tolosa)
- Erakusleak izenaren eskuinetara jartzen dira:  
*tradizio orrek* 'tradizio horrek', *ume orren atzetik* (Segura)

## 2.8. Izenordain indartuak: *neronek* / *neuk* eta *berak* / *erak*

Mendebalean ez dago *neronek* tankerako izenordain indarturik, horien lekuan *neu* erakoak agertzen dira. Izenordain indartu horiek aukera bakarra dira Deba ibarrean eta Gipuzkoako iparraldetik Zumaiaraino hedatzen dira (Zuazo 1998d). Goierri gehienez gaur egun *neronek* tankerako izenordainak dira nagusi, baina aurreko mendeetan Goierriko idazleek *neuk* erakoak erabili izan dituzte (Altuna 1995: 102-103 eta Lakarra 1985: 251):

*neurc, ceurc, gueurc...* (Gerriko segurarra, 1858an argitaratutako lanean)

*neurc, ceurc* (Zegamako Dotrina, 1741)

*neure, neuregan, gueuc, eurac* (Otxoa de Arin ordiziarra, 1713an)

XX. mendearen hasieran, *EI*-k hauek jaso zituen Goierriin (eta Urolaldean zein itsasaldean): *neu, eu, geu, zeu, zeuek, erak*. Garai horretan, Goierriko Ataunen, *neuk* tankerako izenordainak zeuden *neronek* tankerakoekin lehian, eta *erak* zen 3. pertsona pluraleko izenordaina (Azurmendi, J. M., 1996: 84):

*neuk* / *neronek* (ergatiboa), *neuri* (datiboa)

*eak* (ergatiboa), *eren* (genitiboa), *eetako* (leku-denborako genitiboa)

Gaur egun, *neu* tankerako izenordainak Goierriko sartaldean daude (Zegaman, Gabirian, Legazpin) *neronek* erakoekin lehian, baina Goierriko sortaldean ez dira ohikoak:

*geu, zeu, erak, neure, neureandu* 'neureganatu' (Legazpi) (Ugarte 1993)

*neuk, euk, zeuk, geuk...* & *neonek, zeorrek, ge(r)ok...* (Gabiria)

*neoni, zeorri, geok* (Lazkao & Zaldibia)

*neonek, zeorrek* (Legorreta)

3. pertsona pluraleko *e(r)ak* izenordaina esparru zabalagokoa da. XX. mendearen hasieran, *EI*-k *erak* bildu zuen Goierriin barrena: Seguran, Mutiloan, Lazkaoon, Ormaiztegin, Ataunen, Itsasondon... Eta, gaur egun, honelakoak dira aukera bakarra Goierri gehiengan, sortaldean izan ezik:

*e(r)ak, een, erai...* (Gabiria)  
*eak, ean* 'beren' (Lazkao)  
*en / been* lehia (Zaldibia) (Zuazo 1998c: 155)  
*eak* (Segura)  
*béak in due* (Legorreta)

Tolosaldean, ordea, XX. mendearen hasierarako, *EI*-k *neronek* eta *beak* motatako izenordainak besterik ez zituzten jaso: *neoni, eorri, geok, zeorri, zeok, beak* (Tolosa). Tolosaldeko hegoaldean ere horiexek baino ez ditugu aurkitu:

*neonek, eorrek, zeorrek, beak* (Amezketeta)

Dena dela, XIX. mendearen hasieran, Beizamako Felipe Agustin Otaegik *neuk* eta *erak* tankerakoak erabili zituen bere eskuizkribuetan, gaur egun Beizaman daudden *neronek* tankerako izenordainen ordez (Otaegi 1993: 128):

*neurc, gueurgan, gueurgandic* (baina, *cerengandik, ceroc* 2. pertsona singular zein pluralean)  
*erac, erai, eretatic, eren...*

## 2.9. Galdetzailetan *nor / zein > zein* aukera bakarra

Erdialdeko euskaran *nor / zein* bereizketa galdu da, eta, horrenbestez, *zein* da erabiltzen den galdetzaile bakarra. *Nor* izenordainaren bazterketa hori euskara gipuztaren eremuan eta bere aldamenetan gertatu da: Deba ibarrean<sup>84</sup>, Bizkaiko ipar-ekialdean eta Nafarroako mendebalean<sup>85</sup>.

Hala, bada, berrikuntza hori indartsu dago aztergai dugun eremu guztian. Hala ere, Goierriin *nor* galdetzailearen aztarna bakanen bat jaso da, batez ere, esaera zaharretan:

*zein & nor* (*nori, nortzuk, norendako, norbera, nor ero nor, norentzat*), *nor izan ba'litz; nor bere teillatua arrika* 'teilatuta' (174) / *zeiñek zein neurtuko* (164) (Legazpi) (Ugarte 1993)

<sup>84</sup> Debaerdiko Antzuolan, adibidez, *zein* galdetzailea erabiltzeko joera dago: *seiñendako da au?; seiñek iñ ddau au? Nor noizbehinka ere entzuten da: nok ekarri ete dau katakumia?* (Larrañaga 1998: 68).

<sup>85</sup> Leitzañ ohikoa da *nor*; Areson, aldiz, ez (Olano 1998: 13).

*nor da?; baina, ziñek ein dik?* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 84)

*Leenbiziko lana pago'at eskuz nork etaako, mentzan* 'lehenbiziko lana pago bat eskuz nork aterako omen zan'; *Zaldik seguroana nork bee anakak* 'zaldirik segurue-na, nork bere hankak' (Zegama) (Azurmendi 1998: 48)

XX. mendearen hasieran *EI*-k *nortzuk* galdetzailea jaso zuen Goierriko sartaldeko herrietan, hain zuen, Ezkio-Itsason, Zaldibian, Idiazabal, Legazpin, Seguran eta Zegaman. Baina ohikoena, *nor* erabili beharrean, *zein* galdetzailea agertzea da, Segurako XX. mendearen hasierako adibide honetan bezala (Garmendia 1911-1912): *zeñek esan dizu sagarrak artzéeko?*

Gaur egun, Goierri eta Tolosaldean, *nor* ez da erabiltzen:

*Zenen kotxea da oi?* (Segura)

*Zeñek ein do?; Zeñekin etorri zea?; Zein da?* (Gabiria)

*Ta, gaztiña zeñek erosten' tzon ba?* (Lazkao)

*Zeñi 'san diozu?; Zenek siniste'u?; Zenek konduzitze'u aiñ azkar?* (Ikaztegieta)

*Baño emen peria zein juten da ba?* (Amezketeta)

## 2.10. *Nortzuk, zeintzuk, zertzuk* pluraleko izenordain analogikoak

Izenordainei *-tzuk* pluralgilea eranstea mendebaleko euskararen berrikuntza bat da. Goierri hurbil, Deba ibarrean, honelakoak agertzen dira: *Zeintzuk etorri dia?; Egunen baten akordauko sa nik zertzuk esate nittuan* (Antzuola) (Larrañaga 1998: 68). Goierri eta Tolosaldeko hegoaldean ere jaso dira horrelakoak. XX. mendearen hasieran, *EI*-k Goierri ondokoak batu zituen<sup>86</sup>:

*nortzuk* (Ezkio-Itsaso, Zaldibia, Idiazabal, Legazpi, Segura, eta Zegama)

*zertzuk* (Zegama eta Ormaiztegi); gainera, Orixek nabarmendu zuen Ormaiztegin zaharrek baino ez zutela erabiltzen, eta, era berean, ondokoa jaso zuen tolosar baten-gandik: *Zertzuk esan nizkan!*

*zeintzuk* (Goierriko herri gehienak eta Bedaio)

*zeintxuk* (Amezketeta)

*EI*-k batutako adibide honetan, Goierriren eta Tolosaldearen arteko aldea ikusten da: *zeintzuk il die?* (Zaldibia, Zegama) / *zein gizon il die?* (Tolosa, Leaburu).

Itxura denez, gaur egun pluraleko izenordain horiek ez dira ohikoak Goierri gehienez eta Tolosaldeko hegoaldean:

<sup>86</sup> Gipuzkoako kostaldean ere honelakoak bildu zituzten: *nortzuk* Orion; *nortzuek* Altzolan, *zertzuk* Deban eta Elosun; eta *zeintzuek* Elosun eta Altzolan.

*Zeñena da oi?* (Belauntza)

*Zein' tzien aik?* (Amezketza)

*Zein die etortzekok?*; baina *Zeintzuk die etortzeko?* ere entzun daiteke (Ikaztegieta)

*Zein die aik?* (Legorretan)

Baina Goierriko sortaldean honelako ingurunetan *zeintzuk* ager daiteke, indartzeko edo:

*Zein etorri die? ... baño, zeintzuk? izenak esaidazu!* (Lazkao)

Legazpin bildu da, eta Goierriko sartaldean, antza, *zeintzuk* ez da erabat arrotza:

*Zeintzuk daitze or?*; *Zeintzuk etorri die?*; *Zeintzuk die oik?* (Gabiria)<sup>87</sup>

*norbaitzuk, nortzuk, zeintzuk, zerbaitzuk* (Legazpi) (Ugarte 1993: 189)

## 2.11. 'Edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordain zehaztugabeak

Euskal Herri osora zabaldu da *edozein* izenordaina, eta *edozer* Gipuzkoa gehienean agertzen da<sup>88</sup>. Baina izenordain zehaztugabeen sail osoa mendebaleko euskalkian baino ez dago. Deba ibarrean ere ez dago sail osoa: *edozein*, *edozer* eta beren eratorriak agertzen dira; baina *edonon* tankerakoak (*edonora*, *edonundik*, *edonos...*) ia ez dituzte erabiltzen eta horien ordez *edozein tokitara*, *edozein tokitatik...* tankerakoak baliatzen dituzte (Zuazo 1999c). Goierrik Deba ibarraren antzera jokatzeko du, sail osoa ez badago ere, *edozein*, *edozer* (*gauza*) eta euren eratorriak ohikoak dira (*edonon*, *edonoiz...*ez). Legorretan eta Tolosaldeko hegoaldean, ordea, *edozein* arrunta da, baina *edozer gauz* baino gehiago *eozein gauz* erabiltzen dute, Tolosaldeko iparraldean bezala:

- Goierrin:

*eozein* (eta *eoziñek*, *eoziñi*, *eoziñekin*, *eoziñendako...*) eta *edozer* (eta *eozeretan*, *eozeretaako*, *eozerrekin...*) & *eozein gauza* (Legazpi) (Ugarte 1993: 170)

*eozein* eta *eozer gauza* (eta *eozer*, *eozereta...*); baina, *eozein tokitan*, *eozein tokitara*, *edozein momentutan...* (Gabiria)

*eoziñ*, *eozer gauza* (Lazkao)

*eozeiñ*, *eozein gauza* (Legorreta)

- Tolosaldean:

*eozeiñ*, *eozer gauz* & *eozein gauz*; baina, *eozein tokitatik...* (Alegia, Amezketza)

*eoziñ*, *eozein gauz* (Ikaztegieta)

---

<sup>87</sup> Iñaki Murua gabiriarrak adibide horiek eman dizkigu, baina argitu digu gero eta gehiago sartzeko ari direla *zeiñ etorri die?* modukoak. Marian Bidegain-en ustez, ordea, *zeiñ* galdetzailea da ohikoena, eta *zeintzuk* noiz edo noiz entzuten da, baina batuaeren eraginez.

<sup>88</sup> Gipuzkoako ipar-ekialdean *eoziñ* eta *eozer* jaso dira (Fraile & Fraile 1996: 93).

## 2.12. ‘Zer edo zer’ egiturako izenordainak

*Zer edo zer* egiturako izenordainen sail osoa mendebaleko euskalkian baizik ez dago. Deba ibarreko zenbait tokitan ere ez dago sail osoa; Antzuolan, adibidez, hauek baino ez dituzte erabiltzen: *se(d)ose(r)* & *serbaitt*, *se(d)osela* & *selabaitt*, *nois ero nois*; baina, *nunbaitten*, *nunbaitteti(k)*... (*nósonos*, *núnun*... izenordainen orde) (Larrañaga 1998: 69). Antzekoa da Gipuzkoako sartaldeko egoera. Urolaldean *zer edo zer eta noiz edo noiz* izenordainak eta beren eratorriak daude (Zuazo 1998d: 206). Goierriko sartaldean, horietaz gain, *nuneronun* ere batu da Legazpin, baina sartaldean *zeozer* besterik ez dugu jaso, Tolosaldean bezala<sup>89</sup>:

- Goierriin:  
*zeozer* (*zeozekin*, *zeozertaa*, *zeozeatik*, *zeozendako*...); *noiz ero noiz*, *nuneronun* (Legazpi) (Ugarte 1993)  
*zeoze* (*zeozekiñ*, *zeozeatik*, *zeozertaa*, *zeozetako*... & *zerbaittekin*, *zerbaitteatik*, *zerbaittetako*), *noizeonoiz* & *noizbaitt*; baina, *nunbaitten*, *nunbaittetik*, *noabaittea*... eta *nunun* izenordainaren orde, *nunoan* ‘non edo han’ (Gabiria)  
*zeoze* (*zeozertan*...), *noizonoiz* (Lazkao)  
*zeozer* (*zeozekiñ*, *zeozergati*, *zeozertara*... & *zerbaitek*...); baina, *nunbaitten*, *noabaitera*... (*noizonoiz*, *nuneonun*... ez) (Beasain)  
*zeoze* (*zerbait*, gutxitan, eta *noizeonoiz*, ez) (Legorreta)
- Tolosaldean:  
*zeoze* (*zeozertan*...); baina, *nunbaitt*, *noizbaitt* (Ikaztegieta)  
*zeozer* (*zerbaitt* baino maizago); baina, *noizpaitten* (Amezketeta)  
*zeozer* & *zerbait* (Tolosa, Alegia)

## 2.13. ‘Baten bat’ egiturako izenordain zehaztugabeak

Dirudenez, tankera horretako izenordainak Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean baino ez dira ohikoak. Aztergai dugun eremuan sarri agertzen dira; izan ere, *norbait* ez da erabiltzen:

*bateonbat* (Segura)

*baten bat*, *baten batek*, *bation bat* (Zegama) (Azurmendi 1998:48)

---

<sup>89</sup> Izenordain hori Gipuzkoa osoan bildu da: *zeozer* (Oiartzun) (Fraile & Fraile 1996: 94). Bestalde, XIX. mendearen hasieran Beizamako Otaegik *cerc edo cerc*, *noiz edo noiz* erabili zituen (Otaegi 1993).

*baten baten zai* (Ikaztegieta)

*bate batek* (Belauntza)

## 2.14. Adberbioetan *-ki* eta *-to*

Gipuzkoako ipar-ekialdean (Oiartzunen eta Irun-Errenterian) agertzen diren *ongi* eta *obeki* aldaerak ez dira ohikoak Goierriin eta Tolosaldean; horien ordez, *ondo*, *obeto* dira erabiltzen diren bakarrak. Bestalde, Euskal Herriko mendebalean erabiltzen den *-to* atzizkia aldaera bi horietan baizik ez da agertzen, gainerakoetan *-ki* erabiltzen baitute eremu bietan <sup>90</sup>:

*ondo*, *obeto* / *earki*, *gaizki*, *poliki* (Lazkao)

## 2.15. Adberbioetan *-n*

Mendebaleko hizkeretan adberbioek *-n* hartzen dute, baina Debarrenean eta Antzuola-Bergara aldean, ez: *ola*, *ala*, *olaxe*, *alaxe*, *olako*, *alako*, *sela* ‘zelan’ (Antzuola) (Larrañaga 1998). Aztertzen dihardugun herrietan ere, adberbioek ez dute *-n* hartzen:

*nola*, *ola*, *olako*, *ala* (Segura)

*ala*, *alaxe* (Lazkao)

## 2.16. *-xe* txikigarria

Mendebaleko euskalkian morfema txikigarria *-txo* da, ez da *-xe* erabiltzen: *áurreratxuago*, *léntxuago*, *gerotxuago* (Zuazo 1999c:24). Aztergai dugun eremuan, ordea, *-xe* atzizkia baizik ez da erabiltzen:

*beranduxeo*, *librexo* ‘librexeago’ (Segura)

*geroxeo* (Beasain)

*leenxeago* (Ataun)

*zaartxeago*, *geixo*, *aurreaxokoa* ‘aurreraxeagokoa’, *oaintxe*, *bezalaxe* (Zaldibia)

*gutxixo* ‘gutxixeago’, *geixo* ‘gehixeago’, *geroxo* ‘geroxeago’ (Ikaztegieta)

*beranduxeao*, *aurreraxe* (Tolosa)

*goraxeo*, *beraxeao*, *geixo*, *gaxtexeua* ‘gaxtexeagoa’ (Anoeta)

---

<sup>90</sup> Cf. mendebaleko *satarto*, *ondo*, *politto*, *obeto*, *txarto*, *ederto* (Lekeitio) (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994: 159). Baina Debaerdiko toki batzuetan ere fosilizatuta dago: *ondo*, *obeto* baina *txarki*... (Antzuola) (Larrañaga 1998: 93).



### 3. ADITZAREN MORFOLOGIA

#### 3.1. Nor-Nori-Nork sailean \*-i- erroa

Aztergai dugun eremu guztian, Nor-Nori-Nork sailean \*-i erroa dago. Erro hori erabat nagusitu da Euskal Herriko erdialdean: euskara giputzean, eta Nafarroa Garaia gehienez. Mendebaleko hizkeretan, ordea, \**eutsi* erroa dago (Zuazo 1999c: 47):

*diet, dio, dizut, nion, baziozun* ‘bazenion’, *ziun* ‘zigun’, *ziuen* ‘ziguten’ (Segura)

#### 3.2. Nor-Nori saileko adizkiak

Mendebaleko euskalkian Nor-Nori saileko iraganaldian ‘oraina + -n’ egitura erabiltzen da<sup>91</sup>. Aztergai dugun eremuan, aldiz, *zit-* + oraina + -n egitura dago:

*zitzaian* ‘zitzaigun’... (Segura), *zitzaion*... (Lazkao), *zitzaizen*, *zitzaian*... (Zaldibia)  
*zitzaidan*... (Tolosa)

Dena dela, Xabier Azurmendiren ipuinetan honelako adizkiak agertzen dira (1996: 70): *zitan* ‘zitzaidan’, *zikon* ‘zitzaion’, *zikun* ‘zitzaigun’, *ziten* ‘zitzaizen’ (Zegama)<sup>92</sup>.

Bestalde, mendebaleko euskalkian, Nor-Nori saileko orainaldiko adizkietan [j] tankerako ebakerak daude; hain zuzen, [x] ebakera egiten da Goierri mendebaleko eremuan: Deba ibarrean, Bizkaiko ipar-ekialdean eta Aramaion. Ondorioz, *ez* + [x] batzerakoan, [tʃ] ebakera agertzen da eremu horretan: *etxat* ‘ez jat’, *etxonat* ‘ez jonat’, *etxoiak* ‘ez joiak’ (Debaerdiko Antzuola) (Larrañaga 1998:42). Goierri eta Tolosaldean, aldiz, *z-* ebakera dago, eta *ez* + *z-* batzerakoan [ts] ebakera egiten da<sup>93</sup>:

*zat, zaio, zazu* eta *etzaio* (Lazkao)

*etzait* (Tolosa)

Horretaz gain, Goierri aldean, Nor-Nori saileko adizkietan, pertsona-morfema hauek erabiltzen dira oraindik (baina atzeraka doaz): *-t, -k / -n, -ko, -ku, -tzu, -tzue*, alegia, mendebaleko euskalkian dauden antzekoak, cf. *sat, sako, saku, satzu, satzue, sakue* (Mutriku) (Zuazo 1999c: 47).

<sup>91</sup> Debabarreneko Mutriku eta Mendaron ere badira *zit-* + oraina + -n daukaten adizkiak (Zuazo 1999c).

<sup>92</sup> Ugartek antzekoak bildu ditu Legazpin (1993: 195): *zitan, zikon, zikun, zitzun, zitzaizen, ziten*.

<sup>93</sup> Antzera gertatzen da Debabarreneko Mutriku herrian eta lehia dago Mendaron: *etzako* ‘ez zaio’ (Mutriku) (Zuazo 1999c).

*zat / zait (gazteak), zako / zaio, zaku / zaigu, zaizu, zazue / zaizue, zaie (Gabiria)*  
*zat, zaio / zayo, zaku / zayu, zatzu / zazu, zatzue / zazue, zaie / zaye eta zitzai(d)an /*  
*zitzaten, zitzai(n), zitzakun, zitzazun, zitzazuen, zitzaien (Zaldibia) (Irizar 1991 II)*  
*zat, zako / zayo, zaku / zagu, zatzu, zatzue, zaye / zate (Zegama) (Irizar 1991 II)*

Tolosaldean ere bildu dira. Azkuek XX. mendearen hasieran jasotako datuen eta Artolak mende amaieran bildutakoen artean dagoen bilakabidea argi ikusten da (Irizar: 1991-II):

*zat, zaio, zaku, zatzu, zatzue; baina, zaie (Azkue) / zait, zayo, zaigu, zaizu, zaizue, zaye (Artola) (Amezketeta)*

### 3.3. Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetako z- / d-

Euskal Herriko erdialde zabalean z- erabiltzen da Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetan. Gipuzkoan, Nafarroa Garaian eta Lapurdi gehienean horixe nagusitu da. Erdialdetik kanpo, beste aukera batzuk agertzen dira. Mendebaleko euskalkian [j] tankerako ebakerak daude; hain zuzen, [x] dago Deba ibarrean, Burundan eta Bizkaiko ipar-ekialdean, eta aditz trinko iragan-gaitzetako orainaldian d- dago Debarrenean eta Debaerdikoan (Antzuola, Bergara, Soraluze, Elgoibar, Mendaron eta Mutrikun): *daok/n* ‘zagok/n’, *datok/n* ‘zatorrek/n’, *dabik/n* ‘zabilek/n’ (Ermua) (Zuazo 1999c: 48). Urretxun eta Goierriko sartaldeko Legazpin eta Zegaman ere badaude.

Aditz trinkoei dagokienez, Bähr-ek d- eta z- ebakerak bildu zituen Zegaman<sup>94</sup>, baina Goierriko beste herrietan eta Tolosaldean z- besterik ez zuen jaso (Azurmendi 1998):

*daok/n & zeok* ‘zagok/n’, *darek/n & zeerek* ‘zaudek/n’, *doak & zijook* ‘zoak’ eta *dijoon & doan* ‘zoan’, *dijootzek/n & zijootzek* ‘zoazak/n’, *datorrek/n* ‘zatorrek/n’, *datorzek/n* ‘zatozak/n’, *dabillek* ‘zabilek’; baina, *zebillen* ‘zabilen’, *dabiltzek/n* ‘zabiltzak/n’ (Zegama)

*zeok* ‘zagok’, *zijook* ‘zoak’, *zatorrek* ‘zatorrek’, *zebillen* ‘zabilek’ (Gabiria)

Nor-Nori-Nork sailean, Zegaman eta Legazpin d- (dd-) eta z- jaso dira, baina Goierriko beste herrietan eta Tolosaldean ez da d- bildu (Irizar 1991 II):

*daak/n & ziak/n* ‘zidak/n’, *dook & ziok* ‘zioat’, *dauk/n & ziguk/n* ‘ziguk/n’, *dooa & darek & ziek* ‘ziek’ (Zegama)

<sup>94</sup> Azurmendiren ipuinetan, aldiz, z- dago aditz trinkoetan eta Nor-Nori-Nork sailean: *zeok & ziok* ‘zagok’, *zerek* ‘zaudek’, *zioan* ‘zegoan’, *zeonan* ‘zegonan’ eta *ziek* ‘zidak/n’, *ziuk* ‘ziguk’, *ziok* (Azurmendi 1998: 84-85).

*ddak/n* ‘zidak/n’, *ddaok/n* & *diok/n* ‘zio(n)at’, *ddaok/n* ‘ziguk/n’, *ddaek/n* & *diek/n* ‘ziek/n’ (Legazpi)

*ziak/n*, *ziok/n* ‘zio(n)at’, *ziuk/n* ‘ziguk/n’, *ziek/n* (Gabiria)

### 3.4. \*Edun-en hitano alokutiboetako d-

\*Edun-en hitanoko adizkietan *j-* tankerako ebakerak daude mendebaleko euskalkian; hain zuzen, Deba ibarrean [x] dago: *juat* ‘diat’, *jok* ‘dik’, *jittunat* ‘ditinat’ (Antzuola) (Larrañaga 1998: 115). Aztergai dugun eremuan, berriz, *d-* orokorra dago:

*diat*, *diñat*, *dik*, *di(ñ)au* ‘di(n)agu’, *ditu(n)at* & *diti(ñ)at* & *zetu(n)at* ‘diti(n)at’ (Zegama) (Irizar 1991 II)

### 3.5. Ahaleran, aginteran eta subjuntiboan *egin* / \**ezan* erroak

Mendebaleko euskaran *egin* erroa baizik ez da agertzen ahalerako, aginterako eta subjuntiboko adizkietan. Erro hori mendebaletik kanpoko zenbait eremutan ere bada, \**ezan* erroarekin batera: Gipuzkoako sartaldeko hizkeretan (Urolaldean eta Goierriin) eta Nafarroako Burundan (Zuazo 1998d: 24).

Goierriin, XVIII. mendearen hasieran, Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741) *egin* eta \**ezan* erroak zeuden (Lakarra 1985: 255-256)<sup>95</sup>: Nor-Nori-Nork saileko adizkietan *egin* erroa erabiltzen zuten, eta Nor-Nork saileko adizkietan, *nor* singularra bazen, *egin* zein \**ezan* hauta zitekeen eta, *nor* plurala bazen, \**ezan* erabiltzen zuten. Hona hemen Otxoa de Arinen dotrinako adibide batzuk (Lakarra 1996: 181-184):

- *pagatu ceiquealaric / galdu cezaqueten* (Nor-Nork, *nor* singularra)
- *contadu bitça* (Nor-Nork, *nor* plurala)
- *itaundu beguio* (Nor-Nori-Nork)

Bähr-ek ondoko eremuak zehaztu zituen (Lakarra 1985: 255):

- a) *Egin* bakarrik: Goierriko sartaldean (Legazpi, Zegama, Segura) eta Urolaldean
- b) \**Ezan* / *egin* lehia: Goierriko erdialdean (Ormaiztegi eta Ordizia tartean)
- c) \**Ezan* erroa bakarrik: Goierriko sartaldean (Ordiziatik sotalderantz)

Gaur egun *egin* eta \**ezan* erroek ez dute isoglosa bera osatzen Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetan. Nor-Nori-Nork saileko adizkietan *egin* erroa ohikoa da aztergai

<sup>95</sup> Amundarainek eta Gerrikok ere Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetan *egin* zein *ezan* erroa erabili zuten. Baina Zegamako dotrinan eta Hernialdeko Irazustarenean \**ezan* baino ez da azaltzen. Liburu horretako egileek diotenez, «Eta, egun ere, bizkaieraz ez ezik, Goierriin txit normala da (normalena) ‘Egin’ erroan adizkiak erabiltzea» (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 106).

dugun eremu guztian, hala Goierrin nola Tolosaldeko hegoaldean. Itxura denez, Nor-Nori-Nork sailean, \**ezan* / *egin* erroen arteko lehia Tolosaldeko iparraldean hasten da <sup>96</sup>:

*daikiot* ‘diezaioket’, *daikio(g)u* ‘diezaiokegu’, *daikiazu* ‘diezadakezu’... (ahalera); *daizuan* ‘diezazudan’, *daiazun* ‘diezadazun’, *dai(g)uzun* ‘diezaguzun’, *daion* ‘diezaion’ (subjuntiboa) (Legazpi) (Ugarte 1993: 217)

*eldu iok, laundu iek, begikoa eiñ etzeion* (Zegama) (Azurmendi 1998: 87-88)

*laundu* ‘idazu, kontatuz’, *beida* ‘iok’ (Gabiria)

*eskau* ‘iozu, galdetu’iozu, *ekarri* ‘dazu’ (Legorreta)

*kontatu* ‘iozu, begira’iok, *utziazu, kaso eidazu, ots egiok, emaiok belarrondokoa!*, *eldu iok lepozurretik!* (Ikaztegieta)

Bestalde, Tolosaldean ez bezala, Goierri gehiengan, Nor-Nori-Nork sailean ez ezik Nor-Nork sailean ere, *egin* erroa erabiltzen da. Erro hori Ataun, Lazkao eta Zaldibiaraino iristen da, \**ezan*-ekin batera, baina behin Ikaztegiatar ezkeren \**ezan* erroa baizik ez da agertzen <sup>97</sup>. Dena dela, *egin* erroa erabiltzeko joera sustraituago dago Goierriko sartaldean sortaldean baino, sortaldean \**ezan* nagusitu baita hainbat esparrutan. Itxura denez, sortaldean \**egin* erroa ahaleran dago indartsuen, eta agintera zein subjuntiboan, aldiz, *ezan* erabiltzeko joera dago:

- Ahalera:

*daikiek, daike, daikeu* ‘dezakegu’ (Zegama) (Azurmendi 1998)

*daiket* ‘dezaket’, *daike & dezake, daike(g)u, daikezu, daikezue, daikie; neiken* ‘nezakeen’, *zeiken, geike(g)un...* *arnasea artu daiket; oillok perratu daizkek!* (Legazpi) (Ugarte 1993: 215-216)

*esan daikeu, in daiket, esan neiken, konpondu deiket, artu daiket* (Gabiria)

*in leiket & in dezaket, atea leiket / deiket, deike, deikeu, deikezu* (Lazkao)

*atea deiket* (Zaldibia)

*nik oi in neiken* (zaharrek) (Legorreta)

- Subjuntiboa:

*daian* ‘dezadan’, *dain* ‘dezan’, *dai(g)un, daizun, daizuen, daien; nein* ‘nezan’,

<sup>96</sup> Antza, Tolosan, zaharrek \**ezan* erroa erabiltzen dute sarriago (*esan zaidazu*) eta gazteek, aldiz, *egin* (*esaidazu*); horrenbestez, *egin* erroa ari da gailentzen (Koldo Oriak ahoz esandakoa). Beterrin lehia bera agertzen da Nor-Nori-Nork sailean (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996): *emaiazu basua / zaiazu* ‘iezadazu’, *esayozu egiya / zayozu* ‘iezaiozu’, *zaiguzu* ‘iezaguzu’ (agintera); *dezaiazun* ‘diezadazun’, *dezayozun* ‘diezaiozun’ (subjuntiboa).

<sup>97</sup> EAEL-k antzeko isoglosa aurkitu zuen: *badeiket* ‘badezaket’ (Ataun), *daiket* ‘dezaket’ (Legazpi), *neiken* ‘nezaken’ (Zegama), baina *badezaket, emantzak* (Alegia) eta *eramaizu ogi ori* (Legazpi) baina *eaman zazu ogi au* (Zegama) (EAEL I). Dena dela, oso gutxi erabiltzen dira ahalera-ko eta subjuntiboko adizkiak Tolosaldeko hegoaldean; horien ordezkari honelako egiturez baliatzen dira: *zuk e baaukazu ittea* (Amezket).

*zein, geigun, zeizun... ikusi nai ez donak begiik estali daitzela* (Legazpi) (Ugarte 1993)

*in daigun, konpondu daiun* ‘dezagun’ (Gabiria)

*dezaan, dezala, dezaun, dezen* ‘dezaten’, *zezan* (Zegama) (Azurmendi 1998)

*sei dezala orrela gañea; iraun dezala alaxe urte askotan* (Lazkao)

- Agintera:

*eramaizu ogi ori* (Legazpi) (EAEL I)

*artu* ‘izu, konpondu’zu gauza oi & konpondu’zazu, *artu*’zu & artu’zazu, *erosi*’zu oi & *erosi*’zazu oi, *eskatu*’zu oi & *eskatu*’zazu, *eramazu* & *erama*’zazu, *kantau* ‘zak, jarri’zak (Gabiria)

*segi*’zu aurrera, *etxozu pixkaaten* ‘itxoin ezazu’, *esazu, bai ala ez?* ‘esan ezazu’, *beittu*’zu ‘begira ezazu’ (Idiazabal)

*zak/n, zazu, zazue, itzek/n* ‘itzak/n’ (Zegama) (Azurmendi 1998)

*artu* ‘zazu, ar’*tzak, artu*’zan, *eaman*’tzazu *ogie, jarri* ‘zazu, *puskau* ‘zazue (Lazkao)

*artu*’zazu, *ean*’tzazu (Legorreta)

*jar*’tzazu, *ar*’tzazu, *eskatu*’zazu (Amezketeta)

Garai batean, ipar-ekialderago egon zen \**egin* erroa *czan* erroarekin batera. XIX. mendearen hasieran, Beizamako Otaegik bi erroak erabili zituen: Nor-Nori-Nork sailean *egin* erroa, eta Nor-Nork sailean, gehienetan, \**ezan*, baina ez beti, lehia hauek agertzen baitira (Otaegi 1993): *deguizuen / dezazuen; ezazu / eguizu*. Tolosako dotrinan *dezakegu* & *daikegu* lehia dago ahaleran (1993-6: 3136).

### 3.6. Aditz trinkoen iraganaldian -e- / -a- erroa

Euskal Herriko mendebaldean eta erdialdean -e- erroa da nagusi aditz trinkoen iraganean. Eremu horretatik ekialdera, berriz, -a- erroa dago; hain zuzen, Sakana, Malerreka, Oiartzun eta Bortzirietatik ekialdera. Gipuzkoako ipar-ekialdeko hizkeretan, batez ere, Oiartzun-Irun bitarteko eremuan, a- erroa ere badago -e- erroarekin lehian<sup>98</sup>. Mendebalean ere, Deba ibarrean, oso indartsu dago (Zuazo 1998d: 220). Baina Goierrin -e- erroa da nagusi eta -a- ez da ohikoa<sup>99</sup>. Geuk Goierriko sartaldean, Gabirian, jaso dugu arrastoren bat, *eduki*-ren adizkietan:

*zekin, nekin, zebillen, zeuken...* (Lazkao)

*nekin, zekin, zebillen, zegon, zeren* ‘zeuden’ / *nauken, nauzken, zauken* (Gabiria)

*zabillen;* baina, *ze(b)illan, ze(b)iltzen, zeuken...* (Ataun) (Azurmendi, J. M., 1996: 110-111)

---

<sup>98</sup> Bortzirietan ere -a / -e lehia dago, baina behin Baztanera helduz gero -a besterik ez da agertzen (Zuazo 1998d: 220).

<sup>99</sup> Dena dela, *banâkin, balaki* jaso zituzten Legazpin.

Tolosaldeko hegoaldean *-e-* erroa da nagusi, baina *-a* ere aurkitu dugu, Goierrin baino sarriago, gehienbat *ibili*, *eduki*, *jakin* eta *egon*-en adizkietan<sup>100</sup>:

*zabillen* ‘zebiltzan’, *gabiltzala* ‘genbiltzala’, *nauken* / *naken* / *neuken* ‘neukan’, *nazken* ‘neuzkan’, *zazken* ‘zeuzkan’, *zazkean* / *zauzkean* ‘zeuzkaten’, *banékin* / *nakin*, *zauden* / *zaren* / *zeren* ‘zeuden’ (Ikaztegieta)

*banaki*, *bazauken*, *nauzken* ‘neuzkan’, *zaren* ‘zeuden’, *zabillen* (Belauntza)

*zaenak* ‘zeudenak’, *bazauden* ‘zeuden’ (Ibarra)

*zauken*, *etzaukan*; baina, *zeon*, *zebiltzan* (Leaburu-Txarama) (Etxebarria 1983: 174)

### 3.7. Aditzen pluralgileak

Euskal Herriko mendebalean aditzen pluralgile ia bakarra *-z* da, baina Goierrin eta Tolosaldean aukera ugaria dago. Debarrenean eta Antzuola-Bergara aldean bertan ere *-z* pluralgilearekin batera beste batzuk badaude (Zuazo 1999c: 41):

<i>dare</i> , <i>zeren</i> (Lazkao)	→	mend. <sup>101</sup> <i>dagos</i> (baina, <i>dae</i> , <i>se(r)en</i> Debaerdian)
<i>dittut</i> , <i>dittue</i> (Lazkao)	→	mend. <i>doras daves</i> (baina, <i>dittut</i> , <i>dittue</i> Debaerdian)
<i>dauzke</i> (Lazkao)	→	mend. <i>daukos</i> (baina, <i>dauska</i> Debaerdian)
<i>dakartze</i> (Gabiria)	→	mend. <i>dakárres</i> (baina <i>dakaste</i> ‘dakartzate’ Debaerdian)
<i>daamatze</i> (Zaldibia) (Azurmendi 1998: 121)	→	mend. <i>daróyes</i> (baina, <i>daroiatz</i> ‘daramatza’ Debaerdian)
<i>dizkio</i> (Zaldibia) (Azurmendi 1998: 116)	→	mend. <i>dotzos</i>
<i>zaizkio</i> (Amezketta) (Irizar 1991 II)	→	mend. <i>zakos</i>

Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean *-z* dago \**edun*-en iraganaldiko adizki batzuetan, cf. mend. *gendusen*, *sendusan*, *sendúsen*. Irizarren liburutik hartu ditugu adibideak (1991 II):

*giñutzen* ‘genituen’, *ziñutzen* ‘zenituen’, *ziñuzten* ‘zenituzten’ (Gabiria & Zaldibia)  
*genduzen*, *zenduzen*, *zenduzten* (Legazpi)  
*giñuzen*, *ziñuzen*, *ziñuzten* (Tolosa)

Bestalde, Nor-Nori-Nork saileko pluralgilea *-zki-* da Goierrin eta Tolosaldean, baita Goierrin eta Tolosaldearen azpian dauden Leitza eta Areso herri nafarretan ere. Nafarroa gehianean, berriz, *-it-* pluralgilea erabiltzen da (Zuazo 1998d).

<sup>100</sup> Aztergai dugun eremuarekin muga egiten duten nafar herriei dagokienez, Areson badira baina Leitza apenas agertzen da, cf. Aresoko *naillen* ‘nenbilen’, *zaillen* ‘zebilen’, *naken* ‘neukan’, *zamaikin* ‘zeraman’ (Olano 1998: 15): Tolosaldean, ez *EI*-k, ez Holmer-ek (Gaztelun) ez zuten *-a* erroa aurkitu, eta *EAEL*-k Gipuzkoako ipar-ekialdean bildu zuen, Beterriko Hernanitik hasita (*EAEL* II).

<sup>101</sup> Mendebaleko euskalkiko adibideak Lekeitiokoak dira (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994). Debaerdiko adibideak Jone Larrañagaren *Antzuolako hizkera* liburutik hartu ditugu (1998).

### 3.8. *-te / -e* morfemak

Euskal Herriko erdialdean *-te* pluralgilea erabiltzen da, hala adizki iragankorretan nola iragangaitzetan: Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroako ipar-mendebalean eta Lapurdiko kostaldean. Euskal Herriko bazterretan eta, beraz, mendebaleko euskararen, ordea, *-e* morfemari eutsi zaio. Pluralgile hau hiru esparru hauetan ager daki-guke:

Aditz iragangaitzetako 2. pertsona pluralean indarrean dago *-te* morfema; ia Gipuzkoa osora hedatu da, baita Debabarreneraino ere, cf. *sate* 'zarie', *sabiste* 'zabizie', *siñaten*, *saete* 'zaudete' (Antzuola) (Larrañaga 1998). Horixe erabiltzen da Goierri eta Tolosaldean:

*zate* 'zarete', *zaizte* 'zaitezte', *zoazte* (Zegama) (Azurmendi 1998)

*zeate*, *ziñeten*, *zaudete*, *zabiltzate*, *zatozte*, *zeundeten*, *zetozten*, *zoazte* (Gaberia)

3. pertsona pluralean, aldiz, Gipuzkoako sartalde zabalera eta Nafarroako mendebalera *-te* pluralgilea ez da iritsi<sup>102</sup>. Hain zuzen, Goierri eta Tolosalde gehienez *-e* (eta *-a*) dago:

*doia* 'dute', *dioia* 'diote', *zoen* 'zuten', *zittuen* 'zituzten'... (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996)

*daikie* 'dezakete', *daukie* 'daukate', *daroe* 'daramate' (Legazpi)

*due*, *dittue*, *zuen* 'zuten', *zittuen* 'zituzten', *nauee* 'naute', *auue* 'haute', *gaittue(e)* 'gaituzte', *lukee* 'lukete', *lezakee* 'lezakete', *zaie*, *die* 'diote', *die* 'diete', *diue* 'diote', *dizuee* 'dizuete', *daukie* 'daukate', *dakarree* 'dakarte', *dakartze* 'dakartzate', *damarree* 'daramate' (Gaberia)

*due*, *dittue*, *zuen* 'zuten', *dakie* 'dakite', *zekien* 'zekiten', *daukie* 'daukate' (Lazkao)

*due*, *zuen* 'zuten', *digue* 'digute', *zien* 'zieten', *zizuen* 'zizuen', *dizue* 'dizute', *daukea* 'daukate' (Ikaztegieta)

Aditz iragankorretako 2. pertsona pluralean ere Gipuzkoa gehienez eta Nafarroako mendebalean *-e-ri* eutsi diote. Hona hemen Goierriko eta Tolosaldeko hegoaldeko adibideak

*(de)zuia* 'duzue', *nazazuia* 'nazazue', *diozuia* 'diozue', *baakizua* 'badakizue' (Ataunen, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 104-106)

*dezue*, *dakizue*, *daukezue*, *damartzue* 'daramazue', *dakartzue*, *zendukee* 'zenukete', *dezakezue* 'dezakezue' (Gaberia)

*baezue* 'badezue', *bakizue* (Lazkao)

*zenduen* 'zenuten'; *zezkezuen* 'zeneuzkaten' (Ikaztegieta)

<sup>102</sup> Gipuzkoako ipar-ekialdeko Donostia-Astigarraga eta Irun bitartean dago *-te* 3. pertsona pluralean eta aditz iragankorretako 2. pertsona pluralean. Hernanin 3. pertsona pluralean *-te / -e* leia dago (Zuazo 1998d: 199).

Tolosan, aldiz, *-e* pluralgilea erabiltzen da, baina *-te* ere badago. XVIII. mendearen amaieran, Larramendiren arabera, Donostiatik Tolosaraino *-te* morfema zegoen aditz iragankorretako 3. pertsona pluralean (*dute*); ez, ordea, 2. pertsona pluralean (*dezue*) (1969: 321). Bonapartek itzularazitako Tolosako dotrinan *due* eta *dute* agertzen dira (Pagola 1993-5: 2720). XX. mendearen hasieran bi aldaeren arteko lehia zegoen Tolosan eta inguruan. *EI*-ren arabera, Tolosan *dute* eta *due* erabiltzen zituzten, eta Alkizako eta Leaburuko gazteak *dute* erabiltzen hasiak ziren<sup>103</sup>. Mende hasieran Azkuek *-te* jaso zuen Gaztelun, baina 1964an Holmer-ek *-e* bildu zuen gehienetan. Irizarrek *-e* jaso du Goierrin eta Tolosaldean, baina Tolosan maiz aurkitu du *-te* pluralgilea. Irizarrek Tolosako berriemaileengandik jaso zuenez, kalean *-te* pluralgilea erabiltzen zen, baina baserrietan *-e* (1991 I: 195)<sup>104</sup>:

- 3. pertsona pluralean: *zaizkiote* ‘zaizkie’, *zitzaioten* ‘zitzaien’, *naute*, *gaituzte*; baina, *zaiote* / *zaie*, *dute* / *due*, *dituzte* / *ditue*, *zaituzte* / *zaitue*...
- 2. pertsona pluralean, Nork-Nork eta Nori-Nori sailean: *dezute* / *dezue*, *dituzute* / *dituzue*, *nazute*, *gaituzute*, *zaituzte*, *zaituztegu* eta *zatzute* ‘zaizue’, *zitzatzuten*...

Guk gehienetan *-e* jaso dugu Tolosan eta Ibarra, baina, tarteka, *-te* ere bai:

*dezue*, *zenduen* ‘zenuten’, *dakizue* (Tolosa)

*due*, *dittue* ‘dituzte’, *zuen* ‘zuten’ *zittuen* ‘zituzten’ *giñuzen* ‘gintuzten’, *niñuen* ‘ninduten’ Nor-Nork sailean; baina, Nor-Nori-Nork-en, lehia: *digue*, *ziguen* ‘ziguten’ / *diote*, *diaten* ‘didaten’, *zidaten*, *zioten* eta *daukate* (Tolosa)

*due*, *ditue* ‘dituzte’, *zuen* ‘zuten’; baina, *duten* ‘duten’. Eta, Nor-Nori-Nork sailean, *zien* ‘zioten’ *zixkiuen* ‘zizkiguten’; baina, *xixkiaten* ‘zizkidaten’, *ziaten* ‘zidaten’ (Ibarra)

<sup>103</sup> Tolosaren gainean ohar hau idatzi zuten: «Tolosan baita *due* ere». Eta ondoko iruzkina egin zuten Leabururi buruz: «Algunos jóvenes empiezan a usar *dute* imitando a los de Tolosa.»

<sup>104</sup> Badirudi Gipuzkoa gehiengan *-e* morfema izan dela nagusi oraintsu arte. Aitzitik, *-te* morfema izan da literaturan erabili dena eta, hortaz, prestigioa lortu duena. Mitxelenak honela zioen (Irizar 1983: 687): «Eremuz eta jendez neurtzen bada, esan daiteke besterik gabe *due* (*debe*) dela gipuzkeraz gehien erabiltzen den adizkia. Hau ordea, aho hizkerari dagokio soil-soilik. Idazkietara jotzen badugu, bestea, *dute* alegia, ageri da nagusi. Egoera horren sustraiak Larramendirengan aurki daitezke, gorago ez bada. Bere *Arte*-n, egia, *deüe* (*deu-e* adierazteko edo) eta *dute* erakutsi zuen, baina erabili, bera euskaraz ari zenean *dute* erabili zuen. Hortik, noski, *dute* (eta *duen*, *zuen*, *zuten*-en) etorkizun zabala eta argia, Ubillos, Agirre eta bestek *due* (*duan*, *zuan*, *zuen*) usatu zutelarik ere. Hortik Lardizabal zaldibiarren bitartez, azkenik Bonapartek gipuzkerazko adizki jatortzat onartu zuenez gero.». Azkuek honelako iritzia zuen *-e* / *-te* lehiaz: «(...) *e* en B y S también en G., solo que del AN se ha metido la *te* en algunos pocos pueblos del Beterri, como Astigarraga (...) Esta ha adquirido de poco tiempo acá, cierto aire de aticismo. Muchas personas que en el trato íntimo dicen *ikusí naue*, *ekarri due*, cuando elevan la voz en un concurso dicen *naute* y *dute*. Hay una línea en el Paradigma, la G., en cuyas flecciones se ha introducido esta *te* en muchos pueblos» (1969 [1923]: 78).



### 3.9. Plurala markatzen duen *-a* morfema

Nafarroako mendebalera (Araitz, Larraun eta Basaburua) eta Gipuzkoako hegoaldera ahul iritsi da Euskal Herriko erdigunetik zabaldu den *-te* morfema. Ere mu horretan, aldiz, *-a* (eta *-e*) morfema erabiltzen da plurala markatzeko. *-A* bukaerako adizkiak dituzten testurik zaharrenetakoen artean, Otxoa de Arin ordiziarraren dotrina (1713) eta Zegamako Dotrina (1741) ditugu. Gaur egun ere Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean badago morfema hori, eta zenbait herritan indarrez agertzen da gainera. Morfema hau indartsuen egon den alderdietako bat Ataun eta Berastegi artekoa da<sup>105</sup>:

*zeatea* 'zarete', *zatzuia* 'zaizue', *zaiea* 'zaie', *nauea* 'naute', *doia* 'dute', *dezuia* 'duzue', *gaittue(a)* 'gaituzte', *zaittua* 'zaituztete', *dizuia* 'dizute', *dioia* 'diote', *diñea* 'diten', *ziguia* 'zigutek' (Ataun) (Irizar 1991 II)

*auea* 'haute', *dioea* 'diote', *dizuea* 'dizuete', *daukea* 'daukate' (Itsasondon, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi 1998)

*diñea* 'diten', *daukea* 'daukate', *dakarrea* 'dakarte', *dakartzea*, *daamea* 'daramate'... (Zaldibian, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi 1998)

Morfema hau aditz trinkoekin eta alokutiboekin erabiltzen da gehienbat. Bähr-ek honako hauek bildu zituen:

*zaitea* 'zaudete', *zatoztea*, *zaitzetea* 'zabiltzate', *daitzea* 'dabiltza', *daukea* 'daukate', *dauzkea*, *dakurra* 'dakarte', *daamea* 'daramate' (Ataunen, XX. mendearen hasieran)<sup>106</sup> (Azurmendi 1998)

Tolosaldeari dagokionez, Nafarroa aldera dauden herrietan agertzen da:

*daukea* 'daukate' / *dáuke* 'dauka', *lezakea* 'lezakete' / *balézake* 'lezake', *lúkea* 'luke- te', *zéndukea* 'zenukete', *dezázukea* 'dezakezue' (Gatzelu) (Holmer 1964)

*nauea* 'naute', *zaittue(a)* 'zaituzte', *diea* 'didate', *dioea* 'diote' (Berastegi) (Irizar 1991 I)

*didea* 'didate', *dioa* 'diote', *dizkidea* 'dizkidate' (Amezketan) (Irizar 1991 II)

Ondoko eremuetan jaso da (Altuna Otegi 1995b)<sup>107</sup>:

<sup>105</sup> Azkuek ere maiz bildu zuen Ataunen, eta ondoko oharra idatzi zuen gainera: «En Ataun bageiltze, bazeiltze, bazeiltzea, bazeiltzea. Este curioso final en ea es muy ataunés: bazentozea, bagendetea si estuvieramos y alguna otra. Me dijeron allí que fuera de su barrio (Aya) apenas sueltan tales flexiones los atauneses de otros barrios, por temor de que los limítrofes se burlen de ellos (...)» (1969: 41).

<sup>106</sup> *Daukea* 'daukate' adizkiak hedadura zabaldu du, guk hauetan bildu dugu: Beasainen, Zaldibian, Legorretan, Ikaztegiatan, Amezketan, Alegian, Anoetan... Baina *daukie* Lazkaon, Gabirian...

<sup>107</sup> Altunak, horiekin batera, beste hiru eremu aipatzen ditu: Azpeitia aldea (baina Beizama, Bidania eta Errezilen ez da erabiltzen), Leitza aldea eta Mungia aldea. ([ ]) ikurra erabili du datua aski ziurra izan arren, egiaztatu gabe dagoen.

- Abaltzisketa, Alegia, [Altzaga], Amezketeta, [Arama], Ataun, [Baliarrain], [Gaintza], [Ikaztegieta], Itsasondo, [Legorreta], [Orendain], Zaldibia eta Zegama
- Albiztur, [Belauntza], Berastegi, Berrobi, [Elduain], Leaburu-Gaztelu, Lizartza, Orexa

### 3.10. Hirugarren pertsonako morfema iraganaldiko adizkietan

Mendebaleko euskalkian, iraganaldiko adizkietan, 3. pertsonak ez du *z-* morfema hartzen. Aztergai dugun eremuan, berriz, *z-* orokorra da. Debaarreanean eta Debaerdian ere nagusitu da *z-* morfema (Zuazo 1999c: 37). Hona hemen Zegamako adibide batzuk (Azurmendi 1998) <sup>108</sup>:

<i>zeon</i>	→	mend. <i>euen</i> ‘zegoen’ (baina, <i>seon</i> & <i>seuan</i> Debaerdian)
<i>zetorren</i>	→	mend. <i>etorren</i> (baina, ( <i>s</i> ) <i>etorren</i> Debaerdian)
<i>ze(i)llen</i>	→	mend. <i>ebillen</i> ‘zebilen’ (baina, <i>sebillen</i> Debaerdian)
<i>zijen</i>	→	mend. <i>oien</i> ‘zihoan’ (baina, <i>s(ij)oi(a)rre)n</i> Debaerdian)
<i>zeuken</i>	→	mend. <i>euken</i> ‘zeukan’ (baina, <i>seukan</i> Debaerdian)
<i>zekarren</i>	→	mend. <i>ekarren</i> (baina, <i>sekarren</i> Debaerdian)
<i>zemarren</i>	→	mend. <i>eroien</i> ‘zeraman, zeroan’ (baina, <i>soiarren</i> Debaerdian)
<i>zekin</i>	→	mend. <i>ekixen</i> ‘zekien’ (baina, <i>sekixen</i> Debaerdian)
<i>zon</i>	→	mend. <i>euen</i> ‘zuen’ (baina, <i>seban</i> Debaerdian)
<i>zion</i>	→	mend. <i>eutzen</i> ‘zion’ (baina, <i>sotzan</i> Debaerdian)

Bestalde, mendebaleko euskalkian *ez* + Ø batzearen emaitza [s] ebakera da. Goierrin eta Tolosaldean, aldiz, *ez* + *z-* batzen direnez, [ts] ebakera orokorra egiten da:

*etzeon* ‘ez zegoen’, *etzigun*, *etzon* ‘ez zuen’, *etzaio* (Zaldibia)  
 cf. *eseuan* & *etzeuan* ‘ez zegoen’, *esebillen* & *etzebillen* (Antzuola) (Larrañaga 1998)

### 3.11. Geroaldia egiteko *-ko*, *-go* / *-en* morfemak

Mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan bezala, Goierrin eta Tolosaldean geroaldia egiteko *-go* morfema erabiltzen da. Nafarroako Leitzatik ekialderantz eta Bortzirietan, berriz, *-en* morfema baizik ez dago (Olano 1998: 7) <sup>109</sup>.

<sup>108</sup> Mendebaleko euskalkiko adibideak Arrasatekoak (Elortza, Garro, Ormaetxea, Garai & Plazaola 1999) eta Mallabikoak (Zuazo 1998d) dira. Debaerdikoak Jone Larrañagak Antzuolan jasoak dira (Larrañaga 1998).

<sup>109</sup> Gipuzkoa ondoko Nafarroa Garaiko zenbait hizkeretan *-go* morfema dago: Arano, Areso, Araitz eta Larraungo batzuetan. Sarritan *-en* morfemarekin lehiatzen: *esain* / *esango* (Arano), *esáen* / *esango* (Araitz), *esáen* / *esango* (Larraun) (Zuazo 1998: 8).

### 3.12. Aditzak objektu pluralarekin komunztadura duen

Aditzak objektu pluralarekin komunztadurarik ez izatea Arabako euskarak egin zuen berrikuntzetako bat da. Gaur egun, komunztadura eza Araba ondoko hizkereztan dago: Debagoiensean, Bergara-Antzuola aldean, Zumarraga-Urretxun eta Goierri gehiensean (Zuazo 1998c: 162). Berrikuntza hau aspalditik dago Goierri aldean, bertako literatura-tradizioan maiz komunztadurarik gabe agertzen dira datiboetako adizkiak: Zegamako dotrinan (1741), Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) (Lakarra 1996: 190):

*Barcatuco dirazula neure pecatuac* (Zegamako dotrina)

Bähr-ek azaldu zuenez, XX. mendearen hasieran Goierriko eremu bi zeuden: Goierriko sartaldeko herrietan –Zegama, Gabiria, Mutiloa eta Legazpi aldean– datiboetako adizkietan ez ziren pluraleko formak erabiltzen; Goierriko sartaldean, ordea, pluraleko adizkiak agertzen hasten ziren –Amezketeta, Ataun eta Itsasondo aldean–, eta Zaldibian batzuetan pluraleko adizkiak erabiltzen zituzten eta besteetan ez<sup>110</sup> (Irizar 1991 II: 370). Ataunen, XX. mendearen hasieran, Nor-Nori saileko adizkietan ez zen komunztadurarik egiten (Azurmendi, J. M., 1996: 120-121).

Guk Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork saileko adizkietan jaso dugu komunztadura eza, baina Nor-Nork sailean eta aditz trinkoetan pluraleko adizkiak jaso ditugu. Dena dela, sartaldean ere (Gabirian) pluralgilea ez da beti galtzen; baina, sarritan, bai<sup>111</sup>:

- Nor-Nori saileko adizkietan:

*Eliztar danak inpernura jûngo zat; Ako pago ari asi zako ostok jaiotzen* (Zegama) (Azurmendi 1998)

*Bueno, festak gustau izandu zitzaten nei...; Donostitik izebak-eta etortze zitzai-gun; Oaindio lorak etzaio irikitzen* (Zaldibia); *lau urten iru alabak ezkondu zitzatan, ta ezin etsi*<sup>112</sup> (Zaldibia)

---

<sup>110</sup> Azkueren arabera, Zaldibian mende hasiera arte ez zuten pluraleko adizkirik erabiltzen, mende hasieran hasi ziren adizki horiek sartzen (Irizar 1991 II: 370). Bestalde, Goierriko dagoen bilakabide hau ez da ondo ikusita egon. Honela jaso zuen Koldo Artolak Gabirian: «Gabino Murua adiskide gabiriarrek kontatzen didana ere esango dizut, bere iruzkina interesgarri delakoan: baldin *dio* gisako erak (plural kasurako, noski) erabiltzen ohitua dagoen bati, guk, «nola esaten da?» galdetzen badiogu, hau da, halako pertsona bat gazteleratik euskarara itzulpen txiki bat egitera «behartzen» badugu, orduan, agian, erantzuna patxadaz ausartu eta, *dizkio* gisako erak emango dizkigu —honela egiten dute-ta, batzutan, cra hauek, seguru asko, dotorexeagoak, finagokoak osoagokoak edo... direla uste izateari zor zaizkiolarik». Eta Irizarrak ondoko gaineratzen du: «En el empleo de las formas propias de plural, en la *pronunciación esmerada* de quienes espontáneamente emplean las formas de singular con significado plural influyen fuertemente los medios de comunicación y enseñanza» (Irizar 1991 II: 14-15).

<sup>111</sup> Marian Bidegain-ek esandakoa. Bestalde, Joxemiel Azurmendik esan digunez, Beasainen ere pluralgilea ez da beti agertzen.

<sup>112</sup> Azken adibide hau *Zaldibia eginez* aldizkarian aurkitu dugu, “Urtsu Txikiko sukaldean Mikaelarekin” artikuluan (17. zk., 2000. urtea, 6. or.),

*eak etortzen zaigu guri ya* (Segura)

- Nor-Nori-Nork saileko adizkietan:

*Artzaiari ardik o arkumak ê arrapatze tzien* (145); *Nausik, bildurrez lau gorrin, Barriolai eman tzion diruk* (146); *Barriolak iru ogi eta zitun kapusaien azpiti, inor akordau be dendariri arrapau zionak* 'Barriolak hiru ogi atera zituen kapusaien azpitik, inor konturatu gabe dendariari arrapatu zizkionak' (144) (Zegama) (Azurmendi, X., 1996)

*grabautako [kontu] oitakon batzuk konta' iuzu ordun* (Lazkao)

*...gauza jakiñe izate zan, garaiko frutuk izaten' tzien... intxaurrek, urrek, pikuk, mandarina batzuk ematen' tzien* (Segura)

Beste ingurune hauetan, aldiz, komuntadura egiten da:

- Nork-Nork saileko adizkietan

*oain lareun urte zapatak... erregek e etzittuen euko!* (Beasain)

*...oso ixtori polittek esaten' tzittun nere amak* (Ataun)

*ama beiz, baserritarra, etxeko lanak itten' tzittuna...; Eta sorok-eta bedeinkatzen men' tzittuen; Amar bat erri euki zittun bere mende... Baina, ...eta ordun jotzen' tzan, baño ikeagarrizko palizak jotzen' tzuen; ordun, trapukiñ itte zun gure amak baloiak* (Segura)

- Aditz trinkoetan

*Ardi batzuk baauzkeu ta oikintxe; bi kotxe badauzkea* (Zaldibia)

*Pilla'at dittut nik apuntau, mordo'at dauzket* (Segura)

### 3.13. Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailen arteko nahasketak

Gaur egun ia Nafarroa osora hedatu da Nor-Nork saileko adizkien ordez Nor-Nori-Nork sailekoak erabiltzeko bilakabidea (Zuazo 1998: 18). Gipuzkoako ipar-ekialdean ere bada nahasketa hau: *matte ziuten; geo kartzela eman tziaten* (Oiartzun) (Fraile & Fraile 1996: 111). Aztergai dugun eremuetan, hala Goierrin nola Tolosaldean, ez da arrunta<sup>113</sup>:

*gizon batek joyo zakurrai* (Hernani, Hondarribia...)

→ *gizonak txakurre jo do* (Ataun), *gizon batek txakurra jo du* (Alegia) (EAEL I)

---

<sup>113</sup> Dena dela, Hego Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, gazteen artean erabat arrunta da Nor-Nori-Nork saileko adizkiak erabiltzea Nor-Nork sailekoen ordez, hala Tolosaldean nola Goierrin: *lengo urten Ikazteitan ikusi nizun* (gazteak) / *jun dan urten Ikazteitan ikusi zinduzten* (zaharrak) (Ikaztegieta).

Nolanahi ere, guk adibide bakan batzuk bildu ditugu Tolosaldean:

[Maixuak] *jo itte ziun, ta, uu, bildur bat!* ‘gintuen’ (Belauntza)  
*emen etzidan artu nai, emen esuen artzen inbalidoik* ‘ninduten’; *iru urten eon nintzan da artu sidaten* ‘ninduten’ (Tolosa)  
*Zeyek zein izorratu zien?* (Altzo-Txarama) (Etxebarria 1983: 170)

Bestalde, Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Beterrin Nor-Nori-Nork saileko adizkien ordeztan Nor-Nork sailekoak erabiltzen dituzte:

*oain txistura geyo ematen nau oaingo martxa onek baño...* (Hernani) (EAEL II, 122 etn.)  
*pena ematen nau* (Oiartzun) (Fraile & Fraile 1996)

Bilakabide hori ez da ohikoa ez Goierrin ez Tolosaldean. Geuk bakan batzuk bildu ditugu Tolosan<sup>114</sup>:

*nei batzuk grazia ite naue* ‘didate’ (Ibarra)  
*ta biyar nijoa analisis itea, emen esin naue atera* ‘didate’ (Tolosa)

### 3.14. Partizipio analogikoak

Euskal Herriko erdiguneko hizkera batzuetan partizipio analogikoak agertzen dira. Mendebaleko hizkeretan eta Gipuzkoa gehienez ez dira ohikoak, baina Lapurdin, Nafarroan eta Gipuzkoako ipar-ekialdean indartsu daude. Gipuzkoari dagokionez, Errenteria eta Irun aldean erabiltzen dira gehienbat eta, ahulago, Beterrin eta Tolosaldean<sup>115</sup> (Zuazo 1998c: 162). Areson eta Leitza *izandu, egondu* (aldaera bakarrak dira gainera), *bizitu & bizi, yakinddu, ibillitu* eta *irakindu* agertzen dira (Olano 1998: 234). Tolosaldean *izandu, egondu, bizitu* eta *deseindu* aldaerak batu ditugu, baina gehienetan *izan, egon* tankerakoak erabiltzen dituzte. Tolosaldean, hain zuzen, hala uste dute, partizipio analogikoak Leitza aldean sarriago erabiltzen dituztela (Elduaingo Koldo Oriak esandakoa). Goierrin ez dira ia agertzen, guk *izandu* jaso dugu, sortaldean, eta bakanka:

*izandu* (Ataun, Tolosa, Berastegi, Elduain, Hernani) (EAEL II)  
*bizi & bizitu* (42), *desin & deseindu* (170) (Legazpi) (Ugarte 1993)  
*izandu* (baina sarriago *izan*) (Zaldibia & Lazkao)  
*bizitu, izandu, egondu* (Tolosa)

---

<sup>114</sup> Koldo Oriak elduaindarrak zioskunez, *ema'nazu* ‘eman didazu’ tankerakoak Beterririkotzat jotzen dira Tolosaldean. Alabaina, guri honela kontatu zigun 1998an Tolosako San Blas auzoko Gregorio Ugartemendiak: «G.: Bai, oi kalen, kaletikan asko ibiltze’ana, “*es nasu esan, suk es nasu esan au*”, eta...».

<sup>115</sup> XX. mende hasieran, *EI*-k eremu honetan jaso zuen *izandu* aldaera: Tolosan, Beterrin (Hernani, Lasarte, Usurbil) eta Gipuzkoako ipar-ekialdean (Pasaia, Hondarribia, Irun).

*bizittu, deseinduba* (< *desegindu*) (Anoeta)  
*izandu, egondu* (baina *sarriago izan, eon*) (Ikaztegieta)  
*bizittu* (Amezketeta)

Ingurune hauetara ere zabaldu dira, hau da, beste aditz baten aspektu burutua indartzeko:

*eztét aittu izáandu béiñ e; tókátu izandu omén da; gutxítan jun izáandu naiz* (Elduain) (EAEL II, 108 etn.)

*Eskondu ta geo ni ibilli izandu naiz, nee alderditik* (Tolosa)

### 3.15. Partizipioetako -gi morfema

Mendebaleko euskalkian -gi morfema agertzen da partizipioetan, Euskal Herrian orokorra den -ki morfemaren orde. Mendebaleko hizkeretan dago indartsuen, baina Sakanan ere bada (Zuazo 1995b: 335). Goierrin *ebai* ‘ebagi’ eta *erabai* ‘erabagi’ aldaerak daude, batez ere sartaldean, baina, dirudienez, gero eta gehiago entzuten dira *ebaki* eta *erabaki*:

*erabai* (42), *ebai* (58) (eta *ebaitze, bedar-ebaiketa, luebai...*) (Legazpi) (Ugarte 1993)

*erabai & erabaki, ebai & ebaki, jaiki* (Gabiria)<sup>116</sup>

*ebai, erabaki, jaiki* (Segura)

*ebai* (& *ebaitzaile, ebagie* ‘zauria’); baina, *erabaki, jaiki* (Zegama) (Azurmendi 1998)

*jei* ‘jagi, jaiki’, *ebaitzen* (Ataun) (Arin & Arruabarrena 1989: 411, 434); eta, XX. mendearen hasieran, *ebai, jei, erabai & erabaki* (Azurmendi, J. M., 1996: 118) –baina guk *ebaki* bildu dugu–

*erábai, ebái* (Beasain) (Hualde 1997: 130-132)

*ebái* (zaharrek) / *ebáki* (gazteek) eta *erábaki, jeiki* (Lazkao)

*ogie ebái, belarra ebaitzen*; baina, *je(i)ki* (Legorreta)

Tolosaldean, ordea, -ki morfema jaso dugu beti:

*jeiki, ebaki, eabaki* (Ikaztegieta, Amezketeta, Alegia)

### 3.16. Partizipioetan -ado > -a(d)u, -ido > -i(d)u eta -atu > -au bilakabideak

Mendebaleko euskalkian, gaztelaniatik mailegatutako partizipioetan, -ado > -a(d)u eta -ido > -i(d)u bilakatu dira. Mendebaleko berrikuntza hori Gipuzkoako sartalde zabalera hedatu da: Urolaldera –itsas aldetik Zarautzeraino– eta Goierrira

<sup>116</sup> Iñaki Murua gabiriarrak esan digunez, *erábaki* erabat nagusitu da eta *ebáki* gero eta gehiago entzuten da.

(Zuazo 1998d: 207). Gipuzkoako sortaldean, Tolosako hegoaldeetik ekialderantz, *-atu* eta *-itu* bukaera orokorreki eusten diete. Goierri erdibidean dago: oso indartsu dago *-ado* > *-a(d)u* bilakabidea, baina *-ido* > *-itu* egiten da. Dena dela, XVIII. mendearen hasieran (1713), Otxoa de Arin ordiziarrak, *-atu*, *-itu* ugariago erabili zituen arren, *-adu*, *-idu* ere erabili zituen lantzean behin (*venciduco*, *instituiduric*, *advertidu* / *instituitu*, *amatu*, *honratu*), eta Zegamako Dotrinan (1741) *-adu*, *-idu* ugariagoa da (*partidu*, *vencidu*, *cumplidu*, *convertidu*), (Lakarra 1985: 12 eta Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 79-80).

Bestalde, Gipuzkoako sartaldean, berrikuntza honek badu desberdintasunik mendebaleko euskalkian egiten denarekiko: Bizkaian, Deba ibarrean eta Araban, bilakabidea mailegu zaharretan baizik ez da (ia) agertzen, baina Goierriin, Urolaldean eta Burundan urrutirago joan dira eta edozein aditzekin egiten dute, baita euskal jatorriko aditzekin eta aspaldi mailegatutakoekin ere<sup>117</sup>:

a) Gazt. *-ado* > *-a(d)u*

*akordau*, *pentsau*, *entrenau*, *gastau*, *preparau* (Gabiria)

*pintau*, *inprobisau*, *gastau*, *pentsau*, *errezau*, *kantau*, *organizau*, *bedeinkau*, *fallau*, *gozau*, *batayau* ‘bataiatu’, *apuntauta* (Segura)

*pentsau*, *arreglau*, *frakasau*, *enterau*, *enterrau*, *kanbiauta*, *desfasauta*, *pasauta* (Beasain)

*gozau*, *paau* ‘pagatu’, *tokauko*, *ingresauta* (Lazkao)

*gustau*, *enterau*, *pasau*, *gastau*, *frotau*, *apuntau*, *arreglauko*, *abandonauta*, *grabauta* (Zaldibia)

*pentsau*... (Legorreta)

b) Gazt. *-ido* > *-itu*

*atrebittu*, *leittu*, *korregittu*, *permitittu*... (Gabiria)

*dibertittu*, *atrebittu*, *lettu* (Lazkao)

*serbittu* (Zaldibia)

c) Eusk. *-atu* > *-au*

*aukerau*, *barkau*, *eskau*, *geau* ‘geratu’, *zorau*, *allau* ‘ailegatu’, *aldeau* ‘alderatu’, *bereganau*, *arrapau*, *asarrau*, *gertuau*, *aztorau*, *irristau*, *puskau*, *aurreau* ‘aurreratu’, *ondorau*... (Gabiria)

*asmau*, *askau*, *eskutau*, *zulau*, *billau* (Segura)

*beirau*, *izorrau*, *beeinkau* (Lazkao)

*puskau*, *nekau*, *nazkau*, *ingurau*, *aldau*, *billau*, *bukau* (Zaldibia)

*txertau*, *alleau* (Beasain)

*nazkau*, *puskau* (Legorreta)

*-ado* > *-a(d)u* eta *-atu* > *-au* berrikuntzak oso indartsu daude Goierriin, baita sortaldeko Legorretan eta Zaldibian ere, baina Tolosaldeko hegoaldean ez dira ohikoak, Abaltzisketatik eta Ikaztegietatik sortalderantz. Alabaina, alderdi horretan zantzu batzuk jaso ditugu, ‘partizipio + *-ta*’ egituran gehienetan:

<sup>117</sup> Mendebalean honakoak ditugu: *kantzau*, *gustau*, *akordau*...; *entretenu*, *konsegidu*, *serbidu*, *leidu*...; baina *lotzatu* ‘lotsatu’, *eskatu*, *barkatu*... (Antzuola) (Larrañaga 1998).

*akatu, tiratu beidatu, bukatu, gertatu...* dira nagusi; baina, *irristau, puskau, tirau...* entzuten dira eta, *batez ere, arreglauta, atrabesauta, plantxauta, preokupauta, prepaauta, pagauta, interesauta, puskauta, bukauta, izorrauta, nazkautakon* 'nazkatuta-koan' (Ikaztegieta)

*kontatu, pentsatu, kontestatu, moldatu, paatuta;* baina, *izorrauta* (Albiztur)

*tapauta* (Altzo-Txarama) (Etxebarria 1983: 170)

*obligatu, arrapatuta...*; baina, *abisauta, arrapauta, enterauta, likidauta, tapauta, jubilauta* (Ibarra)

*eskatu, bukatu, alleatu, paatu, arreglatu, tapatu, eskobatuta...*; baina, *sakrifikauta* (Izaskun)

*kontagiatu, kanbiatuta...* (Amezketza)

Tolosan, berriz, ez dugu bat bera ere aurkitu:

*aldatu, alleatu, geátu, gertátu; gustatu, entrenatu, tokatu, enkargatu, erreitiratu, prepatu* eta *prepaatuta, pintxatuta...* (Tolosa)

### 3.17. 'Partizipioa + -ta' egitura

Mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan ohikoa den bezala, Goierrin eta Tolosaldean partizipioa + *-ta* egitura da nagusi. Baina Tolosaldean partizipioa + *-a* egitura ere bada, Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Nafarroa Garaiko mendebalean legez. Bestalde, Nafarroako Imotzetik sortalderantz partizipioa + *-ik* dago (Zuazo 1998d: 220-221), baina aztertzen ari garen eremuan ez da erabiltzen:

*jarrita, lotuta, aspertuta, ilda* (Gabiria)

*erreta, etorrita, artuta, aittuta, elduta, kastigauta, apuntauta, erremengauta, kontautata, jantzitako, etorritakoa* (Segura)

*akauta, arrituta, aztorauta, beteta, biurtuta, itxututa...* (Zegama) (Azurmendi 1998: 88)

*kondenauta, lotuta, ikusita, pasauta* (Lazkao)

*galduta, beartuta, minduta, eginda, aserretuta* (Ikaztegieta)

### 3.18. Aditzoina / partizipioa bereizketa

Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan galdu da aditzoinaren eta partizipioaren arteko bereizketa. Arabako euskarak egindako berrikuntza hau<sup>118</sup> zabalduz joan zen, mendebalera lehenik eta erdialdera gero. XVIII. mendearen

---

<sup>118</sup> Aditzoina eta partizipioaren arteko bereizketa galtzea Arabako euskararen berrikuntzetako bat izan zen. XVI-XVII. menderako, idazle arabarrek ez zuten bereizketa hori egiten eta, hala, subjuntiboan, ahaleran nahiz aginteran, aditzoina erabili beharrean, partizipioa paratzen zuten. Garai hartako Bizkaiko eta Gipuzkoako idazleek, ordea, aditzoina erabiltzen zuten (Zuazo 1998c: 162).



hasierarako, Gipuzkoako hego-mendebalean bereizkuntza galduta edo galtzear zegoen (Lakarra 1996: 187-188). Otxoa de Arin ordiziarrek (1713) partizipioa erabili zuen beti: *barcatu eguizcutzu, honratu daigula*<sup>119</sup>. Ataunen XX. mendearen hasieran ez zen bereizketa egiten, eta laguntzailea partizipioari eransten zitzaion gehienetan. Baina, aditzoinari lotutako adibideak jaso ziren (Azurmendi, J. M., 1996: 120):

*jartzak, arzak, lagun zaidazu* (Ataun)

Gaur egun Goierriko mendebalean, partizipioa erabiltzen da ia beti, aditzoina ez da oso aldi jakinetan baino agertzen:

*ikusi nai ez donak begiik estali daitzela* (16); *arnasea artu daiket* (28); *oillok perratu daizkek!* (108) (Legazpi) (Ugarte 1993)

*abiau gaitezen, artu zezaten, beinkatu zezala, kantau zak, korritu daike, sartu deiñ* (Zegama) (Azurmendi 1998: 88)

*konpondu deiket, konpondu daiun, kantau zak, laundu idazu, jarri zak, artu daiket, kendu zaitz, exeri zaitz, etorri deila, muittu zaitz, ixildu ai, sartu itzak, artu izu & artu'zak, arrapau zan, saldu zak, altxau zaitz, eskau zak & eskau zazu...; baina, batzuetan, aginteran, aditzoina agertzen da *konta iozu, beida iok, izurra ai eta kanta'zak* (Gabiria)*

*artu'zazu, artu'zan, jarri'zazu & jarri'zan, konpondu leiket, txikitu'zazue, puskau'zazue, exeri zaiz, utzi'zazu, asi zaiz, muittu zaiz; baina, *konta iozu* eta *ar'tzak* (Lazkao & Zaldibia)*

*artu'zazu, eskau'iozu, galdetu'iozu, ekarri'dazu* (Legorreta)

Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Beterrin (ahulago) aditzoina erabiltzen da batzuetan (Zuazo 1997b: 401). Geuk Tolosaldean partizipioa bildu dugu gehienetan, baina aditzoina ere ageri zaigu, Goierriin baino sarriago. Aditzoina bakanetan jaso dugu: esapide adierazkorretan eta hitanoan gehienbat<sup>120</sup>:

*muittu zaittez, etzaiz'keldittu 'ez zaitez gelditu', kontuz ibilli zaiz, muiitu zaiz, kontatu'iozu; baina, *ixil zaittez, arrapa'zan, begira' iok; sal'tzak* (Ikaztegieta)*

*eskatu'zazu, ixildu ai...; baina, *jar'tzazu, ar'tzazu* (Amezketeta)*

*ar'tzazu, ar'tzak, ekar'tzazu* (Alegia)

<sup>119</sup> XIX. mendean, Beizamako Otaegik partizipioa erabili zuen gehienetan, baina lantzean behin aditzoina paratu zuen (Otaegi 1993): *gorde eguiozu* (133), *salva nindequean* (143), *condena gaitezque* (144), *balia zaitezque* (144), *sendanazaquezu* (146), *erruqui daquiela* (150), *libra gaitzen* (151), *goza cezan* (151), *barca eguiozu* (155), *acorda zaitezte* (153), *acababite* (153), *lagun zaquizquigu* (153), *usa bezae* (154)...

<sup>120</sup> Dirudienez, Beterrin antzekoa da egoera, ahalera partizipioarekin erabiltzen baita (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996): *sartu dittezela, asi gaitezen, muittu gaitzen, etorri dittezela, artu deza-la, kontuatu dittezen, etorri zatte onea... baina, *artzazu* (Lasarte-Oria).*

*etorri deila*; baina, *jar'tzazu* (Belauntza, 1998)

*saldu daiteke, asi gaitezen, exeri saite, ebaki'zazu*; baina, *ar'tázu* (Tolosa)

*etzaisuela gertatu; utzi itzazue* (Izaskun)

*ixildu ai, sartu itzak, asi ai lanen, exeri ai*; baina, *izorrai, uztazue & uztak, altxa zaitetz, eska'zak & eska'zazu, to'tzan 'hartu ezan', exer zaitetz, geldi or!...* (Elduain)

### 3.19. Aditz-izenetako *-ten* / *-tzen* aldaerak

Euskal Herriko erdialdean aditz-izenetako *-ten* / *-tzen* aldaerak zabaldu dira; gainera, *-ten* aldaera *-n* edo 'txistukari + *-i*' amaiera duten aditzetan baizik ez da agertzen. Mendebaleko euskalkian, aldiz, *-ten* aldaera esparru zabalagoan agertzen da: partizipioa *-{r, l, n, g, k}i* bukaerekin ere bada. Otxoa de Arin ordiziarrak (1713) *-n* eta *-r* atzetik *-ten* erabili zuen: *erorten, etorten, irteten, ifenten*. Zegamako Dotrinan (1741) ere *erorten, etorten, jarteco, ecartea* tankerakoak agertzen dira. Eta, antza, Goierriko sartaldean (Zegama-Seguran) aldaera horietako batzuk erabili ohi dira (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 96). Gaur egun, *-ten* / *-tzen* aldaerak daude Goierriin eta Tolosaldean. Hona hemen Segurako adibide batzuk:

Partizipioa *-itu*: *entenitzen, aitzen, gelditzen, segitzen, iruitzen*

Partizipioa *-au, -atu*: *alleatzen, kantatzen, tokatzen, bedeinkatzen, arrapatzen, bukatzen, asmatzen*

Partizipioa *-{r, l, n, g, k}i*: *etortzen, ibiltzen, eukitzen, ebaitzen* 'ebakitzen', *iltzen*

Partizipioa *-a, -e, -o*: *botatzen, jotzen*

Partizipioa *-n*: *irtetzen*; baina, *izaten, juten* 'joaten', *itten* 'egiten', *eoten, ematen, esaten, eraten* 'edaten', *ereitten, eamaten, jaten*

Partizipioa 'txistukari + *-i*': *ikusten, janzten, asten, erosten*

Alabaina, Euskal Herriko beste txokoetan, mendebalean batik bat, aukera zabalago dago aditz-izenak egiteko<sup>121</sup>. Bizkaiko mendebaleko hizkera batzuetan *-tzean* erabiltzen da partizipioa bi silabakoa eta *-tu* zein *-i* amaierakoa denean, eta Oñatin *-tzé(e)n* itxura hartzen du. Aldaera hori Goierriko sartaldean jaso da aditz-izenetan<sup>122</sup>: Zegaman, Seguran, Idiazabalen... Eta Barandiaranek Ataunen bildutako ipuinetan ere agertzen da, baina, itxura denez, gaur egun ez dago. XX. mendearen hasieran honakook bildu zituzten:

<sup>121</sup> Goierriko sartaldearekin muga egiten duen Debagoienean, ondoko aldaerak daude aukeran aditz-izenak osatzeko: *-ten* (aditz bukaera gehiagorekin), *-ketan, -etan, -iduten, itten, -t(z)éen* (Zuazo 1999c: 68-69). Baina Debabarrenean eta Debaerdikoan *-t(z)en* eta *-ten* nagusitu dira eta *-ten* aldaera Euskal Herriko erdialdean erabiltzen den inguruneetan agertzen da (Zuazo 1999c: 37-38).

<sup>122</sup> Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan ere *-tzean* agertzen da: *arceen, quentceen, galteeen / galtceeco* (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 87).

*sartzéen, eltzéen, artzéeko, galtzéeko* (Segura) (Garmendia: 1911-12: 270)  
*artzeen, zaaltzeen, biltzeen, jartzeen* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 65)  
*saltzéen, gáltzeen, artzéeko, biltzéeko, eltzéeko* (246), *kentzéeko* (148) (Zegama) (Izagirre 1994)

Bestalde, Oñati aldean *-t(z)eia* aldaera jaso da absolutibo singularrean: *kentzaia*, *artzeia*. Dirudienez, aldaera horrek oraintsu arte Goierriko sartaldean erabili den *-era* atzizkiarekin lotura du. Legazpiko aditz-izenetan azaltzen da inoiz (Ugarte 1995: 710):

*mantxa bat kentzeera* ‘limpiar’; *indar artzeera* ‘impulso, arranque’; *lotzeera* ‘abrochar’, *eltzeera egon* ‘el trigo está en cieme’

Azkenik, Debagoienean (Leintz ibarrean) *-etan* aldaera erabiltzen da *-a(d)u* amaierako partizipioekin: *gustetan* (Zuazo 1999c: 69). Zegaman morfema horren aztarnak aurkitu dituzte (Azurmendi 1998: 90):

*Jaune artuta gero ze ao pentsatan?; kantatan*

### 3.20. Joan aditzaren *dijoa* tankerakoak

*Joan* aditzeko *nijoa*, *dijoa*, *dijoaz* tankerako adizkiak euskara giputzaren ezau-garri dira <sup>123</sup>. Adizkiok euskara giputzaren eremuan, Debabarrenean eta Burundan erabiltzen dira *-ez*, *ordea*, *Leitzan* eta *Areson*, muga *Berastegin dago* eta (Olano 1998: 23)–.

XX. mendearen hasieran *EI*-k Goierri eta Tolosaldean *noa* bildu zuen <sup>124</sup>, baina Gipuzkoako ipar-ekialdean, *nijua*. Gaur egun, aldaera biak daude lehian eremu bietan:

- Goierriin:  
*ba'noa, ba'doa* (Legazpi) (Ugarte 1993: 70)  
*nijo, dijo, dijoz* (Gabiria)  
*nijoa & noa, dijó & doa, dijozte* (baina *doaz ez*) (Lazkao & Zaldibia)  
*banijoa & banoa, baijoo, badijozte* (Legorreta)
- Tolosaldean:  
*nijoa & noa, dijoa, zijoaz, zijoazte, dijoaz* (Ikaztegieta)

<sup>123</sup> *Dijoa* tankerakoak ia Gipuzkoa osoan batu dira (*EAEL I*): *badijoa*: Legazpi, Ataun, Alegia, Asteasu, Bidania, Azpeitia, Hernani, Errenteria, Hondarribia, Oiartzun eta Nafarroako Alli eta Lizarraga, eta *badixe* Elgoibarren. Deba ibarra da isoglosa horretatik kanpo geratzen den alderdi bakarra: *badoia* Antzuola, Arrasate, Oñati.

<sup>124</sup> *Noa* tankerakoak Brinkolan, Ormaiztegin, Legazpin, Ezkio-Itsason, Itsasondon, Beasainen, Lazkao, Ataunen, Abaltzisketan, Orendainen, Alegian, Bedaion, Albizturren, Orexan, Elduainen, Leaburun, Tolosan eta Anoetan. Eta *nijoa* Larraulen, Asteasun, Donostian eta Gipuzkoako ipar-ekialdean.

*banijoa & banoa* (gehiago), *baijola & badoa* (Amezketza)  
*nijola & noa*, *baijola* (*badoa* ez) (Alegia)  
*bánua & banijua* (Gaztelu) (Holmer 1964)  
*nijola & banoa*, *dijola* (Tolosa)  
*dijoazte* (Izaskun)

### 3.21. *Eraman* aditza

Goierrin *eraman* aditzaren *damarret* tankerako adizkiak erabiltzen dira, *daramat* gisakoekin lehian. Zaldibian, ordea, Tolosaldean ohikoak diren *daramat* tankerakoak agertzen dira:

*damarrela & darama*, *nemarrela* ‘neramala’, *zemarren* ‘zeraman’ (Zegama) (Azurmendi 1998: 81)  
*damarret*, *damarrela* ‘daramala’, *nemarrela* ‘neramala’, *zemarren* ‘zeraman’ (Gabiria)  
*damarret*, *damarrezu*, *damarreu* (Segura)  
*damárreu*, *nemarren* (Lazkao)  
*neaman* (Zaldibia)

Legazpin, *eraman* aldaeraz gain, *eroan* ere bada, mendebaleko hizkeretan bezala. Gaur egun Goierrin ez dago horrelakorik, baina XVIII. mendearen hasieran (1713) Otxoa de Arin ordiziarrek horixe erabili zuen: *eroan*, *daroagu* (Aranburu, Bidegain, Idiakes & Rezola 1999: 109)<sup>125</sup>. Hona hemen Legazpin bildutako adizki horietako batzuk (Ugarte 1993: 266-267):

*darot*, *darok*, *daron*, *daro*, *daro(g)u*, *darozu*, *darozue*, *daroe* (266)  
*neron*, *eroan*, *eronan*, *zeron*, *gerogun*, *zerozun*, *zerozuen*, *zeroen* (267)  
*erolea* ‘gorputzilla daramatenak’, *eroletza* (160)

Tolosaldean, aldiz, *damakit* tankerakoak agertzen dira, Gipuzkoako ipar-ekialdean bezala<sup>126</sup>:

*dámakit* ‘daramat’ (Gaztelu) (Holmer 1964)  
*damakizu* (Ikaztegieta)  
*damakigu* (Tolosa)

<sup>125</sup> Gerrickok eta Amundarainek *daramagu* erabili zuten (Aranburu, Bidegain, Idiakes & Rezola 1999).

<sup>126</sup> Beterrin (Lasarte-Orian) honelakoak daude *eraman* eta *ekarri*-ren adizkietan: *damaikit* ‘daramat’, *damaiki*, *damaiki(g)u*, *damaikizu*, *damaikizue*, *damaikiye*; *dakarkit*, *dakarki*, *dakarki(g)u*, *dakarkizu*, *dakarkizue*, *dakarkiye* (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996). Orion ere bada: *damaxkit* (Iturain & Loidi: 1995). Leitza eta Areso aldean ere bada: *deamat* & *deamakit* (Olano 1998: 219). Aldaera hori Basabururaino iristen da, baina ez Ultzamara: *deamazkit* (Basaburua) (Ibarra 1995: 687).

*damazkit* (Belauntza)

*damaki* (Alegia) (311 gald.), *dakarki* (Alegia) (310 gald.) (EAEL I)

*zeamakin, dakarki* (Elduain)

### 3.22. *Egin* aditzaren indargarri

Mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan *egin* erabiltzen da aditza galdegai denean. Ekialderago, berriz, bilakabide hori ez da hain ohikoa; Bortzirietan, konparaziora, ahul dago eta askoz ahulago Baztan aldean (Zuazo 1997b: 405). Aztergai dugun eremuan, ordea, *egin* sarri erabiltzen da aditza indartzeko:

- Goierriin:

*...ya gazte jendek eta ume jendek, ya ondo eiten due, baño edade pixkat daukuunok... pentsau ein bear; Oain pixkat galdu ein deu oi; Baño errie pixkat maitte in bear da, pasau be* (Segura)

*Ya baño, xaartu ein gea-ta...* (Zaldibia)

*Geo pintau itte al zittuzuen?; Baño, izorrau in bear; Aurrena jan in bear do, jakin in bear do arrautza prejitzen da tórtillea itten, ez... liburuk ikasten baño* (Lazkao)

*Leeno, berriz, enterrau re an itte 'men'tzuen; Ta sinistu eitten'tzuen...; Arek frakasau in'tzola esaten due baño... onek ez do frakasau?* (Beasain)

*Ordun aldeñ eintzion da onea etorri zan* (Ataun) (Arin & Arruabarrena 1989: 435)

- Tolosaldean:

*guk itzek jan itten'ittugun bezela, aik osoik... a-kin esate ittue* (Amezketza)

*eman ingo'izut ' [zartakoa] eman egingo dizut', jo ingo'izut* (Belauntza)

*Baño oetasei miñutun, jun in bia'ik e?; Leno fabrika bat'tzeon, gero erre in'tzan; Ni e'nitzan kanpoa jun, eman in niñuen, eman; ..da nik, berriz, ya ezkondu ta geo, ya utzi ein nion ola ibiltzeai* (Tolosa)

*etorri ingo gea* (Elduain, K. Oriak a. e.)

*Etorri ta arbola' mostu ein'tzittuen Ibarrekoak, bate Tolosakiñ entedittu gabe, beti liotan; Bota ein'tzuen baserri yura, zeatik autopista pasa zan* (Izaskun)

Bestalde, maiz *egin* indargarria aditz nagusiaren aurrean (eta perpausaren hasieran) jartzen da:

*in bearra'auke Donostia jun* (Segura)

*in nun ona zalakoan eosi, ta geo txar-txarra da* (Belauntza)

*jubilatu eta gelditzen basea, akabu!... ite'a, ite'zu eriotza aurreratu* (Ibarra)

[basurdeek] *..ba, itte zien kosetxa ua estropeatu, ta il itte zittuen* (Anoeta)

### 3.23. Zenbait aditzen erabilera: *irten*, *igo* eta *jardun*

Mendebaleko euskalkian *irten*, *igo* eta *jardun* aditzak iragankorrek dira. Euskal Herriko erdialdean iragangaitz gisa jokatzek dira, baina, zenbaitetan, mendebaleko erabilera Goierriraino iritsi da. XVIII. mendeko Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741) *igo* aditza iragankorra da (Lakarra 1985: 253). Otxoa de Arinek *irten* ere iragankor gisa jokatu zuen (Aranburu, Bidegain, Idiákez & Rezola 1999: 96)<sup>127</sup>:

*igo ceban; irteten degu* (Otxoa de Arin)

*igo ceban, igo cebala...* (Zegamako Dotrina)

Eta XIX. mendearen hasieran Otaegi beizamarrak *irten*, *igo* eta *jardun* aditzak iragankor zein iragangaitz gisa jokatu zituen. Hona erabilera iragankorraren adibi-deak (Otaegi 1993: 133):

- Irten: *cer icustera irten cenduen ermura?*
- Igo: *ezdu ceruan dagoanec ara igo neque, lan eta gaitzen bidetic baño*
- Jardun: *gure bizitzaco egunac gastatzen ditugu armiarmac becela, bada nola armiarmac jarduten duan gau ta egun euliac achitzeco sareac eguiten, ala guc jarduten degu gauta egun euliac achitzen*

Gaur egun, Goierriko sartaldean hiru aditzak erabiltzen dira eta lehia da nagusi: Gabirian *irten* eta *igo* iragankorrek izaten dira eta *jardun* aditzarekin lehia dago<sup>128</sup>. Seguran *irten* iragankorra jaso dugu, baina *igo* iragangaitza da eta *jardun* ez da ohikoa. Zegaman *irten* bi eratarata jokatuta jaso da eta *igo* iragangaitza da (Azurmendi, X., 1996). Goierriko sartaldean *igo* aditza iragangaitz gisa jokatzek da, *irten* ere erabiltzen da, iragangaitz jokatuta, eta *jardun* ez da ohikoa (> *ari izan*)<sup>129</sup>. Izan ere, XX. mendearen hasierarako Ataunen *igo* aditza iragangaitza zen eta *irten* aditzarekin lehia zegoen, zenbaitetan iragankor gisa jokatzek baitzen (Azurmendi, J. M., 1996: 122-123). Tolosaldean *igo* aditza iragangaitza da, eta *irten* eta *jardun* ez dira ohikoak (> *atera da, ari da*)<sup>130</sup>:

<sup>127</sup> Hernialdeko Irazustaren dotrinan, berriz, iragangaitzak dira: *igo can Ceruetara; irteten guera-nean* (Aranburu, Bidegain, Idiákez & Rezola 1999: 96).

<sup>128</sup> EAEL-k Legazpin baino ez du jaso *igo* aditzarekin: *igo dau* (Deba ibarra, baina *igo dau & igo da* Oñatin) eta *igo do 'du'* (Legazpi) / *igo da* (Zegama, Ataun, Alegia, eta Gipuzkoako gainerako herrietan). *Irten* aditzarekin Legazpin eta Zegaman batu du: *irteten do* (Legazpi & Zegama) eta *erteten du* (Azpeitia) / *ateratze a* (Ataun, Alegia, eta Gipuzkoako gainerako herriak) (EAEL II).

<sup>129</sup> Zaldibian eta Legorretan *irten* ez da ohikoa, Tolosaldean bezala. *Jardun* ere ez da arrunta, baina Legorretan zaharrek erabiltzen dute eta EAEL-k Zaldibian batu du, iragangaitz jokatuta: *...jardute gea* (1990-II, 140 etn.). Ataunen, XX. mende hasieran behinik behin ondoko espapidean erabiltzen zen: *jardun da jardun da jardun* (Azurmendi 1996: 143).

<sup>130</sup> Baina Alzok Tolosako Aldaban jaso zuen *lanak egiten jardutzen gera* (Alzo 1961: 68) eta Gipuzkoako iparraldean batu da: *Leenguan esaten jardun giñan; Emendikan nola tiroka jardun izian ua zijoanian da* (Errezil) (EHHA 1999: 66; 3.21 testua); *Soruan jardute giñan; Izketan jardute'ia* (Lasarte) (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996).

- Goierriko sartaldean:  
*mendia io do; kalea irten do; lanen jardun deu / jardun gea, au itten jardun deu / au itten aittu gea* (Gabiria)<sup>131</sup>  
*Apaizek prallen atzeti irten tzon; baina, Beste 'aten txerri kumak ee irten men-tzien; eta deabrue piku gañea igo zan* (Azurmendi 1998: 91)  
*Eskolatik lauetan irtetzen gendun da andik, zea, pelotan...; kalea irten do; kan-pora irten deu; baina, mendia io naiz (jardun, ez)* (Segura)
- Goierriko sortaldean:  
*mendia io gea; kalea irten da; lanen aittu gea (jardun, ez)* (Lazkao)  
*tellatua io gea; gu emendio ez giñen asko ateatzen (irten, ez), Indar-en aitze giñen lanen (jardun, ez)* (Zaldibia)  
*io naiz; atea da; aittu naiz (jardun zaharrek bakarrik)* (Legorreta); baina, *apai-za, meza entzun da irten zon kanpora 'irten zuen'* (Etxebarriak 1983)
- Tolosaldean:  
*Txindokia io naiz; teillatua io gea* (baina, *Ze io'zue, ze mendi io'zue? Txindoki io deu*); *atea da; lanén aitu naiz* (Ikaztegieta)  
*mendia io naiz; atea da; lanen aittu gea* (Amezketeta, Alegia)  
*iyo da; atea da* (Elduain)

### 3.24. *Ari izan* aditzaren indarra

Mendebaleko euskaran, *ari izan* ez da ezaguna eta horren ordez *ibili*, *jardun* aditzak erabiltzen dira. Aztergai dugun eremu guztian, aldiz, oso indartsua da *ari izan* erabiltzeko joera; gainera, Tolosaldean eta Goierriko sortaldean *jardun* ez da ohikoa:

- Goierriin:  
*an aitze giñen kaniketan...; Etxeko paitatan aitzen giñen* (Segura)  
*beti illea orrazten ai 'men'tzan* (Beasain)  
*Andik gatoz ta oixe komentatzen aittu dia...* (Lazkao)  
*an aitze giñen, gue bizimodue oi izan'tzan* (Zaldibia)
- Tolosaldean:  
*oi esaten aittu da...* (Ikaztegieta)  
*belarretan eo, artajorran eo aitze giñen* (Belauntza)  
*gizon oi ze ai da jaten?* (Tolosa)

### 3.25. *-ki* aditz atzizkia

Euskal Herriko erdialdeko zenbait tokitan *-ki* aditz atzizkia dago: Lapurdin,

<sup>131</sup> Iñaki Muruak esan digu Gabirian *jardun deu* erabiltzen dela, baina Marian Bidegainen iritziz, Gabirian *jardun gea* erabiltzen da eta *jardun deu* Zumarragan, Urretxun eta Legazpin erabiltzen dute.

Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaian <sup>132</sup> eta Gipuzkoako ipar-ekialdean (Iñigo, Salaberri & Zubiri 1995): *izaki, biziki, aiki, ibilki, eoki, jakinki* (Oiartzun) (Fraile & Fraile 1996: 105). Aztergai dugun eremutik gertu, Leitizan, bada atzizki hau, “franko galbidean”, -*kio* itxurapean: *Iruñe(r)a joaki te, hau ez diozu e(r)aman behar?* (Olano 1998: 239-240). Goierrin eta Tolosaldean ez da erabiltzen. Dena dela, Alzok ondokoa bildu zuen Alegian (1961: 32): *Anaia ill zaitzu? Bai, ala egoki edo.*

### 3.26. \*Edun laguntzaile zereginetara baztertze joera

Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean gero eta gehiago erabiltzen da *eduki* aditza, eta *edun* laguntzaile zereginetan (*ikusi'ot*) eta balio kopulatiboa duen kasuetan (*lagun'ot ori* = neure laguna da hori) baizik ez da agertzen (Zuazo 1998c: 166). \**Edun* aditzarenaz gain, *izan*-en esparrua ere bereganatu du *eduki*-k (cf. *bildur euki*). Goierrin eta Tolosaldean nabaria da joera hori:

- Goierrin:  
*enon ba lanik eukitzen an kasi eta denbora pasa erlek euki nitun* (Zegama) (EHHA 1999: 58, 3.13 testua)  
*Segura garai baten izan'tzan ba... esate bateako, amar bat erri euki zittun bere mende* (Segura)  
*...eztauku problema oi; ...bakoitzek bee jainkoa daukuu; Marik beekin naiko lan euko'u* (Beasain)
- Tolosaldean:  
*Jaleo aundia ateatzeko oitura dakeu; Etxea juteko gogoa dauket; Zu' patata' moztu bear dauzketzu; Oso politte izan bearr'auke; Oyak in ber dazketzu* (Ikaztegieta)  
*Nik pena bat eukitze't eskola geixo ez eukie eta erderaz ez jakiñe* (Belauntza)  
*Biyok igual, inbidiya es eukitzeatikan; baina, Suerteza izan degu* (Tolosa); *Arrazoi zuen 'zuten'* (Anoeta)

### 3.27. Mugimenduzko aditzekin adlatiboa

Mendebaleko euskalkian aditz-izenak mugimenduzko aditzen osagarri direnean inesiboa erabiltzen da, baina Debabarrenean eta Debaerdikoan adlatiboa erabiltzen dute (Zuazo 1999c: 38). Goierrin eta Tolosaldean adlatiboa agertzen da:

- Goierrin:  
*gari ebaitzea juten'tzen* (Segura)  
*Juten'tzien udaran, neska-sallek, Barranka, garie'bakitzea...* (Ataun)  
*Amalau-amairu urtetan ni ju nitzen Donostiko klinika erdeaz ikastea; Ez noala ni peria!... ze eostea jun bear det?* (Zaldibia)

<sup>132</sup> Erronkarin eta Zaraitzun, eta Araitzen, Larraunen eta Sakanan ez da erabiltzen.



- Tolosaldean:

*Ta oaiñ e bai, ama, emakumek-eta, adibidez, konprak ittea noa jute'ie?*  
(Amezketak)

*goizen ordubitan-da junda... jun ber isete gindun ua, razionamentua jasotzea*  
(Izaskun)

*Bazkaltzea jun da* (Tolosa)

### 3.28. *-t(z)eke & -t(z)eka aditz atzizkia*

Deba ibarreko alderdi batzuetan *-t(z)eke & -t(z)eka* aditz-atzizkia dago: Antzuolan, Bergaran, Elgetan eta Sorraluzen. XX. mendearen hasieran, *EI*-k Urolaldean eta Goierriko zenbait herritan batu zuen:

*ixiltzaka, ixiltzake, ixiltzeke* (Zumarraga)

*aspertzaka* (Zumarraga, Matxinbenta), *aspertzeke* (Azkoitia)

*betetzaka* (Zumarraga), *betetzeke* (Zumarraga, Azkoitia, Elosu)

*eltzaka* (Ataun-Aia, Ezkio, Mutiloa, Ataun, Idiazabal, Urrestilla), *eltzeke* (Deba)

Geuk Goierri ez dugu atzizki horren arrastorik aurkitu, ezta sartaldean ere, baina Legazpin ondoko aditzarekin jaso da<sup>133</sup> (Ugarte 1993: 170):

*eltzaka, saar eltzaka* 'sagar erdi heldu'.

## 4. SINTAXIA

### 4.1. *Bait-* partikula

Oraintsu arte esan izan da Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean ez zela *bait-* partikula erabiltzen, horixe izan zen Bonapartek gipuzkera eta goi-nafarrera bereizteko erabili zuen hiru irizpideetako bat (Irizar 1981). Baina, kausa adierazten duen *bait-* partikula arrunta da Gipuzkoako ipar-ekialde osoan, baita Beterrin eta Tolosaldean ere<sup>134</sup>. Zuazok Zarautz, Orío, Larraul, Legorreta eta Abaltzisketan barrena doan isoglosa marraztu du (Zuazo 1997b).

Aurrizki hau guztiz ezaguna eta erabilia da Tolosaldean<sup>135</sup>; *bait-*, *nola* + *bait-* eta *nola* + *bait-* + *-n* agertzen dira, maiz beste forma batzuekin nahaska. Dena dela,

<sup>133</sup> Legazpirekin muga egiten duen Oñatin bi aditzokin agertzen da bakarrik: *akórdatzaka, eltzáka* (Zuazo 1999c: 64).

<sup>134</sup> Bestalde, Gipuzkoako ipar-ekialdetik sortalderantz dagoen eremuan, *bait-* aurrizkiak erlatibobalioa ere hartzen du, adibidez Oartzunen (Fraile&Fraile 1996).

<sup>135</sup> Tolosaldeko iparraldeari dagokionez, Mikaela Elizegi asteasuarraren kontakizunetan maiz agertzen da (Zavala 1993): *ta, Ameriketara joan zanean, aítak ekarri nai izan zuan; bañan arek ezetz. Ezkontzeko baitze goan orduan* (65); *gure bizimodua, bai jaiotetxean ta bai gero ere, ola izan baita* (25); *Larraulko estrata bazterrean ezin baitzuten abiada aundirik artu* (91).

Gipuzkoako ipar-ekialdean *bait-* da kausazko perpausetarako formarik erabiliena, cf. Oiartzun (Fraile & Fraile 1996: 132). Tolosaldean, aldiz, beste era batzuk erabiltzen dira sarriago (*-(e)lako*, *zergatik*, *eta*):

- Tolosaldeko iparraldean:

*Baserritar asko etortze zian onea re, aragi billa, entenitzezu?, gosia baizen...; Ta lenao konpuestoik ez baizen, leno zan granua; Jo aizu, Ayan baserrik... Anoeta ttikiya da baño Aya aundiya baita!* (Anoeta)

*Oan dala urte bete ya atatzekok zien eta nola ez'paitien esaten, obrak es'tia asten, eta nola ez'paitien esaten "bueno, asi bear duu ta zoazte", ba, ez'tii juten...; Seatik aldapa aundiya baita or* (Ibarra)

*Porke ordun jeneralian es baitzan baxoerdika...* (Tolosa)

*Ardik beeran bakarrik izate baitittu ortzak, da, berriz e ezjakiñean arrapatu emen tzun apaiza (...)* (Gaztelu) (EHHA 1999: 79, 3.32 testua)

*oik urte askon euki zittuela esate zuen, gu ordun an bizitze baigiñen, errin bertan Elduain* (Elduian) (EHHA 1999: 78, 3.31 testua)

- Tolosaldeko hegoaldean:

*Ni goatze naun, nik beintzat nobioa bainiñan; Ez baita ue [arraina] freskoa beze-la; Emen alperrik baita* (Ikaztegieta)

*Ez baitzait, pa, gustatzen!; Antxe baitzeon* (Amezketeta)

*len amaiketerdi, amabi laurden gutxio beti esaten baitzien* (Altzo-Txarama) (Etxebarria 1983: 170)

Goierriko sortaldean, Zaldibia eta Lazkao tartean, ezaguna eta erabilia da:

*an indako... elkarrizketak, indakok baittuela 'san tziuen, irratie baidaukie errien, erriko irratia, asten bein eo emate' uena, zapatutan eo...* (Lazkao)

*Ortik ezer etzeola ikusita jun nitzen Patxiña, Apalatei atzen bordea baitzon eta garo ta orbeletan gaue pasatzea auntzatxe biltzen baitzien eskale guztik* (Lazkaoko Lazkaomendi) <sup>136</sup>

*Urrungo urtek izan tzien nere urte onenak, sasoi onena gendunen gerrea etorri baitzan, ta ez genun disfratau* (Zaldibia) <sup>137</sup>

Beasaindik sartaldera, aldiz, ez du ematen erabiltzen denik. Hala ere, Zegaman aurkitu da aztarnaren bat (Azurmendi 1998: 94):

*eskuk moitzen bazitun, benetako San Bartolome etzala konturatuko bai zan jendea*

---

<sup>136</sup> Joxepa Madariagak *Goierritarra* aldizkarian idatzitako "Garai bateko kontuk gogon..." artikulutik jaso dugu (1994, 57 zk., 26 or.).

<sup>137</sup> Zaldibiako *Zaldibia eginez* aldizkarian agertutako "Urtsu Txikiko sukaldean Mikaelarekin" artikuluan (2000, ekaina, 17 zk., 6 or.).

#### 4.2. Kausazko perpausetako ‘aditza + eta’ eta ‘aditza + -(e)la eta’

Mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan bezala, Goierrin eta Tolosaldean, ‘aditza + eta’ eta ‘aditza + -(e)la eta’ egiturak daude. Sakana, Malerreka eta Bortzirietatik ekialdera, aldiz, ez dira erabiltzen (Zuazo 1998d: 221).

*Oain bakizu, telebista dala ta dana naasten die...* (Segura)

*Onuzkeo janda igoal gare, emengoa dalakon, labela daukela-ta...* (Beasain)

*...erabaki zuen Pazkoa biarrenen festa eittea, garai ohea zala-eta...; Niri esan tziin otzak etzola [lore] bildurtuko, otzakatio, negukoa zala-ta etzola bildurtuko* (Zaldibia)

*nekatuta zeola-ta jun in'tzan* (Ikaztegieta)

*Baño irabasi it'et, suertia daukat-eta; Arek, bakisu, papelerak, ba, bee onduan e taller asko izate'itula, lantei asko, kaldeak 'tiala-ta; Euskeras es daki, es, kazereñoa dala ta* (Tolosa)

*Nik lan asko eitte nun baatzan, letxue zala ta, iyarra zala ta...* (Izaskun)

#### 4.3. Kausa-esplikaziozko perpausetako *nola*

Erdialdeko hizkeretan kausa-esplikaziozko perpausetan *nola* erabiltzen da. Mendebalean ez da ohikoa –baina Debabarrenean eta Antzuola-Bergara aldean agertzen da (Zuazo 1999c: 42)–. Goierrin eta Tolosaldean horixe erabiltzen da:

*Eta ori, ikuttu ori badao, oseake, nola Segura izan'tzan garai artan, Erdi Aron da ortan, amar bat erri euki zun bere menden...* (Segura)

*...ango izketea oso diferentea nola dan, ba, erderaz defenditze nitzen...* (Idiazabal)

*...orik, e, ia nola naastu gean geio ta egunero alkar ikusten dan...; Leintz, Oñati, Bergara, or ya aldatzen do asko, ya bizkaitarra asko sartzen da re, nola gertu dare...* (Beasain)

*Erreterria, asko, Hernaniti-ta, aizpa nola daukatzen, area, area bastante; Nola reu-makin da ibiltze naizen, Fiteroa jute naiz* (Belauntza)

*ain bertan nola baita gu beti area* (Ibarra)

#### 4.4. Perpaus konpletiboetako *-(e)na*

Gaur egun, perpaus konpletiboetan *-(e)na* morfema erabiltzea mendebaleko euskararen bereizgarriztat jotzen da. Alabaina, orain dela gutxi arte, morfema hori erabilia izan da Gipuzkoako sartaldean eta hegoaldean; hain zuzen, Urolaldean eta Goierrin.

Goierrin, XVIII. mendean, Otxoa de Arin ordiziarrak, *-na* erabili ahal zen espa-

rruetan, *-na* erabili zuen beti; eta Zegamako Dotrinan (1741) *-la* nahiz *-na* agertzen da (Lakarra 1985: 153-154)<sup>138</sup>:

*Sinisten debala Sacramentu orrec debana virtutea; Ezaguturic... ori gaiztoa dana; Badaquit bestela ecin salvatuco naizana* (Otxoa de Arin)

Ataunen, XX. mendearen hasieran eta erdialdean *-(e)la* morfema zen nagusi, baina *-(e)na* ere erabiltzen zen:

*ala zeilela, buruun zerbait zeukena igarri eiñ ementzion* (Azurmendi, J. M., 1996: 124)

*esan zun etorriko etzana* (Ataun) (Alzo 1961: 79)

Gaur egun, Goierriko sortaldean *-(e)na* ez da ohikoa –eta are gutxiago Tolosaldean–: Beasainen, Zaldibian, Lazkaon, Legorretan, antza, zeharo arrotza ez da, baina gazteek *-(e)la* darabilte eta *-(e)na* entzutekotan zaharregandik izango da. Goierriko sartaldean, aldiz, erabiltzen da<sup>139</sup>; Goierriarekin muga-mugan dagoen Urretxun ere duela gutxi batu da:

*Baakit etorri dana* (Lazkao)

*Baakit ala dana* (Gabiria)

*Da Ipiñarrietan ixkutauta ta, jun dia, ba emen tzekien an ixkutau zana ta jun dia, zea orik, enemigo orik* (Urretxu) (EHHA 1999: 56, 3.11 testua)

Goierritik ekialdera, Tolosaldean ere erabilia izan da<sup>140</sup>. Izan ere, XIX. mendearen hasieran Beizamako Otaegik sarritan paratu zituen *-(e)na* partikulaz osatutako perpaus konpletiboak (*-(e)nik*, ordea, gutxitan) (Otaegi 1993: 180):

---

<sup>138</sup> Otxoa de Arin ordiziarrek bereizi egin zituen *-(e)la* eta *-(e)na* morfemen esparruak: *-(e)na sinistu, jaquin, ezagutua izan, ezagun izan, gauza aguiria izan, eguia izan, aditcera eman... aditzekin / -(e)la confesatu, confiatu, suponitu, uste izan, iritci, juzgatu, entzutera eman, iracatsi, agundu, dudatu, esan, juicio eguin... Zegamako dotrinan, ostera, bi morfemak agertu arren, nahasiago erabili zituzten, adibidez, *sinistu* aditzarekin *-(e)la* eta *-(e)na* agertzen dira (Aranburu, Bidegain, Idiackcz & Rezola 1999: 119-120).*

<sup>139</sup> Iñaki Murua gabiriarrak esan digu *-(e)la* eta *-(e)na* morfemen arteko bereizketa erabat betetzen dela Gabirian. Baina Marian Bidegainek azaldu digu gazteen artean galtzen hasi dela. Bestalde, ormaiztegiarrak iraintzeko erabiltzen den esaera honetan *-(e)na* agertzen da: *Ezagutzen da Ormaiztegi'ko pontean bataiatua zerana* (188) (Garmendia, T. & Linazasoro, I. 1983, *Gipuzkoa bihotz-begietan*, GAK).

<sup>140</sup> Alzok *-(e)la* eta *-(e)na*, biak paratu zituen aukeran *gipuzkerarako* (1961: 37): *badakit etorri dala* edo *etorri dana*. Eta *-(e)na* duten adibide mordoska bildu zuen Nafarroako iparraldean eta Gipuzkoan: *...jakin izan banu etxera orren laister etorri bear zutena enintzen aterako* (78) (Azkoitia); *lana neukana banekin* (G & GN-Arizkun) (78); *badakit gaizki egin nuna* (GN-Amairu) (78); *ezagutzen dut utsegin nuna* 'conozco que falté' (GN-Lekarotz) (78); *aitortzen dut lan oiek egin ditudana* (GN-Etxalar) (79)...

*Job santuac esaten du: badaquit nere Erredentorea bici dana ta juicioco egunean piztuc naizana; badaquit nere araguian ta orain daduzcadan beguiaquin nere Jaincoa icusico dedana; Jesusec eranzun cion: certaco ibilli cerate nere ondoren? Etziñaquizuen nere Aitaren cereguiñetan ibilli bear dedana?*

Bonapartek itzularazitako Tolosako dotrinan ere *-(e)na* ageri da (1993-5: 2716): *icusu det cristaua cerana cristaubaren izenac ta señaaliagaitic*. Eta, Tolosaldeko iparraldean, Asteasuko Mikaela Elizegiren kontakizunetan, honelakoak agertzen dira (Zavala 1993):

*antzeman zion an gizona zegoana, ta ola esan zion... (55); aita, berriz, bezperan nonbait ere kanpoan izana zana badakit... (68); ta nik banekian erriko alaba bat an aberatsa zegoana (65)*

Nolanahi ere, Tolosaldean ez dugu behin ere *-(e)na* jaso eta hitzunik ere ez dute-la erabiltzen esan digute beti.

Bestalde, Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean ohikoa denez, perpaus konpletiboak osatzeko *-(e)nik* morfema erabiltzen da perpaus nagusiko aditza ezezkoa denean. Ekialderagoko hizkeretan, ordea, *-ela* baizik ez da erabiltzen:

*iñok eztu uste sasoi onean daonen autza ju bear danik baño...* (Beasain)

*diferentek diela esan bear da baño parregarrie danik nola ba?* (Lazkao)

*Bai, guk Franco txarra zanik ezkendun esan...* (Albiztur)

*Baño etzitzaizen iruizen bizi bear nunik; Ez tet uste iñor danik...* (Belauntza)

#### 4.5. Perpaus konparatiboetako *-agoko*

Nafarroako zenbait hizkeretan eta Nafarroa Beherean, perpaus konparatiboetan, *-agokoa* atzizkia erabiltzen da, *-ago* orokorrarekin batera: Imotz, Ultzama, Baztan... (Zuazo 1995b: 341). Nafarroako hizkeretara hurbiltzen gaituen ezaugarri hori Goierriko sortaldean bildu da noiz edo noiz. Azurmendik *-agoko* zuten adibideak jaso zituen Ataunen. Guk Ataunen eta Tolosaldean batu dugu, baina oso bakanka:

*euzkie baño ederragoko semetxo'at; leenda geiaoko gaiztakeriik; zu bearraagokoa zea gatza buño* (Azurmendi, J. M., 1996: 135)

*Eta beeran, San Martiñen oandio... "mas señoritos", San Martiñekok oandio izkutugokok...* (Ataun)

*ni baño persona zaarraokuari* (Anoeta)

#### 4.6. Perpaus konparatiboetako *lain*

Mendebaleko hizkeretan erabiltzen den *lain* partikula Goierriin ere bada. Goierriko sartaldean maiz erabiltzen dute, baina sartaldean ohikoagoa da *adina* (*aiñe*), eta Zaldibian *lain* ez da arrunta, ezta Tolosaldean ere:

*au bada neétzako aiñe afaltzeko* (Zaldibia)

Hona hemen *lain* partikularen adibide batzuk:

*Jana eiteko ta erateko laiñ ur izaten tzan etxaolatan; Sue itzaltzeko laiñ bota ta kitto* (Zegama) (Azurmendi 1998: 94)

*Neétzako lain badao emen; Au bada neétzako laiñ afaltzeko* (Lazkao)

*gaurko lain; neretzako lain* (186); *ipurdie estaltzeko lain* (18); *arnasea artzeko lain* (28) (Legazpi) (Ugarte 1993: 186)

Tolosaldeko hegoaldean ere jaso da, baina normalean, *adina* erabiltzen da:

*ori ikasteko laiñ da* (Bedaio) (Alzo 1961: 61)

*juteko laiñ izango al gea?* ‘juteko kápaz izango al gea?’ (Elduain)

*Ni oi itteko aiñe naiz; Eateko aiñe ur; Gu danantzako aiñe bazeon* (Amezketeta)

#### 4.7. Denborazko eta moduzko perpausetako *-(e)la* / *-(e)larik*

Euskal Herriko mendebalean eta erdialdean, *-(e)la* partikula erabiltzen da denborazko eta moduzko perpausetan. Gipuzkoako ipar-ekialdetik sortalderantz (Lezotik eta Oiartzundik ekialderantz), hau da, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan, *-(e)larik* eta *-(e)la*, biak daude aukeran (Zuazo 1997b: 401). Hala, bada, aztergai dugun eremuan *-(e)la* baino ez zaigu ageri, mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan bezala<sup>141</sup>:

- Goierriin:

*Bein, Asurmendi-Muñoko amona txikie jatekoa eiten ai zala, Barriola San Adriana zijon da andi pasatzea suertau zan* (Zegama)<sup>142</sup>

*...neguun, gauen e bai askotan, arkumak jaoitze ai diela o au dala o oi dala, gauen e atendittu bearra izaten due* (Idiazabal)

*eualdi txarra daola, urrutia jun bear'tzanen, kendu ta ankautsik, ak [zapatak] besapen artuta...* (Beasain)

*San Anton bestaaten tabernatik bueltan oñez etxea zaldikin zijola, poliki berdautata...* (Ataun) (Arin & Arruabarrena 1989: 410)

- Tolosaldean:

*ze itte zuen, zuk sei urte zeukezula ta gaztea ziñela, bestek, ze lan itte zuen?* (Ikaztegieta)

---

<sup>141</sup> Nolanahi ere, Tolosako iparraldean bada lekukotasun bat: Asteasuko Mikaela Elizegiren kontakizunetan, gehienetan *-(e)la* erabili arren, lantzean behin *-(e)larik* agertzen da (Zavala 1993): *ura emen zalarik, egunero elizako buelta egingo zuan* (65); *lenago, aberatsa zalarik, ongi etorriak eta sekulako omenajeak egiten zizkaten...* (92). Eta Goierriko sartaldean *-larik* testuinguru honetan agertzen da batzuetan: *Bai, ta ori umea dulaik* (Gabiria) (Marian Bidegainek esandakoa).

<sup>142</sup> Adibide horiek J. M. Azurmendiren (1998: 137) eta X. Azurmendiren (1996: 145) liburuetatik hartu ditugu.

*bea txiki-txikie zala ill ein'tzitzaixkion ama ta aitte* (Belauntza)

*Ni emen naola estittue eaman beintzat, aik segurasko or daude* (Izaskun)

*ta bein Melillatik Malaga getozela, e, erdi parian, 'alto'* (Tolosa)

*Ernialdea goazela, aldapan asiera-asieran, ortxe, buelta txar baten, guutze aundi bat dao, antxe* (Anoeta)

#### 4.8. Modu-perpauzetan eta perpau konparatiboetan *bezala / lako, lakoxe, le(ge)z*

Goierrin eta Tolosaldean *bezela* & *bezelako* eta *moduan* & *moduko* erabiltzen dira konparaziozko eta moduzko perpauzetan. *Moduan* eta *moduko* orokorrak dira, baina *bezela* eta *bezelako* ez, ez baitira agertzen Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan (Debarrenetik eta Antzuola-Bergaratik sartaldera). Bestalde, aztergai dugun eremuan, ez dira erabiltzen mendebaleko euskalkian ohikoak diren *le(ge)z* & *lako*. Debarrenean eta Antzuola-Bergara aldean, aldiz, denak agertzen dira (Zuazo 1999c:42):

*guk bezela, zirie bezela, tradizioz bezela o istori bezela; txirula mouko txilibutukin* (Segura)

*ijitok bezela* (Ataun), *oain bezela* (Zaldibia), *aberatsak bezela* (Lazkao)

*Iz fiñagok bezela; Guk itzek jan itten'ittugun bezela; Idazte'an bezela; Oso politte bezela da* (Amezketeta)

#### 4.9. Perpau kontzesiboetan *arren* eta motibatibo- eta helburu-perpauzetan *-t(z)earren*

Euskal Herriko mendebalean, beste aukera batzuekin batera, *arren* menderagailua erabiltzen da perpau kontzesiboetan, eta *-t(z)earren* morfema dago motibatibo- eta helburu-perpauzetan (*-t(z)eko* eta *-t(z)eagatik* morfema orokorren ondoan). Erdialdeko hizkeretan, dirudenez, *arren* dago: Gipuzkoako ipar-mendebalean eta Urolaldean *-t(z)earren* bada, baina gazteriak *-t(z)eko* erabiltzeko joera du (Zuazo 1998d: 207).

Goierrin, XVIII. mendearen hasieran (1713), Otxoa de Arin ordiziarrek *arren* erabili zuen, balio kontzesiboaz (Aranburu, Bidegain, Idiaketz & Rezola 1999: 115):

*obligacionican ez izanarren; iru Persona aec distinta edo diferenteac izan arren; irurac izanarren Jaungoico eguiazco bacar bat; jateco gauzak izanarren ere*

Sortalderago, XIX. mendearen amaieran, Legorretako Odriozolaren hiztegian *arren* agertzen da, 'aunque, sin embargo' esangurarekin. Eta aspaldi ez dela, Goierriko sartaldeko mugan dagoen Legazpin, *-t(z)earren* morfema bildu da: *esatearren, erostearren, irtetearren, ixiltzearren* (Ugarte 1993: 183).

Tolosaldeetik gertuago, XIX. mendearen hasieran, Beizamako Otaegik *arren* erabili zuen (Otaegi 1993: 412):

(...) *baña neque oriec ere neque onac ta neque ceruaren irabazleac izan arren, ez dira, ez, bidegabeco nequeac (...); (...)* icusten badezu esqueca dagozquizula emcndic bata andic bestea, bati ere zuc ecer zor ez izan arren (...)

Alabaina, gaur egun perpaus kontzesiboetako *arren* eta motibatibo- eta helburu-perpausetako *-t(z)earren* ez dira erabiltzen ez Goierrin, ez Tolosaldean:

*Oi iñakatik 'hori eginagatik'; Bost senide giñen eta beste bost izanda re...* (Zaldibia)  
*Auzokok esanakatio* (Lazkao)

*Itteaatik / itteaatio* (Gaboria)

*...eta frontoia arrapatzeaatio urrutiti pelotea botatze genun* (Segura)

*Mayorazko ezkontze zien, mutillek etxea, apellido seitzeaati* (Ikaztegieta)

*Zelaie izateati, ibiltzeko ta...* (Belauntza)

*Biyok igual, inbidiya es eukitzeatikan* (Tolosa)

#### 4.10. Baldintzako perpausetako *baldin*

Euskal Herri osokoa den baldintza-perpausetako *baldin* partikula ez da arrunta mendebaleko euskalkian. Deba ibarreko zenbait tokitan, berriz, erabiltzen da (Debabarreanean, Oñatin, Bergaran, Antzuolan) (Zuazo 1998c), eta aztergai dugun eremuan guztiz arrunta da:

- Goierrin:

*...asmatzen baldin bazoeeen zeekin eiñe zan...* (Ataun, XX. mendearen hasieran)  
(Azurmendi, J. M., 1996: 128)

*milla peza baldinbaukea, aek etxen zeozertan gastauko due ua* (Zaldibia)

*oi bakoitzek bee jainkoa daukuu, etxen e jainko bat badao bi ezpaldin badare* (Beasain)

- Tolosaldean:

*Tolosan da re, gauzak berdiñ esaten baldinbaie re, guk itzek jan itten'ittugun bezela, aik osoik... a-kin esate ittue ogiá, udá da ola* (Amezketeta)

*artzayak etortzen dia, ta nai baldinbazu 'torri, artzayak kotxian ekartze saittu...* (Tolosa)

#### 4.11. *Al* galdera-partikula

'Bai-ez' erako galderetan *al* partikula erabiltzea euskara giputzaren bereizgarrietako bat da. Berrikuntza hori erdialdeko euskalkiaren eremu osoan aurkituko dugu, Nafarroako Araitz, Larraun eta Basaburua barne daudela, baita Debabarreneko Mutrikun ere (Zuazo 1998d). Hala, bada, aztergai dugun eremu guztian, indartsua da *al* partikula erabiltzeko joera:

- Goierrin:

*Zu emen jayotakoa al tzea?; ...biar al da?; Orkoa al da Martiñ?; Zuk ezautu al dezu oi?; Saastiek-eta zuenak al die?* (Lazkao)

*ezautze al dezu, ala?* (Beasain)



- Tolosaldean:

*Argiñek al'tzien?; Ez al'tzekezuen karnetaik?; Neska oi Alegriko' al da ba?*  
(Ikaztegieta)

*Emendikan iyo al'tzea beñ ere?; Ez al dezue beñ e bildu?; Gaz pixkat 'o ez al diozu bota bear? (Tolosa)*

#### 4.12. *Bi* zenbatzailearen kokapena

Gaur egun, mendebaleko euskalkian *bi* zenbatzailea izen multzoaren eskuinetara ipintzen da, baina gainerako euskalkietan ohikoena ezkerretara ezartzea da. Alabaina, orain dela gutxi arte, eskuinetara paratu izan da Euskal Herrian barrena (Camino 1997:512): Bonaparteren garaian, Bizkaian ez ezik Gipuzkoan ere nahikoa hedatuta omen zegoen erabilera hori (Zuazo 1988: 370-371)<sup>143</sup>.

Goierrin badira erabilera horren aztarnak. Otxoa de Arin ordiziarrak, 1713an, izenaren atzetik jarri zuen *bi* zenbatzailea, Zegamako Dotrinan (1741) ere horrelaxe agertzen da, eta Gerriko, Amundarain, Iztueta eta Lardizabal goierritarrek ere izenaren atzetik kokatu zuten gehienetan (Aranburu, Bidegain, Idiakes & Rezola 1999: 92):

*razoe bi, mandamentu bitan, beatz biaz, naturaleza bi, persona bi, napur biren erdian* (Otxoa de Arin)

*beatz birequin, modu bitan...* (Zegamako Dotrina)

XX. mendearen hasieran Ataunen (Barandiaranen ipuinetan) izenaren eskuinetara zein ezkerretara agertzen zen *bi* zenbatzailea (Azurmendi, J. M., 1996: 125-126):

*egun bi t'erdi, senarr-emazte bi, anaie-arreba gazte bi, sorgin bi, ume biik, begi biik*

Goierriko sartaldean eta Legazpi aldean honelakoak jaso dira oraindik orain:

*anka bik, begi bitako, erreal bi* (Zegama) (Azurmendi 1998: 93)

*bi itzetan & izbitan, baztar bik, esku bikin, urte bi barru, jira bi, anka bik, begi bik itxita, aurpegi bikoa, eun biz-bat* (Legazpi) (Ugarte 1993)

Nolanahi ere, gaur egun, *bi* zenbatzailea izenaren ezkerretara ezartzeko joera erabat nagusitu da Goierrri osoan<sup>144</sup>. Sartaldean ere ezkerretara jartzen da eta fosili-

<sup>143</sup> Esaterako, Bonaparteren laguntzailea izan zen Otaegi zegamarrak eskuinetara zein ezkerretara paratu zuen *bi* zenbatzailea: *bi gizon, bi ama / aurcho bi, usocho bi* (Aranburu, Bidegain, Idiakes & Rezola 1994: 131). Eta Zavalak bildutako bertsoetan, sarritan aurki daiteke *bi* zenbatzailea izenaren eskuinetara paratuta mendebalekoak ez diren bertsolariengan. Asteasuko Pello Errotak, hain zuzen, eskuinetara ezarri zuen lantzean behin (Zavala 1993): *Bergarako anai bi* (128), *anka biko* (167), *reljioso bi* (111).

<sup>144</sup> Deba ibarrean ere goraka doa ezkerretara ezartzeko joera: Debarreanean eta Antzuola eta Bergara aldean ezkerretara erabili ohi da, baita Oñatin ere, eta joera hori zabalduz doa Deba ibarreko beste herrietan. Gainera, Soraluzen, Arrasaten, Elgetan ezkerretara zein eskumatara jartzen da (Zuazo 1999c: 43).

zatuta dauden egitura bakan batzuetan baizik ez da eskuinetara agertzen: *ao biko ezpata, eun bizpat, ozpikoa* (aitzur tankerako hortz biko tresna)<sup>145</sup>... (Gabiria). Hona hemen adibide batzuk:

*bi anai, bi ume* (Gabiria)

*bi dozena, bi pezeta, bi urteako, bi kotxe, bi txerri, beñ o bi aldiz* (Zaldibia)

*bi eskukin, bi pauso* (Ataun)

*bi etxe, bi pakete, bi bizitzako etxea* (Beasain)

Goierritik ekialdera ere badira zantzuak: XIX. mendearen hasieran, Beizamako Otaegik izenaren eskuinetara ere paratu zuen *bi zenbatzailea* (Otaegi 1993: 176): *bide bi baicic*. Eta 1913an, Lizartzan ondokoak batu zituzten (Etxebarria 1992: 615): *txerri kuma txiki bi, aizkora bi*. Dena dela, Goierrin bezalaxe, gaur egun joera hori ez da batere ohikoa Tolosaldean<sup>146</sup>:

*bi begik* (Ikaztegieta)

*bi arreba, bi urtekiñ* (Albiztur)

*bi ordu t'erdi, bi anai, bi urte t'erdi, bi urteako, bi litro, bi bider, bi eskurtsiyo* (Tolosa)

#### 4.13. *Ala / edo* juntagailu hautakariak

Erdialdeko euskalkian eta Nafarroa gehiengan perpaus hautakarietan *ala / edo* bereizketa galdu da: *ala* erabiltzen zen inguruneetara *edo* zabaldu da eta, hortaz, gaur egun, *edo* juntagailua baino ez da erabiltzen. Mendebaleko euskaran, ordea, bereizketari eusten zaio<sup>147</sup>. Eremu horretan bezala, Gipuzkoako sartalde osoan ere, hala Urolaldean nola Goierrin, bereizketa gorde da, zenbait ingurunetan behintzat<sup>148</sup>.

Goierriri dagokionez, Otxoa de Arin ordiziarrek 1713an *ala* erabili zuen:

*Jaungoicoa zan partetic, ala guizona zan partetic ilic guelditu zan Crutcean?* (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999)

---

<sup>145</sup> Izan ere, Gabiria eta Ezkio-Itsaso aldean, baserriko tresnen izen gehienetan, *bi* zenbatzailea izenaren eskuinetara doa (Marian Bidegainek esandakoa).

<sup>146</sup> Alabaina, guk bakanen batean jaso dugu, esaterako, Anoetako ondoko adibidean: *beste baserri bi badaude*.

<sup>147</sup> Cf. *Aura nik estaitt erok eruan seben kamioian aurrea ala desaparesidu in san; Soatu in ga, ala?* (Antzuola) (Larrañaga 1998: 157). Dena dela, Debabarrenean *edo* nagusitzen ari da eta *ala* atzeraka doa (Zuazo 1999c: 25).

<sup>148</sup> Alzok gipuzkeraren baliabidetzat hartu zuen (1961): *soldaduak puskatu dute ontzia ala erriko mutillak izan dira?* (90); *nola atera bear dezu dirua? Eskeaz ala errifaz?* (173); *zeñek ill dute? Soldaduak ala?* (173). Bestalde, Asteasuko Mikaela Elizegiren kontakizunetan *ala* dago (Zavala 1993: 66): *Emendik zijoan baporeari ez omen zioten Amerikan bereala sartzen utzi; geldituta euki omen zuten Buenos Airesko portuan, gaitzik bazijoakion ala ez*.

Eta Ataunen, XX. mendearen hasieran, *ala* bildu zen bi ingurune bereizi haue-  
tan (Azurmendi, J. M., 1996: 131):

- Galdera zeharkakoetan: *Esan deiuela launek egiiz ai naizen ala ez; Erregiñak aur eitteko ementzeoon eta erregek aurrez jakin nai semea ala alaba eingo zoon*
- Galdera zuzenetan: *eroiko nok ala ez?*

Gaur egun ere, Goierrin, sartaldean zein sortaldean, *ala / edo* bereizketak zutik dirau: galdera zuzenetan eta zeharkakoetan *ala* erabiltzen da, eta gainerakoetan *edo*. Legazpiko Ugartek, hain zuzen, honela dio: «galdera danean, “edo” “ala”z ordezkatzen degu» (Ugarte 1993: 170). Beasainen biak erabiltzen dira, baina adineko jendeak eta baserri girokoek maizago erabiltzen dute *ala* (Joxemiel Azurmendik esandakoa):

*Ze in dezu, au ala oi?; Zeiñ etorri da, Joxe ala Miel?; Ze, biar peria jun nai zu, bai ala ez?; Zaldibia kalea ala, zea, Saturdia? ‘Zaldibiara kalera ala, zera, Saturdira?’; eta Festazale latza izandu ziñen zu, ala?; Trikitixa bai, baño bertso giroa re bai, ala?; Tónto al’tzea alá?; Asko etzeate ibiliko biitzur ortatio, ala?; Bi darenen gaizki ala? (Lazkao)*

*Bai, ezautze al dezu, ala? (Beasain)*

*Bueno, esazu, bai ala ez?; Ta nola jun bear gea ba, bakarrik ala?; Zer’tzare, baka-  
rrik etxen ala? (Idiazabal)*

*Da ikusko diau danok emen garen ala ez; Eroiko nauk ala ez?; Au irea izango’ek ala? (Zegama) (Azurmendi 1998: 94)*

*Bat ala bi?; Zurie ala beltza (48); Ba’naiz ala enaiz; Bai ala ez (42); Zu ala ni?; Gaur ala biar? (Legazpi) (Ugarte 1993: 170)*

Goierriko sortaldeko Legorretan *ala*-ren ordez *edo* agertzen da normalean, Tolosaldean bezala: Galderetan, ‘*X ala?*’ egitura erabili beharrean ‘*X edo (zer)?*’ agertzen da gehienetan<sup>149</sup>:

*E’nekin esan nien o ez; Tontoa zea o zer?; Zu burutik os’ondo etzaude, ero al’tzare o zer? (Ikaztegieta)*

*Au o oi?; Arroza o lenteja?; Zein azaldu’a, izeba o osaba?; Tontoa aiz o zer? (Amezketeta)*

*I, esango al dik o es?; ...danak emendik jan biar al due o ser da au? (Tolosa)*

#### 4.14. Orobatasuneko *zein* juntagailua

Mendebaleko euskaran (Deba ibar osoa barne dagoela) *zein* erabiltzen da orobatasuna adierazteko, baina Goierrin eta Tolosaldean ez da juntagailu hori agertzen eta horren ordez *naiz* erabiltzen da :

<sup>149</sup> Guk ez dugu bildu, baina honelakoak ere erabiltzen omen dira: *Zeñek ein bear du, nik ala?; Txoatu iñ al aiz, ala? (Elduain) (Koldo Oriak esandakoa).*

*Gauero etortze ementzizaion katu zuri aundi'at eta auzoko naiz urrutiitako gertaera guztiik salatze ementziotzan* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 131)

## 5. LEXIKOA

### 5.1. Aldaera lexikoak <sup>150</sup>

#### • *N / l* txandaketa

Euskal Herriko mendebalean bezala (cf. mend. *narru*, *nasai*), hitz hasieran <n> duten aldaerak daude Goierrin eta Burundan (Zuazo 1998c: 144). Legazpin, *narru* eta *nasai* (& *lasai*) aldaerak jaso dira:

*narrue*, *idinarru*, *narrutu*, *narrugorriin*, *narrutan* (135) eta *lasai*, *lasaitu* (29) & *nasai*, *nasaittu*, *nasakeri* (78), *nasai-nasai* 'poliki-poliki' (51) (Legazpi) (Ugarte 1993)

Goierrri gehienean, sortaldean izan ezik, *narru* erakoak jaso dira; ez, ordea, *nasai*<sup>151</sup>:

*narrue*, *idinarru*, *katanarru*; *lasaitu* (Zegama); *narrue*, baina *lasai*, *lasaittu* (Gabiria); *narrue* (Segura); *narru*, *narrutu*, *narrugorriñ*, *narrupillea* (Ataun, XX. mendearen hasieran); *narrue*, *narrubixik*, baina *lasai*, *lasaittu* (Lazkao); *ardinarrukin* (Beasain) <sup>152</sup>

Goierrriko sortaldean (Zaldibia-Legorreta) eta Tolosaldean <l> orokorra dago:

*larrue*, *larrugorriin*, *larrubixik*, *katularrue* eta *lasai*, *lasaittu* (Zaldibia); *larrue*, *lasai* (Legorreta); *larrue*, *larrutu*, *larrubixik* eta *lasaie* (Ikaztegieta); *larrue*... (Amezketan, Alegia)

#### • *L / d* txandaketa

Mendebalean bezala (cf. mend. *sidar*, *bedar*, *edur*, *idar*, *idargi*), <d> duten aldaerak jaso dira Legazpin:

*bedar* (eta *bedarrosto*, *bedar ebaitze*, *bedartokie*, *bedar-ganbara*...); *edur* (eta *edurte*, *edurbaltsa*, *edurbusti*...); *idar* 'ilar'; *idargi* (eta *idargiberri*, *idartargi*, *idartargitan*...); *zidar* (Legazpi)

<sup>150</sup> Legazpiko adibide gehienak Ugarteren liburutik atera ditugu (1993) eta Zegamakoak eta Ataungoak Joxemiel Azurmendiren liburuetatik (1998, 1996). Mendebaleko adibideak (mend.), beste argibiderik agertzen ez bada, Zuazoren *Deba ibarreko euskaria* liburukoak dira (1999c). Gainerakoak, osterantzeko argibiderik agertzen ez bada, guk geuk jasotakoak dira.

<sup>151</sup> Otxoa de Arin ordizarrak (1713) *napur* 'lapur' erabili zuen (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 83).

<sup>152</sup> Baina Joxemiel Azurmendik esan digunez, *larrue* erabiltzen da gehienetan.

Aldaera horietako batzuk Goierriko sartaldean –gehienbat Zegaman– gorde dira; baina, oro har, < / > duten aldaera orokorrak nagusitu dira Goierriin, Tolosaldean bezala:

- Goierriin: *bedarra, edurre, idarrak / igarrak*, baina, *illargi* (Zegama); *illarra & idarra*, baina, *belarra, elurre, illargie, zillarra* (Gabiria)<sup>153</sup>; *belarra, elurre, illarrak* (Segura); *belarra, illargi, zillar* (Ataun, XX. mendearen hasieran); *belarra, belardie; elurre; illarrak; illargie...* (Lazkao & Zaldibia); *belarra, elurre, illarra...* (Beasain); *belarra, elurre, illarrak...* (Legorreta)
- Tolosaldean: *belarra, elurre, illargie...* (Ikaztegieta); *belarra, elurre, illarrak...* (Amezqueta, Alegia)

#### • *N* eta *l* ondoko herskari ahoskabeak

Mendebaleko euskararen bezala (cf. mend. *denpora, altara, jente*), Goierri aldean, aldaera jakin batzuetan, *n* eta *l* ostean herskari ahoskabeak erabili izan dira. XVIII. mendearen hasieran (1713), Otxoa de Arin ordiziarrek *altare, denpora, jente* erabili zituen eta Zegamako Dotrinan (1741) *altara* agertzen da (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 80). Legazpin oraindik orain hauek jaso dira: *jende*, baina, *jenteera; altare, altarenausi, altaretxo*. Goierriko zenbait herritan *altarea* gorde da, baina Tolosaldean, ahostunak jaso ditugu:

- Goierriin: *aldarea & altarea, dénborea & dénporea, jendea* (Gabiria)<sup>154</sup>; *denbora, jendea, altarea* (Segura); *dénborea, jéndea* (Lazkao & Zaldibia); *altarea*, baina, *denborea, jendea* (Beasain); *aldarea, dénbora, jendea* (Legorreta)
- Tolosaldean: *jendea, aldarea, dénboa* (Ikaztegieta, Amezqueta, Alegia, Izaskun...)

#### • *Gabe / bage* aldaerak

Euskal Herriko erdialdean *gabe* aldaera nagusitu den arren, bazterretan eta, beraz, mendebaleko euskalkian, *bage* tankerakoak erabiltzeari eutsi diote: *barik / bae / be(e)*. Otxoa de Arinen dotrinan (1713) eta Zegamako dotrinan (1741) *bage, bagaric* aldaerak azaltzen dira (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 80).

<sup>153</sup> Marian Bidegainek esan digu gabiriar batzuek *idarra* esaten dutela.

<sup>154</sup> Marian Bidegainek *aldarea* eta *denborea* aldaerak eman dizkigu. Iñaki Muruak, berriz, *altarea* eman digu, eta azaldu digu *dénbora, denbora pasa* erabiltzen direla, baina *dénporea* ere entzuten dela. Itxura denez, bi alderdi daude Gabirian: Renfe-ko trenbide ondoan dagoen alderdian, Ezkio-Itsasotik datorren kutsua jaso dute; fraideen komentua dagoen alderdian, berriz, komentuaeren eragina izan dute hizkeran.

Gaur egun Goierrin horietan erabiltzen dira. Legazpin, *bare*, *ba(e)ik*, *ba(e)ko* tankerako aldaerak baizik ez dira agertzen, mendebaleko euskararen legez: *ustebae*, *lotsabae*, *zentsunik bae*, *adore baetu* ‘gabetu’; *ganoraba(e)ko*, *muturrik baekoa*; *paatu baik* ‘barik’

Goierrin bi aldaerak daude lehian, baina, itxura denez, *bage* erakoak dira nagusi:

*bae*, *be(e)* & *gabe*, baina, *be(e)* da nagusi (Zegama); *bae*, *be*, *pe* (Gabiria); *etorri be geittu zan* ‘etorri gabe gelditu zen’; *esan be*; *beeinkau bekok* ‘bedeinkatu gabekok’ (Zaldibia & Lazkao); *bae* & *gabe*: *bildurri’pe*, *jan bare*, *enterau be* (Beasain); *jun be nao / gabe* (Legorreta)

Tolosaldeko hegoaldean, gaur egun lehian daude bi aldaerak. Ibarren bertan *bare* & *gabe* jaso dugu, baina Tolosan *gabe* baizik ez dugu bildu:

*ba(r)e* & *gabe* (Abaltzisketa, Ikaztegieta, Amezketeta, Alegia, Lizartza...) <sup>155</sup>

#### • \*-uni > -ui eta \*-ani > -ai bilakabideak

Aztergai dugun eremua urrundu egiten da mendebaleko euskaratik, \*-ani eta \*-uni amaierak -ai, -ui bilakatu baitira (cf. mend. > -ain, -uin: *arraiña*, *artzaiña*, *usaiña*, *ipuiña*, *premiña*):

*etxezai*, *atezai*, *umezai*, *artzai*, *mandazai* (Legazpi); *artzai*, *mandazai*, *arrai*, *amurrai*, *ipui* (Zegama); *zai*, *artzai*, *mandazai*, *ipui* (Ataun, XX. mendearen hasieran) (Azurmendi, J. M., 1996: 80); *artzai*... (Zaldibia & Lazkao); *zai*, *artzai*, *ipue*, *arrai* (Ikaztegieta); *artzaya*, *arraiya*... (Tolosa)

#### • *Anrra / andra, andre*:

Bizkaiko hizkeretan, Leintz ibarrean eta Burundan jaso den *anrra* aldaera (Zuazo 1994b: 322) Ataunen batu zen XX. mendearen hasieran (Azurmendi, J. M., 1996: 79) eta Idiazabalen ere jaso da: *anrra* (EAEL II, 138 etn.) –Donostian ere bada *anrria* (I. Caminok esandakoa)–.

#### • *Aapie / kabie*:

Deba ibarrean dagoen *afixa*, *apixa*, *abixa* aldaera (Zuazo 1999c: 71) Goierriko sartaldean ere bada: *aapie* (Legazpi), *aāpie* (Gabiria), *a(a)pi* (Zegama). Goierriko sartaldean eta Tolosaldean, berriz, <k-> eta <-b-> dituzten aldaerak daude: *kabie* (Legorreta), *kābie* (Amezketeta), *kabiya* (Ibarra & Tolosa, Izagirre 1967).

---

<sup>155</sup> Ikaztegieta zenbait hitzunez diotenez, *gabe* batuaren bidez iritsi zaie (Ikaztegieta Juan eta Mari Karmen Amundarainek esandakoa).

• **Biune / biguñe:**

Mendebaleko euskalkian bezala (cf. mend. *biuna*), Goierriko sartaldean *-un* amaiera jaso dugu: *biununa* ‘bigunune’, *biunago* (Legazpi), *biune* (Gabiria, Segura), *biune* (Zegama). Goierriko sartaldean eta Tolosaldean *biguñe* tankerakoak batu ditugu: *biguñe* (Legorreta, Amezketa, Ikaztegieta, Alegia), *biguña*, *biguñe* (Tolosa & Ibarra, Izagirre 1967).

• **Ete / ote:**

Mendebaleko hizkeretan dagoen *ete* aldaera (cf. mend. *ete*), Zegaman ere bildu da (Azurmendi 1998: 32).

• **Gaztaia / gazta:**

Mendebaleko euskalkian, Urolaldean eta Burundan bezala (Zuazo 1998c: 146), Goierri gehienez *gaztaia* aldaera dago. Guk *gaztaia* jaso dugu Gabirian, Seguran, Ataunen, Idiazabalen eta Beasainen; lehia Lazkaon (*gaztaie / gaztaia / gazta*), eta *gazta* baizik ez dugu aurkitu Zaldibian, Legorretan eta Tolosaldean (Ikaztegieta, Amezketa, Alegia...).

• **Gultzurdin / giltzurdin:**

Mendebalean eta Urolaldean bezala <sup>156</sup> (cf. mend. *guntzurrin*, Antzuola, Larrañaga 1998: 19), <u> duen *gultzurdin* aldaera jaso da Legazpin, *gultxurdin* Zegaman. *EDEL II*-k hauek dakartza: *guntzurrinek* (Legazpi), *guntxurriñe* (Zegama), *guntxurdiñek* (Ataun). Tolosaldean, aldiz, <i> duna dago: *giltzurdiñe* (Tolosa, Izagirre 1967).

• **Keiza / gerezi:**

Mendebaleko hizkeretan legez (cf. mend. *keixa*), <k-> duen aldaera jaso dugu Goierri osoan: *keiza*, *keizaondo*, *kerizpe*, *kerizpeatu* (Legazpi), *keiza* (Gabiria, Zegama), *keizea* (Segura), *keizak*, *keizea*, *keizarbolea* (Lazkao & Zaldibia), *keizak* (Legorreta) <sup>157</sup> Tolosaldean, ordea, kontsonante ahostuna duten aldaerak bildu ditugu: *geizie* (Ikaztegieta), *geizik* (Amezketa, Alegia), *gereziya* (Tolosa, Izagirre 1967).

• **Kipula / tipula:**

Mendebalean bezala (cf. mend. *kipula*), Goierriko sartaldean <k-> duten aldaerak bildu ditugu: *kipula-lora*, *kipula-landara* (Legazpi), *kípolak* & *típolea*

<sup>156</sup> Burundan, Ergoienan, Etxarrin, Goierri eta Urolaldean agertzen dira *gultzurriñek* tankerakoak (Zuazo 1995b: 312) eta Legorretako Odriozolaren hiztegian *gultzurriña*.

<sup>157</sup> Toponimian ere bada (Mujika 1989): *Keizdia* (Legorreta).

(Gabiria), *kípola* (Segura)<sup>158</sup>. Goierriko erdialdean eta sortaldean, ostera, <t-> duten aldaerak baino ez ditugu aurkitu, Tolosaldean legez: *típolea* (Lazkao & Zaldibia), *típola* (Legorreta), *típule* (Amezqueta, Alegia), *tipulak* (Ibarra).

• *Kurutza / gurutze:*

Mendebaleko euskalkian bezala (cf. mend. *kurutza*) <k-> kontsonante ahoskabea duten aldaerak jaso ditugu Goierriko sartaldean: *kurutzea*, *kale-kutza* (Legazpi), *kuutze* (Zegama), *kurutzea* (Gabiria, Segura), *kurutzea & gurutze eiñ* (Segura) –Donostian ere bada *kurutzia* (I. Caminok esandakoa)–. Ataunen, XX. mendearen hasieran *bidekuutze* zegoen. Baina Goierriko sortaldean eta Tolosaldean ahostunak jaso ditugu: *gurutze bat* (Zaldibia & Lazkao)<sup>159</sup>, *gurutzea* (Legorreta), *gurutze* (Amezqueta, Alegia, Tolosa...).

Bestalde, mendebalean ohikoak diren ondoko aldaera ahoskabeak ere jaso dira Goierriko sartaldean: *kaltza*, *korostie*, *kiltzapea* ‘giltzape’ (baina *giltza*) (Legazpi), *kaltzipurdi* eta *kaltzada* (Zegama). Goierriko beste herrietan eta Tolosaldean, ordea, ahostunak aurkitu ditugu: *giltza* (Gabiria), *giltzea*, *gorostie* (Zaldibia & Lazkao), *giltza* (Tolosa), *goostie* (Ibarra).

• *Txisea / pixa*

Mendebaleko eta Urolaldeko hizkeretan bezala (cf. mend. *txisa*), Goierriin *txisa* aldaera dago<sup>160</sup>: *txisa*, *txisaitten*, *txisagure*, *txisausai* (Legazpi), *txixe* (Gabiria, Segura). Ataunen, XX. mendearen hasieran *txisegure* zegoen, baina, gaur egun, Goierriko sortaldean lehia dago eta antza *pixe* tankerakoak nagusitzen ari dira: *pixe & txise* (Beasain), *txixe*, *txixagurea / pixe*, *pixagurea* (Zaldibia). Tolosaldean, ordea, honelakoak baino ez ditugu jaso: *pixagurea* (Ikaztegieta), *pixale nao* (Ibarra, Izagirre 1967). Baina Bidanian ere *txisa & pixa* jaso dira (*EAEL I*).

• *Zentzune / zentzua:*

Mendebaleko euskalkian bezala (cf. mend. *sentzun*), Goierriko sartaldean *zentzune* aldaera dago: *zentzune*, *zentzunbaeko* (Legazpi), *zentzune*, *zentzunik* ‘pe’ (Gabiria, Segura). Tolosaldean, berriz, *zentzua* aldaera dago.

• *Zufi (zupi) / zubi:*

Arabako ekialdeko toponimian eta Nafarroako Ameskoa eta Lana ibarretan, <f> duen *zufi* aldaera agertzen da (Zuazo 1998c: 141) eta Zegaman *zupie* aldaera dago

<sup>158</sup> Marian Bidegainek *kípolak* eman digu; Iñaki Muruak, aldiz, *típolea*.

<sup>159</sup> Baina 1713an Ordiziako Otxoa de Arinek *crutce* erabili zuen (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999: 81).

<sup>160</sup> Urolaldean eta Getarian ere badago (*EAEL I*) eta Echaidek Nafarroako Areson bildu zuen *txixé* aldaera (Olano 1998:100).



(Azurmendi 1998: 43). Goierriko sortaldeko toponimian ere honelakoak jaso dira: *Zufialde / Zubialde, Zupialdejauregi* (Itsasondo), *Zufiaurre* (Legorreta) (Mujika 1989).

• **Beste aldaera batzuk:**

*Alkar* aldaera dago Goierri eta Tolosaldean, Bizkaian eta Gipuzkoa gehienez bezala; cf. eki.: *elkar*.

*Alkondara* jaso da Zegaman eta Ataunen (*EAEL I*), mendebaleko euskalkian bezala. Guk Seguran batu dugu; cf. *alkandora* (Tolosaldea).

*Barre & parre* aldaerak jaso dira Legazpi aldean, mendebaleko euskalkian bezala (cf. mend. *barre*): *irribarre, barregure, barregarri & irriparrea*. Goierri eta Tolosaldean, berriz, *parre* bildu dugu: *parre in* (Gabiria), *parra, parregurea* (Amezketeta, Ikaztegieta...), *parra* (Belauntza...).

*Bildur, bildurtu* dago Goierri eta Tolosaldean, Bizkaian, Gipuzkoa gehienez eta Nafarroako mendebalean bezala; cf. eki.: *beldur*.

*Burruka* aldaera jaso dugu Goierri eta Tolosaldean, mendebaleko euskalkian bezala; cf. eki.: *borroka*.

*Etáa / ate(r)a*: Debaerdikoan jaso den *etá(a)* aldaera (Antzuola, Larrañaga 1998: 204) Goierri gehienez erabiltzen da: *etáa* (Legazpi, Segura, Zegama, Gabiria, Zaldibia) –Donostian ere bada *etera* (I. Caminok esandakoa)–. Legorretan eta Tolosaldean, berriz, *atea* jaso dugu (Ikaztegieta, Amezketeta, Alegia...).

*Etzin* ‘etzan’: Deba ibarrean, Sakanan eta behialako Arabako euskarari jaso den aldaera hau Goierri ere batu da: *etzin* (& *etzan*) Zegaman (Zuazo 1995b: 315).

*Eskutur / eskumutur*: Guk Goierri eta Tolosaldean honelakoak aurkitu ditugu: *eskumuturre* (Gabiria, Segura, Ikaztegieta), *eskumuturra* (Tolosa). Baina Euskal Herriko mendebalean dagoen *eskutur* aldaera Legazpin jaso da, *eskumutur* aldaerarekin lehian.

*Matrailla* jaso dugu Goierri eta Tolosaldean, mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan bezala: *matrailla* (Legazpi), *matraillea* (Segura), *matraille* (Ikaztegieta), *matraille* (Ibarra), *matraillezurak* (Tolosa, Izagirre 1967).

*Txindurri / txingurri*: Goierri gehienez eta Tolosaldean *-ng-* duten aldaerak jaso ditugu: *txingorrik* (Segura), *txingurri* (Ataun), *txingurriya* (Tolosa), *txingurrik* (Ikaztegieta). Baina *-nd-* duten *txindorrie, txindurrik, txindurritu* aldaerak batu dira Legazpin (Ugarte 1993), baita Zegaman ere, Arabako iparraldean, Bizkaiko ekialdean, Burundan eta Urolaldean bezala (Zuazo 1995b: 322).

• **Goierry eta Tolosaldea mendebaleko euskalkitik urruntzen duten aldaerak asko dira. Hona hemen batzuk** <sup>161</sup>:

<I-> duten aldaerak: *irin, iri, iltze, irten, ille, igel, igari, izena* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *urun, uri, untza, urten, ule, ugarixo, uger, usen*.

*Nere* izenordaina (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *nire*.

<e> duten aldaerak: *batetik, berri, berdiñ, txerri* eta, *bestetik, gerri, beltz, ezur* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *barri, bardiñ; txarri* eta *garri, baltz, asur*.

*Gaiñ, ezpaiñ, zaiñ...* aldaerak (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *gane, espan, erran, san*.

*Aizpa* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *aista*.

*Ardo* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *ardau*.

*Burni, taloburni* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *burdiñ*.

*Eman* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *emon & emun*.

*E(r)e* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *be*. Baina Ataunen, XX. mendearen hasieran, *be(re)* jaso zen (Azurmendi, J. M., 1996: 80).

*Gezur* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *gusur*.

*Gurdie, gurdibidea* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *burdi*.

*Gutxi* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *gitxi*.

*Guzti* (mend.) & *guzi* (eki.) lehia jaso da Zegaman (Azurmendi 1998: 42) eta Ataunen (Azurmendi, J. M., 1996: 79). Izagirrek biak jaso zituen Tolosaldean: *guzi-ya* (Tolosa), *guzie* (Ibarra) / *guztiya* (Leaburu) (1967). Guk ere bi aldaerak jaso ditugu Goierrin eta Tolosaldean: Segura, Izaskunen, Anoetan, Zaldibian, Amezketan...

*Mutur* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *mustur*.

*Soro* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *solo*.

*Olioa* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *o(r)ixo*.

*Udaizkena / udatzena* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *udaguena*.

*Utzi* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *itxi*.

...

<sup>161</sup> Aldaera hauek ez dute eremu bera hartzen: batzuk Bizkaiko sartaldean baizik ez dira erabiltzen, beste batzuk Bizkaia gehiengan egon arren Deba ibarrean ez dira ohikoak, eta zenbaitzuk Deba ibarreko toki jakin batzuetan baino ez dira gorde, eta galbidean daude.

## 5.2. Lexikoa <sup>162</sup>

### • *Abade / apaiz:*

Mendebalean bezala (cf. mend. *abade*), Goierriko sartaldean *abade* (& *apaiz*) jaso da: *abadea*, *abadetza*, *abadegai* (Legazpi), *apaiz* & *abade* (Zegama, Ataun –eta Azpeitia–, *EDEL D*) <sup>163</sup>. Guk sartaldean jaso dugu, baina oso ahul: *abadea* zaharrek / *apaiz* gazteek (Gabiria) <sup>164</sup>. Goierriko erdialdean eta sortaldean (Segura, Beasain, Lazkao, Zaldibia, Legorreta) *apaize* baino ez dugu bildu; baina toponimotan agertzen da: *Abadesoro*, *Abadebasoa* (Ordizia), *Abarebasoa* (Gaintza) (Mujika 1989). Tolosaldeko hegoaldean *apaiza* jaso dugu <sup>165</sup>: *apaiza* (Ikaztegieta, Amezketa, Alegia, Tolosa).

### • *Amandrea, aittejaune / amona, aitona:*

Deba ibarrean bezala (cf. mend. *amandre*, *aittaj(a)un*, Antzuola, Larrañaga 1998), *amandrea* & *amona* jaso dira Legazpin, Ataunen eta Zaldibian, eta *aittejaune* & *aitona* Legazpin eta Ataunen (Gaminde 1996). Guk batu dugunaren arabera, *amandre* eta *aittajaune* Goierri gehienean daude, baina oso gutxi erabiltzen dira; gehienetan, zaharrek horiek erabiltzen dituzte, baina, gainerakoan, *aittona* & *amona* nagusitu dira: Zaldibian eta Lazkaon *amandre* eta *aittajaune* (oso gutxi) / *aittona* eta *amona* (erabat nagusituta), Gabirian *aittajaune* & *amandrea* (zaharrek) / *aittona* & *amona* (gainerakoek), *aittona* & *amona* (Segura, Beasain). Tolosaldean hauek bildu ditugu: *aittona* & *amona* (Ikaztegieta, Abaltzisketa, Amezketa, Alegia...).

### • *Domeka / igande, jai:*

Mendebaleko hizkeretan bezala (cf. mend. *domeka*), Legazpin *domeka* jaso da. L. M. Mujikak azaldu digunez, *domeka* hitza guztiz ezaguna izan da oraintsu arte Goierri osoan eta Ataunen duela gutxi arte zaharrek erabiltzen zuten. Zegaman *jaie* & *igandea* jaso dira (Azurmendi 1998: 98). Guk horiexek bildu ditugu Goierri osoan eta Tolosaldean: *jaie* (Gabiria, Segura, Lazkao, Beasain, Zaldibia), *igandea* & *jaie* (Legorreta), *jaie* (Ikaztegieta, Abaltzisketa, Amezketa...), *iandea* & *jaie*

<sup>162</sup> Legazpiko adibide gehienak Ugarteren liburutik atera ditugu (1993) eta Zegamakoak eta Ataungoak Joxemiel Azurmendiren liburuetatik (1998, 1996). Mendebaleko adibideak (mend.), beste argibiderik agertzen ez bada, Zuazoren *Deba ibarreko euskera* liburukoak dira (1999c). Gainerakoak, bestelako iturririk agertzen ez bada, guk geuk jasotakoak dira.

<sup>163</sup> L. M. Mujikak azaldu digunez, Goierriko hizkeretan oraintsu arte *abade* hitza agertzen zen eta Ataunen orain dela gutxi arte zaharrek erabiltzen zuten.

<sup>164</sup> Marian Bidegainek esandakoa.

<sup>165</sup> Baina *apaiza* bildu dugu beti, eremu horretan ohikoa den ‘a > e / i, u, C\_\_’ asimilaziorik izan gabe. Horixe bera gertatzen da antzekoa den beste hitz honetan: *babarruna* (cf. *induabea*, Goierriin).

(Alegia), *igandia* (Ibarra). Tolosaldeko hegoaldean, ondoko esapidean baino ez da gorde *domeka* hitza: *San Bartolome domeka* (Bidania, Albiztur...).

• **Gura / nai:**

Mendebaleko euskalkian dagoen *gura* hitzaren ordeaz, Goierriin *nai* erabiltzen da, baina *-gure* atzizki gisa agertzen da eta, gainera, emankortasun handia du: *logure*, *barregure*, *botagure*, *azkure*, *jolaskure*, *jardungure*, *dantzagure*, *kakagure*, *ibilgure*... (Legazpi). Legazpin, gainera, honelakoak bildu dira: *ezta pake gure*; *agindu gurariz & agindu nahiez* (45), *gurari & inbiri* (25) (Legazpi) (Ugarte 1993). Ataunen, XX. mendearen hasieran, *logure* eta *txixegure* ohikoez gain, hauxe batu zen: *sobrekameen gure izen* (Azurmendi, J. M., 1996: 143). Tolosaldeko hegoaldean *-gure* atzizkia erabiltzen da, baina Tolosatik iparrera lehian dago *-gale* atzizkia-rekin: *azkure*, *indarguria* (Ibarra), *goragure* (Tolosa), *parragure* (Leaburu) / *loale* (Tolosa), *pixale* (Ibarra).

• **Indaba / babarruna:**

Mendebalean bezala (cf. mend. *indaba*, *baba*<sup>166</sup>), Goierri gehienean *induaba* tan-kerakoak erabiltzen dira: *indaba*, *indibaba*, *baba* (Legazpi), *indaba* (Zegama, Idiazabal, Ataun, Zaldibia, Gaminde 1996). Guk Goierriko sartaldean jaso dugu: *induabea* (Gabiria, Segura), *induabea* (Beasain). Baina erdialdean eta sortaldean lehia jaso dugu: *ind(u)abea* / *babarruna* (Lazkao & Zaldibia). Itxura denez, gailentzen ari da azken aldaera hori<sup>167</sup>. Legorretan *babárruna* baino ez dugu batu, Tolosaldean bezala: *ba(b)árruna* (Ikaztegieta, Amezketa, Alegia...).

• **Ipiñi / jarri:**

Mendebalean bezala, Goierriko sartaldean (Gabiria, Segura) *ipiñi* jaso dugu (& *jarri*). Goierriko sortaldean (Lazkao, Zaldibia, Legorreta) *ipiñi* ez da oso arrunta –baina Zaldibian jaso dugu–. Tolosaldean *jarri* baino ez dugu aurkitu: *jarri* (Ikaztegieta, Amezketa, Alegia...).

• **Irten / atera:**

Mendebaleko hizkeretan bezala (cf. *erten & urten* ‘salir’) / *eta(ra)* ‘sacar’, Antzuola, Larrañaga 1998: 104), Goierriin, esangura desberdina dute *etaa* / *irten* aditzek. Tolosaldeko hegoaldeetik sortalderantz, aldiz, *irten* ez da ohikoa eta *ate(r)a* erabiltzen dute bi adieretarako: *ate(r)a da & atea det* (Ikaztegieta...).

<sup>166</sup> Bizkaiko sartaldean (Getxo) *indaba* ‘alubia’ (Hualde & Bilbao 1992; Deba ibarrean (Antzuola) *baba gorrixa* (Larrañaga 1998). Beizaman eta Urolaldean ere *baba* erabiltzen da (Gaminde 1996).

<sup>167</sup> Lazkaoko Joxepa Madariagak esandakoa.

• **Izara / maindirea:**

Mendebalean bezala (cf. mend. *isara*), Goierri gehianean *izara* jaso da: Legazpi, Zegama, Idiazabal, Lazkao & Ataun –eta Urolaldea– (Gaminde 1996). Guk Gabirian, Seguran eta Lazkaon *izarea* jaso dugu, baina sortaldean *maindireak*, Tolosaldean bezala: *maindireak* (Zaldibia), *máindirak* (Legorreta), *maindirak* (Ikaztegieta), *maindirek* (Amezqueta), *maindiria* (Tolosa, Izagirre 1967).

• **Jarein ‘utzi, askatu’:**

Debagoiengan erabiltzen den hitz hau (Zuazo 1999c) Goierriko sartaldean ere bada. Legazpin honakoak batu dira: *jare*, *jareieran*, *kateitik jare*, *urei jare*, *ur-jarena*, *kartzelatik jare*; *ederrai jare* ‘ederra bota’, *presei jarein* ‘ixilean gordeak batabatean esan’, *jareiñe* ‘narrasa’, *maldezioi jare*. Zegaman ere jaso da: *jarein* (Azurmendi 1998: 37), eta guk Gabirian eta Seguran bildu dugu: *jare’iozu*; *jareiñ ume auei emendik*; *beiei larrea jarein*; *umeei jarein* (Gabiria); *txakurrari jarein* (Segura).

• **Madarie / udare, txermena:**

Mendebalean bezala (cf. mend. *madari*), Goierriko sartaldean *madari* hitza jaso da: *madarie & negu-madari* (Legazpi). Gabirian *madarie* erabiltzen dute (eta *txermena* ere bai, *madari*-mota berezi bati esateko), baina *udare* ez. Goierri gehianean *txermena* erabiltzen da (Lazkao, Zaldibia, Beizama –eta Urolaldea–, Gaminde 1996). Guk *urdarea* jaso dugu Seguran, *udarea* Lazkaon eta *txermena* Zaldibian. Tolosaldean ere *udare & txermen* erabiltzen dira: *txermena* (Ikaztegieta, Abaltzisketa, Amezqueta, Alegia, Legorreta), *urdarea* (Ibarra, Izagirre 1967).

• **Madura:**

Arabian eta Oñati aldean agertzen den *madura* hitza Seguran ere erabiltzen da: *Segurako madura* ‘valle o vega que se abre bajo el pueblo’ (Izagirre 1994: 22). Guk jaso dugunez, Seguran *madurea* toki zelai zabalari esaten diote. Seguran izan ezik, Goierriko beste inon ez dugu aurkitu.

• **Odei / laiño:**

Goierriko sartaldean *odei* hitza bildu da: Legazpin *odei* (eta *odeilaiño*, *lañapeko odeie*, *itxasodei* ‘trumoi’); Zegaman *odoia* (Azurmendi 1998: 33), Ataunen, XX. mendearen hasieran, *odai* (Azurmendi, J. M., 1996: 70). Urretxun ere jaso da (Izagirre 1967): *odoiya jo do*, *trumoiya jo do*; baina, *trumoe bat*. Hala ere, guk: *laiño* (edo *turmoia*) baino ez dugu aurkitu Goierriin (Gabirian, Seguran...) eta Tolosaldean (Ikaztegieta, Amezqueta, Alegia...).

• *Okelea & aragie:*

Mendebalean bezala (cf. *okela*), Goierrin eta Tolosaldeko hegoaldean *okela* erabiltzen da *aragie* hitzarekin batera (baina zentzu berezia hartzen du): Zegaman eta Ataunen bildu da (Azurmendi, J. M., 1996, 1998). Guk Goierriko sartaldean (Gabiria) eta sortaldean (Lazkao) jaso dugu: *arágie & naiko okela jango'zu* (Legorreta). Tolosaldean ere bada: *onek okel gutxi dauke* (Ikaztegieta).

• *Oste / atze, ondoren:*

Euskal Herriko mendebalean bezala (cf. mend. *oste, ostein, ostekaldian, afalostian, ostiantzian*, Antzuola, Larrañaga 1998: 228-229), Legazpin ere *oste* jaso da (Ugarte 1993: 186): *etxaoste, bazkaloste, afaloste, mendioeste, gabonoste, ezkonoste*. Goierrin –eta Tolosaldean– ez dugu aurkitu ez *oste*, ez *ostera* ezta *osterantzean* ere; horren tokian ondorengoak batu ditugu: *afalondoren, bazkalondoren...* (Lazkao, Zaldibia), *ondoren, berriz 'e / berriro; bestela* (Gabiria)<sup>168</sup>.

• *Prakak / galtzak:*

Mendebalean bezala (cf. mend. *prakak*), *prakak* jaso da Legazpin eta Zegaman –eta Azpeitian– (*EAEL*). Guk *prakak* jaso dugu sartaldean: Gabirian, Seguran, Idiazabalen eta Beasainen<sup>169</sup>. Hitz biak ezagunak dira Zaldibian eta Lazkaon (Zaldibian gehiago erabiltzen da *galtzak* eta Lazkaon, berriz, gehiago erabiltzen da *prakak*). Baina sortaldeko Legorretan *galtzak* baizik ez dugu bildu, Tolosaldean bezala: *galtzak* (Ikaztegieta, Alegia, Amezketa & Tolosa).

• *Zapatue / larunbata:*

Mendebalean bezala (cf. mend. *sapatu*), Goierri gehienez *zapatue* jaso dugu: Gabirian (bakarrik *zapatue*), Seguran, Beasainen, Zegaman, Legazpin (*erramu-zapatue*). Baina Ataunen, XX. mendearen hasieran *zapatue & launbateen* hitzen arteko lehia zegoen (Azurmendi, J. M., 1996). Guk Lazkaon eta Zaldibian lehia aurkitu dugu: *zapatue* (zaharrak) / *lánbata* (Zaldibiako gazteak), *larúnbata* (Lazkaoko gazteak). Legorreta-Abaltzisketatik ipar-ekialderantz *lanbáta* baino ez dugu aurkitu: *lanbat & larunbata* (Legorreta, Ikaztegieta, Amezketa, Alegia...).

---

<sup>168</sup> Baina, itxura denez, *ostera (ere)* ‘berriro’ eta *ostantzian* ‘berriz, aldiz’ ezagunak dira Tolosaldean (K. Oriak esandakoa). *EAEL*-k Tolosaldeko iparraldean eta Beterriin ere jaso du *ostea* (*EAEL II*, Hernani 122, Alkiza 99).

<sup>169</sup> *Prakak* eta *galtzerdik* hitzak erabiltzen dituzte, *galtzak* ez.

• **Beste hitz batzuk** <sup>170</sup>:

*Sobrare* ‘nonbait’: Goierri (Segura-Zaldibia) dagoen hitz hau Ikaztegieta ere erabiltzen da; Goierriko kanpo Burundan ere bada (Zuazo 1995b: 345).

Mendebaleko *artaaziak* (& *guraizak*) jaso da Zegaman (Azurmendi 1998: 97), baina guk Seguran bertan *guraizak* baino ez dugu batu; cf. *guraizak* (Tolosa).

Mendebaleko *bekoki* jaso da Zegaman (Azurmendi 1998: 97), baina guk Seguran *kopeta* baino ez dugu aurkitu; cf. Ikaztegieta *kopeta* baino ez dago.

Mendebaleko *emendau* (& *itzali*) jaso da Legazpin eta Zegaman (Azurmendi 1998: 97 eta *EAEL II*): *zeatik emendatu dezu sue?*; cf. *itzali* (Tolosa...).

Mendebaleko eta erdialdeko *ostu* jaso da Goierri eta Tolosaldean: *oostu* (& *lapurtu*) (Ataun); *ostu* (Ibarra, Izagirre 1967).

Mendebaleko *ganorea*, *ganorabaeko* jaso da Legazpin. Goierri eta Tolosaldean ez dago hitz hori –dena dela, Lapurdin eta Nafarroa Beherean *kanore* dago (I. Caminok esandakoa)–.

Mendebaleko *jaramon ein* jaso da Legazpin. Goierri eta Tolosaldean ez dago hitz hori; cf. *kasu egin*.

• **Goierri eta Tolosaldea mendebaleko euskaltitik urruntzen duten hitzak asko dira** <sup>171</sup>:

*Anai* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *neba* / *anaia* bereizketa.

*Aittu* ‘entzun’: Goierri eta Tolosaldean *entzun* ez da erabiltzen: *aittu* (Gabiria, Segura, Lazkao, Zaldibia, Ikaztegieta, Amezketa, Alegia...). Baina Legazpin jaso da: *entzun* (& *aittu*) –ondoko oharrarekin: «guk geienbat ‘aittu’ itza erabiltzen degu» (Ugarte 1993: 23)– baita Bidanian ere: *entzun du* (*EAEL I*).

*Aille(g)au*, *i(r)itsi*: Goierri eta Tolosaldean *eldu* ez da erabiltzen esanahi horrekin: *allau* (Gabiria), *alleau* (Zaldibia eta Lazkao), *alleatu* (Legorreta), *alleatu* & *iitxi* (Amezketa), *allátu* (Alegia)... Honakoetan agertzen da *eldu*: ‘madurar’ / *oni*

---

<sup>170</sup> XIX. mende amaierako Odriozola legorretarraren hiztegian, erdialdeko euskaltitik urruntzen diren hitz hauek agertzen dira: *escuya* ‘eskubia’, *guraria* eta *gurariduna*, *indibaba*, *ipiñi* eta *ipiñia*, *irten* eta *irtera*, *bearra* ‘lana’ eta *beraguillea*, *beatzchicarra*, *urrean*... Eta 1713an Otxoa de Arin ordiziarrak honakoak erabili zituen: *itaundu*, *ostean*, *bear* ‘lan’, *escui(e)*... (Aranburu, Bidegain, Idiakez & Rezola 1999).

<sup>171</sup> Hitz hauek ez dute eremu bera hartzen: batzuk Bizkaiko sartaldean baizik ez dira erabiltzen, beste batzuk Bizkaia gehienez egon arren Deba ibarrean ez dira ohikoak, eta zenbaitzuk Deba ibarreko toki jakin batzuetan baino ez dira gorde eta galbidean daude. Zegamako eta Ataungo hitzak Azurmendiren liburuetatik jaso ditugu (1998, 1996), Legazpikoak Ugarteren liburukoak dira (1993). Gainerakoei dagokienez, hitza bildu dugun herri baten izena zehaztu dugu, baina Goierri eta Tolosaldean orokorrak dira.

*eldu*. Baina Legazpin jaso da: *garaiz eldu, zartzarora eldu, negu-eldueran* ‘etorre-ran’.

*Anka / oiñ*: Goierri eta Tolosaldean ez da bereizketarik egiten *anka* eta *oinaren* artean, eta *anka* hitza baizik ez da erabiltzen, baina *oñutsik* jaso da Seguran (Etxebarria 1988).

*Aran* ‘ciruela’, baina *oka(ra)n* ez (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *aran* ‘endri-na’ / *okaran* ‘ciruela’ bereizketa.

*Baatza* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *ortu*.

*Baatzuri* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *berakatza*.

*Beatz / atzamar*: Tolosaldean ez da bereizketarik egiten eta *beatz* hitza baizik ez da erabiltzen, bai hanketakoei bai eskuetakoei esateko. Goierriko sartaldean, berriz, bereizketa aurkitu dugu, mendebaleko euskalkian bezala: *atzaparrak & beatza* (Segura).

*Bildu* (& *bittu*, Goierriko sartaldean) (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *batu*.

*Bota* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *bota & jaurti*.

*Bukau, bukatu* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *amaittu, akabau*.

*Erori* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *jausi*.

*Eskale* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *eskeko*.

*Eskubi* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *eskuma*.

*Esnatu* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *itxarri*.

*Gaizto* eta *txar* bereizketa (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *txar* bakarrik.

*Galdetu* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *itaundu*.

*Garó* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *ira*.

*Gosaldu, gosari* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *amorsu*; baina, *amortzue* ‘gosarie’, *amortzatu* (Legazpi).

*Itzal* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *kerispe*.

*Itz egin* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *berba*.

*Izeba* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *izeko*; baina Legazpin *izeko* jaso da.

*Lan* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *bear*.

*Maskurie* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *puxika*.

*Mingañe* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *miña*.

*Nai* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *nai & gura*.

*Nazkau, nazkatu* (Goierri & Tolosaldea); cf. mend. *iguindu*.



*Nekau, nekatu* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *kantzau*; baina *kantsau* & *nekau* (Zegama).

*Nola, nolako* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *sela(n)*, *selako*<sup>172</sup>.

*Oatze* jaso da Zegaman, Nafarroa aldean erabiltzen den *goatze* aldaeraren modukoa, baina *oi* tankerakoak daude Goierriko beste herrietan eta Tolosaldean; cf. mend. & erd. *oe*.

*Ólkie* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *odoloste*.

*Omen, emen* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *ei*.

*Puska* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *apur*; baina, *apurre*, *apurka-apurka*, *apurtxobat* (Legazpi) cf. *pixka, pixke*'at (Goierry & Tolosaldea); baina *ogi apurrek* (Gabria, Lazkao, Amezket, Ibarra...).

*Puskau, puskatu & ausi* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *apurtu*.

*Piztu* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *ixotu*.

*Triku* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *kirikixo*.

*Txilborra* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *sil*.

*Txistu* (Goierry & Tolosaldea); mend. *txu*.

*Urdaiazpiko* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *pernil*.

*Urruti* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *urriñ*; baina, *urriñ* (eta *urrindu*, *urriñeen*, *urriñekoa*, *urriñeatu*...) jaso da Legazpin.

*Zalle* (Goierry & Tolosaldea); cf. mend. *gatx*, *gaitz*.

Egunak:

*astelena, asteaizkena, osteune, ostiala, zapatue, igandea & jaie* (Zegama)

*astelena, asteartia, astieskena, osteguna, ostirala, larunbata, igandia* (Ibarra, Izagirre 1967)

cf. mend. *martitzen* 'astearte', *eguasten* 'asteazken', *éguen* 'ostegun', *bari(xa)ku* 'ostirala', *sápatu, dómeke*.

Hileak:

*ilbeltza, otsaille, mar(t)sue, apiille, maietza, garagarrille* 'ekaina', *uztea / uztaille, abuztua / agostu, agorra* 'iraila', *urrie / urrilleko, azarua, abendue* (Zegama)

*ilbeltzá, otsailla, martxua, api(r)illa, mayetza, garagarrilla, ustaá, agoztuba, agorra, urriya, azarua, abendua* (Tolosa, Ibarra; Izagirre 1967)

cf. mend. *seseil* 'otsail', *marti* 'martxo', *bagil* 'ekain', *garagarri* 'uztail', *semendi* 'azaro'.

---

<sup>172</sup> Marian Bidegainek dioskunez, Zumarraga eta Urretxu inguruko baserrietan *zelan* esaten dute.

## 2.5. ONDORIOAK

Lan honetan Goierriko eta Tolosaldeko hegoaldeko hizkeren bereizgarriak aztertu ditugu.

Alde batetik, nabarmena da mendebaleko euskalkian dagoen ezaugarri-multzo bat, indartsuago edo ahulago, Goierriin dagoela; hala nola,  $-a + a > -ea$  eta  $-e > -a$  bilakabideak;  $-e$ - erroa aditz trinkoen iraganaldian;  $*-a + e > a$  bilakabidea; ablatibo eta motibatiboko  $-ti$  &  $-gati$  aldaerak; *neuk* tankerako izenordainak; *erak* tankerako izenordainak; *egin* erroa Nor-Nork sailean (eta Nor-Nori-Nork sailean); 3. pertsonako  $-e$  pluralgilea; partizipioetako gazt.  $-ado > -au$ ; partizipioetako  $-gi$ ; 'partizipioa +  $-ta$ ' egitura; aditzoina / partizipioa bereizketa eza; *irten*, *igo* eta *jardun* iragankorrak; *\*edun* laguntzaile zereginetara baztertzeko joera; konpletiboetako  $-(e)na$ ; konparazioetako *lain*; *ala* / *edo* bereizketa, eta zenbait aldaera lexiko (*narru*, *altarea*, *bage*, *aapi*, *biun*, *gaztaia*, *kipula*, *keiza*, *kurutza*, *txisea*, *zentzune*...) eta hitz (*abade*, *indaba*, *baba*, *izara*, *jarein*, *madarie*, *odei*, *okelea*, *prakak*, *zapatue*...).

Ezaugarrien hedadudari dagokionez, aldeak daude. Izan ere, bilakabide horietako batzuek Tolosaldeko hegoaldea barruan hartzen dute. Beste batzuek Goierri osoan zabaldu dira, baina kanpoan uzten dute Tolosaldeko hegoaldea. Eta zenbait Goierriko mendebalean baino ez dira gorde. Hain zuzen, Goierriko sartaldeko Zegaman eta Legazpin daude indartsuen bilakabide horiek, eta bertan, gainera, mendebaleko beste bilakabide hauek ere aurkitu ditugu: *Izan-en*  $-a$ - erroa; destinatiboko  $-endako$ ; *eraman* aditzaren *daroot* tankerako adizkiak; Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetako  $d$ -;  $\langle u \rangle$  duen *guntxurriñe*;  $nd$ - duen *txindurrik*;  $\langle d \rangle$  duten *bedarra*, *edurre* eta *idarrak*; *ete*, *alkondara* aldaerak, eta *artaaziak*, *bekoki*, *emendau*... hitzak.

Mendebaleko hizkeretan dauden bereizgarri horiek lokarri bat josi dute Deba ibarraren, Arabako ipar-ekialdearen, Nafarroako ipar-mendebalaren eta Goierriren artean, bereziki Goierriko sartaldean dauden Zegama, Segura, Gabiria alde eta Legazpirekin. Badakigu Zegama eta Segura aldeko lagunek mendiaz bestaldeko herri arabarrekin era askotako hartu-emanak izan dituztela. Era berean, jakin badakigu Gabiria inguruko lagunek, Beasain-Ordiziarako joeraz gain, Legazpi-Zumarragako merkataritza- eta zerbitzu-guneetara isuria dutela. Eta gune horiek badute harremanik mendebaleko euskalkiarekin; hain zuzen, Deba ibarreko hizkerekin. Izan ere, garai batean, Goierri-Urolaldeko eta Deba ibarreko herrien artean zegoen etena nabarmendu bazen ere, itxura denez, gaur egun dena ez da haustura eta aldea, dena ez da harreman-eza eta ezin ulertua, dena ez da bereizkuntza:

«Lezamako hizkeran, esate baterako, arruntak diren ezaugarri asko arrotzak dira Antzuolan, eta alderantziz. Bertatik bertara entzunda dakit antzuolarrek oso gertukotzat dutela urretxuarren, zumarragarren edo azkoitiarren euskara giputza eta urrunekotzat, aldiz, Durangotik sartalderako bizkaitarrena. Bertatik bertara entzunda dakit, era berean, oñatiarrek oso gertukotzat dutela legazpiarren euskara giputza eta urrunekotzat, hauek ere, Durangotik sartalderako bizkaitarrena.» (Zuazok 2000: 70).

Bestaldetik, indartsu daude Goierriin euskara giputzaren bereizgarri gehienak; *-a* berezkoa ez da ia galtzen, eta Goierriko sartaldean *-a-* erroari eutsi diote *izan*-en orainaldiko adizkietan, baina gainerako herrietan *-e-* erroa nagusitu da eta, gainera, guztiz orokorrak dira honako bilakabide hauek: *-e-* erroa *edun*-en orainaldian; *nor / zein > zein* aukera bakarra; *nijoa* tankerako *joan*-en adizkiak; *al* galdera-partikula. Eta indartsuak izan dira *d > r* eta *f > p* bilakabideak, nahiz eta, gaur egun, euskara giputzean bezala, oso ohikoak ez izan gazteriaren jardunean. Era berean, Gipuzkoa gehienez jaso diren *edozein & edozer* izenordain zehaztugabeak eta *zer edo zer, noiz edo noiz* tankerako izenordainak baino ez daude Goierriin; eta indarra dute *ari izan* aditzak eta ozenen osteko txistukariak afrikatzeko joerak. Izan ere, gogoan izan behar dugu XVIII. mendeaz geroztik Gipuzkoako eta, bereziki, Beterriko euskara izan dela lehentasun, indar eta prestigio gehien izan dituen hizkera, eta horren eraginak bete-betean hartu duela aztergai dugun eremua, Goierri eta Tolosaldeko hegoaldea, alegia. Era berean, gogoan izan behar dugu euskara giputzak egindako berrikuntza horietako batzuk Deba ibarreko zenbait lekutara (Debabarrenera) eta Nafarroako mendebalera ere barneratu direla (Zuazo 1999c).

Aitzitik, Euskal Herriko erdigunetik zabaldu diren hainbat berrikuntza ez dira Goierriira iritsi; hain zuzen, honako hauek: /i\_\_+V/ arteko [j] epentesia; /u\_\_+V/ arteko [b] epentesia; *ala / edo* hautakariak *> edo*; hitz-oina *-a + a* mugatzailea (*-a; ea > ia* eta *oa > ua* disimilazioak; partitibo, partizipio, perpaus konpletibo eta modu-perpausetako *-(r)ikan, -(e)nikan* eta *-(e)larikan* aldaerak; ablatibo eta motibatiboko *-(e)tikan, -(e)gatican* aldaerak; 3. pertsonako *-te* pluralgilea; *-ki* aditz atzizkia; partizipio analogikoak; Nor-Nori-Nork-en ordeztu Nor-Nork saileko adizkiak erabiltzea; *bait-* aurrizkia; eta denbora- eta modu-perpausetako *-(e)larik*. Gainera, berrikuntza horietako batzuk eremu zabaletara hedatu dira, hala nola, Gipuzkoako ipar-mendebalera, Deba ibarrera, Bizkaiko ekialdera, Nafarroako iparraldera eta Lapurdiko kostaldera. Baina, aztergai dugun eremuari dagokionez, Tolosan dute amaiera horietatik gehienek.

Beraz, bazterrean geratu da maiz aztergai dugun Gipuzkoako hego-mendebaleko txoko hau eta, gainera hirugarren hari bat harilkatu du noiz edo noiz: Arabako ipar-ekialdearekin lotzen duen haria. Horren bidez, Arabarekin eta Deba ibarrarekin batera ibili da batzuetan. Goierriin dauden mendebaleko ezaugarriak Araban hitz egiten ziren hizkera gehienetara zabaldua zeuden, baina, horietaz gain, honako hauek Arabako ekialdera, Burundara, Deba ibarrera eta Goierriira hedatu dira bereziki: objektu pluralarekiko komunztadura eza; destinatiboko *-endako*; zenbait aldaera (*anrra, zupi...*) eta hitz (*aittejaune, amandrea, madura...*). Horietaz gain, goierriarren bereizgarri diren zenbait bilakabide ere badira: ablatiboko eta motibatiboko *-tio & -gatio* morfemak, mugatzailearen asimilazioa...

Bestalde, Tolosaldeko hegoaldea batzuetan Goierriarekin bat eginda sumatu dugu, bereziki Goierriko sortaldearekin; baina, itxura denez, gero eta gehiago lerra-

tzen da Tolosarantz. Gainera, aurreko mendeetako lekukotasunak aztertuta, argiago azaltzen zaigu Tolosaldeko hegoaldeak Goierriekin eduki duen lotura eta Tolosaldeko sartaldeak Urolaldearekin izan duena<sup>173</sup>. Antza, Tolosaldeko hego-sartaldea mendebaleko hizkerekin elkartzen zuten hizkuntza-ezaugarrietatik asko ezkutatu egin dira bertatik: bokal luzeak; *-a + a > -ea / -aa / -á* bilakabideak; *-ru(n)tz*, *-rusko*; *zeintzuk* izenordaina; *neuk* tankerako izenordainak; *erak* tankerako izenordainak; *egin* erroa Nor-Nork-en; konpletiboetako *-(e)na*. Itxura denez, Tolosaldeko hego-sartaldeko herriek bi joera izan dituzte antzinatik, Goierriakoa eta Tolosarakoa, eta esan liteke gaur egun bi eskualde horien hizkeren arteko zubilana egiten dutela.

Ikusi dugunez, Goierriin ere gaur egun desagertuta dauden edo sartaldean baino gorde ez diren mendebaleko zenbait ezaugarri aurreko mendeetan Goierriko erdialdean ere erabili ziren: erakusleek sustrai bera izatea singularrean eta pluralean; *nor* izenordaina; aditz-izenetako *-tze(e)n* eta *-ten* ingurune zabalagoan; partizipioetan gazt. *-ado > -adu* eta *-idu > -idu*; *irten*, *igo*, *jardun* iragankorrak; *daroot* tankerakoak eta *bi* izenaren eskuinetara jartzea.

Hala, bada, badirudi erdialdeko –Beterriko, Tolosako– ezaugarriek aurrera egin dutela eta egiten dihardutela Goierriin eta Tolosaldeko hego-sartaldean eta, neurri berean, mendebaleko ezaugarriak –eta Goierrikoak– atzeraka ibili direla eta doazela. Litekeena da horrekin guztiarekin hizkuntza-aurreiritzien auziak zerikusirik izatea; hori dela-eta, guk Beterriko euskararen prestigioa eta *Tolosako euskara garbiaren* itzala uztartu nahi izan ditugu Goierriin eta Tolosaldeko hego-sartaldean dagoen joera horrekin.

Baina, hizkuntza-bilakabideak aztertzean, batez ere, toki jakin bateko biztanleek zein alderditako lagunekin dituzten harremanak eta norako joerak dituzten jakitea izaten da garrantzitsua. Tolosarrentzat Donostia izan da herri handirik hurbilena, eta, horrenbestez, horko eragina jaso dute gehienbat; baina Goierriin kontuak bestela gertatu dira: itxura denez, Arabara zein Nafarroara doazen bideak ibili dituzte maiz goierritarrek, Donostiarakoak baino sarriago; hain zuzen, Agurain aldera eta Gasteizera doazenak, eta, gure iritziz, hartu-eman horrek bere lorratza utzi du hizkuntza-gertakizunetan. Zuazok ere honela dio:

<sup>173</sup> Beizama eta Bidania aldean sarritan aurkitu ditugu mendebaleko bilakabideak. Urolaldeari begira dago Beizama, eta Urolaldera, Goierriera bezala, mendebaleko hainbat berrikuntza iritsi dira — ahulago edo indartsuago—. Irizarrek, aditz morfologian oinarrituta, Urolaldeko hizkeren eragin nabarmena sumatu zuen bertan: «El examen de las formas de Beizama permite apreciar que en muchas flexiones, aquellas se apartan sensiblemente de las correspondientes a los restantes pueblos de la subvariedad y se asemejan a los de la variedad de Azpeitia.» (Irizar 1991 I: 253).

«Hegoaldeko ertzian dago Araba, eta berbetan be zerikusixa izan bihar horrek koka-  
guniorrek: arkaismuak gordetzeko batzuetan, eta barrikuntzak sortzeko bestietan.  
Eta, jakiña, Arabarekiñ hartu-emonak izan dittuen alderdixetan be hórrek barrikun-  
tzok agertu egin bihar. Holantxe azalduko neukez, nik neuk, Goierrin eta  
Debagoienian gaurregun diran zenbaitt ezaugarri, ez dalako ahaztu bihar Goierrik be  
Arabarekin mendietan zihar izan daben loturia.» (Zuazo 1999c: 93).

Azkenik, hona hemen azterketa honetan erabilitako hizkuntza-ezaugarrien taula batzuk, lanean esandakoa laburbiltze aldera <sup>174</sup>:

• **Euskara giputzaren bereizgarriak:**

Gipuzkoa gehienez, Deba ibarrak sortaldera dagoen eremuan, garatu diren ezaugarriak. Ezaugarri batzuk inguruetara zabaldu dira (Deba ibarrera, Nafarroako ipar-mendebalera eta Bizkaiko ekialdera).

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
-a berezkoaren egonkortasunik eza <sup>175</sup>	-	-	+	+
-e- erroa <i>edun</i> -en orainaldian	+	+	+	+
-e- erroa <i>izan</i> -en orainaldian	+ / -	+	+	+
Indartsua (izan) da <i>d &gt; r</i> bilakabidea	+	+	+	+
Indartsua (izan) da <i>f &gt; p</i> bilakabidea	+	+	+	+
<i>Nor / zein &gt; zein</i> aukera bakarra	+	+	+	+
<i>Nijoa</i> tankerako <i>joan</i> -en adizkiak	+	+	+	+
<i>Al</i> galdera partikula	+	+	+	+

• **Mendebaleko euskalkiaren ezaugarriak:**

Bizkaiko, Gipuzkoako Deba ibarreko eta Arabako eremu euskalduneko euskalkiaren ezaugarriak. Askotan Gipuzkoako Goierrik, Urolaldeak eta Nafarroako Burundak bat egiten dute multzo honekin.

<sup>174</sup> (+) ikurraren bidez ezaugarri hori galbidean dagoela edo aztarnak besterik ez daudela adierazi nahi dugu; + / - ikurrekin, aldiz, lehia dagoela eman nahi dugu aditzera.

<sup>175</sup> Goierriin -a berezkoa -i bokalaren ondoren baino ez da galtzen.

a) Aztergai dugun eremuan dauden mendebaleko ezaugarriak:

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
<i>-a + a &gt; -ea</i>	+	+	-	-
<i>-e &gt; -a bilakabidea</i>	+	+	-	-
<i>lzan-en -a- erroa</i> <sup>176</sup>	+	-	-	-
<i>*-a + e &gt; a</i>	+	+	+ / -	+ / -
Ablatibo eta motibatiboko				
<i>-ti &amp; -gai</i>	+	+	+	-
<i>Neuk</i> tankerako izenordainak	+ (& <i>neonek</i> )	-	-	-
<i>Erak</i> tankerako izenordainak	+	+	-	-
<i>Zeintzuk</i> tankerako izenordainak	(+)	(+)	-	-
<i>Egin</i> erroa Nor-Nork sailean <sup>177</sup>	+	+	-	-
3. pertsonako <i>-e</i> pluralgilea	+	+	+	+ / -
Partizipioetan				
gazi. <i>-ado &gt; -au</i>	+	+	(+)	-
Partizipioetako <i>-gi</i> <sup>178</sup>	+	(+)	-	-
<i>Irtēn, igo</i> eta <i>jardun</i> iragankorrak <sup>179</sup>	+	-	-	-
<i>Daroot</i> tankerakoak <sup>180</sup>	+	-	-	-
Nor-Nori-Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetako <i>d-</i>	+	-	-	-
Konpleitiboetako <i>-(e)na</i>	+	(+)	-	-
Konparazioetako <i>lain</i>	+	+	(+)	(+)
<i>Ala / edo</i> bereizketa	+	+	-	-
Zenbait aldaera lexiko ( <i>narru, altarea, bage, aapi, biune, gaztaia, kipula, keiza, kurutza, txisea, zentzune...</i> )	+	+ / -	-	-
Zenbait hitz ( <i>abade, indaba, baba, izara, jarein, madarie, odei, okelea, prakak, zapatue...</i> ).	+	+ / -	-	-

<sup>176</sup> *-a-* erroa Zegaman eta Legazpin baino ez da gorde.

<sup>177</sup> Goierri osoan erabiltzen da, ahalerako adizkietan batez ere; sortaldean, *\*ezan* erroko adizkiekin batera.

<sup>178</sup> Goierriko sartaldean *erabai* eta *ebai* daude (baina *jaiki*). Sortaldean, berriz, *erábaki, jeiki* eta *ebai / ebaki* lehia jaso dugu, baina *ebai* zaharrek baino ez dute gorde.

<sup>179</sup> Tolosaldean, *irtēn* eta *jardun* ez dira ohikoak (> *atera da, ari da*). Goierriko sortaldean, *irtēn* erabiltzen da, iragangaitz jokotuta, baina *jardun* ez da ohikoa. Goierriko sartaldean, aditz biak erabiltzen dira: *irtēn* iragankorra da, baina *jardun* aditzarekin lehia dago. *Igo* iragankorra da Goierriko sartaldean, baina Goierriko sortaldean eta Tolosaldean iragangaitz gisa jokutzen da.

<sup>180</sup> Legazpin baino ez dugu aurkitu.

b) Aztergai dugun eremuan ez dauden mendebaleko ezaugarriak:

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
* <i>edun</i> -en - <i>o</i> - erroa	-	-	-	-
-( <i>c</i> ) <i>ión</i> > -( <i>z</i> ) <i>iño</i>	-	-	-	-
Txistukari sail bien neutralizazioa <sup>181</sup>	-	-	-	-
' <i>V</i> + <i>z</i> / <i>tz</i> ' > ' <i>V</i> + <i>x</i> , <i>s</i> / <i>tx</i> ' <sup>182</sup>	-	-	-	-
Soziatiboko - <i>a(ga)z</i> sg. / - <i>akaz</i> pl.	-	-	-	-
Hurbiltze adlatiboko - <i>eru(n)tz</i> <sup>183</sup>	-	-	-	-
Erakusleek sustrai bera singularrean zein pluralean	-	-	-	-
Erakusleak izenaren ezkerretara eta eskuinetara	-	-	-	-
A erakuslea	-	-	-	-
Adberbioetan - <i>n</i>	-	-	-	-
- <i>txo</i> txikigarria beti	-	-	-	-
Nor-Nori saileko adizkietan <i>j</i> -	-	-	-	-
Nor-Nori saileko iraganaldian				
'oraina + - <i>n</i> ' egitura	-	-	-	-
Nor-Nori-Nork saileko <i>etsi</i> erroa	-	-	-	-
* <i>Edun</i> -en hitano alokutiboetako <i>j</i> -	-	-	-	-
2. pertsona pluralean -( <i>i</i> ) <i>e</i>	-	-	-	-
Iraganaldiko adizkietan 3. pertsonetako morfema $\emptyset$ da	-	-	-	-
3. pertsonetako pluralgile bakarra - <i>z</i> -	-	-	-	-
Aditz-izenetan aukera zabala	-	-	-	-
Partizipioetan gazt. - <i>ido</i> > - <i>i(d)u</i>	-	-	-	-
<i>Ari izan</i> eza	-	-	-	-
Inesiboa aditz-izenak mugimenduzko aditzen osagarri direnean	-	-	-	-
<i>lako</i> & <i>lakoxe</i> eta <i>le(ge)z</i> & <i>le(ge)txe</i>	-	-	-	-
Zenbait aldaera lexiko eta hitz	-	-	-	-

<sup>181</sup> Bi gunetan aurkitu dugu, biak hiri garrantzitsuak izandakoak: Goierriko Seguran eta Tolosan.

<sup>182</sup> Salbuespena *aixur* aldaera da, Goierriin eta Tolosaldean erabiltzen dena, Gipuzkoa gehienez legez.

<sup>183</sup> Gaur egun, aditz-lagunetan baino ez da erabiltzen, Gipuzkoa osoan legez.



c) Azken mendeetan ezkutatu diren mendebaleko ezaugarriak:

XVIII. eta XIX. mendean, edo XX. mendearen hasieran, Goierriin, Tolosaldeko hegoaldean eta Urolaldera dauden Tolosaldeko herrietan zeuden mendebaleko hizkuntza-ezaugarriak, gaur egun desagertuta daudenak:

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortalde	Tolosaldeko hego-sartaldea
<i>-a + a &gt; -ea / -aa / -á</i> <sup>184</sup>	+	+	+
Bokal luzeak	+	+	
<i>-e &gt; -a</i> nahasmena <sup>185</sup>	+	+	+
<i>-ru(n)tz, -rusko</i> <sup>186</sup>	+		+
Erakusleek sustrai bera singularrean eta pluralean <sup>187</sup>		+	
<i>Neuk</i> tankerako izenordainak <sup>188</sup>	+	+	+
<i>Erak</i> tankerako izenordainak <sup>189</sup>	+	+	+
<i>Nor</i> izenordaina <sup>190</sup>	+	+	
<i>Zeintzuk</i> izenordaina <sup>191</sup>	+	+	+
<i>Egin</i> erroa Nor-Nork-en <sup>192</sup>	+	+	+
Aditz izenetako <i>-tzé(e)n,</i> <i>-etan</i> eta <i>-ten</i> <sup>193</sup>	+	+	
Gazt. <i>-ado &gt; -adu</i> eta <i>-ido &gt; -idu</i> <sup>194</sup>	+	+	
<i>Irtén, igo, jardun</i> iragankorrak <sup>195</sup>	+	+	+
<i>Daroot</i> tankerakoak <sup>196</sup>		+	
<i>Bi</i> izenaren eskuinetara <sup>197</sup>	+	+	+
Konpletiboetako <i>-(e)na</i> <sup>198</sup>	+	+	+
<i>-(t)zarren</i> eta <i>arren</i> <sup>199</sup>	+	+	+
<i>Altare, denpora, jente...</i> aldaerak <sup>200</sup>	+	+	

<sup>184</sup> *-a + a > -ea* agertzen da Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741). Bonaparteren garaian, *-ea* Tolosaldeko Alegiaraino iristen zen.

<sup>185</sup> Gaur egun, Legorretan ez da oso ohikoa, baina XIX. mendean, Odriozola legorretarraren hiztegian, indartsuago zegoela dirudi. 1913an Lizartzan *txerri kuma* jaso zen, eta 1981ean, Altzo-Txaraman, *andrak*.

<sup>186</sup> Mende hasieran Alegian jaso zuten, eta gaur egun Legazpin *-rusko* bildu da.

<sup>187</sup> XVIII. mende hasierako Otxoa de Arin ordiziarrak (1713) erabili zuten.

<sup>188</sup> Honako hauek erabili zituzten: Otxoa de Arin ordiziarrak XVIII. mendearen hasieran (1713), Zegamako Dotrinan (1741), Gerriko segurarrak (1805. urtearen inguruan, 1858an argitaratutako lanean), eta Beizamako Otaegik XIX. mende hasieran.

<sup>189</sup> XIX. mende hasieran, Beizamako Otaegik horrelakoak erabili zituen.

<sup>190</sup> Ataunen mende hasieran agertzen zen eta *EI*-k Goierriko sartaldea osoan jaso zuen (Ezkio-Itsason, Zaldibian, Idiazabalen, Legazpin, Seguran eta Zegaman). Zegaman oraindik orain jaso da.

• Arabako ipar-ekialdean eta Deba ibarrean dauden ezaugarriak:

Gaur egun mendebaleko euskara Bizkaian, Gipuzkoako Deba ibarrean eta Arabako eremu euskaldunean egiten da, baina, euskara galdu baino lehen, Araba gehienean hizkera hori egiten zen. Goierri azpian dagoen Arabako sortaldeak, hau da, Donemiliaga, Agurain, Iruraitz-Gauna, Maeztu eta Bernedo lerrotik eskuinetara dagoen eremuak, Nafarroako Burundan egiten den euskara bereziarekin du lotura, baita behiala Nafarroako Amekoetan eta Lana haranean egiten zenarekin ere. Alderdi horretako hizkerak tarteko hizkeratzat jo dira, mendebaleko euskalkiaren, erdialdekoaren eta euskara nafarraren tartekotzat (Zuazo 1999b).

---

<sup>191</sup> *El*-k, mende hasieran, Goierri guztian, eta Tolosaldeko Amezketan eta Bedaion jaso zuen.

<sup>192</sup> Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741) *egin* eta \**ezan* erroak agertzen dira (Lakarra 1996). XIX. mende hasieran, Beizamako Otaegik bi erroak erabili zituen Nork-Nork sailean, Bonapartek itzularazitako Tolosako dotrinan *dezakegu & daikegu* lehia agertzen da ahaleran.

<sup>193</sup> Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741), *-n* eta *-r* atzetik *-ten* erabili zuten. Izagirrek Goierriko sartaldean *-tzéen* jaso zuen: Zegaman, Seguran, Idiazabalen. Mende hasieran, Ataunen agertzen da. Zegaman *-etan* morfemaren aztarnak jaso dira.

<sup>194</sup> Otxoa de Arin ordiziarrak (1713) *-du* erabili zuen batzuetan, eta Zegamako Dotrinan (1741) *-du* ugariagoa da *-tu* baino (Lakarra 1985: 12).

<sup>195</sup> Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan (1713) eta Zegamako Dotrinan (1741) *igo* iragankorra da. XIX. mendearen hasieran Otaegi beizamarrak *irten*, *igo* eta *jardun* iragankor zein iragangaitz gisa jokatu zituen. *Irten* iragankorra orain duen baino esparru zabalagoan jaso da: Goierriko sortaldean dagoen Legorretan.

<sup>196</sup> Otxoa de Arin ordiziarrak (1713) horixe erabili zuen: *eroan, daroagu* (Aranburu 1999: 109).

<sup>197</sup> Gaur egun Goierriin erabilera hori galduta dago. Dena dela, Legazpin eta Zegaman oraindik orain hainbat adibide jaso da, eta mende hasieran Ataunen eta XIX. mendearen hasieran Beizamako Otaegirengan izenaren eskuinetara zein ezkerretara agertzen zen. 1913an, Lizartzan izenaren eskuinetara jaso zen.

<sup>198</sup> XVIII. mendean, Zegamako Dotrinan (1741), *-na* morfema erabil zitekeen testuinguruetan, *-la* nahiz *-na* paratu zituzten (bereizketa argirik egin gabe, alegia), eta Otxoa de Arinek (1713), ingurune horietan, *-na* erabili zuen (Lakarra 1985: 153-154). Mende hasieran Ataunen agertzen da; XIX. mendearen hasieran Beizamako Otaegik sarritan erabili zuen; Bonapartek itzularazitako Tolosako dotrinan ere agertzen da, baita Asteasuko Mikaela Elizegiren kontakizunetan ere.

<sup>199</sup> Oraindik orain, Legazpin *-r(ze)arren* jaso da; Legorretako Odriozolak *arren* kontzesiboa jaso zuen; eta XIX. mendearen hasieran, Beizamako Otaegik ‘partzipioa + *arren*’ eta *arren* kontzesiboa erabili zituen.

<sup>200</sup> Otxoa de Arin ordiziarraren dotrinan horiexek agertzen dira, XVIII. mendearen hasieran (1713). *Altarea*, gaur egun, Goierriko leku askotan erabiltzen da.

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
Objektu pluralarekiko komunztadura eza	+	+	-	-
Destinatiboko <i>-endako</i> <sup>201</sup>	+	-	-	-
Zenbait aldaera eta hitz ( <i>anrra, aittejaune, amandrea, madura, zupi...</i> )	+	-	-	-

• **Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko ezaugarriak:**

Euskal Herriko mendebalak (Bizkaiko, Gipuzkoako Deba ibarreko eta Arabako eremu euskalduneko euskalkiak) eta erdialdeak (Gipuzkoa gehieneko eta Nafarroako mendebaleko –Basaburua gehiena, Araitz, Imotz eta Larraun)– euskalkiak) batera dituzten ezaugarriak.

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
Ablatibo mugagabe eta pluraleko <i>-(e)tatik</i>	+	+	+	+
' <i>Baten bat</i> ' egiturako izenordain zehaztugabeak	+	+	+	+
Aditz trinkoen iraganaldian <i>-e</i> - erroa	+	+	+ / -	+ / -
Aditzoinik eza	+	+	+ / -	+ / -
'Partizipioa + <i>-ta</i> ' egitura	+	+	+	+
Perpauk konpletiboetako <i>-(e)nik</i> morfema	+	+	+	+
Denbora eta modu perpausetako <i>-(e)la</i>	+	+	+	+
Kausa perpausetako 'aditza + <i>eta</i> ' eta ' <i>-(e)la eta</i> '	+	+	+	+
<i>Egin</i> aditz indargarria	+	+	+	+
* <i>Edu</i> n laguntzaile zereginetara baztertuta	+	+	+	+

<sup>201</sup> Legazpin eta Zegaman baino ez dugu bildu.

• **Euskal Herriko erdigunetik** <sup>202</sup> **eremu zabalera hedatu diren ezaugarriak:**

Euskal Herri gehienean agertzen diren ezaugarriak, bazter hizkeretan izan ezik (mendebaleko hizkerak, zuberera, erronkaria eta zaraitzuera, eta, batzuetan, Burundakoa eta Goierrikoa).

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
Hitz-oina <i>-a + a</i> mugatzailea → <i>-a</i>	-	-	+	+
Nor-Nori-Nork-en eta trinkoen hitano alokutiboetako 3. pertsonetan <i>z-</i>	- / +	+	+	+
Ablatibo singularreko <i>-(e)tik</i> eta motibatiboko <i>-gatik</i>	+	+	+	+
<i>-(r)ikan, -(e)nikan, -(e)larikan</i>	-	-	-	(+)
Ablatibo eta motibatiboko <i>-(e)nikan, -(e)gantikan</i>	-	-	+	+
3. pertsonako eta aditz iragankorretako 2. pertsonako <i>-te</i> pluralgilea	-	-	-	+ / -
Aditz iragangaitzetako 2. pertsonako <i>-te</i> pluralgilea	+	+	+	+
Aditz-izenetako <i>-tzen / -ten</i> aldaerak	+	+	+	+
<i>-ki</i> aditz atzizkia	-	-	-	-

<sup>202</sup> *Erdigunea*: Gipuzkoa gehiena, Lapurdiko kostaldea eta Nafarroako mendebala.

• **Euskal Herriko erdigunetik eremu murriztera zabaldu diren ezaugarriak:**

Gipuzkoa gehienez, Lapurdiko itsasaldean, Nafarroako mendebalean eta Bizkaiko ekialdean garatu diren ezaugarriak.

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
<i>li_ +V/ arteko [j] epentesia</i>	-	-	-	+
<i>/u_ +V/ arteko [b] epentesia</i>	-	-	-	(+)
Asimilazio bustidura indartsua	+	+	+	+
Genitibo singularrean <i>-aren &gt; -ain</i>	-	-	-	-
Nor-Nori-Nork-eko *-i- erroa	+	+	+	+
Partizipio burutu gabea duten ahalerazko egitura perifrastikoak <sup>203</sup>	-	-	-	-
<i>Ala / edo hautakariak &gt; edo</i>	-	-	+	+

• **Nafarroako mendebaleko hizkeren ezaugarri batzuk:**

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
Aferesiak eta sinkopak <sup>204</sup>	(+)	-	-	-
<i>U &gt; o</i> eta <i>i &gt; e</i> <sup>205</sup>	(+)	(+)	-	-
Aditzetako <i>-a</i> pluralgilea	-	+ / -	+ / -	-
Konparazioetako <i>-agoko</i>	-	(+)	-	(+)
N-N-N-eko <i>-it-</i> pluralgilea	-	-	-	-

• **Hego Euskal Herri osokoak diren ezaugarriak:**

Hego Euskal Herri gehienera zabaldu dira, baina Ipar Euskal Herrian ez dira agertzen.

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
' <i>a &gt; e / i, u (C)_</i> ' asimilazioa	+	+	+	-
[x] fonema	+	+	+	+
Erdal <i>-onem &gt; -oia, -ona</i>	+	+	+	+
' <i>Berori / ori + 3. pertsonako adizkia</i> ' begirunezko tratamenduan	+	+	+	+

<sup>203</sup> Aztergai dugun eremuan, ahaleran *\*ezan & egin* eta *\*edin* erroko adizkiak erabiltzen dira, ekialderago agertzen den *ikusten a(ha)l dut* egituraren ordean.

<sup>204</sup> Gertakariarik nabarmenena Goierriko sartaldean partizipioaren *-i* bokalaren sinkopa egiten dela da.

<sup>205</sup> Goierriin *u > o* bilakabidea baino ez dugu aurkitu; batez ere *\*edun*-en adizkietan agertzen da.

• Gipuzkoako ipar-ekialdean dauden ezaugarriak:

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
<i>-a + a &gt; -a</i>	-	-	+	+
<i>*-a + e &gt; e</i>	-	-	+ / -	+ / -
Trinkoen iraganaldian <i>-a- ea &gt; ia</i> eta <i>oa &gt; ua</i>	-	-	+ / -	+ / -
Hiatoetako epentesiak	-	-	-	+
Ablatibo eta motibatiboko <i>-tikan</i> eta <i>-gaitkan</i>	-	-	+	+
<i>-(r)jikan, -(e)nikan, -(e)larikan</i>	-	-	-	(+)
<i>-ki</i> osagaia adberbioetan	-	-	-	-
Nor-Nork sailekoen ordezkariak	-	-	-	(+)
Aditzetako <i>-te</i> pluralgilea	-	-	-	+ / -
Partizipio analogikoak	-	-	(+)	+
<i>Bait-</i> kausa-balioaz	-	(+)	+	+
<i>Bait-</i> erlatibo-balioaz	-	-	-	-
<i>-(e)la</i> & <i>-(e)larik</i> denborazko eta moduzko perpausetan	-	-	-	-
Aditzoina / partizipioa bereizketa	-	-	+ / -	+ / -
Denbora- eta modu- perpausetako <i>-(e)larik</i>	-	-	-	-

• Gipuzkoako hego-sartaldean dauden ezaugarriak:

Ezaugarriak	Goierriko sartaldea	Goierriko sortaldea	Tolosaldeko hegoaldea	Tolosaldeko iparraldea
'a > e / i, u (C)_' asimilazioa	+	+	+	-
-a + a > -ea (-aa / -d)	+	+	-	-
-e > -a bilakaera	+	+	-	-
Hiatoetako epentesi eza	+	+	+	-
Mugatzailearen asimilazioa	+	+	+	+ / -
<i>Izan-en -a- erroa (gara...)</i>	+	-	-	-
Trinkoen iraganaldian -e-	+	+	+ / -	+ / -
*-a + e > a	+	+	+ / -	+ / -
Ablatibo eta motibatiboko -ti eta -gati	+	+	+	-
Ablatibo eta motibatiboko -tio eta -gatio	+	+	(+)	-
Destinatiboko -endako	+	-	-	-
<i>Neuk</i> tankerako izenordainak	+	-	-	-
<i>Erak</i> tankerako izenordainak	+	+	-	-
<i>Zeintzuk</i> tankerakoak	(+)	(+)	-	-
<i>Egin</i> erroa Nor-Nork sailean	+	+	-	-
Partizipioetan gazt. -ado > -a(d)u eta -atu > -au	+	+	(+)	-
3. pertsonako -e pluralgilea	+	+	+	+ / -
<i>Irien / igo</i> iragankorrak	+	-	-	-
Partizipioetako -gi	+	(+)	-	-
'Partizipioa + -ta' egitura	+	+	+	+
Objektu pluralarekiko komuntadura eza	+	+	-	-
Perpaus kompletiboetako -ena	+	(+)	-	-
Konparazio-perpausetako <i>lain</i>	+	+	(+)	(+)
<i>Ala / edo</i> bereizketa	+	+	-	-
Zenbait aldaera eta hitz	+	+ / -	-	-

## 2.6. GOIERRIKO ETA TOLOSALDEKO HIZKERAK

### 2.6.1. Zegamako hizkera

Zegamako Nikolas Zabaletari jaso, 1993ko apirilaren 8an <sup>206</sup>.

#### Salbatierrako feriak

Gue atte Salbatierrâ noiznai juten tzan.

Goizen lauretako irten etxeti ta gauen amaikatako beiz ê etxen izaten tzan.

Salbatierrako feritâ 14 eo 15 bat urte bete nituneti ni re eamate' nitun.

Goizen lauretako etxeti irten da Sandratiko kuebati Araban sartze' giñen oñez. Zalduondon aman aizpa genduken da aren etxen gosaldu ta ekite' giوندun bidei.

Gue attek Arabako bidek eta terrenok ondo ezautzen tzitun, segatan gaztetan lur âtan danetan ibillie zan da morroi ê eon tzan erderaz ikasten urtetan.

Arabian garibaitzea itaiekiñ eiten tzuen gue atten denboran da gero go re bai.

Araba-belarra esaten tzikon belar bat garilastok ia erdiaño eukitzen tzon da gari soron segaik sartzeik etzan eoten.

Garai âtako goldak etzien gerokok bezelakok.

Arabian etzan laian eiten, sallek ê aundik eta egurrezko aga lodi'ati muturren errerok eindako burnizko punta'at jarri ta ura izaten tzan goldea, arekin lurre pixka'at urratzen zuen satorrak bezela.

Araba-belar ori garie baño lën indartzen tzan da gariñ gerriaño azten tzan. Golda kaxkar ak belar oni etzien zuztarrrik austen. Gue attek esaten tzon, îtan belar onen gañeti ebaitzen tzuela garie, burue ta lasto pixka'atekiñ.

Arabian lastoik etzan aprobeztatzen.

Arabian golda berriai eskerrak labrantzea pixten asi zala esaten tzon gue atxe zanak.

Arabako lurre lur zurie eo lur gorrie da. Giro onakiñ oso lur gozoa'a. Gu Salbatierrako feria Zalduondoti oñez juten giñen, oaiñ kamiñok einda dare baño ordun sorok barrena jute' giñen oñez. Eurie einda balin bazion, ankatan sekulako lur pillea peatzen tzikun da pausoik eman ezinda geatzen giñen.

Gipuzkoan die lur lodik.

---

<sup>206</sup> Xabier Azurmendik jaso (Azurmendi, J. M., 1998, *Zegamako euskara*, 162-163).



Arabako lurrek zelaiek die, eiten don eurie lurrek txupatzen do, ez emen bezela, eurie danen baztar guzik erreka. Lurrei azala sekau ati bean umedadea geatzen tzako. Esponjek bezela lurrek ur dana eraten do.

Arabako nekazarian ongilleik aundiñak Ajuria ta Aranzabal izan tzien, ok sartu zituen golda berrik.

Europati ekarri goldak eta emen saltzen tzituen. Erak ê dirue eingo zuen baño jendei bentaje edarra re ein tzien.

Golda ok aundik tzien da Araba-belarrai zañek puskatzen tzien. Ola galdu zan sorotan belar au.

Salbatierrâ allatzen giñenen lêngengo ferie ikuste' gendun.

Tabernak ê asko etzeren ordun da jende asko izaten tzan.

Bazkarie induabea ta azea odolकिन da gañen ardiki pixkan bat eta kito izaten tzan.

Orduako mâtsa ta pipar aundik eoten tzien saltzen.

Gue attek panaderia jun da kiloko ogie erosten tzon, beste kilo paren bat mâts ê bai ta an plaza baztarren ogie ta mâtsa jan da gue bazkarie ura izaten tzan.

Gue atte zanak poltxikon emakumean buruko pañueloa eamaten tzon. Mâts pixka'at eta piparraundin batzuk artu pañuelon, pardela ein da gauen amaikak aldeako Altziturriñ izate' giñen.

Garai artan Zeaman mâtsa gauza aundie zan, frutaik etzan txorikeizak eo sagarren batzuk kendu ezkio.

Agustiña naparra esaten tzien emakuma aundi'at asto beltz aundi batekiñ etortzen tzan Zeamâ. Astataskitan ekartzen tzitun txermiñan batzuk, pipar aundik, mâtsa ta tomaten batzuk.

Asto beltzan gañen jarrita azaltzen tzan Zeaman. "Agustiña naparra, tomatea ta piparra", otseñez etortzen tzan.

Txermiña aundik bakoitze bost xentimon, txikik bazien txakur aundiñ iru saltzen tzitun.

Beste frutaik etzan emen ezautzen sasikeizan batzuk izan ezik. Jaiero etortzen tzan Agustiña naparra ta Zeamako mâts, pipar da tomatek arek ekartze tzitun.

Etxek ematen tzona jaten tzan emen. Frutaik etzan, berduraik ê ez. Agustiña naparrak janarie zeozer aldatzen tzon Zeaman garai âtan

**Zegamako Joxe Alustizari jaso, 1980ko uztailaren 7an** <sup>207</sup>.

**Barriola**

Zeamako Artzak Aixkoneta biali zôn bein Bitorira diru billa, garai artan gertuane-  
neko bankue Bitorî' mentzan.

Aixkoneta au euzkikin etxeti irten da euzkikin etxea sartze mentzan, Bitoriti jûn  
etorrie ein da gero.

Arabako lanak ein da etxea zetorrela, San Adriango pason, Barriolan bildurrez,  
diru poltsea pago zulo'aten gorde zon.

Ontan Barriolakin topo ein tzôn.

–Artzan enkargûn batekin ibilko aiz? Galdetu zion.

–Ez motel, Arabâ jû' nauk txerri koxkor bat erostea, jokûn asi ta asi banauk asi,  
diru danak galdu zituat. Emen netorrek ez diru ta ez txerri.

–Bazekiat, esan tzion Barriolak, Artza nê kontra soldadûk bialtzeko dallêla, ba  
esaiok, nê koadrillekiñ jaixten banauk, eztola nei soldadûk bialtzen lanik izango.

Bestei' pê izkutu mentzan ikazkiñe.

Aixkoneta, gorde zôn poltsea artu ta laixter mentzan Artzan etxên.

Artzak galdetu mentzion:

–Barriola ikusi al dek?

–Bai.

–Ordûn eztek diruik ekarko?

–Emen dirue, ta Aixkonetak poltsea mai gañea bota mentzion.

Eman mentzion Barriolan enkargue re, alegie, bê koadrillêkin etortzen bazan  
Zeamâ, etzola ari soldadûk bialtzen lanik izango.

Artzak esa mentzion Aixkonetai:

–Jungo al itzeke beiz San Adriana?

Aixkonetak baietz.

–Emaiok Barriolai milla erreal ôk eta esaïok ni enallêla ari soldadûk biali asmô-  
tan.

Aizkenen beintzet, soldadûk etorri ta arrapau mentzuen Barriolan koadrillea.  
Bera laun batekin iges ein da gorde mentzan.

---

<sup>207</sup> Xabier Azurmendik jaso. Artzatarrak Zegaman urte askoan bertako sendi bat izan ziren. Sendi honetakoren bat izaten zen sarritan herriko alkate (Azurmendi, X., 1996, *San Adrian eta inguru*en *Kondaira*, 146-147).

Barriolan laune, jan billa irten tzon baten, arrapau ein tzuen, da au beartuz Barriolan gordelekua soldaûk allau zien.

Bê launekiñ urkatuik izan bear tzuen gizajoa.

Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzionan istorîk ôla akâu mentzien

## 2.6.2. Segurako hizkera

**Laureano Telleria Ordozgoiti, 1935ean Seguran jaioa, kalekoa. 2000ko abuztuaren 29an egindako grabazioa**<sup>208</sup>.

### Gerra garaia

Gu gea mixeri garaïkok, ni neu milla beatzireun da oeitamabosten jaiotakoa naiz, eta emen gerra ondoena nik sei urtekiñ arrapatu non, eta ordun mixeri gorrie izaten'tzan kalen. Guk kalen ezkendun ezer izaten, ogi beltza, boniato re jate gendun ogiñ ordez, etzan eoten... dana razionamentun-da, gu gose dezente pasatuak gea. Baserriñ, *en cambio*, ba, izaten'tzan, ba... txerrie iltzen'tzan, ollon bat o beste re bai ta arrautzak, eta baserrin lujuik etzan izaten baño goserik ez. Baño kalen, kale gorrin, buenoo! gu zazpi laun giñen da mixeri gorrie ikusi genun, da guk bezela edade artako jende danak, emen da beste erritan e bai.

### Jolasak

Ordun ezer etzan, oain, bakizu telebista dala ta dana naasten die, baño ordun nik uste't jolasak asmau itten giñuztela, eta jolasak nik baittut apuntauta igoal ogei o oetamar jolas-klase, bai... Ordun jendek, oseake guk, nik eztaitt... oaiñ itten ezta-na itten gendun, ba, gauzak asmau, asmau. Oain dana inda ematen'tzaigu, dana inda. Ordun mendia jun-da, txabolak ein-da, txirula mouko txilibutukin, makillakiñ ein-da, tiraomak-eta, oseake geio lantzen'tzan ordun gauza ori. Oain ya, oingo umek ez tue... osea dana inda ikusten due ta ez tue asmatzen. Geo jolasak e bai, joa-lasak asmau itten'tzien... Pilla'at dittut nik apuntauta, mordo'at dauzket, jolasak: aideketan... arrapatzeketan, pajakotan, pasantotan, sokatiran e bai, danak!... Makillaketan izaten'tzan makillakin zirie bezela puntak zorroztu ta...

–Jx.: ...zea, lurren sartzea...

...bai lurren sartzea, bai. Kanikatan-da... baakizu ze mixerie zan! Oain kanikak ikuste'ittuzu eskaparatan-da, pilla ikuste'ittuzu, txuri, gorrik, e, kristalezkok... Ordun e ambesteko mixerie zan emen, bustiñekiñ ein, kanikak buziñekiñ, da eskun borobildu eta panaderiko laben jartze giñuzen, eta an aitze giñen kaniketan.

<sup>208</sup> Tarteka Joxepa Madariaga (Jx.) lazkaotarrak hitz egiten du.

–Jx.: Geo pintau itte al zittuzuen?

Bai, pintau itte giñuzten, pinturan bat arrapatze bagenun nunbait, pintau e bai...

–Jx.: Baño, aik zuen balioa...

Bai, aik'tzuen balioa, bai... zeak, pelotak e igoal... Baloia akordatze naiz ni, gure garaien, gure garaien... oain ya etxe guztitan... dozena bat baloi ikusten die... Ordun, trapukiñ itte zun gure amak baloiak. Arropa zaarra o, koltxoi azalen batekin-da, lotu-lotu-lotu ein, lotu sokeakin-da ta arekin...

Baño, esaten dana, esaten dana, inprobisau, askoz geio itten gendun, bai, bai, asmatzen gendun... esate'izut'pa ... mendia jun-da, txabolak ein-da, tiagomak-eta, txilibituk ein-da... Zeakiñ akordatze naiz ni, albertxigun ezurrekiñ, gastau ta arekiñ, barrutik mamie ta, beste txulo txiki bat ein, da ola, txistue jotze gendun arekiñ, oseake asmatze genun dana.

–Jx.: Bizikletea?

Jo, bizikletea! bizikletaik etzan ordun! bizikletea bakarren bat gue garaien... Gure aittek zon bizikletea...

### **Garai batean, apaizen sermoia entzun ondoren...**

...Geo gurasok etortze'tzuen etxea, buenoo, buenoo! Aimarikoak jota, "aimarikoak" esate gendun guk gaueko kanpaiak, emen "aimarikoak" esaten da... Aimarikoak jota etortze baziñen, eskandalua baño ikeragarrie, ikeragarrie! Ni aittuta nao Segurako bateri, emakuma zaar batei, bueno... Segurako ospitalen ilda gañea, bea zan izatez, Mutillokoak zan, emen eon'tzan neskame urte askoan... Bueno, arek esaten'tzon San Pedrotan Mutilloko festak eta, kao, San Pedrotan aimarikoak, ba... atean argi... atean argi. Ba, arek esaten'tzon aimarikoak jo eta amar miñutua jungo zala Mutilgo plazatik etxea. Arek esaten'tzon, aitte esku baten kurutzea, ta besteen atalagea, "atalagea" esaten'tzaio emen, emen esaten'tzaio ateen atzeko ageai... Atalagea eskun, belauniko jarri, esan'tzon emakuma arek, "jesukristo nere jauna" errezau... "jesukristo nere jauna", bueno, ba, otoitz bat, ezta?... Ua errezau, krutzei muñ eman eraiñ, bizkarra berotu ondo eta oia... San Pedrotan... Oi guk ezautu dea, e! nik ezautu det emakuma oi... San Pedrotan, aimarikoak jo ta geo etxea jun bear...

–Jx.: ...kenduko zitzaien gogoa urruna ere...

...eta ni ikusita nao, gu gaztek giñela, neskak baltseon ikusi, aitte etorri, artu neskea eta eskutau ta etxaa eman...

–Jx.: ...epelak ematea an e...

Oin, beiz, oain goizeko orduak arte irtetzen due, eta, bueno, eztaite obea zein'tzan, ua etzan ona, e! ua etzan ona!... Eta au e... pixkat beste alderdia jun gea baño... diferentzi ikeragarrie!

*–Ordun garai artan festak egunez izango zien...*

Bai, egunez izaten'tzien festak, nik baauket programa bat milla beatzireun da seikoa, San Joanetakoa, Segurakoa, ta goizen bostek eta laurdenetan..., ez, bosterditan izate'tzan... diana jotze zala, txistulariena, bosterditan... Oaiñ e bai jotzen due diana, baño gaeuz eon da gero!

–Jx.: ...bai baño bosterditan garaizegi da, beanduxego...

...bai ta beranduxeo re bai izaten die. Eta bosterditan diana izaten'tzan... eta gero amaikak arte izaten'tzan, amaikak arte bai, San Joanetan, geo ya aten argi... amaiketan ya, oera... Oseake, aldaketa gure garaien ikeagarrie, ikeragarrie! bueno, elizaldetik, giroaldetik, festa aldetik...

### **San Nikolas txiki**

Bai, bai, Segura... nik uste't errie oso tradizionala dala, bai, Aste Santua re bai, eta gero San Nikolas txiki re eitten deu... San Nikolas txiki itten deu, e, ori etorriko da Seguran... berreun bat urte ontan beintzet bai, urtero itten da gañea. Emen izan da gauza bat... tradizioa ta jende batek eutsi'io orri... San Nikolasen asuntua da, ba,... obispo janzten da motiko txiki bat, bost bat urteko motiko bat obispo janzten da. Lenengo, elizan meza izaten da, eta... bueno, ume-meza bat. Eta gero mezatatik irten eta zaldi baten gañen jarri, leen zaldi aundi bat izaten'tzan, oain pottoka oitakoa, zaldi txiki baten gañen jarri, eta juten da kale barrenea. Eta kale barrenen asten da ya kantatzen, erriko umea'danak, obispo jantzitako mutill orren atzetik, eta orrek asera ematen dio, kantu bat'pau, euskerazko kantu bat, len erdez kantatzen genun, oaiñ euskerazkoa dao, eta orrek markatzen do zaldi txikin gañetik, aittaren iñez, guk "aittaren" esate deu, gurutze eiñez... Geo kantatzen asten die. Kantea bukatzen duen garaien, balkoitatik emakumak botatzen dittue gauzak. Len garai baten izaten'tzan... diruik etzan izaten... gauza jakiñe izate zan, garaiko frutuk izaten'tzien, intxaurrek, urrek, pikuk, mandarina batzuk ematen'tzien... eta ura leiota-tik botatze zan. Etxetan kantau, bi o iru etxetan, ola, paren tokatzen'tzerenak... eta olaxe erri guztie pasa bear ,ordu pare baten izaten da. Eta azkenen, guk "bikario" esaten deun... Erretoretxe, Bikarioetxen ya bukatzen da. Bikarioetxen ya bukaerea, an bota... Eta orrek segitzen do, tradizio orrek, ba, nik nere aitonari aitzen nion, bera nola ibiltzen'tzan bere aitonakin, nola ibiltzen dan, eskuti elduta nola ibiltzen'tzan...

### 2.6.3. Idiazabalgo hizkera

**Pilar eta Angel Imaz Aseginolaza, 1914an eta 1908an jaiok, hurrenez hurren, Idiazabalen, Arizkorreta baserrian. 1998ko apirilaren 4an egindako grabazioa** <sup>209</sup>.

#### **Bizkaia aldean gaztaia egiten eta saltzen**

–Pilar: Nik gaztaie saldu bear izate non, ango izketea oso diferentea nola dan, ba, erderaz defenditze nitzen. Da esa'non “ementxe ikasiko diat nik erderaz ederkiki”. Maixtrak etzigun guri euskeraz eitten, eta eskolaik ezkenun ikasi, ezkintzen jun da, beti kaxkarrekok ugari guk, eztakizu ondo, eskola jute gintzenen... An larreik, emen etzeon izaten larreik eta, an eoten gintzen, ba, oseake, jute gintzen eneron eta etortze gintzen, ara, apiillen...

Bueno, Idiazabala etorri gintzen e, zea, nik oeta'at urte ero neuzken, oeta bat urte eo, ni oetabi..., ni fabrikan asi nitzen gero.

–INK.: Andik etorri eta fabrika...

–Pilar: Fabrika ju' nitzen, ok etzidaen utzi nai izan baño, nik nere burua gaizki antzen ikuste non.

–INK.: Oixe, artzaie ta...

–Pilar: Bai, eta, danak demanda an baño, ni fabrikan asi da, emen beatzi urte ein dittut fabrikan.

#### **Artaldea**

–Angel: ...eun da larogein bat ingurue o ola, batzutan geixo o gutxixean o, inguru ortan...

–Pilar: ...zeatik anaie... bestea re, ardiekiñ eoten'tzan, irureunen bat pasatxo ero, lareun o olakon bat izango ziin. Bittan, erdibana ibiltze nitzen.

–INK.: Eta zuen ustez zer da artzai izaten, ola, aldeik onena o polittena?

–Angel: Obena... ogein bat urteati oetamar urte arte polittena izango'a, bai... Zea, latzeena...

–Pilar: Arkuma garaie...

–Angel: Ba, arkumak daren garaie, latzena ordun, lana geiena, jaiio berrin, jaiotze ondun, otsaille ta ori, deskantsatzen-da gauen jaiki ta...

---

<sup>209</sup> Aloña Galarraga idiazabaldarrak egindako grabazioa. INK.: inkestatzaile. Angel duela bi urte hil zen eta Pilar Etxegarateko Bentan bizi da orain.

## Gaztaia egiten

–Pilar: Leenago, ordubik inguru artatik estutze aitze gintzen gu, ez oain bezela makiñakin-da, gero, gero jarri zien, gue denboan, gero jarri zien prentsak eo... Eta gaztaia... esnea eman, erain, bajau eta etaatzen'tzan, bueno, zemat gaztai orrenbeste, eta estutu ta estutu moittu bear. Gero, atximurkau ta leundu gero eitten'tzittuen. Geo gu estutzen aitze gintzen, jota ausi! goizen ordubik arte ta! ...Eta gero, ara, zea, ok, anaiek-eta orik, ara, zaintzen'tzittuen, leuntzen'tzittuen eta geo gatzta eman. Baño, gaztaiak zemat buelta eta zemat traste!

### **Bautista Oiarbide, 1907an Idiazabalén jaioa, Soraluze baserrian. 1998ko apirilaren 4an egindako grabazioa**<sup>210</sup>.

...beti emetik kanpoa, emen e alamouzko lekuik etzeon ordun danak labratu eiten'tzien-da...

–1. INK.: Pilarrek eta Angelek esan'tziguén emen alamouzko larreik etzala izaten...

Dana labratu eiten'tzan-da, emen ordun danak, aldapaik aundiña re, laie egiñ eo dana labrau ta artoa eo induabea o oi eitten aritzen'tzan-da, etzan emen larreik-eta izaten.

–1. INK.: Zemat urtekiñ asi ziñen artzai?

Oetabostekiñ asi nintzen, da iruroetabostekin utzi.

–1. INK.: Urte mordo die orik...

Bai, asi nitzen, asi nitzen da, aik ibili ein bear, bein asitta seittu ein bear, bein utzi, zea erreza izaten da, baño, besteko moduik e'neuken da antxe seittu.

–1. INK.: Eta, ze, artzai mundutik, ola, zer da ola gauzaik latzena o goorrena?

Artzaiena? laneena? Antxe, an ondoon eotea, lanik goorrenxona.

–1. INK.: Egoaldi ona izan txarra izan, antxe aittu bearra...

Bai, baño udaran izaten die, eun bat eo bi o aldeñaati inportantziaik ez dionak, baño beintzet neguun bai. Neguun, gauen e bai askotan, arkumak jaoitze ai diela o au dala o oi dala, gauen e bixkat atendittu bearra izaten due, da eunez e, zer esanik ez dao.

–1. INK.: Guri, zeak, Lizardiko Tomasek kontatzen'tziguén, kontau zigun nola, ba leno otsoa-ta bildurre izaten'tzala, ta askotan, ba, gauek e esnai pasau bearra-ta... An e izaten al'tzin olako bildurrek o?

---

<sup>210</sup> Aloña Galarraga idiazabaldarrak egindako grabazioa. INK.: inkestatzaile.

Ez, ez otsokin ez..., axarik bai, axarik arkumak itto-ta itten'tzixkiuen, baño otsoik-eta ezteu ezautu emen.

-2. INK.: Eta gaztaie itten-da noiz asi ziñen o... asko itten zenduen o...?

Gaztaie beti ein det nee denboa guztiin, bai, neguun... esnea saltzeko kome-  
nientzie ibili ezkeo esnea saldu eitte non, baño udaan beti gaztaie ein.

-2. INK.: Eta zuek lenao gaztaie eitten zendueneen, oain emengo Idiazabalgo  
gaztaiak izen bat baauke, lenao izen oi bazeuken o...?

Ori, ori emen nee akuerdo guzin izan da, Iiazaalgo gaztaia.

-1. INK.: Pilarrek eta Angelek esaten'tziguen an, gaztaia, Bizkaialden beintzet,  
ein berri-berri jate men'tzuen, Bergaralden-da re ala al'tzan?

Ez, Bergaran beti esnea saltze non, gauzez jetzitako esnea artu ta kalea jun da  
kaleen esnea saltze non.

-1. INK.: Baño gaztaiik ez...

Ez, nik an pasa nittun urteetan e'nittun eingo ogei gaztai ez. Bai, dana, esnea  
saldu, esnea ondo saltze non da, gaztaie inda baño kontu obeo eoten'tzan esnea sal-  
duta.

-1. INK.: Eta ola, aimbeste urte artzai ta mendin da aittu ta geo, kalen etsipena  
artze al da o?

Igoal igoal, bai.

-1. INK.: Bizimodu onea errexago oitzen da...

Ni gustora ibil nitzen artzai e, total, nei etziin diferentzik, ezta artzai ibiliaati...  
Ordun utzitta urren urten kasi mira euki non.

-1. INK.: Gustoko lekun aldapaik ez 'men da izaten...

Ori egie da e! ori egie da. Geo an e, ardik saldu ta emen zortzi 'at eun o pasa  
nittun da denborea pasau eziñik da, ze... zertan denbora pasau ta... denboa pasau  
ezin eta geo asi nitzen ementxe antxe...

-1. INK.: Gaur eun ze mouzko gaztaia eitten dala iruitzen'tzazu?

Gaztai ona eitten da gaur, gaztaia, leen baño gaztai obea eitten da oaiñ, artzaiek  
e bai eta geo fabrikatan e bai.

-1. INK.: Mediok eta re geio ta...

Bai, mediok eta danak, geo leenao, ni asi nitzenen dana eskukiñ eitten'tzan, orla-  
xe jarri eskukin da... gaztai bat eitten, antxe estutu. Da, ordun baño gaztaia obegoa  
eitten da.

-2. INK.: Esan dezu Bergaran aittu zeala denbora askon, ze itten'tzenun, emen-  
dik autza ardikin jun o ardik beti an eoten'tzien o...?



Ardikiñ emeti, ba, abendun emeti, Santoomas aurren o ola aldeitten non emeti.

–2. INK.: ...zenbat eun?

Emeti Bergaraa? Emeti Bergaraa, beti Matximentaa jute nitzen, da geo Matximentan zortzi bat eun pasau, da geo andi eunez, oñez eamate nittun. Ardie automoillen baño obetogo eote'a bere espazion, bai. Automoille-ta, oaiñ eztao ibil-  
tzeik oñez baño, ganadue bea obetogo eoten da.

–2. INK.: Ta zemat ardi eukitzen'tzittuzun gutxi gorabera?

Ba, or... berreun da berroetamarren bat eo...

#### 2.6.4. Ezkio-Itsasoko hizkera

**Ramon Badiolari jaso, 1988ko ekainean** <sup>211</sup>.

##### **Etxegintza**

INK.: Etxe bat nola asiko zinake zu egiten?

LEK.: Lendabiziko zimentuk etara eta preparatu etxe bat eitteko. Preparatu ta sartu zimentutan arri aundik. Argin famoso orik asten die beeti gora paittea eitten, een peoiakiñ arrik karreatu eta mortero mordo bat e bai. Eta bittarte ortan, argiñek ai dien denboran, beste aoz mordo bat eoten da etxe ortako egurre, zurajerie, egurre preparatzen, eta baita itzaiek e menditik egur trongo karreon.

[...]

Da ola, ba lendabiziko pixue allatu, argiñek allatzen duen [diren] garaien, egurrek pronto eoten die ta, botatzen due soliberie, eta geo aldamiok ipintzen dioe argiñei berriz e gora iyotzeko, tabloi, ool eo daukena, daukenakin. Da ala lendabizikoa. Gero andio abitaziotakoa, ganbara bittarteko abitazio tarte. Oain, argiñek ai die, len beean bezelaxe, beeti gora, paittea itten. Da aotzak e bai, een zerra, aizkora eta dittuen zea trastekiñ, egurrek or, obra termino tamaña ortako neurritan egurrek prepaatzen. Da, jardunen jardun, een tabakoa erre, ta ala re trago bat ardo baldin badue garai artan begi azalak argitzeko! A, ure motille izango litzekek!

---

<sup>211</sup> Koro Seguroiak jaso. LEK.: lekukoa. INK.: inkestatzaila (Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*, 59, 3.14 testua).

### 2.6.5. Legazpiko hizkera

Martin Ugarteri jaso, 1986ko uztailean <sup>212</sup>.

#### Haizeak

INK.: Eta orain, aizeak badakizu toki desberdinetatik etortzen dira. Eta ori nola esaten duzue emengo...?

LEK.: Emen, asi gaitzen berotik. Geienbat ezaunena egoi aizea. Egoia, egoa esaten da, baño egoia geiao, egoi aizea. Gero, ba, naastue izaten da batzutan, gaztela aizea esaten zaio. Arraizea geiao emen orri, suroesteko aize orri, bai.

INK.: Beroa izaten da, ez?

LEK.: Bai, ori re geiena, baño beroa baño zakarra. Ta bultzara aundiko aizea izaten da. Gero urrena besta bat, au oesteti datorren ori, aldaizea esaten diu. Eurie o lanbroa ekartze on ori Galiziti sartzen da, aldaizea. Gero norteko, norte, ifarreko aize orri geienbat txingor aizekin izendatzen deu. Eta esteti datorrenai esaten diu ifarra. Ze esango izut? Emen, eztaib lebante dan o esteti datorrena, euzkin sarrera aldeti o irtera aldeti datorrenai ifarra esaten diu. Gero nappar egoia re esaten diu, egoia nola naastu samarra dan garaien o, ezta beti alderdi bat, bateti etortzen, albo-atxeotik etortzen da fuertegoa, arei nappar egoia esaten zaio. Enaiz bestekin oñ momentun gogoratzen.

[...]

Gero zurrunbillo oitan bat izendatzen deu, askotan artze ittu orbelak eta beetik eta zero aldea, gora, bueltan altxatze ittu biurka. Ai sorgiñ aizea esaten diu.

### 2.6.6. Beasaingo hizkera

Joantxo Agirre, 1919an jaioa, Beasainen, Agerre baserrian. 2000ko irailaren Iean egindako grabazioa <sup>213</sup>.

–Jx.: Or, len e, kanpusantue re nun'tzan, ze paretan'tzan?

Ementxe, pare ontan, etxe auen paren.

–Jx.: Ue, bai, ue ezautu non nik.

Ba, nik aen aurrekoa re ezautu non.

–Jx.: Leku beren o nun?

---

<sup>212</sup> Jose Mari Etxebarriak jaso. LEK.: lekukoa. INK.: inkestatzailea (Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*, 57, 3.12 testua).

<sup>213</sup> Tarteka Joxepa Madariagak (Jx.) hitz egiten du (1963an jaioa, Lazkaon).

Ez, elizen ondon, elizen ondon, gaikalden'tzan. Ue etzan izango... ogei metro koadrao izango zan? Igoal ez...

–Jx.: Ordun oixe bearko zan-da.

Seuru asko sobra ingo zan lekue.

–Jx.: Oixe! Ta gaur eunen beiz...

Vista Alegre dagon lekue, kale Vista Alegre, antxe zan.

–Jx.: Leen, izan e, kaposantuk normalen elizan ondon, aldamenen izaten'tzien...

Geienetan, geienetan, lengo zaarrak, len-len-lengo, danak, eta aen aurretio elizan bertan emen'tzien.

–Jx.: Bai, arrik-eta ikusten die zenbait grabatukin-da.

Sepulturak, bakoitzek bee sepulturea zon, Beasaiñen ezautu non nik ori!

–Jx.: Familik?

Bai, famili batek zeuken, leku baten zeuken, bea eseitta ta kandelea piztu o argizaie piztuta, leku artaa juden'tzan, sepulturea berea zan. Oi ezautu non... Leeno, berriz, enterrau re an itte men'tzuen... gutxi izango zien da!...

–Jx.: Oseake elizan barrutio geo ataria...

Ataria, ta atariti onea, ta gero ya Usurbea... Ta olaxe, ola ya aurki Muumendia emango'ue, oaingoa zeatzen danen, urrungoa Murumendia...

–Jx.: Bueno, baño Murumendia eamatea ezta txarra, Marik zainduz an, earki eongo gea...

Je, je, bai, Marik beekin naiko lan euko'u!

–Jx.: Bai?

Bai, beintzat oain berreun urte o jute men'tzien... da beti illea orrazten aitze men'tzan, urrezko orrazikin. Oaindi e pelukeriaik etzan alleauko autza ta ala sei-ko'o...

–Jx.: Ala segiko'o? Bai, bai, andik Aralar aldea bueltatzekin ezta...

Bai, bai, baño oi askok ein due, gue aitte zanak siñisten'tzon ori, beak ikusi zola, ittaien forman ola jun'tzan, sue zeriola...

–Jx.: Ittaien forman?

Bai, siñistu eitten'tzuen...

–Jx.: Bueno... Murumenditik Anbotoa ta Anbototik Murumendia...

Bai, bai, bai... Oain goragoti juden die ta urrutigoti re bai, egada luzegok eitte'ie bai!

–Jx.: Bai, aik bai, danok ikuste'ittuu ta entzun e bai! (...) Marin goraberak esan dittuu, oik siñistea lana, baño erlijio guztin jainkon goraberak ere zeñek siñistu? Antzekok ez al die?

Bueno, oi, bakoitzek bee jainkoa daukuu, etxen e jainko bat badao, bi ezpaldin badare, etxe bakoitzen...

–Jx.: Bi darenen gaizki ala?

Karo, nola pentsatzen due jakin bearrik, era batea pentsatzen badue...

–Jx.: A, ordun indarra izango due...

Bai, indarra izango due, baño asten badie alkarrekin bestaldea re...

–Jx.: Mokoka asiezkeo, zeñek agoantau an...

### **Goierriko hizkera**

Emendi Izabala itzen batzutan eongo'a baño... Zeama ta oita bai. Emen geiena naarmentzen dana da Ataun da Zeama da, gañeantzen...

–Jx.: Segurarrak eta...

Ba alare!... orik, e, ya nola naastu gean geio ta egunero alkar ikusten dan ta oain geio... Lenoo Zeamatio Atauna jun etzienak mundu ontati asko jungo zien! Bakoitzek perea, an mantentzen zizun... Baiño gaur Zeamakoa onea etortze'a, emengoa Zeama jute'a ta...

–Jx.: Eta muittu bearrik eztao gañea, etxe guztitan dao telebixioa, arek berdintzen gaittu!

Bai, bai... Zeamakoa ezta, zea, gañea...

–Jx.: Ez Zeamakoik eta ez Ataungoik...

Urrutikoa, urrutikoa, ta gañea ulertze ezteuna gañea, ez erdaldunek eta ez, zea, euskaldunek... eta aixe beida, aren muimentu guztietaa...

–Jx.: Begiik ataa bearren...

Bai!

–Jx.: orrek, orrek berdintzen gaittu

Bai, onek berdinduko'o, komunismok baño leeno berdinduko'o, bai! Arek frakasau in'tzola esaten emen due baño, onek ez do frakasau? Beste eran batera ezpaldin bada, era ortatik ezin'tzan, oseake akaberea izango'a...

### **Zapatari etxea**

–Jx.: Orrek emate'o ba, an daren baatza koxkorak-eta...

Bai, or etxea zan, Zapatari, bi bizitzako etxea zan ori...

–Jx.: Ta zapatak iñ o, konpondu itte al'tzittuen o? Ortio etorriko zaio, ba, izena...

Zapatari leku askotan die, neonek ezautze'ittudan erritan, Azpeitin-da...

–Jx.: Donostin ezautu non nik eta oain dala gutxi, iaz eo, bota zuen...

Erri askotan da Zapatari... Zeati da? Zapatai... Zapatai, ue in'tzanen zapataik etzan izango...

–Jx.: Ez?

Ez, ez, seuro!

–Jx.: Ez, zapataik ez, abarkak eo zatak eo...

Abarkak o... olako zean bat izango zan baño orik, lareun urtetik gorako etxeak zien orik... ok danak. Eta oain lareun urte zapatak, je, je, erregek e etzittuen euko! Ordun ardinarrukin da... eitten'tzittuela-da. Eualdi txarra daola, urrutia jun bear'tzanen, kendu ta ankautsik ak besapen artuta. Ori, oaindi denboa asko ez tala pasau da ori! Nik neonek ezautu dittudan personak esaten'tzuen. Morroi jun eta urten ainbeste pare ointakok, eta gastatzen bazien ankautsik jun bear. Ardita jun bear da ardita jun bittarten artu besapen-da...

–Jx.: ...aik zaintzen...

Eta ori bakarrik ez, nik neonek ezautu'et Beasain menditio eliza, meza nausia, oñetako zaar batzukiñ o ankautsik etorri eta besapen ekarri ta jantzi or, oaiñ e, zea, erreton etxea badao, oaindio or dao, or aldatzen'tzuen, ortio eliza jantzita. Oi neonek ezaututa, oi... Etxen e ankautsik ibiliko zien dudaik pe!

–Jx.: Bai, bai, oi gurasoi aittuta nao ni re bai...

Eta nik, gure amona, amona, nik ankautsik ezautu non beti etxen, aek etzon sekula oñetakoik jantzen...Ba, ez tie ainbeste urte, oaindi beintzat eun urte alleau be dao...

–Jx.: Pentsa! Ta oain, nolako egoaldie, ainbeste pare badauzkuu, euzkitakok dozenea, ebitakok beste dozenea...

Igoal dio, mundun ezautu eztan bat gaur Beasaingo plazatio etor deila estazio alde sekula ikusi ez tien oñetako batzukiñ emen, eta zortzi juteako danak baauzkeula! Eztakit nundi, baño baiez dana' jantzita ikusi bai!

–Jx.: Inbidie eta modea!

Ta ori ya, emen dao *culto a la persona* esaten dana! Siñistu eziñekoa. Eta gaztek, esaten due, baño gazten alden erdipurdiko, erdi gazte au, erdi zaar au txarrena da, e! Bere ezaguerak galtze'ittunen kanpokoa bear do... eta orti dator ori.

–Jx.: Nabarmendu naie.

Nabarmendu bai... alakoe, danak beida ote dauzken o berai...

–Jx.: Ara, errue, ordun, gazte botatzen dieu baño...

A, gaztek! gaztek baauke traje ona, berezkoa! Baño ue galtzen danen, jo!...

### 2.6.7. Ataungo hizkera

**Natalia Begiristain Urbiztondo, 1919an jaioa, Ataungo San Gregorion, Itzate baserrian. 2000ko abuztuaren 29an egindako grabazioa<sup>214</sup>.**

...Gaur aldrebes, gaur jeneralen ya naasten gea, baño ordun auzokok auzokiñ ezkondata, ta esaten'tzon oixe zala txarra, ori oso txarra dala, naasketaik'pe... Auzon, auzokokiñ ezkondata. Ta nik uste't oi leenago, klaro, eta ori, denok dakiu, iñor etzalako iñoa ateatzen. Zu rozatzen dezunakiñ, an eroiko zea *tarde o tenprano* eroi bear badezu. Baño leku askotan dabillena, ba, beste aukera bat dau ta gertatu leike milla gauza. Ta zu leku baten bazare beti, pues, antxe, ta leenau nola etzan errit-tati gure garaien iñor ateatzen... oixe, auzokok auzokokiñ... Ta ori esplikau zon motill orrek. Osasunetik, esaten'tzon, garbi ezaun dala, ok oso ondo, esaten'tzon, oso ondo, baño ori... oi ikusi da beti emen jun diela auzokokiñ, auzokokin lotzen, auzokokin lotzen, ta gero, pues, eztala ona ori, beti bat, odol bat izango da ta *mas o menos* bajatzen jungo da.

–Jx.: Ta oi komentatzen nion nik oni biden, gu, gaztego giñenen beintzet, gue adiñekok-eta emen zea juten'tzien, Naparro aldea, juergaa-ta, izugarrizko arremak zeuzkien. Zuen garaien-da bai? Lizarrusti pasatzen zenuen da Etxarri, Lakuntza aldea-ta...?

Ez guren ez, beira, ni naiz emen goiko baserri baten jaiotakoa, eta iru etxetan jaiotako senidek gea, beezti senide giñen. Ta emen esaten'tzaiona Urrutsumendi, or goi goien jaio zien nere senidek, zazpi. Gu, or beeragoko etxe baten, ni eta beste aizpa bat, Donostin ilda dago, or beerago. Gero jun giñen Ergoneko barrioa, baño orrea jun giñen ola, goiko, ttonttorreko baserri etxe batea, ta Lazkaon daon aizpa gaztena, Martina, an jaiotakoa deu. Oi esate'genun “zu ergondarra zea, gu San Gregoriokok”, eta ola, baakizu, nola izaten dan, senidek-eta... eta ola. Eta, ba, gure garaien, ez, ori zan, zuk esaten dezuna, nere amaan-da garaien, esaten'tzuen, izugarria, oso ixtori polittek esaten'tzittun nere amak. Juten'tzien udaran, neska-sallek, Barranka garie'bakitzea, ittaiekin e!, zuk jakingo'zu, ittaiekin garii'bakitzea. Gero, trankak-eta, arie ittea re bai. Baño, sekulako ixtorik gure amak kontatze...

–Jx.: Auzolan bezela airi laguntzea o?

Ez, ez, dirue irabaztea, mantenu eta diru pixket ematen'tzien... nik eztatit sei erreel o ze izaten'tzan, ta ordun dirue izango zan, dana dirue zan ordun...

–Jx.: Ezerrez baño geio.

Ezerrez baño geiago... Or dago, Irurzuna baño leenxeago, erritxo bat, beti an pasatzen, beti amakin... eske, politte da-ta, aber nola don izena?... Ekai. Ekai, ni

---

<sup>214</sup> Tarteka Joxepa Madariagak (Jx.) hitz egiten du (1963an jaioa, Lazkaon).

beti erri txiki orrekiñ. Da gure amak esaten'tzon iande baten mezata jun die... ta or ya gauza orik aztu die, baño mezata jun'tzieren da apaiza asi emen'tzan sermoie itten, erri ortakoa. Eta ordun arropa... ni akordatze naiz ni ere txikitari danen... etzeon ola alanberik-eta arropa jartzeko re, sasitan jartzen'tzieren arropak sekatzeten...

–Jx.: Oañ ijitok e alaxe eukitze'ittue...

Bai, ba, olaxe erritan eoten'tzieren, sasitan, ijitok bezela. Eta apaiz ori asi emen'tzan itz eitten da esan emen'tzon “bai, erri ontan aiñe liño iñun ezta iotzen, erri ontan aiñe atorra zaar sasietan iñun ez dut ikusten”. Ze politta dan, e! Atorra, azpiko arropa, urdun kamixa zatar aundi batzuk zittuen, nik ori ezautu non, amari-ta, gauza gogor batzuk, ze jantzi, ze jantzi! Ta nik ori gogon artuta, ene, izugarrie!

–Jx.: Ta erri ortako apaizek ein'tzon sermoia...

Erri ortako apaizak ein'tzon sermoie. Ta gero... pues, salle, neska-salle, emen-goa, aundie, ta nere ama zan oso indarsue emakumea... Ni aittan antzekoa naiz baño badie beste aizpa batzuk... Ola zan, emakume zabala ta indarsue, oso fuertea. Eta emengo batek, jesus! gero re au nere aman alden berandugo il'tzan, da beti oi esaten'tzidan “ai, zure amak ein'tzigun faenea gau baten!”. “Zer ein'tzizuen ba?”. Baakizu, gaztek beti gazte, ta gauen ak lo eitten'tzuen lekua motillek-eta etortze omen'tzieren, ta leiotik oska ta leio-joka ta... Ze, ze gauza, e! bizitzea da *mas o menos* berdintsue...

–Jx.: Oixe, sesion.

Sesion beti... Gau baten nere amak esan emen'tzieren “bai, zuek txotxoloak zeat-elako etortzen ditun, biar iñor ez jeiki, iñor jeikitzen bazeate txikitu ingo zaizte, ni jeikiko neon bakarrik”. Torri die leioa, ateatzen da nere ama, zabaldu leioa, ta artu bi eskukin, altura aundie da... mutille eskilleretati, leioti beera bota omen'tzon! Geigo ez emen'tzieren etorri.

–Jx.: Oixe, eman'tzieren astindue!

Ze, ze, ze gauzak! ze gauzak! Olako gauzak, olako gauzak, urduko bizitzea ola. Ze aldaketak, e! Andik gurea ze aldaketak eta guretik gure umeetaa, berriz, ze...

–Jx.: Baño urtez urte bai, izugarrie!

### **Auzokoen arteko harremana**

–Jx.: Zea, emen, auzotako arremana nolakoa izan dezue, zuek San Gregoriokok San Martin da Aiekokin-da ze...?

Bueno, bai, izan da beti tirri bat, bai, batez e... Aiekokin gutxigo... Bueno, sango'izut, Aiekok konsiderau dittuu beti Aieko arrazea *como fanfarrones*, beti, ba, indartsu, dantzari, bersolari, Aien ola izan die. Ta emen izan gea mas eztaikit *mas señorito* oso diferentek, ez gea izen ola... oso jende, bai, apala... eta ez orik beze-

lako... irteerak eta ola, dantzak-eta, eta festatan eta... oso diferentek. Eta beeran, San Martiñen oandio, *mas señoritos*, San Martingok oandio ezkutugokok, oso diferentek iru errietan baita re. Ta orikiñ ez da izan olako zea, baño San Martiñekok eta gurekiñ beti ola egon da separaziotxo bat bata besteakiñ... Eztakit, ak geiago, guk geiago, bakoitzak bere orgullo pixka batekiñ, beti izen da, eta gaur ere bai, ori beti.

–Jx.: Nik eskolan, beintzet, ataundarrak izan nittun ikaskide ta oi esate nion, ba, izugarrizko eziñ ikusie, bueno erri guztik, erri desberdiñek beti, ba, Lazkaukok eta Beasaingok euki deun bezela, Ataunen barrun auzo baten da besten arten... Izan e, Lazkao ta Beasain baño urrutigo dare San Martin da San Gregorio, distantzie aundigoa da, ordun, erri desberdiñek izango balie bezelaxe.

Igoal, goal, bai, bai! Gero itz eitteko ere, goal, oso diferentea baita re. Oi kurio-soa da, gero esaten da “a olako lekutan, jo, ze raro itz eitten dan, ze izkuntza diferentea dan”. Nola? emen bertati bertaa izkuntza diferentek die. Aiako izkuntzea gaur ere seitzen da oso diferentea, oso diferentea, olako patxara lento batekiñ itz eitten due, geo... itzeitteko ere re diferentea’a, itz diferente asko erabiltzen dittue eta aldaketa aundi bat, aldaketa aundi bat, bi pauso da eta aldaketa aundi bat da.

–Jx.: Aiekok goal Napparokokin, nappar izketa geio eukiko due?

Ez, nappara ez... Nafarraldekiñ arrastoik ez, nafarrakiñ arrastoik ez. Ortik zoatz Etxarria ta oso diferentea da, Barrankako izkuntzea oso diferentea da. Nik nere aizpa zaarrena Alasukoa zon gizona ta bera euskaldune zan, baño, jolin! zeñek entendittu! Jo, oso diferentea gutzako zan Alasuko izketea, oso diferentea,e, jolin!

**Ignazio Aierbe, Ataun, Ugazaundi baserria (1920an, 80 urte baino gehiago zituen). Joxemiel Barandiaranek 1920an jasoa** <sup>215</sup>.

Plaza’ko elizea jentillek eiñe dala esan oi doia.

Kristauek oaiñ kanposantue dañ tokiñ asi ementzien elizea eitten.

Baño eunez an biltzên zittuên arri guztiñ, geo gaez Jentillbaâtza’ko jentillek bêko erreka ondoa, oaiñ elizea dañ lekua, jexte ementzittuên.

Gau batên Zaindi’ko andra ‘at etxeko leiote beida zelatan jarri ementzan, ziñek gaindi bêra arrik jexte ote zitûn ikusteâti.

Jentill bat ementzeillen lanên idikiñ, eta Zaindi-ondoti zijôla esa’ementzôn ze:

---

<sup>215</sup> Barandiaran, J. M., 1973, *Obras Completas*, 3 liburuki, 184. or., La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.



*Aida zurie, aida gorrie,  
Zelatan dagon andra orri  
Ataiok ezkerreko begie.*

Orduti aurrea andra ue begibakar geatu ementzan.

Geozti danak jentillen erranea makurtu, eta oaiñ daôn lekûn elizea eittea jarri ementzien.

### 2.6.8. Lazkaoko hizkera

**Joxe Madariaga Elizegi, 1915ean jaioa, Lazkaomendiko Maitzaundi base-  
rrian. Joxepa Madariagak 1994an jasoa** <sup>216</sup>.

#### Garai bateko kontuk gogon...

Lazkaumendin bada ermita bat, San Juan Anteportalatinam, ta orko festak izate die maiatzen, Lazkaoko festak pasau ta urrengo jaien. Oain kontatzea noana 1922 edo 1923ko kontue da, ez gaurkoxea!

Aiuntamientuk gue baserrin, Maitzaudiñ eitten zon bazkarie, banketea festatan. Auxe izaten zan ango jan-otordue: aurrena fideo-zopa, zopa sendo-sendoa, gero bar-bantzue, baserrin ildako txerrilukainkekiñ, ondoren xixa-tortillea ta arkume errea; postrea're urtero berdiñe izaten zan: esnekiñ arroza, gañen galletakin. Mieleneko naiko ardo egarrie asetzeko eta kafea, kopa gorrie edo txurie eta purue. Bazkarin prezioa, sei pezta t'erdi bakoitzeko. Gaur diru orrekiñ arnasik'e ez dau arteik...!

Ba gerogo, 1941garren urten jarri nitzen Lazkaoko Udaletxen aguazill-alondigero. Izate'non netzako aiñe lan, bai orratio!: urekiñ'e komerik in bearra izaten giñutzen, Urbaundiko deposittue bakarrik gendun ta oso exkax ibiltzen giñen. Ze'sanik ez eskalekiñ: ude exkax baño eskalek ugari beti Lazkaun! Lanen zebille-nak jornada bajue zon oso; ni lanen asi nitzen urten 3.000 pezta irabazten nittun, CAF-en ere oixe irabazten zan da jenealen bestetan'e bai.

Lanea juteko gauza ez eta geldittutakon, nola jubilazioik etzeon (gerogo jarri zon Francok), zaar asko juten zien zakue artu ta eskea. Beasain ta Billafrankan etzittuen eskalek ametitzen ta danak Lazkaua etortzen zien. Nik keja asko izaten nittun, agu-zill bezela, zorrie ugari ibiltzen omen'tzuen ta...

Zupiriane tabernan eoten zien eskaleok, ude naastutako ardoa eaten (ude naastu ta ondo kobrau!), ta ala, alkatek deittu omen'tzon Felipe au, tabernarie, ta eskalek etxetik despatxatzeko esan omen'tzion. "*Nik dauzkean klienteik obenak oik dittuk, ta nik oik despatxau?; ez oixe!*" Felipek erantzun.

---

<sup>216</sup> Joxepa Madariagak jasoa (*Goierritarra*, 57 zk., 26 or., 1994ko azaroaren 4koa).

Ortik ezer etzeola ikusita jun nitzen Patxiña, Apalatei atzen bordea baitzon eta garo ta orbeletan gaue pasatzea auntzaxe biltzen baitzien eskale guztik. Esan nion ba Patxiñi eskalek despatxau in bear'tziela, erriñ kejak zerelata, eta Patxiñik auxe kontesta zian: "*Borda ori nerea da; falta izan'tzat majiñat gauza baño eskalen aitzakin beste batzuk izan die nei gauzak arrapatu dienak...*"

Olakoxe kontu ta komeritan ibiltzen giñen garai aitan eskalekiñ.

### 2.6.9. Zaldibiako hizkera

**Anttoni Irastortza, 1921ean jaioa, Zaldibian, Nazabalgoikoa baserrian (Lazkaomendi ondoan). 2000ko abuztuaren 29an egindako grabazioa<sup>217</sup>.**

(...)

–Jx.: Bai, baño, indabea-ta, zuek... zuen baatzakok izango zien?

Klaro.

–Jx.: Arto ta indabea, nola eitten zittuzuen?

Arto ta indabea, orik'pai, orik danak etxekok... etxekokin pasatze giñen dana, artoa, garie, babarruna eta gaztañea... ta sagarra.

–Jx.: Saltzeko?

Saltzeko? Ez, bai zea! Ez, ez, saltzeko ez.

–Jx.: Ta geio zer? Oik jaten zittuzuen, saldu ez, ta arrautzak-eta?

Gaztiñea balimazan gaztañea saldu, gaztiña saldu. Ta arrautzak ere, bi dozena baldinbazien etxen ezkendun jaten. Aik artu, ta aikin, aik ze balioko zuen ba? bi peseta dozena o, eztaikit allegetzen'tzien... Ta aik saldu, ta aiki asteako, azukrea o olio-a-*eo* fideoa ta olakoxe gauz'patzuk... aik dirukiñ artzeako juten giñen, aik salduta...

–Jx.: Baño, ta, gaztiña zeñek erosten'tzon ba?

Peria eamanda zakuka gaztiña!

–Jx.: Baño, esa'nai det gaztiña eoziiñek ere... gaztiñarik oain baño ugarigo izango zien...

Ikaragarri gendun guk gaztiña, ta bildu re bai, eta alea eltzen'tzana aletan biltze gendun eta goien gelditzen'tzien morkots orik aga aundi batekin bota eta danak, zea batekin, motxarpea esate gendun, olako zea batekin artu eta dana zakua, saskiak bildu eta atariko zea baten jartze gendun pilla aundie ta negun egoaldi txarra eiten'-

---

<sup>217</sup> Tarteka Joxepa Madariagak (Jx.) hitz egiten du (1963an jaioa, Lazkaon).

tzonen eskuara... belarra biltzeko olakokin jo, alea kendu, morkos... tarte artatio, ta alek apartatu, ta lokatzetan... garbittu eta ure eramaten gendun peria... ta kiloko ogei pezta etzan alleatzen, e! Zakukarak eamate giñuzten zeati asko zan. Oan bat eztao, danak iartu'tzie, baño, ordun garai artan, ikaragarri uen baserrin gaztañea ikaragarri.

–Jx.: Ez al'tzan jendea juten ola, lapurretan?

Bai, besteik ez! buenoo!

–Jx.: Orratik esan det ba, eostea... arritze nitzela...

...Kaleko jendek ikaragarri! obenetik obenea eamaten'tzuen ...gaztiñabiltzallek, obena bilduta eoten'tzien-da!

–Jx.: Baño, izorrau in bear...

Ze erremedio!...

–*Morkotsa zer da?*

Morkotsa, gaztiñea barrun eukitzen do, ba, bizardun zea bat izaten da, ta barrun alea eukitzen do, ba, gaztiñen morkotsa, an itten da gaztiñea...

–Jx.: Morkotsa zabaldu bear dezu gaztiñea artzeko.

Bai, esku guzik an zulatuta, arantzaz dana beteta-ta, an aitze giñen, gue bizimodue ori izan'tzan, gue... zea, ori izan'tzan gue... gaztaroa, ta gure ikasteko zea ori...

–Jx.: Eskolea.

Eskolea oi izan'tzan, eskola sekulan ez jun... ta geo tontak gea gu, klaro. Oaiñ e ala izango baldinbalieke, danak tontak izango ziñeteke... Bi urteako oaiñ asten die umek ikastola eta gu, berriz, beti lanen, beti lanen ta amak bakizu zer esaten'tziun? Nik nai izate non, ezer ez nekin, ba, erderaz-da, ezertxo re ta idazten-da, ezertan ez... Donostia neskame jutea, aber pixkat ikaste non. Ta amari esan da, "Ze uste al dezu, Donostia juten emen baño obeto biziko zeala ala? Ez gaixoa, ez, Donostiñ e txakurrak anka utsez ibiltzen dittun". Eta arek... bost senide giñen eta beste bost izanda re, danak bere ondón lan eiñ ezkeo... Nik eskolan ikasteik eztiñat izan baño, ementxe aurrea ataa niñan, ya esta, gure eskolea, kitto.

–Jx.: Baño zuk kozinan ikasi dezu ta beste batzuk eztue ikasi...

Kozinan ikasi? Ze uste'zu, nik aizpak nittun zaarragok aurretio, ta aak itten'tzuen, oain festatan Zaldibin. Preparatzen'tzan zeati apaize ta... etortze zitzaibun asko, jendea, Donostitik izebak eta etortze zitzaibun. Baño ze bazkarie jartzen'tzan urdurako, buenoo! Baño aak preparatzen'tzuen-da! Nik maie bildu o, maie serbittu, txikiña nitzen, danetan txikiña, da an ibiltzen nitzen ni... Baño, ikasi? ze ikasi non ba?

–Jx.: Mondejuk itten.

Oi... ta oik itten e neroni bakarrik ez baño launtzen, launtzen...

## Jaiotetxea

–Jx.: Lazkaomenditi etorri gea ta ikusi deu Natzal...

A bai, zabal zabal an egongo da ura, etxea. Baño bai toki politten! Ai, ni baserrie izateko, andi beste baserri batea ez nitzen ezkonduko. Ezta pensau re ez, e! Nik izan nittun pretendientek baserriako. Baño ni ez, baserria ni jun? Ue baño toki obeagoon? Eztago ua baño toki obeik iñun!

## Zaldibian

(...) Urtsukorrotakok ez baño orik Urtsubikok'tziela uste non. Baño esan dana, Martiñ ori ni baño bastante urte batzuk zaartxeagoa, eta guk itten giñuzten, zeak... soñue jarri an taberna baten aurren, kamiñon...

–Jx.: Zein tabernatan?

Martiñaotzanen. Oin Zubiondo esaten'tzaion oi, Martiñaotzane. Ta an bertakoxe Iñaxiok jotzen'tzon soñue, jartzen'tzan maie baten, eo zean, gaiñen, ta antxe kamiñon ibiltze giñen, ta illuntzeako, etxea.

–Jx.: Baño ondo pasauta.

Ja, besteik etzeon da, zer, ba?

–Jx.: Ze bear'tzendue?

...Andi Ordizia, Santiotan o olakon baten, gutxitan. Negun bai, negun geixo juten giñen. Oiñez jute giñen eta oiñez etortze giñen e, eta zapatakiñ oittu be, eta juxtu jartze giñuzen... pasatze giñuzten ankatako miñek! babak atata... Gue eskola olaxe izan'tzan.

**Jabier Erauskin, 1932an jaioa, Zaldibian, Urtsuko errota (Urtsukorta) baserrian (Abaltzisketako Larraitz auzotik hurbil). 2000ko abuztuaren 29an egindako grabazioa**<sup>218</sup>.

–Jx.: Festazale latza izandu ziñen zu, ala?

...Bueno, festak gustau izandu zitzaten nei, e!

–Jx.: Oaindio re bai...

Oaindio re, berriz, baita. Ya, baño, xaartu ein gea-ta...

–Jx.: Ez, ez, osasunek launtzen don bitarten eztau eze okerragoik... Aber, zu emen jayotakoa al'tzea?

---

<sup>218</sup> Tarteka Joxepa Madariagak hitz egiten du (1963an jaioa, Lazkaon).

Guk... gaztedenboan izandakoa izan'tzan, ba, nik, amalau-amairu urtetan, ni ju nitzen Donostiko klinika erdeaz ikastea...

–Jx.: Klinika?

Klinikian morroi eon nitzen, da, geoztio, ba, andi etorri ta, bueno, andi etorri eta oetamar urteko kontuk dauzket, pa, danak klabau, grabauta, ta andi aurreragoa, berriz, dana aazte zaiu...

–Jx.: Ba, grabautako oitakon batzuk konta'izu ordun... komerin batzuk...

...Ze komeri, ze izango giñuzten ba... Dirue, beintzat, faltan asteko, zeatako, gaztedenboan aman... Andi aurrera baakizu... Emendi Larraitzea-ta, geo, Benta Berriñ erromeri itte zan-da...

–Jx.: Oi kontaiuzu pixkat, Bentaberriko erromerie ta or...

Larraitza jute giñenen... dantza suelto izate zan ordun, agarrao ittea pekatue izate zan. Da neskalaguntzea batzuk... Amezketeta alde-ta, Abaltzisketa alde-ta. Geo andio 'tortzen giñen, ba,... beste jai batzutan Benta Berria, or erromeri itte zan...

–Jx.: Ze itten'tzan, jaiero, o?

Ba, bolada baten bai, jaiero.

–Jx.: Illuntzealdea...

Oseake, aatsalde guztin erromeri itte zan. Soñue jotze zuen da, Lazkaomendiko neska-ta, mutillak, tortze zien, eta gero, ba, illuntzen udaan amarrak aldea bukatze zon da negun, berriz, illunekin batea, aimaritako etxea...

–Jx.: Trikitixa bai baño bertso giroa re bai, ala?

Ba, berso giroa re izate zan gauez, bixkat... Eta ola iiltze giñen. Geo, Amezketako buelta, festaa re-ta, gu emendio ez giñen asko ateatzen, bizikleta izate zan... Eta geo, ba, lanea re ibiltze giñen, ni neoni emeetzi urtekiñ asi nitze lanea...

–Jx.: Fabrika?

Ieltsero asi giñen. Ta geo soldaduskaa... andio ta soldaduskati torri giñenen, ba, ordun ia pixkat indarra artzen asi giñen, ya, or *el año cincuenta y cinco* eo, *seisen* ortan motoa eosi nun, eta Indarren aitze giñen lanen...

–Jx.: Indarren? Beasaiña eunero?

An, diru pixkat eo zeoze... Ordun erromeritako berriz... Larraitzea jute giñen emendio motokin-da, ortio, Aleitio, Tolosati buelta, zea, atsaldea moton pasatzen genun, ta ortxe...

–Jx.: Ba, motokin Goierni guztie pasauko zendun ordun...

Bai, ordun, koadrilla re ala izate giñen... Dozenerdi 'at laun ibiltzen giñen-da...

–Jx.: Auzotarrak.

Geo, andio, bein bear da neskakiñ asi giñen da, je! ta zortzi urte alde eta geo, oetamar urtera ezkondata...

–Jx.: Indarren e zer, jubilau bittarten?

Bai, an pasauko nittun berroitamar urte.

–Jx.: Ta oaiñ artzai...

Oan, berriz, artzai-ta, basarrin-da, danea. Leen asko mendiin iiltzen giñen gu jaietan, jai eguardi arten jenealen, bagiñuzten or beor batzuk eta jaiie ortio pasatze genun, bai eguardi arten beintzet...

### **Gerra ondoren**

–Jx.: Gose pixkat-eta, gerra ondorengo artan?

Gosea, ba, gosea, ba, nik ze esango'izut, baserrikok giñen ta patatea izate zan etxen, dolarea re bai, artoa re izate zan... ta, oaiñ, oillasko-ta, txuleta-ta... jan fiñ orik... Etxen... gure etxen bi txerri iltze zien, jenealen neun. Bat ilko zan... eguarrri ondoren, eta bestea, ba, martxon atzenean eo ola, biarren txerrii. Udaitzenen, berriz, irua'at ardi iltze zien... ta ezkendun ola... Gosea, gosea... eztakit... xerra eerra, txuleta eer asko etzan jango...

–Jx.: Ze jana beti...?

Aragi eosie re izate zan, ba, gure etxen, e, jaietan... Goseik ez, oaiñ, aseik e ez. Epoka bat izan'tzan, ba... ogi zuri eerra ezautu nun nik... olako ogi aundik... Eta geo izan'tzan bolara bat, ba, artoa baño re... oso... borobil batzuk, oso ogi itsusik izate zien, da geo, ba, etxen e ogie zan, etxen o baserrin ogie zan, garie re izate zan da... Goseik e ezkenuen pasau baño oain bezela jantzi ederrak eta... ez.

### **Saturdiko ermita**

...Geo andi aurrera, ba, meza nagusia jaietan.

–Jx.: Zaldibia kalea ala, zea, Saturdía?

Zaldibia, bai, Saturdikoa gerokoa da... Saturdi ermita bazan baño... Saturdin jaiero meza ematen asi zan, ba, gu soldauskati etorri ta geo... Bestela, urtean beiñ o bi aldiz, erregatibak eta ola izate zien, Saturdin.

–Jx.: Ta festea, zuentzako gertugo Saturdi ta... zein'tzan inportantegoa?

Ez, baño Saturdiñ etzan festaik... nik Saturdin ezautu nun, nik komunioa nik in nunen, ba, amaika urte o banittula, Saturdi ermita arreglatu zan... leen txaoia txiki bat'tzan. Ta geo ue, ermita ue arreglatu zanen, ba nik amaika urte eo izango nittun, eta ordun, ba, ermita arreglatu eta Pazkoa biarrenen inaurazioa ein'tzan, obrena,



Jabier Erauskin, 1932an jaioa, Zaldibian, Urtsuko errota (Urtsukorta) baserrian (Abaltzisketako Larraitz auzotik hurbil). Urtsuko errota baserrian egindako argazkia, 2000ko abuztuaren 29an (Argazkigilea: Joxepa Madariaga).



Antoni Irastortza, 1921ean jaioa, Zaldibian, Nazabalgoikoa baserrian (Lazkaoko Lazkaomendi auzoaren ondoan). Lazkaoko bere etxean egindako argazkia, 2000ko abuztuaren 29an (Argazkilaria: Joxepa Madariaga).



Joantxo Agirre, 1919an jaioa, Beasainen, Agerre baserrian, Agerre baserrian egindako argazkia 2000ko irailaren 1ean (Argazkilaria: Joxepa Madariaga).



Aloña Galarraga, Idiazabal. Idiazabalgo Zirika Irratian egindako argazkia, 2000ko irailaren 1ean (Argazkilaria: Joxepa Madariaga).





Natalia Begiristain Urbiztondo, Ataungo San Gregorion 1919an jaioa, Itzate baserrian. Ataungo San Gregorioko auzo erdian bertako urteko jaietan, 80 urterekin, 2000ko irailaren 2an, larunbata, eguerdian (Argazkilaria: bere semea, Joxemartin Apalategi Begiristain).



Laureano Telleria, 1935ean jaioa, Seguran, kalekoa. Segurako postetxe atarian egindako argazkia, 2001eko urtarrilaren 25ean (Argazkilaria: Joxepa Madariaga).

bukaerean, eta geo San Saturdino eunen, illen, otubren... nobienbren oetabeeratzin izate ala uste'et... Eta ordun izan'tzan festa txarra, beti illune, seittun, eta eualdi trixtea beti ta , ordun erabaki zon Don Modestok... o eztaikit zeñ alkatek... Ta geo ordun kanbiatu zan, ba, erabaki zuen Pazkoa biarrenen festa eittea, garai obea zala eta... Pazkoa biarrenen festa erabaki zan. Amar urte oain, Pazkoan in da geroztio, aurreraotio in'tzan e... Beño erromeri beñ ez Saturdiñ e! urteko festa eun bat ta kito.

–Jx.: Ta Santa Fek?

Santa Fek oaintxe bezalaxe beti ezautu dittugu, oseake modernizatzen eongo'ie baño... kasi oain baño ambiente obea gure garain... Or bazien, e, urte askon etorri zien-da, musiko batzuk, *Los Alegres* esate zien da, oso eta oso... oso ondo eote zan, Santa Fek. Oaintxe ez bezala, e... Ta bizikleta karrerak beti izan izandu zien-da.

–Jx.: Ta mondejue topea...

Mondejue bai, mondejue...

## 2.6.10. Ikaztegietao hizkera

**Rosario eta Mari Karmen Amundarain Esnaola, 1937an eta 1941ean jaiioak hurrenez hurren, Ikaztegietao Bentzuntzibar baserrian (Legorretatik hurbil). 2000ko ekainean egindaoko grabazioa <sup>219</sup>.**

–R.: Amaika erokeri in gitxonan guk e txikitan e... bai ondo pasa gendula guk txikitan!

–M.K.: Guk ez gitxonan diru asko baño jolaserako gogoa re bai, lekue re bai, naiko ume re bai ingurun.

–R.: Gu ze banda ibiltzen giñen...

–M.K.: Ementxe, kulumpion.

–R.: Kulumpion...

–M.K.: Kulumpiok soka zaarretiken erañ aurrena da beti esandako garaien danak salto arren gañea.

–R.: Zíntzilika, arrástaka...

–M.K.: Arrastaka...

–R.: Komerik itten gitxonan guk e!

–M.K.: Alare iñork etzun miñik artzen an. Alare bate miñik iñork etzinan artzen.

---

<sup>219</sup> Ikaztegietao Alaitz Amundarainek egindaoko grabazioa.

–R.: Da geo ibiltzen gitxonan gu baita re, or kalbariotan esaten giñun, or Pion da, zea ortan, gaiñ ortan... an egur pillo bat eoten unan ba.

–M.K.: An Ines, an Ines da Garrotxako, zein unan neska ue, Garrotxako zea ue, neska ue...?

–R.: Joxepa.

–M.K.: Ez, gaztegoa unan Joxepa baño.

–R.: A, lengusuk pariente o zerbait zana?

–M.K.: Etzekiñat, Oriokoa etzakiñat ez ote zan ba... ue emen ibiltze unan beti jolasen da, ba nobiotan ue ibiltze unan ba ni beti ttikina natxon...

–R.: Ue gu baño aundigoa unan.

–M.K.: ...ta aren alabana itten aitzen nitxonan ni beti. Ni oi goatzen naun.

–R.: Ni goatzen naun nik beintzat nobioa bainiñan.

–M.K.: Ni txikie nitxonan da.

–R.: Ni re txikie nitxonan baño nobioa bainiñan! Arropa zaar bat artu nekin aunta ta onuntza paseatzen...

–M.K.: Goikotxeko biren gora.

–R.: Guk earki pasatzen gatxonan e! Takoiak zeakin in, egur borobil batzukin takoiak in ta...

–M.K.: Iltzek...

–R.: ...iltze batzuk sartu bi aldamenetan ta sokakin lotu ta aik takoiak giñuzela ta aikin nobiokin paseatzen.

–M.K.: Zapataik ez gitxonan izaten da takoiak sortu in bar guk.

–R.: Ze juergak itte giñuzten!

–M.K.: Boni Aixtikoa ta, oik etortze'ittunan jolasea.

–R.: Bai ta igerin... udaran.

–M.K.: Igeri re saio earrak itten...

–R.: Eundoko saiok itten. Oaiñ baño ibaie polittagoa ta garbigoa getxekenan da, saio earra in...

–M.K.: Ikasi arte, aurrena, zean, Kaxkardin, bai, Kaxkardin, bai, zean, arkaitze-año ure txikie zeon tokitan ta geo ikasitako garaien profesionalak...

–R.: Zean, aundie zeon lekua, Osifnea.

–M.K.: Osifnea.

–R.: Da an, gañea, leku batzutan esate zienan iru metro o ola eote zala, ez?. Aundie esate zienan.

–M.K.: An zulok e battunan ikuste'anez da an ibiltzen gitxonan Pinan sekretun etzekiñat ondo gorden ez ote zan an.

–R.: Kontue beintzat earki pasatzen gendula, nik askotan... askotan esate zionat nik alabai, guk beintzat ez genula ezer txikitan.

–M.K.: Diru gutxi baño...

–R.: Diru gutxi baño ze ondo pasa genun, nik uste nee alabak baño aurtzaro ohea pasa nula, naiz diruik ez izan, eta beti esaten niñan, panpiñik ez...

–M.K.: Jostailuik ez bate baño geok sortu guk ordea!

–R.: Nik... panpiñak neonek trapuzkoak in, itte gitxonan, politt askoak itte gitxonan eta...

–M.K.: Eta geo mutillek jo ta puskatu itte txixkienan.

–R.: A, oi e'naun goatzen! Mutillek puskatze al'txixkiunan?

–M.K.: Ombre, puskatze zittuela!

–R.: A, oi e'naun gotzen ni...

## 2.6.11. Amezketako hizkera

**Eusebia Galarza Altuna, 1933an jaioa, Amezketako Txikillo baserrian; eta Satur eta Maixux Zabala Galarza, Bedaioko Etxeberri baserrian jaioak, 1961ean eta 1963an, hurrenez hurren<sup>220</sup>. 2000ko abenduaren 16an egindako grabazioa.**

–Eus.: Igoal, peri kontu orrekiñ emendiken e jungo'ie Ordizia, Tolosan...

–Sat.: Baño emen, leen-leendiken e, autobusak-eta zien beti Tolosaldea.

–Eus.: Emengo perie e leen Tolosa zan, e! oain gutxigo itte'ue baño...

–Sat.: Ta oaiñ e bai, ama, emakumek-eta adibidez, konprak ittea noa jute'ie? Autobusetan da Tolosa.

–Eus.: ...peri kontue oaiñ Ordizi geio ibilliko'a, baño emen leen Tolosaa, e.

–Sat.: Baño emendi peria zein jute'a ba?

–Maix.: Oi, ba, jende gutxi...

–Sat.: Tolosaa, Tolosatik dana.

–Eus.: Baño leen Tolosa zan...

---

<sup>220</sup> Aita Bedaiokoa zuten-eta, Satur eta Maixux Bedaion jaio ziren, baina txikitatik bizi izan ziren Amezketan, Ergoiena auzoko Juli-enea baserrian. Maixux gaur egun Anoetan bizi da.

–Sat.: Garai aitan e autobusek e Tolosa zun direzio guztie, zea...

*Umeak-eta ikasteko ta? bueno, Amezketan e badao...*

–Sat.: Amabi urte arte, amasei arte Alegrin eta gero ya Tolosa, geienak.

–Maix.: Baño beti Tolosa aldea geigo Ordizia baño.

–Sat.: Oain ya lanbide eziketan da ze, segun ze aukerak dauden, batzuk Ordizira aste'ie baño batxillergoa ta dena, zea, Tolosa.

*Oi oain, ta leno re ola izate zan?*

–Sat.: Bai, bai, oi leen-leendik...

–Maix.: Bueno Alegia oain DBHkiñ e, bestela dena bertan, eta gero emendiken ya Tolosa, amalau urtekiñ.

–Sat.: Bai, urte baten ola mobida emen, ikastolan da garaia izan'tzenen, sortu zenen, obrak ein'tzienen, baño geo ya emen euskeraz klasek-eta asi zien, ya berri-ro onea eta gero ya Tolosaldea.

–Maix.: Bai, ta gazte jendea re, igoal larunbat gauetan da, ba, Tolosa, beti Tolosa bai.

–Sat.: Erabateko joera ez baño...

–Maix.: Bolara txiki bat igoal, ba, Ordiziñ oaiñ ambientea daola o eztakit zer, baño normalen Tolosa beti.

*Eta festetan da?*

–Maix.: Beti Tolosaldea, bai.

*Ordizia o Zaldibia o Beasaiñea?*

–Maix.: Ez, oik beti gutxigo.

–Sat.: Zaldibin e, Pilarikak eta emen e Ugarten die... eta beti Ugartea. Aurrena Tolosa ingurua, beti, beti.

–Eus.: Tolosakin gañea... o, Ordizikin gañea rekuerto txarra due amagatiken. Konbinazio txarra zeolako, geo berandu etorri...

–Maix.: Baño beti zea geigo, Tolosaldea geio. Bai, bai, ola, gaztek... eske, denak Tolosaldea. Oaiñ e launbat gauetan ateatze'ienak-eta, denak Tolosa, bai, dudik gabe gañea. (...) Ta Abaltzisketako gaztek e bestela beti Tolosaldea ola, normal...

## 2.6.12. Albizturko hizkera

**Joxe Telleria, 1909an jaioa, Albizturko Artutxa baserrian (Urkizu auzotik hurbil). 1998ko uztailearen 30ean egindako grabazioa** <sup>221</sup>.

–Jexux: Emen garie eitte al'tzendue?

Bai... ni amazapi urtekin laien asi nintzen, ni anaietan zaarrena-ta, morroia eote zan, baño morroia e morroia'a-ta, zoi aundie bear izate zan.

–Jexux: Zoie zeri, zei diozue zoie?

Zoie esate zaio, konpaazioa, bateti asi da beatzi eo amar e aittu izandu giñe, artaño.

–Jexux: Zoie orrek, zenbat jende elkartzte ziñeten, e, ze arrapatze zuen, ez? Arrapatze zuen saille, da zenbat ta jende geio...

Geio, bai, geio, illaran... zortzi tajuz aitze giñen, baño andi aurea segizkeo an danak berdin jo bear izate'a, e! An e komerik izate zien, laien komerik...

–Jexux: A, ze jun bear du danak, arrastok, tak, bate-batea?

Batea, bai. Goardia zibillek, emen eztakitt nun izango zien, da arrittuta beida laiariri, da aiña ez baiño... Goardi zibille beak, zeak, an'tzeon soldaduska eo, mili-tarra o, istruzio re izate'u ejerzituk e, da aek ez baño istruzioa aik zeukela laiarin-gati esan omen'tzuen.

–Jexux: Klaro!

Danak berdiñ ebaki! da ola, aiña ez baño laiarriña zala istruzioa!

–Jexux: Oi nola izate zan gañea, leenbizi baserri batekoa eindakon?

Bai, alkarri launduz aitze giñen gu beintzat jeneralen, da oaiñ ez e, zeak, amar, bakizu, ta amar, geienea amar... geiegi bezela... zortzi tajuz aitze giñen. Geo, batzuk, nolako... ze posturatako giñen-da diferentzi aundie zan laiaritan, e. Batzuk sasoi dauke-ta, beste batzuk gaztegek eo, debiltxok e bai ta, zaarrek e bai ta, al'tzan bezela or laien aittu bear izete zan...

–Jexux: Au, berez, klaro, oso goiz asi ta beandu arte, ez? Laiarien lana goorra...

Argiti argia. Goizean illunpetan asita, emen asi da asteako eune zaaltzen aste zun, baño beintzat goizen illunpetan gosaltzea jute giñen, ta illunpetan gosaltzea ta... antxe berriz illuntze arte, ta illuntzen afari legea re bertan itte zan.

–Jexux: Gue amak esate zun, laiarik zeukaten ona zala ondo jate zuela eo, ez? o ondo jan bear'tzala, asko jan bearra bakoitzak... etxe gurtie laiarintzat jana pranta-tzen pasatzen...

---

<sup>221</sup> Joxe Telleria 1998ko udazkenean hil zen. Grabazio honetan Albizturko Jexux Peñagarikanorekin hizketan ari da (Albizturren jaioa, 1959an).

Jenealen ardi'at iltze zan, jenealen bai. Gosaltzeko re giela ta, zeoze izate zun da, afaltzeko re berriz bear izete zan da...

–Jexux: Bazkari re ein bearko zendue, deskantsatu o. Ordun jana gooti jate zendue, laiai eman bai baño... bear e bai!

Bai, ondo jate zan.

### 2.6.13. Belauntzako hizkera

**Maria Arruabarrena, 1927an jaioa, Belauntzako Aranguren baserrian, Egoarre baserrira ezkondua. 1998ko uztailaren 29an egindako grabazioa.**

Nik amairu urteako beiek jeizte nittun, amairu urteako, ta jetzi'ttut irurogetairu urte arte, amairu urtekiñ asita irurogetairu urte arte. Ya damazkit alargun emezortzi urte, ta geatu nitzen... bost seme-alaba ittut eta lau, bai, lau ezkondu ta au... onek emezortzi urte zittunen alargun geatu nitzen emen baserrin, azidenten gizona ilda. Ta ni... esaten zien beste semek-eta, “ama kendu in bear die beiek eta kendu...”. Nik esaten nun, “au ezkondu arte, ez, zuei laundu'izuet ta nik oni re lagunduko diot”. Beti oi esate niin. Ta, “launduko'iozu” esate zien. Da, “ez”. Ta au ezkondu ta bi urtea kendu nittun, irurogetairu urtekin. Jetzi ta, goernatu ta, oi oso goorra da. Eztiot iñoi desiatzen. Alargun basarrin geatzea emakumea, iñoi eztiot desiatzen, ezta iñoi re, oso goorra, oso goorra da oi, e! Ta segi, segi, segi, ementxe, beste, ba, amar urten eo seittu nun. Ta ia au ezkondu ta andik bi urtea eo ola, ba, gripe batekin gaixotu nitzen, da oso gaizki pasatu nun. Ta ordun etorri zan semeai esa nion, “gaur gauz pat esan bear dizut ba”. Da, “zer”, esan'tzian. Da, “ba, beiak kentzea deziittu naiz”. “Bazendun garaie, ama, bazendun garaie etsitzeko”...

*Gañea, zea, beiekin goizen goiz jeiki bear ta...*

Seitan. Ta beiak jetzi ta orrea ateatzen nittun, karretera exkiñea, esnea... Ta aurreneko bost urteen, guk geen bizi guztin ola, gazte gaztetati asita, amairu bat urte ezkeo bai, ni esnekiñ... Oain bezela kotxeik eta etzan, ta jute giñen astoa artuta, astoon jarri dena ta esnekin Tolosaa... Etzeon karreteraik, bireez ta. Ta astokin juten giñen, ta esnea partittu ta berdura saldu ta ori, ezkondu arte guztiin...

Bai, ta esneek etxeti, pizoz piso ibiltze giñen partitzen... Bai, bai, bat punte baten, bestea besteen, partitze giñuzten, igoal portal baten bi-iru ta aurrexearo beste bat eta beste kalen beste bat eta, olaxe ibiltze giñen gure garaien, denak, gu bezala besteek e bai... Bai, dana, dana bai, emendi jende asko jeixte zan, e, eunero esne partitzea, ia etxero, ia baserriero jeixte zien...

*Eta gero, baratza ta...?*

Bai, bai, beti baratza, e! Eta nee jaietetxen, emen ez anbeste, baño nee jaietetxen, fruta asko, asko. Da saasti bezela genun guk geizea, saastie bezela. Eta, antxe, bi aizpa giñen ta bi aizpak eta aitte an aitze giñen. Epokan, bildu ta bildu ta. Geo irik

eukitze zittun aitek eta emate gendun, ba, zea, xextotan jarri, ordun kanpoti bea etzan etortzen, ta xextotan jarri ta, lanbatetan, ba, Tolosaa, merkaia, ta an saltze zun amak. Aurrena geeziak asten die, oin Sanjoan aurren, maietzen o ola asten die, eta geo urdarea, ta saarra, ta gaztañe, garaien garaie, Eoarrrik arte...

Gu ezkiñen iñoa ola, serbitzea ta, iñoa atutzen, basarrin, dana basarrin. Bi aizpa ta anaia, aitte ta ama, basarrin, ta morroya re izate genun, ta antxe.

#### **2.6.14. Tolosako hizkera**

**Antton Lakuntza, 1924an jaioa, Tolosa, Santa Clara kalean (gaur egun kale horrek beste izen bat du; hain zuzen, Igaralde). 1998ko uztailaren 22an egin-dako grabazioa.**

##### **Bergarako lagun batekin hizketan**

...Bergarakua zan da kalekua gaiñeas, bueno, beres, basarrikua zan baño osaba batekin kalia lan eite zun, da kalia bizitze zan. Da bein atea ta ola, kontu kontarri:

–Bai, alakok juañ giñan da, jo, ze ta etxea beranduxeao etorri giñen da, bakizu, lagunakin geatu giñan afaltzen da, a, berakatzopa jan gendun...

–Berakatzopa? Zer da ori?

–Berakatzopa! –esaten'tzidan– Es al dakik zer dan berakatzopa?

–Nik es dakit, ba, zer dan berakatzopa! Erdeaz esan'tzak!

–Etzekiat ordia! Etzekiat, ordia, nola esate'a!

–Baña, se puñeta da berakatzopa?

Ala aittu giñan da axkenian, jode! batxuiya izango, batxuiyopa! Da “berakatzopa” ta ez giñan entenitzen, oi dek tristia e!...

Orduzkeotikan itz ori etzait beiñe aastuko, “berakatzopa”, es, es!

##### **Igaratzako aterpetxea**

Oain pena emate'u, juañ dan astian e pasa nitzan andikan, pena emate'u. Axkenengo bost o sei bider pasa naisenen, iñor es Igaratzako refugiyuan. Leno, Aralar mendiyuan estao karreterarik, baño Guardaetxetikan juañ leike lanroberrian da ala, baño estue usten pasatzen. Oain dala gutxi itxi in zuen, da artzayei bakarrik emate'iote baimena juateko, ta bestela es. Ta, klaro, ara jun bear dunak, gausak, astebete pasatzea ta ala, kuadrillak igual juate zian, sosiedadekuak, es? Baño oaiñ estiote uzten. Leenguan esan'tziaten, bueno, bai, ola, biarresko gausak, butanua da ola, pasatzen uste'iotella. Ta oain dala gutxi re peiodikuak jarri zun, oain dala eun



batzuk, estakit nun, Naparroako festetan, kejatzen besela, baño, bueno, erdi brome-  
tan o ola zan, ontto aundi-aundi bat atera zala ta emengoak ontuak lapurtzea jute'-  
men dia. Aibadiez! Frontera jarriko nieke! Ondartza es iñor etorri, e!...  
Naparrutikan es iñor etorri, e! Eta geo, urdun, esate zuen or, Igaratzako ortan,  
Guardaetxe araxeo dao, frontera bezela da... este, kotxiak pintxatuta, jota ausita, ala  
perretxikuta jute san jendiai, e! oin dala... esta denboa asko...



## 2.7. BIBLIOGRAFIA

- Aizpuru, A., 1991, "Urbia-Oltzeko artzantza", I. Gerriko idazlan-sariketa, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Altuna, P., 1956, "Azpeitiko euskeraz", *Euskera* 1, 169-173.
- \_\_\_\_\_, 1985, "Bonapartek eta Aita Aranak elkarri egin kartak", *FLV* 46, 305-341.
- Altuna Otegi, F., 1995, "Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren arabera eskuzkribua (1778)", *ASJU XXIX-1*, 83-132.
- \_\_\_\_\_, 1995b, "Pleonasma baten historiaz: *debea* 'dute' bezalako adizkien inguruan", *ASJU XXIX-1*, 219-244.
- Alzo, Fr. D. de, 1961, *Estudio sobre el euskera hablado*, Donostia.
- Aranburu, P. J., Bidegain, M., Idiakez, A., Rezola, I., 1994, *Klaudio Otaegi (1836-1890)*, IV. Gerriko ikerlan sariketa, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- \_\_\_\_\_, 1999, *Jose Otxoa Arin (1672-1743)*, gipuzkera literarioaren aitzindari, VIII. Gerriko ikerlan sariketa, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- Aranzadi Zientzia Elkarte, 1983, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa [EAEL I]*, Aranzadi, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa [EAEL II]* Aranzadi, Donostia.
- Arin, J. & Arruabarrena, J., 1989, *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak*, 2 liburuki, Antropologiaren euskal bilduma, Kriseilu, Donostia.
- Arratibel, J., 1980, *Kontu zarrak*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- Azkue, R. M., 1969 [1923], *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1969 [1905-6], *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Azurmendi, X., 1996, *San Adrian eta inguruen Kondaira*, VI. Gerriko Ikerlan Sariketa, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- Azurmendi, J. M., 1996, *Ataungo euskara*, VI. Gerriko Ikerlan Sariketa, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- \_\_\_\_\_, 1998, *Zegamako euskara*, VII. Gerriko Ikerlan Sariketa, Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- Barandiaran, J. M., 1973, *Obras Completas*, 3 liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1983, "Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen erabiltzen ditugunak eta hiztegietan, batez ere Azkuenean, ageri ez diranak", *Iker* 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 189-204.
- Bonaparte, L. L., 1863, *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.

- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- \_\_\_\_\_, (arg.), 1998, *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo.
- Chambers, J. K., & Trudgill, P., 1998, *Dialectology*, 2. arg., Cambridge University Press.
- Elortza, J. & Ormaetxea, J. L., 1995, “EAEI eta Arrasateko hizkera”, *Euskal dialektologiako kongresua*, 479-493, ASJU-ren gehigarriak XXVIII, Donostia.
- Elortza, J., Garro, E., Ormaetxea, J. L., Garai, J. M. & Plazaola, E., 1999, *Arrasateko euskara*, Arrasateko Udala.
- Etxebarria, J. M., 1983, *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*, El Carmen, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, 1988, “Materiales para un Diccionario vasco dialectal”, *Litterae Vasconicae, Euskeraren Iker Atalak* 4, 203-237.
- \_\_\_\_\_, 1992, “Euskalkietan egindako lehenengo grabaketak”, *Iker* 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 607-618.
- Etxebarria, J. M. & Etxebarria, C., 1990, “Diccionario inédito vasco-castellano de J. M. Odriozola y L. L. Bonaparte”, *Hizkuntza eta Literatura* 10, Eusko Ikaskuntza, 15-63.
- Euskaltzaindia, 1984, *Erizkizundi Irukoitza [EI]*, 2 liburuki, Iker 3, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*.
- Fraile, I. & Fraile, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.
- Gaminde, I., 1995, “Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa”, *FLV* 69, 297-321.
- \_\_\_\_\_, 1996, “Lesakako azentu eta intonazioaz”, *FLV* 71, 45-70.
- \_\_\_\_\_, 1996, “Azentu bariazioa Gipuzkoan”, *FLV* 73, 361-385.
- Gaminde, I. & Hualde, J. I., 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* XXIX-1, 175-197.
- Garmendia Larrañaga, J., 1987, *Euskal lexiko etnografikoa*, Donostia, EHU.
- \_\_\_\_\_ & Zabala, F. de, 1970, *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, Donostia.
- Garmendia, J. L., 1911-1912, “Segurako euskeraren ichura berezia”, *Euskal Esnalea* I, 269-271.
- Gómez, R. & Lakarra, J. A. (arg.), 1995, *Euskal dialektologiako kongresua*, ASJU-ren gehigarriak XXVIII, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Gorosabel, P., 1971 [1862], *Diccionario histórico geográfico descriptivo*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1972, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, 2 liburuki. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Holmer, N., 1964, *El idioma vasco hablado*, ASJU-ren gehigarriak V, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Hualde, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, ASJU-ren gehigarriak XLII, EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.

- Hualde, J. I. & Elordieta, G. & Elordieta, A., 1994, *The basque dialect of Lekeitio*, ASJU-ren gehigarriak XXXIV, EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo-Donostia.
- Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- \_\_\_\_\_, 1996, “Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz”, *FLV* 71, 71-86.
- Iñigo, P., Salaberri, P., Zubiri, J. J.; 1995, “-Ki aditz atzizkiaren gainean”, *FLV* 69, 243-295.
- Iparraguirre, I., 1975, *Cinco villas del Alto Goyerri. Cegama-Cerain-Mutiloa-Idiazabal-Ormaiztegi*.
- Irizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 liburuki, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1983, “De(b)e – du(t)e, dai, debie aditz-jokoak gipuzkeraz. Bizkaieraren eragintza”, *Iker* 2, 683-688.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)*, 2 liburuki, Kutxa & Euskaltzaindia, Donostia.
- Iturain, I. & Loidi, L., 1995, *Orioko euskara*, Orioko Udala, Euskara Batzordea.
- Izagirre, K., 1967, “Tolosako euskeraren iztegirako gaiak”, *BAP* XXIII, 157-188.
- \_\_\_\_\_, 1994, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*, ASJU-ren gehigarriak VII, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Knörr, H. & Zuazo, K. (arg.), 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- Labaka, A., Azurza, M. E. & Bereziartua, J. I., 1996, *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*, Lasarte-Oriako Udala.
- Lakarra, J. A., 1983, “Oharrak zenbait arkaismoz”, *ASJU* XVII, 41-68.
- \_\_\_\_\_, 1985, “Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)”, *ASJU* XIX-1, 235-81.
- \_\_\_\_\_, 1986, “Bizkaiera Zaharra euskalkien artean”, *ASJU* XX-3, 639-681.
- \_\_\_\_\_, 1996, “Refranes y Sentencias-en hizkeraz eta bizkaiera zaharraz”, *Refranes y sentencias (1596)*, 147-198, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1969, *Corografía de Guipúzcoa*, Donostia.
- Larrañaga, J., 1998, *Antzuolako hizkera*, Antzuola, Antzuolako Udala.
- Letamendia, J. A. & Sagarzazu, Tx., 1992, “Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)”, *Iker* 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 497-533.
- Lekuona, M., 1956, “Tolosa’ko euskera”, *Libro homenaje a Tolosa*, 167-177.
- Mitxelena, K., 1960, “Guipuzcoano y vasco”, *BAP* XVI, 2. koaderno, 236-238.
- \_\_\_\_\_, 1985 [1961], *Fonética Histórica Vasca [FHV]*, 3. ed., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1985, *Lengua e Historia [LH]*, Paraninfo, Madril.

- \_\_\_\_\_, 1987, *Palabras y textos* [PT], EHU, Leioa.
- \_\_\_\_\_, 1988, *Sobre historia de la lengua vasca* [SHLV], 2 liburuki, ASJU-ren gehigarriak XX, Donostia.
- Mujika, L. M., 1989, *Euskal toponimiako materialeak. Gipuzkoako hegoaldea*, III. alea, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mujika, S., 1907, “Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en los subdialectos septentrional y meridional de Guipuzcoa”, *RIEV* I, 56-58.
- Olano, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, EHU, Leioa.
- Oraitz, 1933, “Algunas particularidades del Euzkera en el Goyerri guipuzkoano”, *Euzkerea* II 418-419, XXII 433-435.
- Ormaetxea, N., 1926, 1927, “Gipuzkoak Erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera* VII 73-112, VIII 3-30.
- Otaegi, B., 1993, *Felipe Agustin Otaegui Beizamako Erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Beizamako Udala, Donostia.
- Pagola, R. M.; 1995, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, Deiker eta Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
- Peña Santiago, L., 1985, *Aizkorri montaña vasca. Travesías y cumbres a través de una geografía humanizada*, Elkar, Donostia.
- Ruiz de Larrínaga, J. (arg.), 1954, “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *ASJU* I 35-106.
- Sagarzazu, Tx., 1995, “Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak: Larramendi, Bonaparte, Azkue”, *ASJU*-ren gehigarriak XXVIII, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 589-631.
- Sarasola, I., 1982, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* XX-1, 203-216.
- Ugarte Azurmendi, M., 1993, *Legazpi barrutiko hitzen bilduma*.
- Ugarte, J. L., 1995, “Donde murió el oso”, *ASJU* XXIX-2, 707-711.
- UEU, 1987, *Euskal dialektologiaren hastapenak*, 2. ed., Iruñea.
- Villasante, L., 1968, “Oñatiko euskera”, *Egan* XXVII, 80-94.
- Zavala, A. 1993, *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*, Auspoaren sail nagusia 5, Auspoa Liburutegia, Tolosa.
- Zuazo, K., 1988, “Bizkaieraren ezaugarriez gehiago”, *ASJU* XXII-2, 367-377.
- \_\_\_\_\_, 1988b, “El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino gramatikaren eka- rriez”, *ASJU* XXII-2, 547-568.
- \_\_\_\_\_, 1988c, *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia, EHU, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1989, “Euskara ote da bizkaiera?”, *RIEV* XXXIV, 75-90.
- \_\_\_\_\_, 1989b, “Arabako euskara”, *ASJU* XXIII-1, 3-48.
- \_\_\_\_\_, 1995, “Bonapartez geroztiko euskal dialektologia”, in *Euskal dialektologia- ko kongresua*, *ASJU*-ren gehigarriak XXVIII, Donostia, 13-43.

- \_\_\_\_\_, 1995b, “Burundako hizkera”, in *Euskal dialektologiako kongresua*, ASJU-ren gehigarriak, XXVIII, Donostia, 297-364.
- \_\_\_\_\_, 1997, “Euskara Araban”, *Uztaro* 21, 79-95.
- \_\_\_\_\_, 1997b, “Oiarzungo hizkeraren kokagunea”, *FLV* 76, 397-425.
- \_\_\_\_\_, 1998, “Nafarroako euskal hizkerak”, *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1998b, “Betolazaren euskara”, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko legebiltzarra, Gasteiz, 1998.
- \_\_\_\_\_, 1998c, “Arabako euskara”, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 127-189.
- \_\_\_\_\_, 1998d, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78 191-233.
- \_\_\_\_\_, 1999, *Arabako euskararen kokagunea*, *FLV* 80, 165-184.
- \_\_\_\_\_, 1999b, *Arabarrak euskararen herrian*, Arabera, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, 1999c, *Deba ibarreko euskeria*, Antzuolako, Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eibarko, Elgoibarko, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako, Oñatiko eta Soralezeko udalak, Oñati.
- \_\_\_\_\_, 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania.
- Zubiri, J. J. & Perurena, P.; 1999, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.



**IRENE HURTADO MENDIETA**

Sodupen jaioa, 1970-11-12an.

Euskal Filologiako lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean.

Euskal Linguistika eta Filologiako doktorego-ikastaroak eginak Euskal Herriko Unibertsitatean.

Itzulpengintzan jarduten du egun.